

# EMAKUMEEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO AUZITEGIA

VIENA + 20. EUSKALHERRIA, 2013



## Argitaratua:



[www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org)

### BIZKAIA

Mugarik Gabe  
Vicente Garamendi Taldea 5, lonja - 48006 Bilbo  
94.415.43.07 | [bilbao@mugarikgabe.org](mailto:bilbao@mugarikgabe.org)

### GIPUZKOA

Mugarik Gabe  
Katalina Elizegi 46, baxua 3. atea - 20009 Donostia  
943.445.977 | [gipuzkoa@mugarikgabe.org](mailto:gipuzkoa@mugarikgabe.org)

### ARABA

Mugarik Gabe  
"Itziar" elkartearen etxea Zalburu enparantza z/g  
01003 Vitoria-Gasteiz  
945.277.385 | [araba@mugarikgabe.org](mailto:araba@mugarikgabe.org)

## Finantziatua:



Emakumeen Eskubideen Viena+20, Euskalherria 2013 Nazioarteko Auzitegia burutzeko prozesua eta argitalpen hau posible izan dira Lankidetzarako Euskal Agentziaren, Donostiako Udalaren eta Bizkaiko foru Aldundiaren babesari esker. Diru publikoaren babesik gabe prozesu hau askoz zailagoa izango zen. Finantziazio publikoa emakumeen giza eskubideak betetzeko erreminta izaten jarrai dezan apustu egin dezagun.

2013ko abendua

**Imprimatzea:** Gestingraf

**Diseinua:** Patirke Belaza

**Maketazioa:** Binari Comunicación

**Lege-gordailua:** BI-69-2014



### Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala (CC BY-NC-ND 4.0)

Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Edukia libreki zabaltzea, kopiatzea eta birbanatzea baimentzen da edozein bitarteko edo formatutan, beti ere, egiletasuna aitortzen bada. Ezin da erabili xede komertzialarekin, nahastu edo eraldatu egiten bada edo materiala oinarri hartuta sortu egiten bada, ezin da eraldatutako materialik hedatu, ezin da lizentziak baimentzen duena legalki burutzea mugatzen duen neurri teknologikorik edo legezko akaberarik erabili.

**Lizentzia osatua:** [http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es\\_ES](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES)

# Aurkibidea

---

<b>Sarrera .....</b>	<b>5</b>
<b>Eskerrak.....</b>	<b>7</b>
<b>Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia .....</b>	<b>10</b>
<b>Abortatzeko eskubidea .....</b>	<b>25</b>
Adituaren txostena: Justa Montero .....	26
Auzitegiari aurkeztutako kasuen laburpen-fitxak .....	55
Fiskalaren txostena: Marta Dolado .....	59
<b>Emakumeek indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea.....</b>	<b>77</b>
Adituaren txostena: Rita Segato eta Marlene Libardone .....	78
Auzitegiari aurkeztutako kasuen laburpen-fitxak .....	111
Fiskalaren txostena: María Naredo .....	119
<b>Emakumeek bizi modu duina izateko eskubidea .....</b>	<b>139</b>
Adituaren txostena: Mertxe Larrañaga .....	140
Auzitegiari aurkeztutako kasuen laburpen-fitxak .....	168
Fiskalaren txostena: Begoña Zabala .....	176
<b>Nazioarteko epaimahaiaren ebazpena .....</b>	<b>195</b>
<b>Parte hartzaileak .....</b>	<b>202</b>







## **EMAKUMEEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO AUZITEGIA. VIENA +20, EUSKALHERRIA 2013**

---

2013ko ekainaren 7 eta 8an, Bilbon, "Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Viena +20, Euskalherria 2013" burutu zen.

Auzitegi sinboliko hau elkarte eta gizarte-mugimendu desberdinen ahalegin bateratua izan zen. Desberdintasunetan oinarritutako indarkeria matxistak ikusgarri egin zituen, emakumeen giza-eskubideen urraketa gisa, Euskal Herriko zein Espainiar Estatuko edo Latindar Amerikako testigantzak aurkeztuz; sistema politiko eta judizialak salatu zituen maskulinitatean oinarritutako legeen definizio eta aplikazioan eta ekintza politiko baten bitartez emakumeen sendotze kolektiboari lagundu zion.

Auzitegi hau urteetako lanaren emaitza izan zen, hasierako ideia Mugarik Gabe erakundearen bilera batean sortu zenetik bere gauzatzera arte bi urte baino gehiago pasatu ziren. Urte horietan beste esperientzia batzuetatik ikasi genuen, beste erakunde batzuen-gandik, eta Auzitegia sortzea ahalbidetu zuen sare bat burutzen hasi ginen. Horretan, Euskal Herriko, Espainiar Estatuko eta Latindar Amerikako herrialde batzuetako 24 erakunde<sup>1</sup> feminista baino gehiagok, gizarte erakundeek, giza-eskubideen erakundeek, eragile sindikalek parte hartu zuten.

### **Eta zergatik Viena +20?**

1993an Nazio Batuek Vienan antolatutako Giza Eskubideen Munduko Konferentziaren harira mugimendu feministak bultzatutako Auzitegi bat ospatu zen. Hogeita hamahiru emakumeren ahots eta testigantzen bitartez haien giza-eskubideen bortxaketa ugari dokumentatu ziren, hainbat egilek burututakoak (bikotekideek, senideek, nagusiek, medikuek, poliziek, militarrek). Era horretan, egiturazko doikuntza politikek eta lege zehatzek (abortuarena, ezkontzarena, giza-laguntzarena) euren giza-eskubideak nola higatu dituzten erakutsi zuten. Estatuak "babestutako" genero indarkeriaren era hauek jakinarazi zituzten, Estatuaren arduren birdefinizioa eramanez eta testuinguru pribatuan eta eragile ez estatalek burututako giza-eskubideen urraketak alderatuta izan zitezkeelarik.

Vienako Konferentziako Adierazpenak emakumeen kontrako indarkeria giza-eskubideen urraketa bat dela, eta bere ezabapenak -bizitza publiko zein pribatuan- demokraziarako eta giza-bakerako berebiziko garrantzia duela aitortzea lortu zen.

---

<sup>1</sup> Feministalde, Hegoa, Bilgune Feminista, Plazandreak, Medicus Mundi Gipuzkoa, Grupo feminista de desazkundea, Mujeres del Mundo, Amnistia Internacional, Paz con Dignidad-OMAL, Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea, ELA, ESK, ESTE-EILAS, LAB, CCOO, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, Emakumeen Mundu Martxa, CEAR Euskadi, Setem Hego Haizea, Pikara Magazine, Mugarik Gabe Nafarroa, Emakume Internazionalistak, Cooperacció, Mugarik Gabe.



Horregatik merezi du bertan herritarren mobilizazioari esker, gizarte mugimenduei esker eta bereziki emakume eta feministei esker giza-eskubideen eraikuntzan erdietsitako lorpenak ospatzea. Baita emakumeen eskubideen defentsan emandako aurrerapausoak gogoratzea ere.

Viena +20 Auzitegi bat ospatzeak indarkeria matxistaren salaketa eskariak mundu mailan ematen direla salatzea ere suposatzen du. Indarkeria hau bultzatzen duten egiturazko arrazoi sistematiakoak eta berau adierazteko modu anitzek indarrean jarraitzen dute. Bere

garaian sentsibilizazio foroak irekitzeko eta sakontzeko, lortutako eskubideen urraketen aurreko zigorgabetasuna erakusteko eta emakumeen eskubideak bermatuko dituzten eta eskubideen onarpena zabaldu eta hobetuko duten neurri gehiago eta hobe salaketa eta eskakizun lanari batzen zaion ekimen bat garatzen du. Egitea garrantzitsua da eskubide berdintasunaren eta indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidearen onarpen formal egon arren, baliabideak oraindik ere ez direlako nahikoak emakumeen eskubide guztien benetako gozamena bermatzeko. Nahiz eta aurrerapen juridikoak egon, arrakala handia dago emakumeen giza eskubideen onarpen formal eta horiek disfrutatzeke aukeraren artean.

Esan dugun bezala, "Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Viena +20, Euskalherria 2013ren" garapenerako 23 erakunde baino gehiago konprometitu ziren. Bereauek, hilabeteetako lana eginez euren sektore eta jakintzatik ekarpenak egin zituzten Auzitegiaren eraikitzerako. Erakunde hauetaz gain, maila pertsonalean ere hainbat emakume inplikaturik egon ziren; hauek ere, euren ezagutzak jakitera eman zituzten, haietako asko auzitegia osatzen zuten figuraren batean parte hartuz, hala nola fiskalak, adituak, epaimahaiaren parte eginez, behaketa, ohorezko gonbidatuak eta abar. Bereziki azpimarratu nahi dugu bere testigantzak ematea onartu zuten zortzi emakumeen balentria, eta horretarako babesa eman zieten erakundeei eskerrak eman.

Parte hartze hau guztia egon izan ez balitz, Auzitegia ez zatekeen posible izango; gogo handi hori gabe, inplikaziorik gabe ere Auzitegia beste bat izango zen. Parte hartzaileetako batek esan zuen bezala, auzitegia justizia patriarkaleko sistema hankaz gora jartzeko eta hausteko ariketa polita izan zen, utopia sentiarazi zuen konplizitatezko espazio feminista bat, auzitegi bat zeinetan emakume salatzaileak, fiskalek, adituek, epaileek... benetan justizia eta ordaina bilatu zuten.

Liburu honek "Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Viena +20, Euskalherria 2013" osatu zuen dokumentazio guztia biltzen du: adituek eta fiskalek ematen duten dokumentazioa, testigantza eman zuten emakumeen kasuak, epaimahaiak eman zuten erresoluzioa eta emakumeen eskubideen defentsan kolektibo guztiek abiapuntu berdina edukitzea ahalbidetu zuten aurretiko dokumentuak.

Material honek indarkeria matxistaren dibertsitatearen ikusgarritasunean eragitea ere espero dugu, baita esparru desberdinetatik emakumeen giza eskubideen defentsan justizia, ordaina eta ez-errepikapenaren bilaketarako hausnartzen eta mobilizatzen jarraitzeke beharrean ere.

**Mugarik Gabe**





# ESKERRAK



Bi urte baino gehiagoko prestaketa lana duen prozesu honek eskerrak emateko zerrenda luzea uzten digu. Esperientzia honek Mugarik Gabe erakundearentzat ikasketa prozesu luzea suposatu du, partekatutako gogoia eta buruhausteren bat edo beste, guztion artean gainditzen jakin genuena.

Lehendabizi eskerrak eman gure inspirazioa izan ziren Guatemala eta Kolonbiako gure kideei; haiengandik haien Auzitegiei buruz asko ikasi genuen: 2012eko Guatemalako Gatazka armatuan zehar emakumeen kontrako indarkeria sexualaren aurkako Kontzientzia Auzitegia eta 2011ko Kolonbiako Gatazka armatuan zehar indarkeria sexualaren aurkako Auzitegia.

Eskerrak euren jakintzak gurekin konpartitutako kideei eta 2012an burutu genuen *Esperientzien Trukaketak: guztion borrokatik ikasiz* ekimenean zehar Auzitegiaren oinarriak jartzen lagundu zigutenei.

1993an Vienako esperientziak suposatu zuena azaldu zigutenei eta gure Auzitegiarekin duen loturan ekarpena egin zutenei.

Mugarik Gabe erakundearen eguneroko lanari batu zitzaizkion emakume guztiei, beharrezko gauza guztietan lagunduz eta Auzitegiaren prestaketan inplikatu.

Bere jakintza artistiko eta sortzaileekin Auzitegiari beste ikuspegi bat gehitu zioten emakumei.

Bereziki eskertu nahi diegu euren ausardia eta adorea Auzitegian testigantza eman zuten emakumei. Haien testigantza oso baliagarria izan da isilduak, naturalizatuak, zalantzan jarriak diren eta egunerokoan ematen diren emakumeen eskubideen urraketak ikustarazteko. Eskerrik asko hainbat eta hainbat indarkeria salatzen dituen ahotsa izateagatik, hainbeste emakumeren bozgorailua izateagatik.

Emakumeen Eskubideen Auzitegi bat antolatzeko abentura honetan sartu ziren kolektiboei, bileretara joan ziren emakume guztiei, zortzi kasuetako dokumentazioan lagundu zutenei, distantziatik ekarpenak egiteko deitu edo idazten zigutenei, zalantzan jartzen gintuztenak eta horrela proposamena hobearazten zutenei, gogoia izanik ere denbora arazoak edota bestelako konpromisoak zirela eta ezin zutenei. Aurretik ere esan dugun bezala, horiek guztiak gabe, auzitegia ez zen izan zena izango.

Esker guztia edozein arlotan auzitegian parte hartutako guztiei: adituei, fiskalei, epaimahaiari, ikuskatzaileei... Parte hartzeaz gain jakintzak eman zituztelako eta denbora, zalantzak eta abar bezalako oztopoak ziurtasunez gainditzen jakin zutelako. Haiek Auzitegian sinistu gabe ez zen posible izango eta emakumeen giza-eskubideak bermatuko dituen justizia bat posiblea eta ezinbestekoa dela erakutsi ziguten.

Ohorezko gonbidatuei euren presentzia eskertzea, emakumeen eskubideak errealitate eraginkorra izan daitezen egunerokotasunean borrokan dihardutenak. Auzitegi honek karga sinbolikoa zuen, ez soilik aurkeztutako kasuentzako, munduko hainbat emakumeren kasuentzako baizik, eta erakunde hauen guztien lana aitortu gura genuen.






Eta azkenik, Auzitegia jarraitu zuten pertsona orori, izan bertan egonda edo internet bidez. Esandako guztia hainbeste pertsonak jarraitu zutela jakiteak zentzua ematen dio ekimen honetan egindako esfortzu guztiari eta aurreikuspeni, eta jarraitzera animatzen gaitu.

Zuetako guztiei eta bakoitzari eskerrik asko; plazer handia da zuekin bide hau konpartitzea

**Mugarik Gabe**



# EMAKUMEEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO AUZITEGIA



## GIZA ESKUBIDEAK, EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

---

Olympes de Gouges, "Emakumearen eta emakumezko herritarraren eskubideen adierazpena" zeritzonarekin, eta Mary Wollstonecraft, "Emakumeen eskubideen aldarrikapena" delakoaren egilea, historiako bi erreferentzia dira emakumeen eskubideak eraikitze borrokan. Biak borrokatzen ziren, funtsean, XVIII. mendeko estatu-nazio berrietan ozta eratzen ari ziren eskubide zibil eta politiko batzuen alde. Ordudanik, eta denboran zehar, hainbat kontzeptu eta eskubide formulatuz eta aberastuz joango ziren, orain mundu-mailan giza eskubidetzat ezagutzen dena eraikitze .

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (1948) aditzera ematen du bere edukia gizaki guztiei aplikatzen zaiela, baldintzarik gabe: inor bereizi gabe arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza edo beste inolako gorabehera dela eta. Hala eta guztiz ere, emakumeen giza eskubideen urraketa ugari egiten dute oraindik ere munduko eskualde guztietako hainbat gizartek eta estatuk; gainera, urraketa horiek aintzak hartu gabe egoten dira, baita legitimatuta ere. Horren adibide argia da emakumeen aurkako indarkeria; duela gutxi samar arte, ez zen aitortzen giza eskubideen urraketatzat, eta are gutxiago nazioarteko komunitatearen arreta behar duen gaitzat.

Nazio Batuen barruan, eta Adierazpen Unibertsalaz geroztik (1948), hainbat tresna (itunak, hitzarmenak eta konbentzioak kasu) eta mekanismo (politika publikoak eta programak, esaterako) sortu dira, adierazpenean bertan ezarririko printzipioak gorputz daitezkeen eskubide zehatz gisa, eskubideok gauzatzea eta erabiltzea ahalbidetzeko gobernuen neurri gisa, abian jartzeko mekanismo edo neurri gisa, bai eta estatuek giza eskubideen arloko legezko betebeharrak gauzatzeko egiten dituzten ahaleginen gainean kontu emateko neurri gisa. Tresna eta mekanismo horiek giza eskubideak sustatzeko eta babesteko sistema bat eratzen dute, nazioarteko, eskualdeko eta estatuko irispidea duena, eta aldatu eta egokitu egiten dena gizarteari erantzuten saiatuz.

Giza eskubideak pertsona guztien oinarrizko beharrezan aitormenean oinarritzen dira, legezko terminoetan sarturik egon zein ez (Facio, 1997b: 350); hau da, politikoak, zibilak, ekonomikoak, lan-arlokoak, gizarte-arlokoak, kulturalak, sexualak, ekologikoak, eta abar izanik ere, pertsonak halakotzat garatzeko estali behar dituzten giza beharrezanetan. Horrexegatik dira integralak giza eskubideak, gizarteak bizitza duinerako funtsezkotzat onartzen dituen oinarrizko beharrezan batzuei erantzuten baitiete, eta onarpen hori gizartearen eta historiaren arloko baldintzen arabera da.

Emakumeen eta feminismoaren mugimendutik, bai eta beste gizarte-talde batzuetatik ere, kritika asko egin zaizkie giza eskubideei, haien unibertsaltasun-falta nabarmen-durik. XX. mendeko 80ko eta 90ko hamarkadetan zehar, mundu-mailako mugimendu

bat sortu zen emakumeen giza eskubideen alde. Mugimendu horrek orduko ikusmolde estuen azpian zeuden generoko aurreiritziak eta estereotipoak zalantzan jarri zituen, eta salatu zuen emakumeen beharrianak eta interesak –eta, oro har, genero-ikuspegi– ikusezinak zirela eskubideak kontzeptualizatzeko eta defendatzeko ikuspuntu nagusietan:

*Emakumea kontuan hartu behar izan denean, zerrrenda bi sexuen beharrianak, interesak eta ametsak oinarri hartuta kontzeptualizatu ordez, une horretatik ezartzen da, besterik gabe, ordudanik emakumeek gizonezkoen bizipenean oinarriturik pentsatu ziren eskubide berak izango dituztela, axolarik izan gabe emakumeek eskubide horiek definitzen kontzeptualizatzen eta hautatzen parte hartu ez dutela, eta are axola gutxiago izanik emakumezkoen bizipena gizonezkoen bizipenaren bestelakoa eta desberdina dela (Facio, 1997a).*

Hizkuntza androzentrikoa ez ezik, giza bizitzarako oinarritzotzat jotzen diren beharriaren, bete behar diren beharriaren, eta giza eskubideen hausturatzat jotzen denaren definizioa ere kritikatu zen.

Mugimendu horrek 1991. urtean indar hartu zuen, “Emakumeen eskubideak giza eskubideak dira” mundu-mailako kanpainarekin. Hainbat forotan, giza eskubideen teoriaren eta praktikaren arteko aldeak zeudela mahai gainean jarri zen: Vienako Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzia (1993), Populazioari eta Garapenari buruzko Konferentzia (Kairo, 1994), Gizarte Garapenari buruzko Munduko Goi Bileran (Kopenhage, 1995), eta Emakumei buruzko Laugarren Mundu Konferentzia (Beijing, 1995). Halakoetan, behin eta berriz agertu zen emakumeen eskubideak eta bizitzak bigarren mailara baztertu izan direla, gizonen eskubide eta bizitzen aldean. “Emakumeen eskubideak giza eskubideak” direla nabarmentzean, aldarrikatzen da emakumeen aurkako eskubide-urraketak eta bazterkeria errealitate ikaragarria direla, giza eskubideen beste urraketa batzuek eskatzen dituztenen pareko premiazko konponbideak eskatzen dituen.

Aurrera egin zen 1990ko hamarkadan, orobat, *emakume* ideia zalantzan jartzen, Mendebaldeko eta larru zuriko emakumeen esperientzian oinarrituriko ideia unibertsal gisa, ikuspegi pluralagoa eraikitze aldera, emakumeen artean berezitasunak badaudela onartzea ahalbidetzeko modukoa. -

Aurrerapen horiez gain, indarkeriari dagokionez, “eztabaida emankor bat piztu zen, Vienako (1993) eta Beijingeko (1995) Ekintza Plataforman sartu zena. Han, pixkanaka, indarkeriaren berezko agerpenak aitortzen dituen ikuspuntu bat hartuz joan zen, bai eta tradizio kultural eta erlijio-sinesmen jakin batzuekin duen lotura ere; halaber, indarkeriaren aurrean egoera bereziki ahula izaten duten zenbait emakume-talde ikusgai bihurtu zituzten” (Hurtado eta Frías, 2011: 112).

Era berean, argi utziz joan zen “berdintasuna ez dela mugatzen arlo formalera bakarrik, baizik eta eskubideen, arduren eta aukeren aldetiko berdintasuna ere barne hartzen duela. Bestela esanda, egun berdintasun substantiboa deritzonaz hitz egiten hasten zen” (Facio, 2011: 9).

Margaret Schulerrek giza eskubideen “generizazioa” deitzen dion prozesuak (1995) – oraindik ere abian– ikuspegi berriak eskaini ditu giza eskubideen gainean, eta eskubideok berriz interpretatzea erraztu du, bai eta emakumeen berezko eskubideak lantzea ere.

Ez dira falta izan horren inguruko eztabaidak; izan ere, nabarmendu bada ere “giza eskubideen hasierako formulazioa gizonezkoen ikuspegitik taxutu zela eta, horrenbestez, geroago beste interpretazio batzuk garatu behar izan direla haien aplikazioa emakumeen errealitatera heda dadin”, hori egitean eta, areago, emakumeen eskubideetan espezializaturiko giza eskubide-itunak sor daitezzen bultzatzean –hala nola Emakumeen aurkako Bazterkeria Mota Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa edo Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Ezabatzeko Amerika arteko Konbentzioa– iritzi zenbaiten arabera “nazioarteko tresnetan –Giza Eskubideei buruzko Ameriketako Konbentzioan eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean kasu– jasotako giza eskubideen interpretazio murrizgarria eragin da”; interpretazio horrek ez du zailtzen jartzen, gainera, “*itun klasiko*en neutraltasun-itxura faltua, eta indartu egiten du emakumeen giza eskubideak azken horietatik kanpo daudelako ideia” (Ramírez eta Llaja, 2011: 11). Horrez gain, itun espezializatuak izaki, estatuek badute erreserbak izateko aukera, hots, halako itunekin bat ez egiteko, eta, gainera, eskubide eta itun berezi horien inguruko aurrerapenak gainbegiratzeko ardura duten organoek ez dituzte beste batzuen eskumen berak (*idem*).

Hala eta guztiz ere, emakumeen giza eskubideen eraikuntzak aurrera jarraitzen du. Diskurtso feminista giza eskubideen diskurtsoarekin uztartzea eta generoan oinarrituriko rolek eta estereotipoek emakumeen aurkako indarkeria elikatzen eta legitimatzen duten erak identifikatzea (Hurtado eta Frías, 2011: 113) funtsezkoak izan dira giza eskubideen arteko erlazioa ulertzeko, estatuek eskubideok urra daitezzen galarazteko eta urraketak ikertu eta zigortzeko dituzten betebeharrak.

Milurteko berri honen hasieran, Emakumeen Mundu Martxarako nazioarteko sarea osatzen duten emakumeek beren buruari emakumeen giza eskubideekin zer gertatzen ari zen aztertzea finkatu zioten helburutzat. Izadiarentzako Emakumeen Mundu Gutuna da lan horren emaitza. Prozesu luze baten ondorioa da, hirurogei bat herrialdeetako hainbat emakume-talde eta talde feministarekin kontsultak, trukeak eta eztabaidak egin eta gerokoa, eta 31 baieztapenen bitartez berdintasunean, askatasunean eta bakean oinarritutako mundu bat eraikitzeke funtsezko eta oinarritzko printzipioak azaltzen dira bertan.

Euskal Herriko mugimendu feministak nazioarteko gutun hori bere errealitatera egokitu zuen, nazioarteko aldarrikapenei Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Karta (2007) ere erantsiz. Azken horretan aditza ematen da “feminismoak gain izan behar duela XXI. mendeko emakumeok aurrean ditugun kontraesanei erantzun politikoak eta jendarte-ereduak emateko”; hartara, bilatzen dena da “harremanak hierarkikoak izango ez diren beste jendarte bat eraikitzea” (2007: 4). Karta berdintasunaren, askatasunaren, elkartasunaren, justiziaren eta bakearen printzipioetan oinarritzen da, halakoak ikuspegi feminista batetik kokatuta.

Kartan eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen zerrenda ematen da; tresna bat da edozein diskriminazio, emakumeen kontrako indarkeria, pobrezia eta bazterketa amaitzeko, eta sexu-, ugalketa- eta osasun-eskubideen aldekoa. Tresna juridiko loteslea ez den arren, jarrera bat hartzen da bertan eta hainbat eskaera egiten ditu Euskal Herriko testuinguruan bizi diren emakumeentzako eskubideak eraikitze aldera, [gaztelaniazko bertsioan dioenez] “edozein izanik ere haien etnia, larrru-kolorea, sexu-joera, politikazko ideologia, erlijiozko ideologia edo gizarte-klasea” (*idem*, 14).



## Giza Eskubideen Auzitegi sinbolikoak eta Emakumeen Eskubideak

Giza eskubideen gaineko zaintza egitea ez da bakarrik kasu bat organo eskudun baten aurrean salatzea termino juridikoetan, eskatzen diren epaia eta ordaintza jasotzearen. Bada, halaber, informazioko eta salaketako eskema bat, batez ere "populazio osoei eragiten dieten giza eskubideen arloko arazoak identifikatzea bilatzen duena (...) konpontzeko estrategiak zehazteko helburuz. Halako prozeduretan, eskaerak informazio-elementutzat baino ez dira jasotzen" (Byrnes, 1997). Bestela esanda, salaketa bat jasotzen duen organoaren eskumen juridikoa gorabehera, garrantzizkoa da kasuez informatzea, batzordeen, errelatoretzen eta giza eskubideak aztertzeke eta eraikitzeke prozesuan parte hartzen duten beste organo batzuen aurrean; izan ere, kasuak zigortu edo ebatzi ezin dituzten arren, jarduerak presta ditzakete, ordea, baita berariazko erabaki edo politikan eragina izan ere.

Giza eskubideen sustapena eta defentsa herritar-prozesu baten zati izaten da gehienetan; prozesuaren helburua izaten da herritar horien beharrianak konpontzea, politika publikoen, praktika sozialen eta eskubideen alorreko aldarrikapenak eta asmoak eraldatzea, eta erantzukizunak eta ordaintzak eskatzea urraketak gertatzen direnean. Horretarako, eskubideen edukia argitzeko edo zabalago azaltzeko informazioa behar da, eskubideak betetzeari dagokionez gertatzen diren aurrerapenei buruzko informazioa, orobat, eta eskubideok erabiltzea eragozten dituzten ekintzak edo omisioak agerian uzten dituen informazioa, eskubide horiek, bestalde, hutsune juridikoetatik edo eskubideak babestea xedetzat duten tresnen akatsetatik defendatzeko tresna erabilgarriez gain. Horrelako informazioa biltzeko funtsezko iturri bat da giza eskubideen urraketek buruzko dokumentazioa. Honako hauek ahalbidetzen ditu:

- Abusuak daudela frogatzea eta urraketen errealitate zehatza ikusgai bihurtzea; horrek mitoak hausten eta jendea sentsibilizatzen laguntzen du.
- Estatuak nola diharduen frogatzea –ekintzen bidez zein omisioen bidez–, egoera baten berezitasuna edo egiturazkotasuna erakustea, bai eta errepikatzen diren patrioiak, eskubide-urratzaileak, kalteturiko pertsonak, edo estatuak urraketa horien aurrean ematen dituen erantzunak edo gauzatzen dituen ekintzak, eskuragarri dauden baliabideak edo prozedurak, eta halakoen eraginkortasuna ere. Hori baliagarria da lege-erreformak, babes juridikoa, eta abar eskatzeko oinarri gisa, eta estatua hertsatzeko dagokion ardura bere gain hartzera eta eskubideak babestera.
- Gomendioak eta estrategia zehatzak egitea, tartean diren eragileen arduren inguruan.
- Urraketa horiek hobeto ezagutzeko eta haien aurreko defentsa hobeto aurrera eramateko erabakiak hartzea, neurriak eta praktikak prestatzea.
- Helburu horiek harturik, emakumeen eta feminismoaren mugimenduak auzitegi sinbolikoak edo kontzientzia-auzitegiak –dauden beste bitartekoen artean– kasuak dokumentatzeko bitartekotzat erabili ditu, bai eta emakumeen eskubideen erakuntza eta defentsa indartzeko ere.

Charlotte Bunchek, Sanantha Frostek eta Niamh Reillyk (2000) azaltzen dutenez, Beijingen 1995. urtean egin zen Emakumeen Giza Eskubideei buruz Kontu Emateko Mundu

Auzitegi hura herri-auzialdiz eta auzitegiz osaturiko bi urteko kanpaina baten burutzea izan zen. Kanpaina hura Vienako Konferentzian (1993) hasi zen, eta Kairoko Konferentzian (1994) eta Kopenhageko Gizarte Garapenari buruzko Munduko Goi Bileran (1995) jarraitu zuen; haren asmoa zen kontzientzia sortzea emakumeen giza eskubideen urraketen inguruan, arlo publikokoak izan zein arlo pribatukoak izan.

Horiekin bat, emakumeen beste auzitegi-mota batzuk egin dira kontinente guztietan, hala nola barne-gatazkan emakumeen kontra gauzaturiko sexu-indarkeriaren aurkako Kontzientzia Auzitegia Guatemalan (2010) eta Kolonbiako gatazka armatuaren barruan gauzaturiko sexu-indarkeriaren aurkako Auzitegi Sinbolikoa (2011). Esperientzia aitzindarien artean Asiako Emakumeen Giza Eskubideen Kontseilua dago; 1992az geroztik eta "Asia eta Pazifikoko guztiko giza eskubideen inguruko beste talde batzuekin batera", eskualdean auzitegiak egin zituzten, eta horiek munduko beste eskualde eta hiri batzuetara eramán ziren. Halakoetan, emakumeen ikuspegia sakondu da "politiken, boterearen, justiziaren gainean"; emakumeen esperientziaren eta erresistentziaren lekukotasuna ematen da "indarkeriaren alde zenbakaitzen aurrean: gerra, etnozentrismoa eta fundamentalismoa" (Kumar, d.g.); arrazakeriaren, pobrezia, gosearen, politika ekonomikoen aurrean, eta lan-baldintzen zein soldaten hobekuntzaren, lurra izateko eskubidearen, eta bakearen –besteak beste– aldeko beren borrokan.

Auzitegi horien ezaugarriak askotarikoak dira, dagokien errealitate eta berezitasunaren arabera, baina badituzte, halere, zenbait ezaugarri komun: ekitaldi publikoak dira; izaera sinbolikoa eta hezigarria dute; gizarte zibilak parte hartzen du, eta helburua da emakumeen aurkako mota bateko eta besteko indarkeriak ikusgai bihurtzea eta haien inpunitatea salatzea.

Auzitegion bitartez gune publiko bat sortzen da, eta han, kasu jakinetatik abiatutik, gizarteko talde batek pairatzen duen problematika iritzi publikoaren aurrean ikusgai bihurtzen da, eta salatzen, eta egoeraren larritasuna ezagutarazten da. Egin diren eskubide-urraketak salatzen dira; gainera, aitormentik, ikerketarik, epaiketarik eta ordaintzarik gabe geratutako eskubide-hausturak izaten dira. Hau da, hala pairaturiko indarkeriak edo sufrimenduak nola inpunitatea edo justiziarik eza bihurtzen dira ikusgai, eta, horrela, estatua salatzen da, herritar guztien eskubideen bermatzaile gisa dituen betebeharrak ez betetzeagatik. Horrez gain, emakumeek politikan parte hartzeko eta politika eraikitzeko modu bat da; hain zuzen ere, emakumeak tradizioz erabaki politikoak hartzetik nahiz justiziaren esparrutik baztertu izan dituzte.

Auzitegi sinbolikoak salatzeke eta alternatibak aurkezteke tresna bat dira; herritarrek eztabaidatzeko guneak irekitzen dira, eta, bertan, intereseke gai batzuen inguruan epaiketa publikoak egiten dira; kasuan kasuko eskubideen urraketak asko ezagutzen ez dituzten edo haiekin gutxi sentibilizaturik dauden eragileak kontzientziatzen dira, azken horien artean, jendeaz gain, oro har, justizia-administrazioaren arloko pertsonak edo politikan edo arlo juridikoan eragin handia duten pertsonak ere egoten direlarik. Badira, orobat, ordaintza sinbolikoko guneak.

Vienako Konferentziaren esparruan egin zen auzitegian, hogeita hamahiru emakumeren ahotsen bidez emakumeen ikusezintasun historikoa aitortu zen, eta gizakiak direla berretsi zen eta, hortaz, "gizonari" dagoeneko eman zaizkion eskubide guztien duintasuna. Bildu ziren lekukotasunekin, giza eskubideek emakumeen bizitzan duten esanahiak errealitate bat hartu zuen, eta mundu guztiko milioika emakume eta gizoni kontzeptu hori

ulertzen lagundu zien. Auzitegia antolatzeak emakume askori pentsatzeko era berriak irakatsi zien, emakumeen giza eskubideen urraketengatik erantzukizunak ezartzeko Nazi Batuek dituzten mekanismoak erabiltzeari dagokionez.

Vienako Konferentziaren inguruan hasi zen auzitegi-kanpainan zehar, mundu guztiko hainbat emakumek beren giza eskubideen aurka eginiko hainbat urraketa dokumentatu zituzten, urraketon eragileak asko zirelarik (bikotekideak, familiartekoak, nagusiak, medikuak, poliziakideak, militarrek); horrela, frogatu zuten nola higatu dituzten beren giza eskubideak egiturazko doikuntzetarako politikek eta arlo jakineko zenbait legeak (abortua, ezkontza, gizarte-laguntza). Estatuak “babestutako” genero-indarkeriaren forma horien berri eman zuten, eta estatuen ardurak berriz definitzea eragin zuten, ingurune pribatuetan eta estatukoak ez diren eragileek aurrera eramano giza eskubideen urraketari aurre egiteko moduan.

Emakumeen giza eskubideak zein emakumeek nozitzen dituzten eskubide-urraketak ikusgai bihurtzeko prozesu bat sortu zen, eta lortu zen genero-ikuspegitik giza eskubideen bananezintasuna uler zedin; zenbait akordio lortu ziren emakumeen giza eskubideen agendan aurrera egiteko; eskubide horien urraketak onartezintzat hartzen zituen giro politiko bat sustatu zen, besteak beste.

Lorpenak asko izan ziren, baina zailtasunak ere bai, kontu emateari dagokionez; izan ere, gobernuek askotan ez dituzte onartzen giza eskubide zibil eta politikoen urraketak, hots, ibilbide luzeagoa duten eskubideen urraketak, alegia (lehen belaunaldiko eskubideak deritze), eta are gutxiago, beraz, ozta eraikitzen ari diren eskubideen urraketak, edo era inplizituan onartzen diren eskubideenak (arau-esparrua berrinterpretatu behar da hala-koak defendatzeko).

Erronkengatik ere, zenbait herrialdetan hainbat gairen inguruan egin diren auzitegi eta auzialdi ugarietan, pixkanaka egiten da aurrera eskubideen eraikuntzan. Oinarrizko beharrian eta eskaerez arduratzea, halakoak eskubide gisa eratzzea, eta eskubideok erabil daitezten sustatzea, neurri handi batean, pertsonen entzutean datza, eragile nagusizat tratatzean, subjektutat; era berean, jakin behar da nola hartzen dituzten erabakiak, zein faktore mugatzaileen edo aldeko baldintzaren eraginpean, zer balio aplikatzen dituzten, zer esanahi egoten diren tartean, nolako erlazioa duten haien erabaki eta egintzek inguruneke beste pertsona batzuekin, zer esperientziak izan dituzten, zein diren haien beharrianak, zein da giza eskubideen inguruko kontzeptu eta lehentasunen autodefinizioa. Horrez gain, ahots eta esperientzia horien bitartez ezagutu behar da nola eragiten duten aldagai jakin batzuek (generoa, adina, (ez)gaitasuna, arraza, etnia, erlijioa, klasea, eta abar) giza eskubideen erabileran eta haien inguruko bizipenean eta beharrianetan.

Auzitegiek, gainera, oso rol garrantzitsua jokutzen dute emakumezko eskubide-subjektuen eraikuntzan, emakumeenganako ikuspegi-aldaketan, ez bakarrik biktimatza, baizik eta subjektu aktibotzat onartuta, haiexek egiten baitituzte salaketak, eta gertatu zaiona ikusgai bihurtzen, jendaurrean salatuz. Prestakuntzako hasierako fasetik, ahalduntze-prozesua izaten dira parte hartzen duten emakumeentzat; haien ahotsak eta lekukotasunak epaimahaiaren zein han izaten diren instantzien aurrean aintzat hartzeak bai eskubideak bai eskubideok aldarrikatzeko ahalmena dituzten subjektu politikotzat aitortzen laguntzen du.

Era berean, ikusezintasunean geratutako edo ardura zuten erakundeek edo estatuek erantzun gabeko kasuak epaitzeak halako auzitegiak ordaintza sinbolikorako gune bila-

katzen ditu emakumeentzat, nola maila indibidualean, beren kasuak eramaten dituzte-  
nentzat, hala maila kolektiboan, emakumeentzat oro har, urraketa baten aitormena eta  
haien eskubideen indartzea eragiten dutelako.

## **Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia. Viena +20 Euskal Herria, 2013**

---

### **Viena + 20**

Vienako Giza Eskubideei buruzko Konferentzia duela hogeitun urte egin zen, eta bereziki  
garrantzitsua da, han giza eskubideen esanahia hiru zentzutan zabaldu zelako. Lehenik,  
ezarri zen giza eskubideak aipatzen direnean, eskubide politikoak ez ezik, eskubide eko-  
nomikoak, sozialak, kulturalak eta zibilak ere aipatzen ari direla, alegia, gizateriaren eta  
pertsona guztien, bereizketarik gabe, garapenari lotutako eskubideak.

Bigarrenik, aitortu zen emakumeen eskubideak giza eskubideak direla: "... emakumea-  
ren eta neskaren giza eskubideak dira giza eskubide unibertsalen zati besterenduezina,  
osatzailea eta zatiezina. Emakumearen parte-hartze osoa, berdintasun baldintzetan, bizi-  
tza politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kulturean, nazio-, erregio- nahiz nazioarte-mai-  
lan, eta sexuan oinarritutako bereizkeria forma guztiak ezabatzea nazioarteko erkidegoa-  
ren lehentasunezko helburuak dira" (Vienako Adierazpena eta Egintza Programako 18.  
artikulua, 1993). Alda Facioren hitzetan, orduantxe "bilakatu ginen emakumeok gizaki"  
(2011: 309), eta orduan hasi zen generoko dimentsio bat sartzen nazioarteko zuzenbi-  
dean. Prozesu hori abian da oraindik, eta eskubide horiei edukia eta errealitatea emateko  
mekanismo gehiago eta hobek sortzea du helburu.

Hirugarrenik, aitortu zen emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa dela,  
eta bizitza publiko zein pribatutik desagerrarazteak funtsezko garrantzia duela demo-  
kraziarako eta bake sozialerako. Geroago, Nazio Batuek Emakumeen aurkako Indarkeria  
Ezabatzeari buruzko Adierazpena aldarrikatu zuen, eta, handik urtebetera, Emakumeen  
aurkako Indarkeriari, haren Kausei eta haren Ondorioei buruzko Nazio Batuen Errelato-  
retza Berezia sortu zuen" (Hurtado eta Frías, 2011: 112). Eskualde-mailan, beste meka-  
nismo batzuk ezarri ziren, hala nola Belem do Paráko Konbentzioa, Ameriketan.

Horrexegatik merezi du konferentzia horren eta herritarren mobilizazioari esker han ma-  
mituriko lorpenen 20. mendeurrena ospatzea. Gizarte-mugimenduek giza eskubideen erai-  
kuntzan eginiko lana –batez ere emakume eta feministen lana– aitortzea garrantzitsua da,  
bai eta emakumeen eskubideen defentsan izan diren aurrerapenak gogoratzea ere.

Emakumeen Eskubideen Auzitegi bat egiteak, bi kontinentetako emakumeen eskubidee-  
na, erakusten du mundu-mailan egin diren eskaerek, haien egiturazko eta sistemazko  
kausak nahiz halakoak adierazteko moduen askotarikotasunak indarrean dirautela. Or-  
duan hasitako lanari gehitzen zaion ekintza bat eramaten du aurrera. Lan haren helbu-  
rua, hain zuzen ere, foroak ireki eta sakontzea zen, sentsibilizaziorako, eztabaidarako,  
eta salaketarako, bai eta emakumeen eskubideak bermatzeko, eskubideen aitormena  
zabaldu edo perfektionatzeko, neurri gehiago eta hobeen eskaera tinkorako ere. Hala  
egiteak badu garrantzia; izan ere, eskubideen berdintasuna eta indarkeriarik gabeko bi-  
zitza bat bizitzeko eskubidea formalki aitortu badira ere, baliabide horiek ez dira aski  
oraindik emakumeek eskubide guztiez praktikan goza ditzaten bermatzeko. Aurrerapen



juridikoan egonik ere, alde handia dago emakumeen giza eskubideen aitormenaren eta haietaz gozatzeko aukeraren artea.

Viena + 20 auzitegi batekin ospatzea bada, era berean, “eskubideen diskurtsoa zerbait propio egiteko” ahalegin bat. Celina Romanyk azaltzen duenez, “haietaz hitz egiten duenak, erabiltzen den hizkuntzak eta haietaz hitz egiteko prozesuak berak definitzen ditu eskubideak” (hemen aipatua: Cook, 1997: 4). Horrexegatik da funtsezkoa giza eskubideen edukia definitzeko ahalmenaz jabetzea, haien definizioak eta edukiak eztabaidatzeko, orain, 2013. urtean, eta kasu honetan, latinoamerikar eta europar emakumeen ikuspegitik. Mugimendu feministako, nazioarteko elkartasun-sareetako eta eskubideen defentsako emakumeak dira, kide diren gizarteetan justiziazko etorkizun baten bila ari direnak. Horrexegatik, garrantzitsua da parte har dezaten emakumeen eskubideak definitu eta interpretatzeko elkarriketa- eta borroka-prozesuan, eta auzitegi bat bide bat da eskubideen inguruko egungo esanahi, praktika eta eskaerei buruzko ikuspegi eta ekarpen horien berri emateko.

## **Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia Euskal Herrian**

Hona hemen auzitegi honetarako proposaturiko helburuak:

- Indarkeria matxistak ikusgai bihurtzea –desberdintasunen ondorio– emakumeen giza eskubideen urraketa gisa, Euskal Herrian, Espainiako estatuan zein Latinoamerikan.
- Sistema politiko eta judiziala salatzea legeen definizio eta aplikazio androzentrikoan, begirada politika eta feminista gehituta halakoei.
- Emakumeen ahalduntze kolektiboan laguntzea, ekintza politikoaren bidez, bai eta emakumei zein mugimendu feministei aitormena ematen laguntzea ere.

Helburu horiek erdiesteko, emakumeen eskubideen urraketa ikusgai bihurtzen duten hiru arlo zehaztu dira: indarkeria sexista; abortua; eta esplotazio ekonomikoa.

Auzitegian aurkeztuko diren kasu dokumentatuak egoera horiei dagozkie, eta eskubide bat edo gehiago urratzea gerta daiteke haietan. Kasu edo kasu-talde bakoitza testuinguruan kokatzeko dokumentu batekin batera prestatzen da, gaian aditua den emakume baten eskutik; datu osagarriak eta azterketa bat ematen dira bertan, halako kasuek ordezkatzen duten egiturazko egoera edo egoera globala dimentsionatzeko lagungarri.

Auzitegiaren aurreko kasuen aurkezpenean, fiskalarena egiten duen eta abokatu batek bere gain hartzen duen figura baten bidez, urraturiko eskubideak eta haien defentsarako eta ordaintzarako araudia ematen dira aditzera.

Epaimahai bat da kasuak entzun, eta erantzuten dien hizketakide nagusia. Hau da, auzitegi bat jendaurreko foro bat izan arren, gizarte osoari dei egiten diona, eta herritar guztiei irekitako ekitaldi bat izan arren, bada figura berezi bat, epaimahaia. Azken horren eginkizuna eskubide-urraketen erantzuleei zigor edo kondena bat aditzera ematea izango da, eta jarrera politiko bat agertzea emakumeen eskubideen eraikuntzan eta defentsan aurrera egitea ahalbidetzeko. Epaimahai horretan toki-mailan eta/edo nazioartean ospea duten pertsonak egongo dira, giza eskubideen alde diharduten nazioarteko eta tokiko erakunde edo sareetakoak, emakumeen elkarte eta taldeetakoak, eta akademiakoak.

Auzitegiko beste figura bat begiraleei dagokie. Gobernuko eta arlo akademikoko ordezkariak, antolakunde zibiletakoak, bai eta esparru publikoko zenbait pertsona ospetsu gonbidatzen dira auzitegia nola garatzen den begira dezaten. Haien eginkizuna da prozesuari beren bermea ematea, prozesua eta haren emaitzak zabaltzen laguntzea, eta, halaber, adierazpen publikoak edo konpromisoak egin ditzakete, auzitegiaren ebazpenak indartzearren eta haren aplikazioa sustatzearren.

Auzitegia garatu ahala, ikusi ahalko da sistema politiko eta judizialak ez dituela betetzen estatuek berretsitako nazioarteko legeak edo estatuko legeak, edota justizia-sisteman bertan arau horietan jasoriko eskubideak hausten dituzten interpretazioak egiten direla, edo eskubideok babestu eta defendatzea zailtzen dituztenak; bestela esanda, legeen zein haien aplikazioaren interpretazio feminista bat falta dela nabarmentzen da. Era berean, legeetan dauden hutsuneak identifikatu ahalko dira.

Auzitegi honetako kasuak ezaugarri desberdinak izango dituzte prozesu judizialari dagokionez; hala, batzuk ez dira salatu, eta beste batzuk nazioarteko instantzietara heldu dira, Giza Eskubideen Amerika arteko Gortera edota Giza Eskubideen Europako Auzitegira. Halber, kasuen testuinguruak asko aldatzen dira batetik bestera, Latinoamerikako hainbat herrialdetan zein European gertaturiko eskubide-urraketak aurkeztuko baitira. Desberdintasun horiek nahiz izandako ibilbide judiziala gorabehera, ostera, agerian utzi nahi dena da kasu horiek beste askoren adibide direla, ez direla anekdotikoak, baizik eta sistematikoki errepikatzen diren egoera eta jokabide batzuei dagozkiela, baita mugaz haraindi ere. Kasu horiek baliagarriak dira emakumeen giza eskubideen haustura errealtate bat direla agerian uzteko, eta halakoen kausak egiturazkoak direla.

Auzitegiaren sustatzaileok garrantzizkotzat jotzen ditugun irizpide batzuk betetzen dituzte kasu horiek; irizpideok badute lotura elementu politikoekin, sinbolikoekin, denborazkoekin, antolakuntzazkoekin, sozialekin eta abarrekin. Era berean, hainbat alderdi erakusteko baliagarriak izateagatik ere hautatu dira: emakumeen elkartasuna; ahalduzko eta eskubideak aldarrikatzeko prozesu kolektibo baten zabaltasuna; entzunak izateko eta ordaintza sinbolikoa jasotzeko beharra; eta azken horiek gauzatzeko mekanismoak sortzeko gaitasuna.

Auzitegiaren emaitza gisa, gainera, agenda eta ekintza-plan bat sor daiteke gizarteari zein erakunde publikoei (tokikoak, estatukoa, eskualdekoak edo nazioartekoak) begira, gomen-dioei, akordioei, iradokitako jarduera-ildoei edo konpromisoen jarraipena emateko.

## **Giza Eskubideen esparruan oinarrituriko prozesu bat**

Emakumeen eskubideen auzitegi gisa, 2013ko ekainean Euskal Herrian aurrera eramango denak giza eskubideei buruzko nazioarteko legedia du abiapuntutzat. Nahiz eta tresna horiek balio neutro eta finkoetan oinarritzen ez diren eta beti hobe daitezkeen, ez dago zalantzarik baliozko eta beharrezko erreferentzia direla giza eskubideak babesteko eta zorrotz eskatzeko. "Eskubideen diskurtsoak lexiko ezagun bat ematen du, bidegabekeria politiko eta sozialekin esparru baten barruan kokatzeko"; ulerterraz bilakatu da jende askorentzat, eta diskurtso itzaropentsua da, eta "ahal-sortzailea", ekintzara bideraturiko ikuspegi baterako laguntzen du, azpimarratu zuen Hillary Charlesworthek (1997: 58).

Margaret Schulerren eta Dorothy Thomasen (1999) arabera, giza eskubideen urraketak salatzen edo dokumentatzen direnean, funtsezko elementu bat da aldarrikatu nahi den eskubidea existitzen dela egiaztatzea, eskubide hori urratu dela frogatzea, eta estatuaren

erantzukizuna demostratzea. Hori ez da lan erraza izaten, baina, interpretaziozko kontzeptu-esparruak estuak direlako, eta ahalegin handia behar da eskubideen erabateko aitormenerako eta haien defentsarako kontzeptuzko arazo horiek gainditzeko. Auzitegiak, izaera sinbolikoa eta politikoa dutenez, juridikoa baino gehiago, aukerako guneak dira elkarrizketa, negoziazio eta berrinterpretazio horiek ezartzeko, problematika eta beharrian errealen –batetik– eta arauzko eta kontzeptuzko tresnen –bestetik– artean; baina hori egiteko, garrantzitsua da hizkuntza hori erabil dezaten.

Bilbon egingo den Emakumeen Eskubideen Auzitegirako, Europan eta Ameriketako koka-turiko testuinguruei dagozkien kasuak izango dituelarik, badute garrantzia bai nazioarte-ko tresnek bai eskualde bakoitzean daudenek. Kasu batzuetan, emakumeen eskubideak babesteko berariazko tresnetara jo beharko da; beste batzuetan, kasuko eskubideak aintzat hartzen dituzten tresna orokor batzuetara, edo oraindik halakotzat aitortu ez diren zenbait eskubideren defentsari eta eraikuntzari euts diezaieketen tresnetara:

- *CEDAW eta haren hautazko protokoloa*<sup>1</sup>

Emakumeen aurkako Bazterkeria Mota Guztiak Ezabatzeko Konbentzioak –CEDAW, ingelesezko siglen arabera (1979, 1981ean indarrean)– nahitaez bete beharreko arauak ezartzen dizkie estatu izenpetzaileei, bai eta arau horiek abian jartzeko gomendioak eta zaintza egiteko mekanismoak ere. Gomendioek garrantzia berezia dute; izan ere, konbentzioa idatzi ondorengoak direlarik, hitzarmeneko artikuluen irispidea eta edukia eguneratzen eta zabaltzen dituzte, gai berriak sartzeraino. Adibidez:

6. gomendia (1988): Emakumeei eragiten dieten politika publikoak

Estatuek mekanismo, erakunde edo prozedura nazional eraginkorrak ezarri behar dituzte, gobernuak goi-maila batean, eta honako hauetarako baliabidez, eginbidez eta ahalmenez aski hornitu: gobernuaren politika guztiek emakumeen artean izango dituzten ondorio guztiez aholku emateko; emakumeen egoera orokorra gainbegiratzeko; politika berriak formulatzen eta bereizkeria ezabatzekeko estrategia eta neurriak eraginkortasunez aplikatzen laguntzeko.

19. gomendia (1992): Emakumeen aurkako indarkeria

Estatuek CEDAW konbentzioaren irispidea zabaltzeko beharko dute emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, eta hainbat neurri hartu beharko dituzte emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko eta ezabatzeko. Besteak beste, gomendio honetan baieztatzen da emakumeen aurkako indarkeria bazterkeria-ekin-tza eta giza eskubideen urraketa dela.

“Generoan oinarrituriko indarkeria dela emakumea halakoa izate hutsagatik jomugatzat duena edo neurrigabe eragiten diona definitzeaz gain, zehazten du bai esparru publikoan eta bai esparru pribatuan gauzatzen dela, bai normaltasun-egoeretan eta bai gatazka armatuetan, eta bai agintedun publikoek bai estatuko eragileak ez direnek gauzatzen dutela” (Hurtado eta Fries, 2011: 113).

- *EZPNI, EGKENI, Maastrichteko Jarraibideak eta haien hautazko protokoloak*

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (EZPNI) eta Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna (EGKENI) 1966. urtean onartu ziren, eta 1976an sartu ziren indarrean; Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean azaldutako eskubideak zehazten dituzten lege-izaerako bi osagai dira (ez dira lotesleak).

<sup>1</sup> Konbentzio edo itun baten protokoloa jatorrizko testuari eskubide bat edo gehiago gehitzen dizkion testu bat da, edo aldatetarik egiten dituen testu bat. Itunean alderdi den estatu bakoitzak protokolo horiek izenpetu eta berretsi egin behar ditu, estatu horietan indarrean sar daitezten.

Itun horiek iraupen luzeeneko tresnak dira giza eskubideen defentsarako tresnen artean, eta arau-esparru zabal bat osatzen dute, estatuak babestu behar dituen pertsona guztien oinarritzko eskubideei buruzko gutxieneko akordio bat ekarrita. Orokorrak diren arren, eskubide funtsezkoenak barne hartzen dituzte, eta daitekeena da halako eskubideak auzitegian aztertuko diren egoeretan urratu egotea.

EZPNiren protokoloa 1976an sartu zen indarrean, eta, EGKENiri dagokionez, bestalde, prozesua geldia izan da. Hasieran, osatzeko eta zehazteko ahalegina egin zen Maastrihteko Jarraibideen bitartez, 1987an. Azken horiek eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen izaera eta irispideak hobeto ulertarazten dituzte, eta eskubideon urraketak ezagutu eta identifikatzen dihardutenak orientatzen saiatzen dira, errazago eginik haien zaintza eta justiziaren aurrera eramateko aukera. EGKENiren hautazko protokoloa 2013ko maiatzean sartuko da indarrean.

- *Vienako, Kairoko eta Beijingeko konferentziak, adierazpenak, programak eta ekintza-plataformak*

Tresna horiek, lotesleak ez badira ere, garrantzitsuak dira, kasu askotan giza eskubideak –eta, batez ere, emakumeen eskubideak– defendatzeko eta zabaltzeko ikuspegi berriak ireki eta sendotu dituztelako. Esaterako, ugalketa-eskubideak aitortzen eta adierazten dituzte; gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aitortzen aurrerapen bat dira, bai eta abortua osasun publikoko arazotzat onartzen ere, eta sexu-eskubideei buruzko ideia zenbait ere garatzen dituzte. Zentzu hertsian eskubidetzat zertzen ez diren ebazpenak izan arren, badira nazioarteko konpromiso bat.

Horrez gain, ekintza-plataformak estatuek, beraiek hala onartuta, epe jakin batean abian jarri beharreko neurri batzuen multzoa dira, eta geroago konferentziak edo berrikuspenak egin daitezzen ezartzen dute (5, 10 edo 15 urtera), neurri horien jarraipena egiteko. Hain zuzen ere, Beijingeko Ekintza Plataformari dagokionez, esan da “izaera lotesle handia izan zuela, CEDAWen ezarritakoa betetzeko hartu behar ziren neurriak garatu zituen aldetik” (Facio, 2011: 10).

- *Garapenerako Eskubideari buruzko Adierazpena*

Tresna hau ere ez da loteslea, eta egokia irizten zaio, garapena giza eskubidetzat ezartzen duelako. “Gizakia garapenaren elementurik nagusia da eta garapenerako eskubidearen parte-hartzaile aktiboa eta onuraduna izan behar du”, dio adierazpenak (1986). Halaber, badio ezinezkoa dela eskubide zibil eta politikoak osorik gauzatea, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak izan ezean. Garapena, ongintzaren arlokatzat ez, baizik eta ahalduntzetzat kokatzen du; garapena zertzeko oztopoak identifikatzen ditu, eta gobernuari, lan-kidetzako erakundeak eta nazioarteko komunitateari galdegiten die beren gain har dezaten gobernantza ona aurrera eramateko eginbidea, kontu emanez, garapena bultzatzeko dituzten ardurak betez. Haren planteamenduetako asko Vienako Giza Eskubideei buruzko Konferentzian berrartu ziren, beste batzuk berariazko gomendio eta programen bitartez zabaltzeko dira, eta, gainera, garapenari buruzko debaterako esparrua ematen dute.

- *Nazio Batuetako organo edo lantaldeekin lotura duten tresnak*

Badira ebazpen eta beste agiri batzuk bereziki garrantzitsuak izan daitezkeenak auzitegian aztertuko diren kasuetako batzuetarako; esate baterako, Nazio Batuen Segurtasun

Kontseiluaren 1325. Ebazpena, gatazka armatuek emakume eta nesken gainean izaten dituzten ondorioei buruzkoa. Ebazpen horretan, bakerako eta gatazka armatuak prebenitzeko eta konpontzeko prozesuetan genero-ikuspegia sartzearen alde agertzen da, eta giza eskubideetarako, nazioarteko zuzenbideko eta berdintasunaren sustapenerako hainbat tresna indartzen eta elkarrekin lotzen ditu. Egokia izan daiteke auzitegian aurkezten diren kasuetakoren bat gatazka armatuko egoeraren batean kokatzen bada, Kolonbian kasu.

- *Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) tresnak*

LANEren tresnetako batzuk garrantzizkoak izan daitezke. Haren hitzarmen, gomendio eta itunen bidez lanari buruzko eta lan-baldintzei buruzko araudiak definitzen eta gainbegiratzeko dira maila unibertsalean. Halakoen artean 189. Hitzarmena eta 201. Gomendioa (2011) nabarmentzen dira: etxeko langileei buruz dihardute, eta lan-mota horrek ekonomian eta gizartean duten balioa aitortzen dute; lan hori egiten dutenentzako babes laborala eta soziala sustatzen dute; eta onartzen dute genero-berdintasuna eta lege aurreko emakumeen babesgaizatzeko laguntzen dutela, lan-mota hori egiten dituzten pertsonak, gehienbat, emakumeak direla zehazten dutenez gero.

- *Giza Eskubideen Amerika arteko Sistema*

Sistema horren barruan Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordea, Giza Eskubideen Amerika arteko Gortea, eta Emakumeen Amerika arteko Batzordea daude, bai eta haien bitartez sortu diren konbentzioak ere: Giza Eskubideei buruzko Ameriketako Konbentzioa (1969); Gizakiaren Eskubide eta Betebeharrei buruzko Ameriketako Adierazpena (1988); Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitzeko, Zigortzeko eta Ezabatzekeko Amerika arteko Konbentzioa (1994); eta Giza Eskubideei buruzko Ameriketako Konbentzioaren Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen arloko Protokolo Gehigarria –“San Salvadorreko Protokoloa” deritzona– (1999).

Amerika arteko Gorteak eman dituen zenbait epaik garrantzia izan dezakete hemen planteatzen ari den auzitegi-motarako. Epai horien artean Gonzálezen eta besten batzuen auziagatik (“Campo Algodonero”) Mexikoko Estatuaren aurka emaniko epaia, 2009koa, funtsezko aurrekaritzat jotzen da emakumeen eskubideen defentsan. Mexikoko gobernuak kondenatu zuen giza eskubideak urratzeagatik Ciudad Juárezen hiru emakume gazteren aurka izan ziren feminizidioetan, bai eta haien familiartekoen aurka estatuak erabili zuen indarkeriagatik ere. Epaiak Mexikoren nazioarteko erantzukizuna zehazten du, eta aztertzen du nola den “generoagatik emakumeen aurka egiten den bazterkeria emakume horiek justiziara iristeko aukera izan dezaten oztopatzen duen” kausa nagusietako bat (Medina, 2011: 6). Kontzeptu-mailan, aurrerapenak daude indarkeriaren –genero-bazterkeriaren agerpen gisa–, bazterkeriaren –gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanen gainean gizarteak eta estatuak ezarritako eraikuntzen emaitza gisa– eta inpunitatearen arteko lotura azaltzeko; maila juridikoan, ideia horiek, besteak beste, ordaintza emateko neurriak ezarriz mamitzen dira, Mexikon nagusi den bazterkeria-kulturaren eraldaketan oinarrituak (*idem*, 9).

Bada enblematikoa, halaber, epai horretan Giza Eskubideen Amerika arteko Gorteak “Belém do Paráko konbentzioan zehazturiko eskubide eta betebeharren ustezko urraketak epaitzeko bere eskumena egiaztatzen baitu, eta, horrenbestez, emakumeen eskubideak giza eskubide gisa, eskubide unibertsal gisa eta eska eta justiziaren aurrera eraman

daitezkeen eskubide gisa berretsirik geratzen dira”; eta historikoa ere bada, “gorreak genero-ikuspegiaren kontzeptuak eta metodologia finkatzen baititu interpretazio judizialean. Horrez gain, genero-ikuspegia sendesten du eskakizuneko ezaugarri nagusitzat, estatuak kalteak zuzendu eta beren betebeharrak betetze aldera aurrera eramandako ekintzak ebaluatzeko” (Medina, 2010: 5).

#### - *Giza Eskubideen Europako Sistema*

Sistema horren barruan Giza Eskubideen Europako Gortea (Giza Eskubideen Europako Auzitegia era baderitzo) eta sistema haren bitartez sortu diren agiriak sartzen dira: Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena, Giza Eskubideen Aldeko Europako Konbentzioa ere baderitzona (1950, 1953an indarrean), eta haren ondorengo protokoloak; Europako Gizarte Gutuna –jatorrizko bertsioan eta bertsio berrikusian, 1961koa eta 1996koa, hurrenez hurren– eta haren protokolo gehigarria; eta Etxeko eta Emakumeen aurkako Indarkeria Borrokatzeko eta Prebenitzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Istanbulko Konbentzioa ere deitzen dena (2011).

#### - *Estatu arduradunen lege nazionalak*

Auzitegiaren aurrean aurkezten den kasu bakoitzari aplikagarria zaion estatuaren barruko legedia gehitu behar zaie tresna horiei; izan ere, nazio barruko, eskualdeko eta maila unibertsaleko lege-esparruen arteko elkarriketa eta kontrastea giza eskubideen defentsa eta eraikuntzarako prozesuaren zati dira.

Tresna horiek guztiek Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegian aurkezteko diren kasuak egituratzea ahalbidetzen dute, sufritutako urraketak argi identifikatu ahal izateko, estatuaren erantzukizunak ezarri ahal izateko (egitez edo ez-egitez, eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzeko betebeharraren aldetik), eta, emakumeen eskubideak betetzeari dagokionez, irispideen eta dauden eskaera berrien azterketa hori egiteko.

#### - *Beste iturri batzuk*

Tresna horiei gehituta, kasuen prestaketa eta defentsak hainbat batzorderen, lantalderen, adituren eta abarren txostenak eta ikerlanak ere berrartuko ditu, bai eta toki jakinetan giza eskubideen egoera diagnostikatzeko edo gai bereziengatik edo giza eskubideen babes eta defentsan izandako aurrerapenak gainbegiratzeko taxutu diren agiriak ere.

Beste iturri batzuk estatuaren konpromisoak betetzeari buruz gobernuak eginiko txostenak dira, eta, orobat, GKE-ek prestatzen dituzten txostenak.

Beste bat Nazioarteko Zigor Auzitegian (NZI) egoera jakin batzuk epaitzeko egin diren epaiketa batzuen epai eta agiriei dagokie; izan ere, oraingo honetan, aurkezten diren kasuen irakurketan argi egin dezakete. NZI auzitegi iraunkor eta independentea da, pertsonak gizateriaren aurkako krimenengatik, genozidioagatik eta gerrako krimenengatik epaitzea ahalbidetzen duena. Nazio Batuen esparruan, *ad-hoc* auzitegi zenbait sortu dira, Ruandakoa eta Jugoslavia ohikoa kasu, eta halakoak garrantzi handikoak izan dira emakumeen eskubideen defentsan, beren erabakietan bortxaketa gizateriaren aurkako krimenez eta gerrako krimenez aitortu zutelako, bai eta genozidio- eta tortura-eratzat ere.

## BIBLIOGRAFIA

---

- ALPÍZAR, Lydia, ARROYO, Roxana, BERNAL, Marina, FACIO, Alda Facio, QUERALT, Laura eta VELÁSQUEZ, Julia (eds.). *Manual de capacitación en derechos humanos de las mujeres jóvenes y la aplicación de la CEDAW*. Red Latinoamericana y Caribeña de Jóvenes por los Derechos Sexuales y Reproductivos (REDLAC) – Programa Mujer, Justicia y Género, ILANUD. Buenos Aires. 2003.
- BUNCH, Charlotte, FROST, Samantha eta REILLY, Niamh. “Las redes internacionales y la traducción de las dimensiones globales a las esferas locales (a manera de introducción)” en Charlotte Bunch, Claudia Hinojosa, y Niamh Reily, (eds.), *Los derechos de las mujeres son derechos humanos. Crónica de una movilización mundial, México*, Edamex, 2000, pp. 25-44.
- BYRNES, Andrew. “Aplicación más efectiva de los derechos humanos de la mujer” en Rebecca Cook (ed.). *Derechos humanos de las mujeres. Perspectivas Nacionales e Internacionales*. Profamilia. Bogotá. 1997. pp. 189-225.
- Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Karta*. Euskal Herria. 2007. Hemen eskuragarri: [http://www.bilgunefeminista.org/dokumentazioa/emakumeon\\_eskubideen\\_karta.pdf](http://www.bilgunefeminista.org/dokumentazioa/emakumeon_eskubideen_karta.pdf)
- COOK, Rebecca. “Introducción: el camino a seguir” en Rebecca Cook (ed.). *Derechos humanos de las mujeres. Perspectivas Nacionales e Internacionales*. Profamilia. Bogotá. 1997.
- CHARLESWORTH, Hillary. “¿Qué son los derechos humanos internacionales de la mujer?” en Rebecca Cook (ed.). *Derechos humanos de las mujeres. Perspectivas Nacionales e Internacionales*. Profamilia. Bogotá. 1997.
- DONELLY, Jack. *Derechos humanos universales en teoría y en la práctica*. Gernika. México. 1994.
- FACIO Montejó, Alda (Coord.). *Caminando hacia la igualdad real*. ILANUD – UNIFEM. Costa Rica. 1997a.
- FACIO Montejó, Alda “De las necesidades básicas a los derechos humanos” en COOK, Rebecca (ed.). *Derechos humanos de la Mujer. Perspectivas nacionales e internacionales*. Profamilia. Bogotá. 1997b.
- FACIO Montejó, Alda “Viena 1993, cuando las mujeres nos hicimos humanas” en Marcela Lagarde y Amelia Valcárcel (coords.). *Feminismo, género e igualdad*. Colección Pensamiento Iberoamericano. AECID. Madrid. 2011. pp. 3-20.
- GUZMAN, Manuel. *The Investigation and Documentation of Events as a Methodology in Monitoring Human Rights Violations*. HURIDOCS. Sistema Internacional de Información y de Documentación sobre los Derechos Humanos. Versoix, Suiza s/f. Disponible en: <http://www.huridocs.org>
- GUZMAN, Manuel eta VERSTAPPEN, Bert. *¿Qué es la documentación?* Serie sobre la Documentación y Vigilancia de los Derechos Humanos. Vol. 2. HURIDOCS, Sistema

Internacional de Información y de Documentación sobre los Derechos Humanos. Versoix, Suiza. 2002. Disponible en: <http://www.huridocs.org>

- HURTADO, Virginia eta FRÍES, Lorena. "Análisis del estado de la información sobre violencia en América Latina y el Caribe" en Marcela Lagarde y Amelia Valcárcel (coords.). *Feminismo, género e igualdad*. Colección Pensamiento Iberoamericano. AECID. Madrid. 2011. 109-126. or.
- KUMAR, Corinne. "Los Tribunales de Mujeres. AWHRC y El taller internacional". Mimeo. s/f. Traducción de Luisa María Quintero.
- MACEIRA Ochoa, Luz. *Carpeta sobre derechos humanos, lecturas clave. Material de trabajo para el taller sobre derechos sexuales y reproductivos de l@s jóvenes*. Elige, Red de Jóvenes por los Derechos Sexuales y Reproductivos. Mexiko. 2003.
- MACEIRA Ochoa, Luz y LÓPEZ Cruz, Marusia. *Manual para la promoción y defensa de los derechos sexuales y reproductivos de las y los jóvenes*. Elige, Red de Jóvenes por los Derechos Sexuales y Reproductivos, A. C. Mexiko. 2003.
- MEDINA Rosas, Andrea. *Campo Algodonero. Análisis y propuestas para el seguimiento de la sentencia de la Corte Interamericana de Derechos Humanos en contra del Estado mexicano*. Red Mesa de Mujeres de Ciudad Juárez A.C. y Comité de América Latina y el Caribe para la Defensa de los Derechos de la Mujer – CLADEM. México. 2010.
- MEDINA Rosas, Andrea. "Campo Algodonero. Definiciones y retos ante el feminicidio en México". *Revista de Derechos Humanos D-fensor*. 3. zenbakia. 2011. 6-11. or.
- Nazio batuen Erakundea. *Declaración y Programa de Acción de Viena*. 1993.
- RAMÍREZ, Beatriz eta LLAJA, Jeannette. *Los lentes de género en la justicia internacional. Tendencias de la Jurisprudencia del Sistema Interamericano de Derechos Humanos relacionada a los Derechos de las Mujeres*. Comité de América Latina y el Caribe para la Defensa de los Derechos de la Mujer, CLADEM. Lima. 2011.
- REILLY, Niamh. "La implementación de los derechos humanos de las mujeres" en Charlotte Bunch, Claudia Hinojosa, y Niamh Reily, (eds.), *Los derechos de las mujeres son derechos humanos. Crónica de una movilización mundial, México*, Edamex, 2000, 209-237. or.
- SCHULER, Margaret. "From basic needs to basic rights: Women's claim to Human Rights" en SCHULER, Margaret (ed.). *From basic needs to basic rights*. Institute For Women, Law and Development. Washington. 1995. pp. 1-26.
- SCHULER, Margaret eta THOMAS, Dorothy (eds.). *Derechos humanos de las mujeres: paso a paso. Guía práctica para el uso del Derecho Internacional de los Derechos Humanos y de los Mecanismos para defender los Derechos Humanos de las Mujeres*. Women, Law & Development International, Human Rights Watch Women's Rights Project, Instituto Interamericano de Derechos Humanos. Costa Rica. 1999. (© 1997).





**ABORTATZEKO ESKUBIDEA**

# ADITUAREN TXOSTENA



## Justa Montero Corominas

Madrileko Asanblada Feministako partaide, Erakunde Feministen Estatuko Koordinadorakoa eta Kongresuaren aurreko Emakumeen Plataformakoa. Genero arloan eta politika publikoetan aditua. 2010ean abortuaren legearen alde agertu zen Diputatuen Kongresuaren berdintasun azpibatzordearen aurrean.

## I. SARRERA

---

Hainbat hamarkadatik hona, mendeak akaso, eskolek eta unibertsitateek erakusten diguten historiaren oso bestelakoa idazten ari da. Historia honek erakusten digu nola emakumeek, munduko leku ugarian, beren beharrak, desioak eta esperientziak aipatu eta izendatu dituzten; nola oso bestelako emakumeek, pixkanaka, banaka zein taldeka, bidegabekotzat hartzen dituzten bizi eta jasotzen dituzten egoerak eta debeku-sistemaren eta gizarte bakoitzak antolatzen dituen bazterketen kontra ekiteko eta beren bizietan bide berriak irekitzeko nahia adierazten dute.

Modernitateak emetasun eredu nagusia ezarri zuen, emakumearen jomuga bakartzat amatasuna zuena, bere desio eta plazerak debekatzearekin lotua. Eredu heterosexual hertsia zegoen ezarrita eta sexu identifikazioa amatasunarekin lotua. Egoera hau dela eta, "sexualitatea ez da amatasuna" edo "amatasun askea eta desiozkoa" bezalako esloganak izan ziren feminismoaren lehenengo baieztapenak.

Eredu hau oso funtzionala izan da bizi garen gizartea kokatzen den dikotomiei eusteko: maskulinitasun eta feminitate estereotipoak, sexu eta genero nortasunak (biko ereduak ezarrita: emakume izatea eta gizon izatea zer den), giza produkzio eta ugalketa; eremu publikoa eta pribatua, inpartzialtasunean eta elkarrekikotasunean oinarritzen den eta publikoa dena agintzen duen etika eta harremanezko zaintza-etika, eremu pribatura esleitua; arrazoia eta emozioa.

Mugimendu feministak, bere diskurtsoarekin eta ibilbide luzeko mobilizazioekin, kanpaina eta proposamenekin dikotomia hauek irekiagoak egin ditu agertu dituen desadostasunekin. Horretarako, errebindikazio eta proposamen-agenda indartsua sartu dute, erlazio pertsonal eta egunerokotasunetik giza, politika, ekonomia eta kultura-arau eta egituretara. Hala eta guztiz ere, indarrean segitzen dute beren izaera estruktural eta funtzionagatik sistema patriarkal eta kapitalismoaren kontra.

Dikotomiko gisa aurkezten diren eremu hauen garrantziaren oinarria ez da bakarrik giza eremuak izendatzen dituztela, baizik eta egiazkotasuna eman edo kendu egiten dietela beharrei eta identitateei. Egiatan, emakumeen gizarteratzea markatzen du, izan ere, sistemara sartu edo sistematik ateratzen dituzte emakumeak. Amatasuna bera da prozesu hauek nola sor daitezkeen adibide: alde batetik, amatasunaren gizarte-funtzioa goraipatzen da eta gobernuen diskurtsoen muina da. Beste alde batetik, herritar-eskubideak sol-

datapeko pertsonaren egoeraren arabera diren gizarteko emakumeak lan mundutik baztertzearren arrazoi dira. Egungo krisiarekin gertatzen ari dena ere oso adierazgarria da.

Feminismoak emakumeen askatasunaren eta autonomiaren mugak ere salatu ditu eta irauli egin gura ditu sustraitutako kode kulturalak, arau eta baloreak, baita interpretatzeko eta adierazteko era sinbolikoa ere. Hauen eraginez jarrera sexistak, emakumeen sexualitatea ukatzea eta amatasuna nortasun femeninoaren sinonimotzat jotzea normalizat hartuak baitira.

Interpretazio arautzaile eta esentzialista hauek medikuntzatik, erlijio arauetatik, politikatik eta gobernuetatik amatasuna horrela planteatzen dute: emakumeari datzekion espeziearen ugalketa-biologikoaren eta sozialaren ardura. Beraz, emakume guztiak daude honetara derrigortuta, hau da, emakume guztien egoera soziala zehaztuko duen emakumezkoaren balizko naturara, bakoitzaren egoera zein den kontuan hartu gabe.

Honela uler daiteke emakumeen sexu eta ugalketa-bizitzaren kontrola izatea baliabide garrantzitsuenetarikoa emakumeen biziak eta gorputzak menderatzen saiatzeko.

Honek guztiak azaltzen du botere patriarkalak emakumeek beren gorputza eta bizitza kontrolatzeari dion beldurra eta emakumezko-manifestazioetan kantatzen den "nire gorputza neurea da" leloari diona. Beldur hau krudeltasunaren eta gorrotoaren oinarria da eta urteetan adierazi izan dute emakumeen kontra. Historian zehar adibide ugari dago emakumeen gorputza istilu-iturri izan dena, elkarte eta kontinente guztietako eraso ideologiko eta politikoen gakoak dena emakumeen sexualitate eta gorputzen ikusgarritasunerako erreakzio gisa. Silvia Federicck dokumentatu duen sorgin-ehizatik abortatzea erabakitzen duten emakumeen kontrako instituzio biolentziara hainbat kasu identifikatzen dira. Biolentzia honek krudeltasun muga gainditzen du abortatzeko aukera kentzen zaienean, eta areago, hiltzera ere heltzen direnean.

Hala ere, gaur egun baieztatu dezakegu emakumeen sexualitatea eta ugalketa-gaitasunaren kontrola menderatzeko mekanismoa izan baldin bada, eta orain baldin bada, emakumeen autonomia izaki sexual gisa, amatasuna aukera moduan eta, beraz, abortua eskubide bezala emakume askoren auzi-ihesaren oinarri direla eta feminismoak benetako erronka bihurtu duela. Bizi-proiektu ezberdinak eta sexualitatea eta amatasuna bizitzeko era ezberdinak adierazteko eta gorputza errebindikatzeko bide eman du.

Emakumeen sendotzea, giza, politika, ekonomia eta kultura-aldaketetarako feminismoa bultzatzen ari den estrategiek begi bistan utzi dute emakumeak beren eskubide propioen jabe direla; eta garenaz, bizi garen gizarteaz eta munduaz hausnarrarazi dute. Errealitatea, askatasuna, biztanleak eta demokrazia beste era batean interpretatzeko talde-prozesua sorrarazi dute. Hau da, guztion elkarbizitza eta biztanleria barne hartzen duena. Prozesu honek, begi bistakoa da, talka egiten du populazioaren erdiari baino gehiagori bere bizitzaz erabakitzeko eskubidea ukatzearekin.

## II. ESKUBIDEAK: ERREFERENTZIA-EREMUA

---

Abortua emakumeen erabakitzeko eskubidetzat definitzeko bidea sexu-askatasun eta autonomiatik, antisorgailuetatik eta desiozko amatasunetik, sexu-osotasunetik eta ugalketa eta sexu-inposaketetatik igaro da.

Eskubide hauek feminismoaren ibilbidearen garaian formulatu ziren, XX. mendetik eta LGTB komunitateen arteko borroketatik hona. Mugimendu feministaren estrategiekin lotuta dago. Honek "pertsonala dena politikoa da" esloganarekin emakumeei eman die hitza eta hauek sexudun izaki gisa agertu dira berezko nortasunarekin eta bere errealitatea gauzatu dute. Horrez gain, haien beharrak eta eskaerak ikustetik agenda publikoan jarzera igaro dira eta gizarteari, bere osotasunean, exijitu diote bere sexu eta ugalketa-eskubideak errespetatzeko eta Estatuari emakumeei eskubide horiek gauzatzea bermatuko dieten politika publikoak formula ditzala.

Azken hamarkadetan mugimenduak sortu dituen foileto, manifestu, dokumentu eta konsignetan ikusten da nola gero eta zabaltasun eta argitasun handiagoz izendatzen eta kontzeptualizatzen joan diren sexu eta ugalketa-autonomiaren inguruko eskubide hauek. Gaur egun guztiak bitan taldekatuta daude eta *sexu-eskubideak* eta *ugalketa-eskubideak* izenak erabiltzen dira.

Sexu eta ugalketa-eskubideak, beraz, emakumeen sexu eta ugalketa-autonomiarako askatasunerako eskubidetzat jotzen dira eta pertsonen askatasun, berdintasun, osasun, pribatutasun, autonomia, osotasun eta duintasun-eskubideen ondorio dira.

Sailkapen guztiek bezala, honek ere arazoak dakartza eta eskubide hauen edukiaren inguruko interpretazio ugari daude. Askotan, feminismoak zirikatutako kategoria kritikoe-kin gertatu bezala, generoarena esate baterako, instituzio eta erakunde ofizialek edukirik gabekotzat joaz, bere irismena "deskafeinatze"ko, beren sexu-eskubideak alde batera uzteko eta garatu gabe izendatzeko zein ugalketa-eskubideen barruan, aborturako eskubidea arbuizatze"ko erabiltzen dituzte. Dokumentu honetan, norbanako eta giza-harreran, feminismoak egindako erabilera aukeratu da.

Autonomia eta autodeterminazioa gako dira esangura ulertzeko. Alde batetik, pertsonak sexu bizipenekin loturikoa kontrolatzeko aukera dutela adierazten du: sexu-nortasuna, gorputza bizitzeko era, desioak, plazera eta sexu-jarrerak eta hauek erabat gauzatzeko eta esperimintatzeko eskubidea dutela. Beste alde batetik, emakumeek gauzatzeko aukera dutela adierazten du bere ugalketa-ahalmenen arabera, ama izateko edo ez izateko erabakiaren arabera eta, hala bada, noiz eta norekin. Honek, argi dago, aborturako eskubidea barne du.

Eskubide hauen ezaugarria da beren zabalera bikoitza: norbanakoa eta soziala, izan ere, norbanakoen eskubideak dira, baina justizia eta giza-berdintasun egoeran bakarrik dira posible.

Beste ezaugarri bat da eskubide unibertsalak direla eta honek esan nahi du pertsona orok duela hauetaz erabat gozatzeko eskubidea, adin, etnia, gizarte-maila, nazionalitate, sexualitate, nortasun, administrazio-egoera, eta aniztasun funtzional erako ezberdintasun barik eta inolako bazterketarik jasan gabe.

Era berean, ekonomia, giza eta kultura arloko determinatzaileak, bakoitzaren subjektibitatea eta bere ezinbesteko ibilbideak kontuan hartzea esan gura du, emakumea giza-hierarkietan bestela kokatzen dutenak, beraz, eskubideak gauzatzeko aukera ezberdinekin. Horrexegatik, eskubideak gozatzeko bermatzeko ezinbestekoa da emakume bakoitzaren egoera eta beharrak ezagutzea eta onartzea.

Hau dela eta, gerta daiteke, esate baterako, amatasunak ez izatea esanahi bera une oro,

emakume ororentzat; eta desioen eta ugalketa-aukeren inguruko arazoak bizitzeko modua oso ezberdina izan daitekeela.

Azkenik, aintzakotzat hartu behar da eskubideok, horrela har daitezen, ez direla bakarrik instituzioek ezarritako eta legeetan batutako arau edo administrazio-xedapen moduan ulertzen, ezpada, pertsonen gauzatutako eta onartutako eskubideak izateko legitimitatearen parte gisa ere bai.

Esandakoari sexu eta ugalketa-eskubide bakoitzaren izaera autonomia gehitu behar zaio eta, aldi berean, euren erlazioa egiaztatu. Maila bakoitzean berezko autonomia duten eskubideak taldekatzen dira hasieran, feminismoak adierazi moduan "sexualitatea ez da amatasuna"; baina aldi berean, erlazioan egiten dira, izan ere, batzuk gauzatzeak besteak garatzea dakar biek ala biek dutelako helburu emakumeen gorputz-subiranotasuna, beren biziaz erabakitzeko autonomia, alegia. Historiak adierazten du nola emakumeen ugaltze-gaitasunaren kontrola funtsezkoa izan den euren sexu-autonomia kontrolatzeko, eta alderantziz.

## **Sexu-eskubideak**

Sexu-eskubideak honetan oinarritzen dira: emakumeak izaki sexualizat eta sexualitatea izaeraren eta nortasunaren partetzat hartzean. Pertsona ororen bizi sexual egokiaz eta atseginaz gozatzeko eskubidea batzen dute. Horrez gain, sexu eta genero-nortasuna adierazteko ahalmena eta desio eta plazer sexuala adieraztekoa.

Sexualitatea denon eskubidetzat onartzen ez duen ideologia matxistaren aurreiritzi eta jarrera homofoboan, giza-bazterketa eta iraintzea bultzatzearen eta gehingoaren arau sexualak urratzearen ondorio diren arrisku, hertsadura, diskriminazio eta bortizkeria orotatik askea den sexu-bizitza ziurra ere ordezkaten dute.

Bestearen eskubideen errespetuan garatzen diren eskubideak dira; sexualitatea pertsona ororen bizi-aldi osoan onartzea oinarri dutenak eta, beraz, nerabeen sexualitatea bera eta umeen bilakaera-ahalmena ere bai.

Ugalketarekin lotura gabeko sexualitateaz gozatzea barne hartzen dute, historian zehar, feminismoak aldarrikatu duen moduan. Horrez gain, sexu, jarrera, praktika, sexu-aukera, sexu-plazera esperimentatzeko era-aniztasuna, gorputza eta nortasun propioa bizitzeko esperientzia txarragoak eragin dituen ere eskubide hauen barnean dago.

Proposamen feministak eta LGTB-k sustatu dituzten prozesu hauek gizon eta emakumeen arteko erlazioetan zentratzen den eredu heterosexualaren kritikaren parte dira. Eredu honek prozesutik aldentzen den sexualitatea estigmatizatzen du eta, genero bikoiztasunarekin batera, gizarte bakoitzeko sexualitatea, hau da, onartua dena eta ez dena bizitzeko era onartzeko arauak ezartzen dituen diskurtso nagusia, antolatzen du.

Sexualitatearen bizipenak gorputzarekin, alderdi subjektiboekin eta pertsonen bizia garatzen den giza, kultur eta ekonomia-egoerarekin du zerikusia. Gizon eta emakumeen giza-erlazioetan, genero-aginduetan ezarrita daudenak, barne dagoen gorputz sexuatu dugu hizpide. Kontuan izateak, biolentziatik aske, baliabide guztiak jartzea ahalbidetzen du bere adierazpide ezberdinetan -fisikoa eta psikologikoa- jazarpenetik, erasoetatik, bortxaketatik edo edozein hertsadura-erlazio eratatik aske bizitzeko.

## Ugalketa-eskubideak

Ugalketa-eskubideen izenpean pertsona ororen ugalketa-autodeterminazioari lotuta-koak batzen dira eta ugalketa eta emakumeen ugalketa-gaitasuna, biak ala biak, gara daitezkeen aukeratzat hartzean oinarritzen direnak. Beraz, esan nahi du emakumeek beren ugalketa-biziaz erabakitzekeo eskubidea onartzea, hau da, seme-alabak izan ala ez, kopurua, momentua eta norekin era librean erabakitzea.

Era honetan, diskurtso patriarkala zalantzan jartzen da, esan moduan, honek amatasuna naturaren agindutzat hartzen du eta emakumeak inkubagailu bihurtu gura ditu. Emakumeen ugalketaren inguruko erabakiak errespetatzea da, beraz, abortua bera ere errespetatzea.

Genero-estereotipoetan barneratzen diren eta beti emakumeen irudi berdina ematen duten diskurtso nagusien aurka feminismoak esperientzien, desioen eta itxaropenen aniztasuna bizitzako alor askotan azalerarazi du eta sexualitatearena eta amatasunarena ere bai. Horretarako, mailak, etniak, sexualitateak eta adinak ezartzen dituen ezberdintasunek amatasunaren esanahietan emakumeengan duten eragina aztertu behar izan du, baita dilemak eta desioak erabakitzekeo erak eta askotariko ugaltze-aukerak ere.

Emakume askok ama biologikoa izan nahi dute, bai ala bai, eta baliabide ekonomikoak izanik, oso garestiak eta emozio aldetik ere neketsuak diren ugaltze-teknikak erabiltzen dituzte; beste askok ez dute amatasun biologikoa onartzen edo ezin dute haurdunaldia garatu eta haurra adoptatzea erabakitzen dute; batzuek emakume baten gorputza alokatzten dute haurra izateko; beste zenbaitek ez dute amatasuna beren bizi osoan aukeratzten eta batzuk, nahi gabe, ama izaten dira; beste batzuek, nahi izanda ere, azkenean nahita eten egin behar dute haurdunaldia.

Feminismoak, bizitzeko eta amatasuna ulertzeko aukera hauei zilegitasuna eman die. Alde batetik, emakumeek amatasunaren esperientzia era positiboan errekuera dezaten; eta beste alde batetik, ugalketa-aukera ugariak posible izan daitezen abortua eskubidetzat ezarritz.

Oinarri honen gainean aldarrikatzen dira ama izatea zein abortatzea erabakitzen duten emakumeak baztertuko ez dituzten politika publikoak, dagoen moral bikoitzari aurre egingo diotenak. Politika hauen gakoa emakumeen bizitzaren jasangarritasuna izango da eta ez, historian zehar gertatu den moduan, tasa eta portzentaje bihurtzen dituen kontrolerako helburua.

## Beste eskubide batzuk

Ugalketa-eskubideen barnean nahi gabeko haurdunaldien prebentzioarekin erlazioan-takoak daude. Hauek metodo antisorgailurik ez erabiltzeagatik, era ezegoki baten erabiltzeagatik edota informazio nahikorik ez jasotzeagatik gertatuz gero, sexu-heziketa eta metodo antisorgailu guztiei buruzko informazioa eta sarbidea aipaturiko haurdunaldiak prebenitzeko oinarritzko eskubideen artean ageri dira.

Metodo antisorgailuen eta dauden zerbitzu eta baliabideen argibideetarako eskubidea gakoa da informazio egiazkoa, osoa eta sartzan erraza izan dadin.

Sexu-heziketaren eskubidea, hau sexualitatearen inguruko ezagutza eta informazioa jasotzen den prozesutzat ulertuta, ez dadila ugalketari lotutakoa bakarrik irakasteari mu-

gatu, baizik eta aurreiritzi sexistarik gabeko edukiak ere irakats ditzala; sexu-aniztasuna errespetatzen duena eta sexualitatea bizitzea eta honetaz gozatzea bultzatzen duena. Sexu-heziketa hau da bermerik handiena ezagutza faltaren ondorioz sortutako sexu eta ugalketa-jarrera arriskutsuak prebenitzeko.

Herrialde gehienetan sexu-heziketa ez da eskola esparrura hedatzen. Egiten den herrialdeetan, hain justu, eskaintzen da antisorgailuetara sarbide are errazagoa eta hauek abortu kopuru txikiagoa daukate.

Metodo antisorgailu moderno guztietara sarbidea izateko eskubidea, urgentziazko antisorgailua barne, beste "prebentzio-eskubide" bat da. Honetara sarbidea hiru alderdirekin dago zuzenean loturik: informazioa, ekonomia-sarbidea eta osasun sistema publikoetan sartzea.

Sarbidea errazagoa den herrialdeetan, osasun sare publikoan eskaintzen direlako eta asko erabiltzen direlako, abortu kopuruak nabarmen egiten du behera.

Hala eta guztiz ere, metodo antisorgailuak izateak eta hauetarako sarbideak ez du bermatzen nahi gabeko haurdunaldiak ez sortzea, izan ere; metodo hauetan, ondo erabilita ere, akatsak egon daitezke. Gainera, gizon-emakume askok ez dute metodo egokietarako sarbiderik, emakumearen kontrako biolentziak sarri nahi gabeko haurdunaldia darama berearekin eta egoera aldaketek; ekonomikoak, gizartekoak eta osasunekoak, desiozko haurdunaldia nahi gabeko bihur dezakete.

### III. ABORTU-ESKUBIDEA

---

#### Erabakitze eskubidea

Abortua eskubidea da: emakumeek erabakitze dutena, beraz, nahigabeko haurdunaldia eteteko. Feminismoak behin eta berriz errepikatu du, logika hutsagatik, begi-bistakoa dena: eskubidetzat hartzeak ez du inor behartzen, alderantziz, ideologia-arauek emakumei gogoz kontra ama izateko ezarritako obligazioari irtenbidea ematen dio.

Abortatzeko eskubidea gorputzaren subiranotasunarekin, emakumeen sexu eta ugalketa-autonomiarekin, emakumeen eskubideekin eta justizia sozialarekin erlazionatzen da.

Printzipio etiko batean oinarritzen den eskubidea da: emakumeek euren iritzia adierazteko eta emateko autonomia eta ahalmen moralari errespetuan. Halaber, erabakiak hartzeko eta bizitzako dilemen aurrean jokatzeak. Hauen artean amatasuna da barne-barnekoenatarikoa eta pertsonalena. Beraz, ikuspuntu progresista batetik, politika zuzentzeko diskurtsoetan hauengana jotzeko formula izatetik urrun, edo kontzeptu abstraktua eta edukirik gabekoa izatetik urrun, emakumeen oraingo zein geroko bizitza konkretuarekin du zerikusia.

Hain kontu oinarritzkoak "etika modernoarekin" haustea dakar. Rousseau-ren garaitik Kant-en garairaino emakumeak eremu pribatuan, moralaren eta justizia alorretik kanpo kokatu dituen etika. Haatik, gizonen eremutat hartzen zen lekua "argizatzen" zuen. Feminismoaren praktika eta teoriaren aldetik gogor salatu izan da giza-antolaketa diktatorikoa hau eta emakumeak erabakiak hartzeko subjektutat hartzea bultzatu izan da;

euren balore eta sineskera pertsonalen arabera erabakiak eta euren ongizate eta bizi-proiektuarekin loturikoak.

Hala ere, botere politikoek eta eliza-hierarkiak, munduko leku ugarritan, herentzia horren menpe segitzen dute eta emakumeak ez-subjektutzat, agentziarik gabekotzat, ongia eta gaizkia ezberdintzeko ez-gaitzat, hau da, beraientzat ona dena eta ez dena ezberdintzeko ezgauzatzat hartzen tematzen dira. Hauen arabera, beraz, hirugarren baten beharra dute euren izenean erabaki dezan zer behar duten eta zer izan eta egin behar duten. Horrela, euren bizitza tutoretza latza bihurtzen dute. Tutoretza hori, eskatu ez dena eta nahi ez dena, gauzatzeko prest daudenen zerrenda luzea eta anitza izan daiteke eta bertan sartzen dira senar ohiak, epaileak, gotzainak, aukeratzearen kontrako elkarteak, medikuak eta gobernatzailleak. Hauek emakume batek aborta dezakeen edo ez erabakitzeke esku-bidedun direla uste dute.

Hori dela eta, eskubideez hitz egitea da emakume bat, nahi edo planifikatu gabeko haurdunaldi baten aurrean, abortatzeko erabakia hartzea eraman dituen zergatiak errespetatzea. Izan ere, planifikatutakoa izan daiteke, baina denborarekin emakumearen bizi-egoera aldatzea gerta daiteke eta jarraitu ezin izatea; planifikatu gabekoa izan daiteke, nahi gabekoa edo ez, baina funtsezkoa da emakumeak erabaki behar duenean adierazten duena.

Emakumeek abortatzeko dituzten zergatiak asko izan daitezke: bere osasunarentzako arriskuarekin lotua egon daiteke, gerta litezkeen fetuaren malformazioekin, egoera pertsonalarekin, lan-egoerarekin, ekonomikoarekin, bere bizi-baldintzen aldaketarekin edo maitasun-erlazioekin. Azken finean, bere ustez, bere ongizatean edo bizi-proiektuan eragina duten zergatiak. Egoera hauetan guztietan, emakumeari berari dagokio aintzat hartzea eta erabakitzea, ez emakumearen bizitzarekiko guztiz apartekoei eta euren bizian inolako aldaketarik nabarituriko ez dutenei.

Emakumeek abortatzea erabakitakoan berau bizitzeko era ere oso bestelakoa izan daiteke. Batzuek nahastuta egiten dute, minez, istilu edo estutasunarekin. Abortatu beharrrak, batzuetan, errudun sentimendurekin bat egiten du, izan ere, giza-arau (erreal edo sinbolikoa, esplizitua edo inplizitua) urratze gisa identifikatua izaten da eta erabakiaren, eta beraien, inguruko iritzi negatiboa izatera eramaten ditu. Aukeratzearen kontrako taldeek bere abortuaren gaitzespen-estrategian sustatu gura dituzten markekin zerikusia du. Haatik, beste emakume batzuei ez die istilurik eragiten, egiatan, batzuek lasaitasun handiz hartzen dute euren iritzi, benetan, larritasun handiko egoera baita nahi gabeko haurdunaldia.

Hain prozesu pertsonalean eragile askok hartzen dute parte: emakumeen bizibide proiotik euren sinesmen erlijiosoak bizitzeko modu partikularrera. Horrez gain, haren hurbilekoen jarrerak eta iritziak ere eragina dute; daukaten elkartasuna edo, aldiz, erakusten duten etsaitasuna. Zenbat eta emakumearen inguru kontrakoagoa, orduan eta emozio-presio handiagoa jasango du honek eta zailtasun gehiagori egin beharko die aurre. Aitzitik, zenbat eta aldekoagoa izan ingurua, orduan eta elkar ulertze handiagoa izango du eta baldintza emozional egokiagoetan egongo da abortatzen duen emakumea.

Erabaki behar duen emakumearen osagarri etikoa ezinbestekoa da, baina ez da gutxiago politikoa. Ez du alferrik berretsi feminismoak ez dagoela emakumearen gorputza baino



ezer pertsonalagorik eta politikoagorik eta abortua da emakumeek bere gorputzarengana subiranotasunaren ukatzearen erdigunean kokatzen da. Duintasunez abortatu ahal izateko ezinbestekoak dira Estatuak bermatu beharreko baliabideak eta zerbitzuak eta lege eta osasun-baldintzak.

Horrez gain, baina, abortua justizia sozialaren osagai argia da, izan ere, emakumeen egoera ekonomikoak eta sozialak, neurri handi batean, eskubide hau gauzatzeko sarbide-baldintza ezberdinak askatasunez egin ahal izatea mugatzen du. Asko dira, esate baterako, Erdialdeko Amerikako emakumeen testigantzak. Hauek erakusten dute nola pobreak osasun zerbitzuetara edo atentzio legalera sarbidea baldintzatzen duen. Baliabide ekonomikorik gabeko emakumeak dira abortu ez-ziurrekiko sentikorrenak eta prozesuetan sartzen direnak, izan ere, debeku-legeak dituzten herrialdeetan zentro publiko batera joanez gero, bertako langileek salatua izateko arriskua du. Beste adibide bat da Espainiar Estatuan jazotakoa. Bertan, osasun prestazio honetara sarbidea ukatzen zaie administrazio-egoera erregulatuturik ez duten emakumeei, "paperik gabeko" etorkinei.

Emakumeen erabakitze eskubidea, testuan zehar garatzen den moduan, emakumeen eskubideen markoan erregistratzen da, giza-eskubideenean, justizia sozialarenean eta hauekin loturiko guztietan: duintasuna, bizitza eta osasuna, askatasuna, berdintasuna, pribatutasuna, autonomia eta osotasuna.

## Duintasun-eskubidea

Duintasunaren eskubideak barne hartzen du norbanakoaren bizi-proiektuarekin zerikusia duten erabakiak errespetatzea. Honetan parte har dezake amatasunak, edo ez, bizitzako uneren batean.

Emakumeen erabakitze eskubidea eskubide multzo horien atal bat da, izan ere, bere bizi-proiektua diseinatzeko emakumeen gaitasuna errespetatzea da. Egoera askok eragin dezakete haurdunaldi batek erabat aldatzea emakumearen bizi-proiektua; gazterik ikasteari utzi behar izatetik hasita, langabezian edo diru sarrera barik egoteraino. Egoera hauek, besteak beste, ezberdintasun soziala eragiten dute, diskriminazioa eta pobretasun ekonomiko eta pertsonala.

Torturaren kontrako Itunak eta Giza-eskubideen Amerikako Itunak (11.5. artikulua) adierazten duten moduan, inork ez ditu torturak eta zigorrak edo tratu krudelak, ankerrak edo umiliagarriak jasan behar giza-duintasunaren kontrako iraina osatzen baitute. Emakumei abortatzeko eskubidea ukatzea, bereziki honen osasuna eta bizitza arriskuan daudenean, torturetatik, tratu krudel, anker eta umiliagarrietatik libre bizitzeko onartutako eskubidearen kontra egitea da.

Irlandan, El Salvadorren eta Nikaraguan, oraintsu, gertatutako kasu batzuetan emakumea, bere bizia arriskuan egonda ere, gogoz kontra haurdunaldiarekin aurrera egitera behartu dute. Hauek arestian esandakoaren zorigaitzeko adibide dira, izan ere, emakume horiengan eragindako beldurra, mina eta torturarik handiena dira legedian oinarrituta gauza daitekeen biolentzia instituzionalaren adibide.

Iritzi publikoa hunkitu duten muturreko egoera hauetara heldu gabe, emakumea ugalke-ta-bizian gogoz kontrako jarrera hartzera behartzea ere tratu krudel, anker eta umiliagarriak dira. Duintasun-eskubidea urratzen da emakumeen aukerak eta ongizatea kalte-

tzen direnean, bere erabakia hirugarren batek egiaztatzen duen prozesuetara behartzen denean, aborturako sarbidea eragozten denean lege barruko epea luzatuz hau amaitu arte, emakumearen osotasunaren kontra bortxaz egiten denean eta amatasuna bultzatzen denean bere gogoaren kontra.

Kasu hauetan guztietan Estatuak bere arduratik urrunduz gero; hau da, emakumeen intimitatea eta abortu ahal izan dezan baldintzak eta zerbitzuak bermatzen ez baditu, tratu krudel eta umiliagarriaren hutsegitean erortzen da.

Bizi duina proiektu pertsonala da eta gainerakoekin, gizartean, garatzearekin dago lotuta. Horrek esan nahi du; alde batetik, kontuan hartzea nola eremu biologikoak, psikologikoak eta elementu materialak eta sinbolikoak pertsonaren ongizatearen parte diren eta, beste alde batetik, existentzia-baldintza material zenbait bermatuak izatea jasangarritasun ekologikoaren, osotasun-fisikoaren eta duintasunaren proiektu batean.

Bizi jasangarrirako proiektua eraikitzeko eta ezaugarriak marrazteko autonomia izatea nahitaezkoa da, erabakitze eskubidea ere baldintza honetan oinarritzen da.

## Osasun-eskubidea

Abortua osasun publikoaren barruko gaia da, gauzatu ahal izateak edo ezin izateak, behin emakumeak horrela erabakita, modu erabakigarrian du eragina emakumeen osasunean.

Abortu-eskubidea, osasunerako arrisku larritzat jota, ukatzen dutenek egiten duten osasunari buruzko interpretazio murriztaile eta biologizisten aurrean, beste interpretazio bat sortu da eta honek osasun integralaren kontzeptua hartu du.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, osasuna ongizate fisiko, mental eta soziala izatea da eta ez gaixotasun edo min gabezia bakarrik. Beraz, pertsona orok du ahalik eta osasun eta ongizate fisiko, mental eta sozial onena izateko eskubidea. Definizio hau sexualitate eta ugalketa arloetara hedatuz gero, ugalketa-osasuna honen sistemarekin, bere funtzioekin eta prozesuekin erlazioatutako alderdi guztiei erreferentzia egiten dien ongizate-egoeratzat ulertzen da. Sexu-osasunak, berriz, erreferentzia egiten dio sexualitatearen bizipenarekin lotutako, eta arestian aipaturiko, ongizateari.


Osasuna, beraz, dimentsio biologikoak, sozialak, psikologikoak, kulturalak eta ekonomikoak barne hartzen dituen kontzeptu zabal eta oso bezala ulertzen da; alde fisikoa, emozionala eta soziala babesten duen eskubidea. Osasun-eskubideak esan nahi du bizitza sanoaz gozatu ahal izatea eta duintasunez bizitzea. Hortik dator Estatuaren osasun zerbitzuetara sarbide-baldintzak bermatzeko obligazioa eta, zehatzago, emakumeen haurdunaldiaren gozoko eteteak eskatzen dituen zerbitzuak.

Abortuak osasun interbentzioa eskatzen du eta hau gauzatzen den baldintzak eragin zuzena du emakumeen osasunean. Abortu ez-ziurra, hau da, gai ez den langileek edo egoera ez-egokietan egina, osasun publikoko arazoa da. Abortu ez-ziurra duten emakumeetatik, %10 eta 50 artekoek ondorio larriak eragin ditzaketen konplikazioetarako (osatugabeko abortua, sepsis-a, odol-husteak, infekzio-konplikazioak) tratamendurako mediku-atentzioa behar dute. Konplikazio hauek milaka emakumeren heriotza eragiten dute.



- 68.000 emakume hiltzen dira urtero abortuaren ondorioz.
- Amerika latindarrean haurdunaldi goiztiarrak, beren arriskuak eta konplikazioak dira 15 eta 19 urteko nerabeen artean heriotza-zergati nagusia.
- Osasunaren Mundu Elkartearen arabera (2011), abortu ez-ziurragatiko heriotzak ama-heriotza guztien %13 dira.
- Hegoaldeko herrialdeetan abortuagatiko heriotza-arriskua 100.000ko 370ekoa da.
- Urtero ia 3.700.000 emakume latinoamerikarrek abortu ez-ziurrera jotzen dute eta hau, ustez, amaren aldeko heriotzen zergatien %17 da.
- Latindar Amerikan eta Karibeetan urtero 5.000 emakume hiltzen dira abortu ez-ziurrarekin loturiko konplikazioen ondorioz. Honek mundu mailako portzentajerik altuena adierazten du: amen heriotzen %21.
- 2008an 21.6 milioi abortu ez-ziur gertatu ziren mundu mailan, kasik guztiak hegoaldeko herrialdeetan.

### Mundu mailan, eskualdeka eta egoera txarrean (15-24 urte artean) gauzatutako abortuen portzentajearen banakatzea



Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, lege zorrotzagoek ez dute abortu kopurua gutxitzen, aldiz, amaren aldeko heriotza eta erikortasun eta emakumeen osasun eta bizirako arriskua areagotzen dute. Izan ere, era klandestinoan gauzatera behartzen dituzte eta ondorioz emakumeek era ez-ziurrean bizia arriskatzen dute.

Beraz, osasun-eskubideak berarekin dakar osasun publikoaren sarean haurdunaldia eten gura duten emakume guztiak joan ahal izateko osasun eta ospitale-zentroak daukela bermatzea. Horrela, berdintasun eta ekitate-printzipioa bermatuko litzateke. Honen arabera, pertsona orok du mediku-atentziorako sarbidea eta ezin zaio mugatu ezta oztopatu ere.

Honek berarekin dakar zerbitzuetara sarbidea oztopatzen duen edozein traba ezabatzea. Espainiar Estatuan gertatzen den moduan, paperik gabeko emakume etorkinak baztertzten dituzten traba legalez ari gara: sarbide-trabak zentro nahikorik ez dagoelako, edo abortua gauza dezaketen langileak ez egotea kontzientzia-eragozpena erregulatuta ez dagoelako, hizkuntzagatik, biztanleria zehatz baten ezaugarrietara egokitutako zerbi-

tzuak ez egoteagatik: gazteei, aniztasun funtzionala duten pertsoneri, etnia ezberdinetako emakumei eta beste askori egokitutakoak.

Abortuak osasun interbentzioa eskatzen du eta prestazio hau osasun sare publikoetan gauzatzeko aukera egon beharko luke. Abortua osasun-prestazio moduan normalizatu ezean, markatuta jarraituko du eta zeharo zailduko du eskubide hau errespetatzea.

Munduan zehar dauden osasun sistemak oso bestelako egoeretan daude. Herrialde batzuetan sistema publikoa ia existitzen ez den zerbait da edo baliabide ekonomikorik gabeko emakumeak joaten diren ongintzazko lekua da. Emakume hauek hona jotzen dute sistema pribatura ezin baitira joan duen kosteagatik. Txosten honetan aipatzen diren herrialde asko honen adibide dira. Hauetan guztietan emakumeen gizarte-mailak eragindako ezberdintasunek osasun zerbitzuetara sarbiderako ekitate-falta eragiten duten konstantzia dago.

Espainiar Estatuan, legeak emakume guztiei abortura sarbidea berdintasunez eta legeak batzen dituen terminoetan, bere bizitokia edozein dela ere, bermatzen zaiela esaten badu ere, horrela izan dadin oztopo asko daude eta ekitate-falta eragiten du maila askotan.

Ezberdintasun handia dago erkidego batetik bestera, izan ere; osasun sare publikoan bermatua ez dagoenez, kontzientzia-objekzioa erregulatuz ez dagoenez eta beharrezko administrazio-laguntzarekin ere ez dagoenez medikurik prest, erkidego askotan emakumeek klinika pribatuan gauzatu edo beste hiriren batera jo behar dute. Aragoi, Extremaduran, Gaztela-Mantxan, Gaztela eta Leonen eta Murtzian ez dago abortua gauzatzeko zentro publikorik. Hiri askotan ez dago klinikarik edo daudenetan abortuak haurdunaldiaren lehenengo asteetan soilik gauzatzen dira.

Abortua osasun-prestazioa baldin bada, Estatuak bermatu behar du. Beraz, honen izaera unibertsala eta, aldi berean, emakumeak haurdunaldiaren gogozko eteterako sarbidean bere burua baztertzea ez sentitzea ziurtatu behar ditu.

Abortuaren osasun-normalizazio horretarako eragozpena da egiten den kontzientzia-objekzioaren erabilera.

Kontzientzia-objekzioa osasun publikoko langile batek, konbentzio moralean oinarrituta, ezetza emateari esaten zaio. Ideologia-askatasun eta pentsaera-eskubidetik sortzen den eskubidea da, eta honen arabera, posible da obligazioa ez betetzea bere iritzia aurka doala egotzita.

Errealitatea da kontzientzia-objekzioa abortua osasun-sare publikoan bermatzeko oztopoa dela, Espainiar Estatuan bezala, abortua erregulatuta dagoen estatuetan. Ospitale publikoetan kontzientzia-objekzioa orokortzeak; dela langileak objektu deklaratzeko direlako, dela zerbitzu-buruak direlako, dela objekzioa ukatzen duen araudi-faltagatik, esan nahi du, praktikan, langilearen objekzioa emakumearen atentzia jasotzeko eskubidea baino gehiago babesten ari dela. Honek emakumeak, abortua eskatuz gero, legez ezarritako atentzia jasotzeko eskubidearekin talka egiten du.

Halaber, Estuari justifikazio gisa balio dio, horrela, ez du eskubide bat bermatu behar, zerbitzu publiko gisa ukatu duelako; era honetan abortua osasun gaia dela eta kon-

tzientzia-objekzioan oinarritzen den aniztasun moralak ezin duela justifikatu osasun zentro publikoetara jotzen duten emakumeak ez artatzea alde batera utziz.

Espainiar Estatuan ez dago kontzientzia-objekzioaren araudi zehatza eta, inguruko herrialdeei begiratuta, kasu batzuetan hartutako erabakia da araudi esplizitua ezartzea, eta horren arabera osasun langilearen kontzientzia-objekzioa publiko egiten da eta, edozein modutan ere, objekziara soilik abortuaren praktikan zuzenki parte hartzen duten langileak lot daitezkeela. Era berean, esaten da instituzioek, sistema publikoko zentroek eta ospitaleek bermatu behar dutela, une oro, emakume baten haurdunaldia gogoz eteteko eskaera onartuko dutela. Beraz, beti izan behar dute gutxieneko langile kopurua zerbitzuetan jasotako osasun prestazioak, abortua esate baterako, bermatzeko.

Aparteko interesa pizten du Andaluziako Auzitegi Nagusiaren (jurisprudentzia eragiten duena) sententziak. Honek lehen mailako atentzioa eskaintzen duten medikuen eskaerari erantzuten dio. Hauek eskatzen zuten haurdunaldia eten gura zuten gaixoak ez artatzeko kontzientzia-objekzioa aitortzeko. Aipaturiko sententzian adierazten da abortua gauzatu aurretik eta ostean emakumeei tratamendua eta mediku-arreta eskaintzeko obligazioa: "Kontzientzia-objekzio orokor baten eskubidea aitortzea Konstituzioaren 16. artikulutik aurrera, praktikan, arau juridikoen eraginkortasuna norbanakoaren kontzientziarekiko adostasunaren arabera izatearen parekoa litzateke eta honek Eskubide Estatuaren oinarria zulatzea eragingo luke. Kontzientzia-objekzioa abortuan ez da funtsezko eskubidea, ohiko lege-erregulazioa behar du eta interesatuak horri eutsi beharko dio kasu zehatz bakoitzean. Honetatik kanpo geratuko litzateke haurdunaldiaren etete aurreko eta osteko mediku-arreta".

Azkenik, abortua osasun-prestazio gisa arautzeak dakar, aipatu den moduan, kontzientzia-objekzioa erregulatzeaz gain, abortuaren gauzatea langileen (medikuak, erizainak...) formazioari erantzea. Izan ere, frogatuta dago formazioak, edo honen gabeziak, profesional hauen abortuaren aurreko jarrera baldintzatzen duela eta formazioa jaso dutenak konformeago egoten dira jaso ez dutenak baino. Praktikak erakusten du abortua mediku-praktikatik zerbait urruntzat hartuz gero, ez direla gauzatu ahal izateko langile profesional prestatuak egoten eta abortua giza-estigmatzat hartua den ghetto baten barruan gauzaten dela.

## IV. ESPARRU LEGEGILEAK ETA ZENBAIT KONPARAZIO-DATU

---

### Nazioarteko eskubidea

Azken hamarkadetan zehar nazioarteko sexu- eta ugalketa-eskubideen eremua jorratzen joan da zenbait Itun, Tratatu, Hitzarmen eta Konferentzia abiapuntutzat hartuta. Hauek, gehienetan, lotesleak ez badira ere, erreferentzia-alorra izan dira gobernu-politiken formulazio eta jarraikortasunerako, baita Nazio Batuekin loturiko erakundeentzat ere.

1. 1979an, Nazio Batuetako Batzar Orokorrak (CEDAW) "**Emakumearen aurkako Diskriminazio Era guztiak Ezabatzeko Konbentzioa**" adostu zen. Lehenengo nazioarteko Ituna da eta hau bai, loteslea da. Honek emakumearen eskubideak, espresuki, giza-eskubideztat hartzen ditu eta bertan "osasuna eta familiaren ongizatea, familia-planifikazioaren inguruko informazioa eta aholkularitza barne, ziurtatzen lagunduko duen material informatibo zehatzera sarbide-eskubidea."



2. Emakumeen eskubideak giza-eskubidetzat, modu argian, 1996an Vienan eginiko **Giza Eskubideen Nazio Batuen Konferentzia** hartu ziren. Bertan, emakumeak gizakiak diren kondizioa berretsi egin zen, beraz, "gizonari" aitortutako eskubide guztiak merezi dituztela ere bai.

Sexu eta ugalketa eta osasun-eskubideei buruzko trataera instituzional zehatzena, nazioarte mailan, Nazio Batuen Konferentzietan ezartzen da. Hauek laurogeita hamargarren hamarkadan egin ziren, bereziki, Populazio eta Garapenari buruzko Konferentzia (Kairo, 1994) eta Emakumeen Eskubideen inguruko Konferentzia (Pekin, 1995).

### Nazioarteko konferentzia eta itun-zerrenda

1969	Giza-eskubideen Amerikako Hitzarmena
1976	Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna
1979	Emakumeen aurkako Diskriminazio Era guztiak Ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW)
1993	Giza-eskubideen Mundu-Konferentzia
1994	Populazio eta Garapenaren inguruko Mundu-Konferentzia
1995	Nazio Batuen Emakumearen inguruko IV. Konferentzia
2000	Ekonomia, giza eta kultura-eskubideen Komitea (N.U)
2008	Europako Kontseiluko Ebazpena
2012	Nazio Batuetako Populazio eta Garapen Batzordearen 45. Sesio-aldiko 2012/1 ebazpena (apirila).

Iturria: Kongresu aurreko Emakumeen Plataforma

3. **Populazio eta Garapen Konferentziak** (1994) aurreko joerarekiko aldaketa adierazten du. Aldaketa hau Hegoaldeko "gainpopulazioa", pobrezia ei zen arrazoi zuzena, eteteko helburu demografikoak ezartzen zentratuko da. Egoera honetan, ugalkortasunaren kontrola zen politikak garatzeko baliabidea. Politika hauen arabera, emakumeak ez ziren subjektuak, herrialde zehatzetan jaiotze-tasen kopuruaren jaitziera lortzeko helburu demografikoetarako baliabideak baizik. Konferentzia honetan, lehenengoz sartu ziren sexu-osasuna eta ugalketa-osasuna eta alde batera utzi ziren ordura arte erreferentzia izandako amatasun eta haur-osasuna eta familia-planifikazioa.

4. 1995ean Beijin-en **Nazio Batuetako Emakumearen Inguruko IV. Mundu Konferentzia** izan zen. Honen ardatz emakumeen eskubideen onarpenera izan zen. Sexu- eta Ugalketa-osasunaren kontzeptua indartu zuen eta, aldi berean, sexu- eta ugalketa-eskubidea gehitu zituen. Horrela, Deklarazioak eta Ekintza Plataformak berretsi zuen: "emakumeen giza-eskubideek barne dute kontrola gauzatzeko eskubidea eta norbere sexualitatearen inguruko erabakiak askatasunez eta arduratsu; hertsadurarik, bazterketarik eta biolentziarik gabe hartzeko eskubidea, bere sexu eta ugalketa-osasuna barne". Horrez gain, hau onartzen da: "emakumearen norbere ugalkortasuna kontrolatzeko gaitasuna oinarria da beste eskubide batzuek gozatzeko".

5. 1996an **Europar Batasunak** eta bere parte diren Estatuak formalki onartu zuten “Kairoko Populazio eta Garapenerako Ekintza Plana”. Orduetik aurrera, Batasunaren Sexu- eta Ugalketa-Osasun alorreko politika bere oinarrietan kokatu zen. Zentzu honetan; eta erabakitzeke eskubideari lotuta, Europako Kontseiluak, bere Berdintasun Kontseilua- ren txostenari jarraiki, erakundearen parte diren Estatu guztietako eta eskatzen duten emakumeentzat abortua gauzatzea erraza izatea bultzatu zuen.

6. **Ekonomia, Giza eta Kultur Eskubideen Komitearen** 14. Gomendio orokorrak nor- bere osasun arloko eta gorputzaren inguruko erabakiak hartzeko eskubidea Osa- sun-Eskubidearen barruan onartzen du.

7. Duela gutxiago, Europako Kontseiluko 1607. ebazpenenak (2008) abortua eskubi- detzat onartu zuen eta emakumeen beren gorputzaren inguruan erabakitzeke aska- tasuna errespetatu beharrekoa dela nabarmendu zuen. Horrez gain, parte diren Es- taturako Gobernuak haurdunaldiaren etetea iristeko erraza eta ekintza ziurra izatea bermatu behar dutela.

8. **Bioetika eta Giza-eskubideen Deklarazio Unibertsalak** adierazten du: “erabakiak hartzeko gaitasunari dagokionez, pertsonaren autonomia errespetatu beharko da, hauen erantzukizuna onartu eta gainerakoaren autonomia errespetatu. Autonomiaz jo- katzeke ezintasuna dutenentzat neurri bereziak hartu beharko dira beraien eskubi- deak eta interesak babesteko” (5.artikulua).

Osasunari dagokionez, **Vienako Deklarazioa eta Ekintza Programak**, emakumeen- tzako bereziki, osasun-eskubidez jarduten du osasun fisikoa eta mentala kontzep- tuekin: “Giza-Eskubideen Mundu Konferentziak” onartzen du emakumea bizi osoan ahalik eta osasun fisiko eta mental onenaz gozatzeko garrantzia.

Emakumearen Mundu-Konferentziaren eta Emakumearen aurkako Diskriminazio Era guztiak Ezabatzeko Hitzarmenaren eta 1968ko Teherango Aldarrikapenaren testuinguruan, Konferentziak, emakumeen eta gizonen berdintasuna oinarri, ema- kumearen osasun-egokirako eta familia-planifikaziorako zerbitzuen eskubidea be- rresten du eta, horrez gain, maila guztietako hezkuntzarako sarbiderako berdinta- suna”.

Azkenik, Pertsona oroaren osasun fisiko eta mentalaren maila gorenez gozatzeko es- kubidez Nazio Batuen Erakundearen Kontalari Bereziak adierazten du: “Sexu- eta Ugalketa-osasunaren testuinguruan, askatasunen artean norbere osasuna eta gor- putza kontrolatzeko eskubidea dago”. Bortxaketa eta beste era bateko sexu-biolent- zia, adibidez, behartutako haurdunaldia eta adostu gabeko kontraepizio-metodoak kasu (esate baterako, behartutako antzutea) askatasunaren aurkako erasoak direla ulertuz.

## Legeak

Legeak sozialki onartutako eskubideak bermatzeko tresna dira, baina sarritan, abortua- ren kasuan gertatzen den moduan, gizarteak behar eta eskatzen duenetik urrun daude.

Herrialde ezberdinetako legediei erreparatutakoan oso ikuspegi anitza ikusten da bai legearen testuari berari, bai honen interpretazioari dagokionez; nola bere aplikazio-tek-

nikoei hala emakumeak eta osasun-langileak geratzen diren egoerari. Legearen murriztearen arabera, bidezidor eta estratetara jotzea eragiten du abortatzeko eragozpenak saihesteko eta lege-testuak berak dioenaren interpretazio zabalagoak lortzeko. Horrez gain, nola legeak aukeraren kontrako elkarteen eta eliza-hierarkiaren lehen helburua diren emakumeen eskubideen esparrua estutzeko obsesioa baitute, eta legeok emakumeak eta osasun-langileak jazartzeko tresna bihurtu gura dituzte.

Herrialdeen gehiengo zabalean abortuaren legeak egiten dira ez eskubidetzat, delitutzat baizik. Beraz, arautzen duen legea Kode Penaletik garatzen da. Legediak arauetatik eta delituetatik salbuesten duenak ezberdintzen ditu. Hauek jarraibide gisa edo epeak jarrean antolatzen dira.

Abortua delitutzat hartzea da sakoneko arazoa eta erregulatzen, jasotzen eta bizi den moduaren arabera, inplikazio zuzenak edo zeharkakoak ditu. Beraz, eragina du lege, giza eta emakumeen alorretan.

Legearen ikuspuntutik praktika zigorgarria dela esan nahi du eta zigortu beharrekoa. Bermatzeko errepresiozko polizia eta epai-prozesuak ezartzen dira. Legez kanpo abortatzen duen emakumea, eta honetan parte hartu duten langileak, jarraituak izan daitezke legea urratzeagatik eta kartzela-zigorra ezartzen zaien gaizkiletzat hartuak ere bai. Langileen kasuan, euren lanbidean aritzeko inhabilitazioa ezar diezaieke.

Salaketak, prozesuak, emakume eta langileei epaiketak, historia klinikoak konfiskatzea edo klinikak ixtea ohiko praktika dira Erdialdeko Amerikan eta Estatu Espainiarraren historia berrian. Abortuaren zigorgarritasunaren interpretazio zorrotzen ondorio zuzena dira. Azken emaitza emakumeentzat eta testuinguru politikoen arabera indar handiagoz edo txikiagoz manifestatzen diren eta abortua gauzatzen duten langileentzat, sentiberatasun izugarria eta segurtasun juridikorik eza dira.

Zenbait adibide lazgarri daude: Perun, legeak (Kode Penal Prozesala eta Administrazio-Estatutua) osasun-zerbitzuetara abortua eragitera jotzen duten emakumeak salatze-ra behartzen ditu langileak; El Salvadorren honek eragin du prozesatutako emakumeen %57 mediku-laguntza eske joandako ospitale publikoetatik etortzea.

Giza-ikuspuntutik delitutzat jotze horrek baimentzen die aukeratzearen-aurkako elkar-teei emakumeak legea urratu duela uste duen edozein pertsona salatu ahal izatea.

Abortua delitutzat jotzeak zenbait diskurtso oinarritzen ditu. Gizarteak emakume hauek baztertzea bilatzen dute, hau da, praktika estigmatizatzea, berriro tabu bihurtzea edo tabu izaten jarraitzea, osasun-arloan trataera berezia izatea eta abortatzen duen emakumea erruduntzat jotzen duen ingurua sortzea. Beraz, emakumearentzako ondorio konkretuak ditu.

Horrek guztiak eragina izan dezake abortatzea erabakitzen duen emakumearengan, izan ere, delitutzat jotzearen -erlijioaren bekatuaren interpretazioarekin- eta amatasun-mezuen (genero-aginduak barneratzeko zuzenduak) konbinazioak eragiten du emakume askok era lotsagarrian bizitzea eta errudun jotzea euren burua.

Honek guztiak azaltzen du mugimendu feministaren exigentzia: abortua Kode Penaletik ateratzea, izan ere, eskubidetzat erregulatuz gero bakarrik, eta ez delitutzat, bermatuko dira emakumeen erabakitzeko askatasuna bultzatzen duten legediak.



## Abortuaren izendapena eta honen esangurak

Izendapena	Esangura
Bat-bateko abortua	20-24 asteak baino lehenagoko haurdunaldiaren galera.
Abortu zuria	Lan-egoerak eragindako abortua
Abortu ez-ziurra	Aborto realizado en malas condiciones sanitarias.
Behartutako abortua	Emakumearen gogoz- kontra eginiko abortua
Borondatezko, eragindako abortua, haurdunaldiaren gogozko etetea	Borondatez gauzatzen den abortua
Abortu librea	Emakumeak eskatuta gauzatutako abortua
Abortu farmakologikoa	RU-486ri dagokion botikaren bidez gauzatutako abortua
Kirurgia-abortua	Ebakuntza bidezko abortua

Txostenaren arabera hiru taldetan multzokatuko dut herrialdeetako egoera (bereziki Latindar Amerikakoa eta Europakoa): edozein modutan zigortuta dagoen herrialdeak, jarraibide-sistemadun legeak dituzten herrialdeak eta jarraibideak eta epeak nahasten direnak.

Sailkapen honetatik kanpo geratzen da Kanada, aurrekaria izan daitekeena, izan ere, bere legean ez du inolako mugarik ezartzen eta abortua emakumeak eskatuta gauzatzen da ospitale publikoetan osasun-zerbitzutat jotzen baita eta bertan, abortatzen duten emakumeen % 97,6k 12 hilabetez azpiko haurdunaldia zuten.

### 1. Debeku osoa

\* **Egoera guztietan abortua kartzelarekin zigortuta eta punituta** dagoen herrialde zerranda: El Salvador, Nikaragua, Honduras, Dominikar Errepublika, Txile, Malta eta Andorra.

Debeku osoa	Argibideren bat	Argibideak eta epeak
Salvador	Argentina	Kuba (emakumeak eskatuta 12. astera arte)
Nikaragua	Kolombia	Espainiar Estatuak (emakumeak eskatuta 14. astera arte)
Honduras	Paraguay	Portugal (emakumeak eskatuta 10. astera arte)
Dominikar Errepublika	Bolibia	Uruguai (emakumeak eskatuta 12. astera arte)
Txile	Brasil	Mexiko DF (emakumeak eskatuta 12. astera arte)
Malta	Frantzia	Herbehereak (emakumeak eskatuta 13. astera arte)
Andorra	Alemania	
	Frantzia	
	Irlanda	

El Salvador, Nikaragua eta Dominikar Errepublikako kasua paradigmaticoa da. Bertan, erregresioa izan da lehengo egoerarekiko, izan ere, lehen abortua onartua zegoen egoera zehatz batzuetan, eta orain, delitutzat jotzen da kasu guztietan.

## EL SALVADORreko kasua

El Salvadorrek du gaur egun munduko lege murriztaileenetakoa. 1998an aurreko legedian zeuden hiru egoerak ezabatu ziren; bortxaketa, fetuaren malformazio larria eta emakumearen bizitzarako arriskuak eta egoera guztiak zigortzen hasi ziren. Lege-aldaketaren esanahiaren zalantza izpirik ere gera ez dadin, 1999an Konstituzioaren 1.artikulua eratu zen, eta bertan, pertsonaren bizitza sortzen den momentutik bertatik ezarri zen.

Legedi honetan emakumearen bizi-eskubidea baino garrantzitsuagoztat jotzen ziren eskubideak aitortu zitzaizkion fetuari eta emakumearenganako mespretxu adierazpen izugarria izan zen. Izan ere, honek emakumearen bizitza fetuarenaren azpian dagoen ideia adierazten zuen eta emakumea fetuaren eramaile hustzat hartzen zen. Beraz, fetuaren bideragarritasuna emakumearen bizitzaren gainetik jartzen zen.

Horrela, El Salvadorreko Gobernuak izan zen erlijio-fundamentalismoaren tesiek abortuaren legeak sortzeko oinarritzat hartu zuten herrialdeetarikoa bat.

Ondorioz, Estatuaren baliabide guztiak erabiltzen zituzten fetua babesteko. El Salvadorreko emakume-taldeek kasu zenbaiten informazioa bildu zuten. Dokumentu hauetan, medikuek abortua eragitera joandako emakumea salatuta, polizia ospitaletara joan zeneke kasua kontatzen zen. Poliziaren helburua fetua babestea eta emakumeari galdeketa egitea eta honen aitortzak indarrez lortzea zen.

Herritar Taldearen (El Salvador) ikerketaren arabera, gaur egun 24 emakume daude abortuagatik kondenatuta. Kasu asko dira, hasieran abortuagatik kondenatuak (2-8 urte arteko kartzela zigorra) izandako emakumeenak, gero, hilketa larriagatik kondenatuak izatera pasatu zirenak. Azken honek 30-40 urte arteko espetxe-zigorra du. 2000 eta 2001 artean abortuagatik prozesatutako emakumeen %68,22 18 eta 25 urte artekoak ziren eta %51,27 inolako diru-sarrerarik jasotzen ez zuten emakume pobreak ziren.

El Salvadorreko gobernuak 1980ko azaroan, CEDAW sinatuta, berak nazioarte mailan onartutakoaren kontra egin du, baita Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren kontra ere. Azken honek emakumeek ezkutuko abortua gauzatu behar ez dezaten, eta ondorioz, euren bizia arriskuan ez jartzeko neurriak hartzea behartzen du Estatuak. Egoera hain da larria, ezen 2010eko urrian Giza-eskubideen Komiteak bere ardurara adierazi zuen abortua kasu guztietan zigortzen duen Kode Penalak zegoelako, eta gaineratu zuen legez kanpoko abortuek emakumearen bizitzarako, osasunerako eta ongizaterako ondorio larriak eragiten dituztela.

Horrez gain, emakumeen plataformek eta erakundeek kanpaina bat altxarazi dute eta honen bitartez, kartzelatik ateratzeak eta zigorren berrikustekak lortu dituzte kasu batzuetan. Gainera, demanda jarri dute Amerika arteko Giza-eskubideen Gortean eta umedun emakumeen bizia defenditu dute; eta ez errepikatzeko neurriak, praktika judizialak eta ospitalekoak aldatzea exijitu.

Atlantikotik honantz ere egoera dramatikoak sortzen dira. Irlandan, 2012ko abenduan, Salvia Halappanavar izeneko emakume bat hil zen septizemiak jota, 31 urterekin, bide-

ra-ezinezko 17 asteko fetu batekin haurdun eta haurdunaldiaren etetea eskatuta. Medikuek debekatu egin zioten fetuak taupadak egin bitartean.

Irlandan bizi-arriskuan dauden emakumeek, haurdunaldia eten gabe, abortatzeko baimena dute eta 1992az gero suizidio-arriskua heriotza-arriskuaren eragiletzat hartu zen (obstetra batek eta psikiatra bik baieztatu beharko dute, aho-batez, benetan suizidio-arriskua dagoela). Praktikan, oso gutxitan gauzatzen dira abortuak, hori dela eta, 4.000 eta 7.000 emakume artean, urtero, Erresuma Batura jotzen dute abortatzera.

## 2. Jarraibide-sistemadun legeak

\* Herrialde gehienetan legeak jarraibide-sistemak gidatzen ditu eta honek, abortua zigorgabetzen dituen kausa batzuk, jasotzen ditu: bortxaketa, fetuaren malformazio larria eta emakumearen osasun-arriskua.

- Argentinan bortxaketa kasuetan soilik eta ezintasun legala dela-eta, gaixotasun mentalagatik eta emakumearen bizia arriskuan dagoenean.
- Kolonbian 2006an zigorgabetu zen eta hiru egoera jasotzen ditu: amaren osasunerako arriskua, bortxaketa edo fetua hiltzera doanean.
- Paraguay, 1937az gero, emakumearen bizitza arriskuan dagoenean soilik.
- Bolivian, bortxaketa eta emakumearen bizi-arriskuaren kasuan, epailearen baimena izanda.
- Brasilen osasun arriskua dagoenean eta bortxaketaren kasuan.
- Irlandan, emakumearen muturreko bizi-arriskuaren kasuan soilik.
- Frantzian, bortxaketagatik eta epe-muga barik emakumearen bizi eta osasun oso arriskua dela eta.
- Alemanian, bortxaketa eta emakumearen bizi eta osasun osoko arriskua dela eta.
- Erresuma Batuan, emakumearen osasun-arriskua eta fetuaren anomalia larriak.

### Eskualde bakoitzean abortua onartzeko arrazoiak (herrialdeen % - 2009)

	Herrialde garatuak	Afrika	Asia	Lat. Amerika eta Karibe	Ozeania*	Guztira
Emakumearen bizia salbatzeko	96	100	100	88	100	97
Osasun fisikoari eusteko	88	60	63	58	50	67
Osasun mentalari eusteko	86	55	61	52	50	63
Bortxaketa edo intzestua	84	32	50	36	14	49
Fetuaren malformazioa	84	32	54	21	7	47
Arrazoi ekonomikoak edo sozialak	80	8	39	18	0	34
Eskatuta	69	6	37	9	0	29
Herrialde kopurua	49	53	46	33	14	195

\* Japonia, Australia eta Zeelanda Berria eremu geografiko honetatik kanpo daude, baina herrialde garatuetan sartzen dira.

Iturria: Abortu ziurraren gida teknikoa. OMS 2012

Jarraibide-sistemak abortuaren gogoeta Kode Penalean gordetzen du, baina zigorrik gabe gauzatzeko egoera zenbait sartzen ditu. Kasuistika oso zabala da, haurdunaldia-rekin jarraitzeak emakumearen heriotza-arriskua eragin dezakeen herrialdeetatik ondorengo ere sartzen dutenetara: bortxaketa baten ondoriozko haurdunaldia izatea, fetuaren malformazio edo gaixotasun larrien kasua eta emakumearen osasun-arrisku izatea.

Kasu guztietan medikuaren edo poliziaen "egiaztapena" eskatu behar du emakumeak, derrigorrez, legea bete ahal izateko.

Emakumearen osasun arrisku egoerak bide eman die interpretazio zabalagoei osasun osoa onartuta, aurreko kapituluan azaldu den moduan, eta ez soilik emakumearen osasun fisiokoaren arriskuagatik. Horretan oinarritu dira haurdunaldien gogozko eteteak gauzaten dituzten osasun-arloko langileak abortua eskatzen duten emakumeen kopurua handitu ahal izateko. Bere aplikazioa baina, jarraibide-sistema guztietan bezala, interpretaziora behartuta dago eta Damoclesen ezpataren pean, eta honek abortua Kode Penalean egotea adierazten du. Horrela, presio-arrazoa da abortuaren kontrako alor profesionaletan. Hauek hipotesiaren interpretazio murriztaileak indarrez eragiten dituzte eta zaintza ezartzen dute, hau da, langileen zeregina eragozten dute abortua osasun publikoan gauza dadin.

Kausek edo jarraibideek beste pertsonak emakumeak abortatzeko erabilitako arrazoiak (oso anitzak, esan moduan) egindako interpretaziora eramaten du. Hau da, planteatzen duen kausa hipotesi despenalizatuan sartzen den edo ez, horrela jotzen ez badute, delitua leporatuta sala dezakete. Baiezta liteke jarraibide sistemak amatasuna emakumearen erabakitzeko eremutik kanpo uzten duela eta emakumearen gaineko besteen nagusitasuna aurreuposatzen duela.

Emakumearen erabakiaren ezberdinak diren zigorgabetze kausak ezartzen dituzten legeak dira, herrialde askotan, abortua gauza dadin botereari ateratako zirrikitua, baina beste galdera batzuk planteatzen dituzte. Esate baterako, emakumeen zergatiak arautzeko eratorriak. Ekintza baten aurrean emakumeak ezberdin koka daitezke, sentimendu ezberdinak adierazi eta ezberdin erabaki. Esate baterako, fetuaren malformazioa diagnostikatuta duen emakumeak abortatu nahi izan dezake eta beste batek haurdunaldia-rekin aurrera egitea. Emakume bakoitzaren zergatiak berari, eta soilik berari, dagozkie eta erabaki bat bestea bezain zilegi da. Antzeko arrazoiak aplika dakioke beste edozein hipotesiri: bortxaketa kasuari, osasun-arriskuari... eta agerian uzten du emakumearen erabakian oinarritzen ez den jarraibide-sistema onartzearen logika zentzugabekeria dela eta ez dagoela zertan erabakia zuzitzeko ezelango kausarik argudiatu.

### Emakumeak abortatzeko erregistratutako arrazoiak (%)

Arrazoa	Portzentajea
Emakumeak eskatuta	89,6%
Umedunarentzako bizi edo osasun-arrisku larria	7,3%
Fetuan anomalia larrien arriskua	2,7%
Biziarekin edo gaixotasunarekin bateraezina den fetuaren anomalia larria edo sendaezina	0,3%
Arrazoi ugari	0,1%

Iturria: Osasun, giza-zerbitzu eta berdintasun Ministerioa. Espainia, 2011

### 3. Jarraibide-sistemadun eta epedun legeak


Herrialde batzuek soilik daukate epedun eta jarraibidedun sistema konbinatua. Bertan, emakumearen eskaera onartzen da haurdunaldiaren hasierako asteetan zehar. Horietatik aurrera, hipotesi batzuetan soilik onartzen da. Kubaren kasuan (12 aste), Espainiar Estatia (14 aste), Portugal (10 aste), Uruguai (12 aste) eta Mexiko DF (12 aste).

**Epeen zehaztapenak** garrantzi handia du osasun-ikuspuntutik. Abortuaren praktika arautzerakoan kontuan hartu beharko litzateke arrisku maila eta arrisku handikoak eta txikikoak bereizi, lehenengo eta hirugarren hiruhilabetekoak, baina ez lirateke ikuspuntu penaletik ezberdindu behar. Zer dela-eta balio du emakumearen erabakiak 14. astera arte, eta zergatik du handik aurrera erabakitzeke aukera gutxiago?

Haurdunaldi aurreratuan abortatzen duten emakumeak edo abortu librearen defendatzen duten erakunde feministak "arduragabekeria" edo "fribolitatea" leporatuta kritikatzeko ez dator bat errealitatearekin. Datuetara jotzea da frogatzeko modurik onena: 2011n, Estatu Espainiarrean emakumeen %1,4k abortatu zuen 21 asteko haurdunaldia edo gehiagokoa izanda.

Oso egoera muturrekoak eta mingarriak dira emakumeentzat eta kasurik gehienetan fetuaren anomalia larriak, askotan bizitzarekin bateraezinak, diagnostikatuta gertatzen dira. Gainera, kontuan hartu behar da anomalia hauetako asko ez direla 20. asteko ekografietako kontrolatan ageri eta batzuk, larriak, ez dira 22 eta 24 asteak pasatu arte gertatzen. Urtero, Espainiar Estatuan, haurdunaldiaren 22 eta 24. asteak igarota, 1000 anomalia-kasutik gora antzematen dira. Emakumeok atzerrira jo behar dute abortua gauzatu ahal izateko.

**Haurdunaldi asteen arabera HGEen banaketa (%)**



Iturria: Osasun, giza-zerbitzu eta berdintasun Ministerioa. Espainia, 2011

## ESPAINIAR ESTATUko kasua

Txosten hau elaboratzean indarrean zegoen legea, "Sexu eta Ugalketa-osasunaren eta Haurdunaldiaren Gogozko Etetearen Legea", 2010ean onartu zen eta 1985etik zegoena aldatu. Azken honek abortua hiru kasutan zigorgabetzen du; egungo Alderdi Popularreko Gobernuak, Gotzain-Konferentziari keinu eginda, era gutzitik murriztailean aldatzea planteatu zuen.

Adierazitako alderdiez gain, egungo legearen ardatza da jarraibide-sistema eta epeak era honetan ezarriak dira:

- 14. astera arteko epea ezarri zen, zeinetan baldintza bakarra emakumearen erabakia zen.
- Haurdun dagoen emakumearen bizi edo osasun-arriskua larria bada, 22. astera arte aborta daiteke.
- 22. astera arte aborta daiteke fetuaren anomalia larriak izanez gero.
- Fetuaren anomaliak honen biziarekin bateraezinak direnean, mugarik gabe aborta daiteke.
- Haurdunaldiaren gogozko etetea gauzatzen duten klinika pribatuekin zegoen kontzertuari eusten zaio.

Legeak planteatzen dituen eztabaidagai zenbait komentatuko ditut jarraian.

Beste edozein osasun-prestaziotan dauden eskakizunez gain, baldintza batzuk ezartzen dira. Adibidez, derrigorra da hausnarketa-epea medikuari haurdunaldia eteteko asmoa adierazi ostean. Hau emakumearen erabakia zigortzeko eta gaitzesteko eratzat hartzen da. Gauza bera gertatzen da emakumeak abortatzeko erabakia hartu duela jakinaraztean jasotzen duen gutunazaleko informazioarekin. Askotan, abortuaren inguruko informazio argia eta mugatua beharrean, honen alternatibez aritzen da eta erreferentziatzen hartzen dira aukeraren kontrako elkarteak.

Batzuetan tramite burokratiko hutsa dena, beste batzuetan emakumeak derrigortzeko modua da eta nola testu legal berberak praktika kontrajarriak eragin ditzakeen adibide dira. Praktika hauek erregistratu dituzten testuinguru politikoen arabera dira, beren aplikaziorako arau zehatzak ezartzen ez diren bitartean.

2010eko legean interes bereziko eztabaida sortzen duen beste atal bat dago: 18 **urtez beherakoei** ematen zaien ezohiko tratua da.

"Pazientearen autonomia" izeneko legeak (41/2002, 9. artik.) osasun arloko adin nagusitasuna 16 urtetan ezarri zuen, adin txikikoa emantzipatua egon edo ez, eta osasun-arloko edozein paziente behar bezala informatua egoteko eskubidea du, baita bere intimitate pertsonala eta norbanakoaren askatasuna errespetatua izatekoa ere. "Osasun-arloko edozein ekintzak behar du, oro har, gaixoaren aurretiko onarpena". Gainera, 9.3 artikuluan ekintza gauzatzeko gaitasuna onartzen die adin txikiko emantzipatuei edo 16 urte bete dituztenei hiru salbuespenekin: abortua, entsegu klinikoak eta lagundutako ugalketa-teknikak.

Erabiltzen den "txiki heldua" kontzeptua azterketa ebolutibo-kognitiboetan oinarritzen da. Honek planteatzen du adin txikikoak 12 urterekin dagoeneko garatu duela bere ahalmen psikologikoa eta morala, beraz, baduela arriskuak eta ondorioak ebaluatzeko, informazioa ulertzeko, baita osasunari dagozkien erabakietan baimena emateko gaitasuna ere.

Hala ere, egungo legediak ez zuen soilik gaixoaren autonomiaren legearen salbuespena indargabetzeaz gain, 18 urtez beherakoei gurasoei informazioa emateko derrigortasuna ezarri zuen. Ez du, baina, bere baimena izatea exijitzen (hau egungo Justizia Ministerioak aldatu nahi du eta baldintza hori ezarri). Onarpen faltak dakartzan beste gogoeta batzuek gain, kontuan izan behar da gurasoei esateko beldurrak, hain zuzen ere, eragiten duela kasu askotan gazteek, behar ez bezala, haurdunaldia eteteko epeak luzatzea.

Horrez gain, gezurrezko babesleak diren lege eta politika publiko batzuen kongruentzia-eza adierazten du. Hauek gazteen beren sexualitate eta autonomia pertsonalerako gaitasuna ukatzen du. Aldi berean, oztopatzen dizkiete sexu eta ugalketa-osasuneko oinarrizko hiru faktore prebentiboetara sarbidea:

1. Kalitatezko sexu-heziketa, erlijio-aurreiritzi eta estereotiporik gabekoa.
2. Metodo antisorgailu guztietara sarbidea.
3. Osasunaren Mundu Erakundearen jarraibideen arabera, gazteak artatzeko zentro berezietara sarbidea.

### **Datuek erakusten duten errealitatea**

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) datuei dagokienez, urtero dauden 210 milioi haurdunaldietatik, %38, gutxi gorabehera (80 milioi), ez dira planifikatuak, hau da, 5etik 2. Hauetatik %57,5 (46 milioi) haurdunaldiaren gogozko etetean amaitzen dute. 19 milioi abortua legez kanpokoa den herrialdeetan.

Urtean gauzatutako abortuen bi heren 15 eta 30 urte arteko emakumeei dagozkie. Latindar Amerikan %50 baino gehiago 20 eta 29 urte artekoei gauzatzen zaizkie eta ia %70 30 urtez azpiko emakumeei.

Hegoaldeko herrialdeetan abortuen %14 20 urtez azpikoei gauzatu zaizkie.

Herritar Taldearen (El Salvador) ikerketaren arabera, 2000 eta 2001 artean abortuagatik prozesatutako emakumeen %68,22 18 eta 25 urte bitartekoak ziren eta hauetatik %51,27k ez zuen inolako diru-sarrerarik jasotzen.

Herrialde askotan ez dago gauzatzen diren abortu kopurua adierazten duen estatistikarik. Batzuetan, El Salvador kasu, soilik zenbatzen dira osasun-zentroetako abortuko ospitaleratze zenbakiekin (3.766 1999an). Beste batzuetan biltzen diren datuak ez dira fida-garriak ez baitaramate erregistro egokia.


### **Abortu kopurua EB-eko herrialde batzuetan**

Herrialdea	Abortu kopurua
Alemania (2010)	110.431
Espainia (2010)	113.031 (118.359 - 2011)
Italia (2010)	114.793
Frantzia (2007)	225.744
Erresuma Batua (2009)	202.105

## Abortuaren inguruko datuak Estatu Espainiarrean (2011)

- Emakumeek abortatzeko arrazoiak hauek izan ziren: %89,58k emakumeek eskatuta, %7,30 emakumearen bizi-arriskuagatik eta %2,73 fetuaren anomalia larrien arriskua zela eta.
- Abortatu zuten emakumeen %89,77k haurdunaldiaren lehenengo 12 asteetan egin zuten eta %1,4k soilik 21. astean edo geroago.
- Abortatu zuten emakumeen %50 ez ziren inoiz familia-planifikaziorako zentro batera joan.
- %31,8k ez zuen inolako metodo antisorgailurik erabiltzen. Datuok esanguratsuak dira, izan ere, hormona-antisorgailu batzuk soilik dira osasun sistema publikoak ordainduak. Gainerakoak emakumeak ordaindu behar ditu.
- Abortuen %2,6 bakarrik gauzatu ziren osasun sare publikoan. Honek esan gura du pribatizazio gordea dagoela eta sektore publikoak ez duela ezer jakin nahi. Osasun sare publikoan gauzatutako abortuen kopurua %3tik beherakoa izatearren arrazoiak ez da bakarrik: Autonomia Erkidegoetako osasun-administrazioetan borondate falta politikoa dago; emakumeek eman beharreko pausoen inguruko informazio falta arazoak; tramiteok egiteko zailtasunak, kasu batzuetan, abortatzeko epea amaitzea eragiten dutenak; testu legalaren interpretazio murriztaileak osasun-agintarien partetik; kontzientzia-objekzioa dela eta, ebakuntzetarako langile falta, ebakuntza gauzatzen duten langileak babesteko berme eta protokolo falta, azken hau abortua gauzatzen duten klinika pribatueta langileei hedagarria.
- "Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko premia neurrien legeak", 2012koa, "paperik gabeko" emakume etorkinak osasun-sistema publikoara sarbiderik gabe uzten ditu, besteak beste, abortura eta metodo antisorgailuetara.

### Adin-taldean arabera HGEen banaketa portzentuala (%)



Iturria: Osasun, giza-zerbitzu eta berdintasun Ministerioa. Espainia, 2011



Legedien azterketak begi-bistan uzten du abortuaren eskubidearen onarpenaren hauskortasuna, baita hau mugatua denean ere.

## V. TESTUINGURU-MEHATXUAK

---

Muturreko larrialdiko unean bizi gara: botere politikoaren, botere ekonomikoaren eta botere erlijiosoaren arteko aliantza historikoak indar handia hartu du sakonki atzerakoia den errotikako aldaketa gizartean inposatzen saiatzeko eta hainbat hamarkadatan emakumeek gogor lan eginez irabazitako eskubideak ahalik eta gehien mugatzeko.

Bizi dugun krisi ekonomikoaren, neoliberalismoaren eta erlijio-fundamentalismoen helburu dira emakumeen gorputza zein autonomia.

Krisi ekonomiko, finantzario, ekologiko, etiko eta demokratikoaren esparruan, familien barruan ugalketa soziala pribatizatzeko joera nabarmentzen ari da kasu batzuetan, eta hasten ari da besteetan. Horrek, hortaz, emakumeen autonomia-prozesuaren inboluzioa dakar. Ongizatearen estatuak gutxieneko garapena izan duen herrialdeetan, estatuak ez du pertsonen beharrak asetzeko ardurarik hartzen eta erantzukizun hori esparru pribatura lekualdatzen du, hau da, funtsean emakumeetara.

Emakumeek ama izateko eskubidea dutela defendatzen duten horiek dira emakumeentzako bizitza infernutarra lerratzen ari direnak. Zenbait gobernuk espainiarra kasu –jarraitzen duten pribatizazio- eta murrizketa-politika izugarria gerra-deklarazioa da emakumeentzat: haur-eskolak kendu edo ordainezin bilakatu arte garestitzen ditu, aitatasun-baimena luzatzea ukatzen du eta, mendekotasun-legearen baliabide nahiz zerbitzuekin akabatzearekin batera, familia zaintzeko zama berriz ere emakumei dagokie. Horrek guztiak, etengabeko lan-erreformen eraginekin lotuta, pertsonen bizi-baldintzen prekarizazioa izan du ondorio.

Erabat bidegabea den sozietate-eredua inposatzeko lehia-testuinguru horretan, non ezberdintasun sozial guztiak biziagotzen diren, eskubideak –besteren artean abortatzeko eskubidea– murrizten eta zalantzan jartzen dituen ofentsiba ideologikoa dago.

Emakumeek historian zehar abortatu –haurdunaldia nahita etetea– izan dute eta abortua interes anker eta kaltegarri baten xedea da, diskurtso politiko eta erlijiosoan jomuga, askotariko erakundeen jokabideen helburua.

### Fundamentalismoak

Erljio guztietan agertzen den eta biologiaz, naturaz eta jainkozko ordenaz baliatuz emakumeak gatibu nagusi bilakatzen dituen ordena morala inposatzen saiatzen den mugimendu politikotzat hartuko ditut erlijio-fundamentalismoak.

Horien artean fundamentalismo katolikoa da aktiboenetako bat eta emakumei euren bizitzako inongo alderdiren gainean erabakitze eskubidearen erabateko ukoa bortizkien adierazten duena. Emakumeekiko etsakeria irekia erakutsiz, gizarte osoari inposatzen saiatzen ari diren proposamen moral eta sozialean kokatzen dute abortuaren kontrako iritzia. Emakumeak gizonen menpe egotea eta, espeziearen ugalketa biologiko eta sozialaren ardura naturala euren gain hartze aldera, emakumeak familia erradioaktiboan

(nuklearra) konfinatzea dira aipatu proposamenaren abiapuntu eta “Jainkoak ematen dizkien seme-alabak izan behar dituzte emakumeek” fatalismoa jasotzen du. Euren ustetan, emakumearen gorputza eta bere sexualitatea familia tradizional horren baloreentzako mehatxatua dira, eta ordena morala eta bekatuarekin eta galbidearekin identifikatzen dituzte nola emakumeen plazera hala erabakitzeko gaitasuna.

Atzerantz, nazional katolizismorantz, eramaten gaituen eredu soziala defendatzen duen hausturarik gabeko diskurtsoa da. Baina baliabide askorekin eta erakunde nahiz komunikabideetan egoteari esker, estrategia garatzen dute hainbat norabidetan. Alde batetik, legerian aldaketa murriztaileagoak behartzeko presioa egiten dute; bestalde, finantzazio handia jasotzen, asistentzia-lana gauzatzen eta abortatzen duten emakumeen aurka mobilizatzen diren elkarten bidez gizarte-ehunean barneratzen saiatzen dira; hezkuntza-inboluzioa sustatzen dute, erlijio-eskola inposatuz eta hezkuntza afektibo sexuala ekidinez. Horren guztiaren adibideak daude herrialde askotan, horien artean Estatu Espainiarrean. Izan ere, bertako Hezkuntza Ministerioak Gotzain Konferentziaren betekizunak jaso ditu hezkuntza-lege batean, non aurreko legeek sexu-hezkuntzarako zituzten aukera murriztak kendu ez ezik, erlijioa ebaluazioko ikasgai gisa berriro ere ezartzen baita.

Emakumeak gizaki moral gisa ukatzen duen diskurtsoarekin batera, abortuaren kontra dituzten argudioak sustengatzeko enbrioi edo fetuari estatutu berria ematen diote. Hala, sortzen den unetik giza-bizitza duen izaki bihurtu dutenez, haurdun dagoen emakumeak baino eskubide gehiago ditu. Norabide horretan presioa egiten dute lege eta politika publikoak aldatzeko.

Zientziak bermatzen ez duen eta legeria zibilak jasotzen ez duen –jaiotzaren unean ezartzen baita pertsona-izaera– fede-doktrina arrandiaz erakusten dute. Egiaz, euren diskurtsoan enbrioi eta fetua gizaki batekin identifikatzen dituzte, abortua hilketarekin eta beraz, emakumeak hiltzaileekin, eta horren xedea da abortuak eragin eragozlea eta zilegitasuna galtzeko eragina izatea.

Eurak proposatzen dutena eta batez ere doktrinatzan saiatzen direna pertsona gehienek –fededunak ere bai– benetako bizitzatik urruti dago. Horrela dokumentatzen baitute Latinoamerikan eta Estatu Espainiarrean dauden eta “erabakitzeko eskubidearen alde” egiten duten zenbait elkartek.

Horregatik guztiagatik begien bistakoa da mehatxua direla ez bakarrik emakumeentzat, baita sozietate pluralarentzat ere. Izan ere, gizarte osoari inposatu nahi dizkiote sineste erlijioso jakin baten printzipio moralak eta ahaleginak egiten dituzte pertsonen eguneroko bizitzari –eta kasu honetan, estatu ez-konfesionaleko eta estatu laikoetako emakumeen bizitza-proiektuari– eragiten dizkieten politika publikoak euren doktrinari jarrai diezaioten.

Hierarkia katolikoa protagonista izateaz gain, aukeraketaren kontrako hainbat erakunderen babesa ere duen abortu-eskubidearen aurkako ofentsiba ideologiko eta politiko horren aliatu garrantzitsua dira Erdialdeko Amerikako eta Estatu Espainiarreko Gobernuak. Estatu Espainiarrean Justizia Ministroa bilakatu da fundamentalismo erlijioso katolikoaren bozeramaile eta abortuaren kontrarreforma prestatzen ari da. Horrek 2010eko legearen arazoak eta mugak konpondu ez ezik, duela 30 urteko egoerara eramango gaitu. Kasu horretan, erabakiaren aurkako printzipioetan oinarritzen da Gobernuaren planteamendua, hau da, emakumearen benetako eskubidea amatasuna dela kontuan hartzean

eta, emakumea inkubagailu izaki, babestu beharreko bizitza nagusia fetuarena edo enbrioiarena dela.

Estatuaren betebeharrak betetzen ez direla islatzen du horrek, Estatuari baitagokio erabakitzeo eskubidea babestea, hirugarrenek ekidin ez dezaten eskubidea modu eraginkorrean erabiltzea.

Gizartearen sektore anitzetatik eta besteren artean feministotik, Estatuaren laiktasuna eskatu da, gizarte pluralei dagokien moduan. Alegia, eremu pribatuan erlijio-sinesmenen aniztasuna errespetatzea eta baita politika publikoen esparruan emakumeen eskubideak ere.

## Hiru ideia ondorio gisa

Emakumeen erabakitzeo eskubidea bere banderetako bat bilakatu duen mugimendu feministak lortutako eskarmentuari esker, feministen belaunaldi berrien indarra eta sormenarekin batera, ez du amore emango munduko edozein txokotan abortatu gura duen emakume bakoitzaren defentsan.

Abortua debekatu daiteke, zigortu, estigmatizatu, emakumeen osasun eta bizitzarentzako mehatxu bihurtu... baina ez da sekula ekidingo emakume batek nahi gabeko haurduntza etetea, adina, egoera ekonomikoa edo erlijio-sinesmena gorabehera.

Ezin da askatasunaz, herritartasunaz ezta demokrazia ere berba egin emakumeok ezin badugu, gizaki garen heinean, gure bizitzei buruzko erabakirik hartu. Murrizketak gauzatzea, herritar gisa dugun estatusa murriztea da.

## VI. GOMENDIOAK

---

Emakumeen erabakitzeo eskubidea erabiltzeari dagokionez, gizartean nahiz erakundeetan dauden hutsune eta gabeziak behin identifikatuta eta gizarte osoari eta Estatuari dagokion betebeharra dela kontuan hartuta, ondoko gomendioak egin dira.

- Emakumeen erabakitzeo eskubidea erabili ahal izateko, emakumeek eurek eskubidetzat identifikatu behar dute. Horretarako, beharrezkoa da nahikoa informazioa egotea populazio guztiak ezagutu dezan zentzu horretan zein diren emakumeek babesten dituen eskubideak.
- Autonomia-eskubidea gauzatzen da emakumeek hartu dituzten erabakiak praktikan jartzeko benetako aukerak dituztenean. Hau da, erabakiak hartzeko orduan apetazko esku-sartzerik ez eta erabakiok aurrera eramateko baliabide eta zerbitzuak daudenean.
- berdintasun- eta ekitate-printzipioak derrigortu egiten ditu gizartea eta estatuak eskubideok erabiltzerakoan emakumeen klase, etnia, adin, egoera administratibo edo nazionalitateari dagokionez egon daitekeen edozein oztopo kentzeko. Beraz, paperik gabeko emakumeak osasun-laguntzatik kanpo uztea bezalako hesiak kendu behar dira.
- Emakumeek erabakitzeo eskubidea erabiltzen dutela bermatzeko, gizarte osoaren errespetu eraginkorra behar da. Hortaz, herritar guztion ardura da abortatzea

- erabaki duten emakumeekiko etsaikeria eta jazarpena laguntza-sare solidario bihurtzen dituzten guneak sortzea.
- Abortu-eskubideari dagokionez, estatuak betebehar negatiboak ditu esku ez hartzeko, bai eta betebehar positiboak ere, erabaki autonomoak sustatzen dituzten baldintzak sortzeko.
  - Nahi gabeko haurduntzak saihesteko politika eta neurriak garatzea eta sexualitatea modu atsegingarrian bizitzea.
  - Emakume guztiek metodo antisorgailu guztiak eskura dituztela bermatzea eta, gizonzkoentzako antisorgailuen kasuan, gizon guztiek horiek eskura dituztela; adin, egoera zibil, egoera administratibo, "paperekin edo gabe" egoteagatik edota nazionalitateagatik inolako bereizkeriarik egon gabe. Alegia, antisorgailuen doakotasuna eta eskuragarritasuna bermatzea.
  - Hezkuntza-ziklo osoan sexu-hezkuntza integral derrigorrezkoa ezartzea, sexu-arriskurik gabeko bizitza atsegingarria sustatzen duten estereotipo sexistarik gabeko edukiak bermatuz.
  - Emakumeek haurdunaldia eteteko erabaki librea dutela errespetatuz gero, gobernuek aldatu beharko dituzte abortuari buruzko lege, arau eta politika publiko murriztaileak. Horiek segurtasunik eza eta emakumearen osasun eta bizitzarentzat arriskuak sortzen baitituzte.
  - Baina erabat beharrezkoa da Zigor Kodean abortua delitu gisa tipifikatuta egoteari uztea eta, horren ordez, emakumeek euren amatasuna eta gorputzaren gainean erabakiak hartzeko eskubide gisa arautzea.
  - Aipatu eskubidea aitortua izan dadin, beharrezkoa da osasun sistema publikoak baldintza tekniko eta sanitarioak eskaintzea emakumeen abortu-eskaerak artatzeko. Horretarako, beharrezkoa da:
  - Osasun-sare publikoko osasun-zentro eta ospitaleak emakume guztien eskura -bai geografikoki bai kulturalki- daudela bermatzea.
  - Gobernuei gomendatzen zaie besteren artean azpiegitura, funtzionamendu eta gizabaliabideei dagozkien beharrezko baldintzak sortzea, haurdunaldia nahita etetea eskatzen duten emakumeen arreta bermatuko duen gaitasun instituzionala edukitzeko.
  - Osasun-sistema publikoko erakunde, zentro eta ospitaleek bermatu beharko dute uneoro haurdunaldia nahita eten gura duen emakumearen eskaera artatzen dela. Beraz, eskaera hori asetzeko nahikoa pertsonal sanitario izan beharko dute uneoro eta osasun arloko langileen kontzientzia-eragozpena arautu.
  - Osasun-zerbitzuak kolektibo ezberdinen –emakume gazteak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, LGTB, landa-eremuetan bizi diren emakumeak, immigranteak ezaugarri eta beharretara egokitzen direla bermatzea.
  - Osasun-zerbitzuetan arretaren konfidentzialtasuna bermatzea.

- Abortua osasun-prestazio gisa normalizatzeko, osasun arloko profesionalen (medikuak, erizainak) prestakuntzan ere jaso behar da abortuaren praktika.
- Estatuaren eta elizaren arteko bereizketa bermatzeko dagozkion neurriak hartzea eta Estatuaren izaera laikoa bermatzea, gizartearen pluraltasunarekin bat etorriz. Horrela, sinesmen eta ideei erlijioso indibidualak ez dira politika publikoetan nahasiko. Izan ere, politika publikoek bermatu beharko dute emakumeen erabakitzearen eskubidea betetzen dela.
- Estatuaren eskumena da emakumeen erabakitzearen eskubidea, bai eta askatasun, autonomia, duintasun eta osasun eskubideak bermatzea ere. Horretarako, beharrezko baliabide eta zerbitzuak ezarriko ditu –kalitatezkoak eta eskuragarriak–, eskubidea erabiltzea eragozten duten hirugarrenen esku-sartzeak saihestuko eta abortua delitutzat hartuko ez –baizik eta emakumeei bizitza-proiektu duina izatera laguntzen dien eskubidea– dituzten legeak ezarriko ditu.
- Azkenik, erakunde feministei hau gomendatzen zaie: edozein emakumek munduko edozein lekutan bere bizitzari, gorputzari eta amatasunari buruzko erabakiak duintasunez hartzeko duen eskubidea defendatzeari ez uztea.

## BIBLIOGRAFIA

---

GONZÁLEZ GUERRERO, Soraya eta PAJARES SÁNCHEZ, Lorena. *“Aproximaciones feministas sobre derechos sexuales y reproductivos en la cooperación al desarrollo. Discursos y prácticas en materia de derechos sexuales y reproductivos desde ONGDs y organizaciones de mujeres y feministas en El Salvador, Nicaragua y Bolivia”*. ACSUR-Las Segovias, 2012.

Kongresuaren aurreko emakumeen plataforma. *“Guía informativa sobre interrupción voluntaria del embarazo”*. Madrid, 2012.

CORREA, Sonia. *“Los derechos sexuales y reproductivos en la arena política”*. Mujer y salud en Uruguay. MYSU, Uruguai 2003.

Estatuko familia-plangintzaren federazioa. *“Carta de los derechos sexuales y reproductivos”*. Madril, 2011

GONZÁLEZ VELEZ, Ana Cristina. *“Una mirada analítica a la legislación sobre IVE en países de Iberoamérica y El Caribe”*. CEPAL. Santiago de Chile. Azaroa 2011.

International Planned Parenthood. *“Abortion Legislation in Europe”*. 2012ko maiatza. [www.ippf-en](http://www.ippf-en).

MONTERO, Justa. *“El significado del derecho a decidir”*. Revista iniciativa socialista. 73. zenbakia. Madrid.

SÁNCHEZ AROCA, Izaskun. *“La familia”*. Periódico Diagonal.

Duintasunaren eta bizitzaren aldeko emakumeen elkarte. El Salvador. [www.lasdignas.org](http://www.lasdignas.org)

Abortuaren despenalizazioaren aldeko elkarte. El Salvador. [www.agrupaciónciudadana.org](http://www.agrupaciónciudadana.org)

Emakumeen bizitza eta osasunaren aldeko mahaia eta erabakitze eskubidearen aldeko aliantza nazionala. *“Causal Salud. Interrupción legal del embarazo, ética y derechos humanos”*. Colombia, 2008.

Erakunde feministen koordinadora estatala. *“Estudio sobre IVE”*. Madril 2007. [www.feministas.org](http://www.feministas.org)

M15 feminismoen komisia. *Abortuari buruzko dosierra*. Madril, 2013

Los derechos sexuales y reproductivos en la arena política. *Mujeres y salud en Uruguay*. MYSU. Uruguai 2003.

LAMAS, Marta. *“Aborto, derecho y religión en el siglo XXI”*. Debate Feminista. Mexiko, 2003.

Guttmaher Institutua. *“Aborto a nivel mundial: una década de progreso desigual”*. 2009.



# AUZITEGIARI AURKEZTUTAKO KASUEN LABURPEN-FITXAK

## 1. lekukotza

---

**LEKUKOTASUNA EMATEN DUEN EMAKUMEA:** Maria García (fikziozko izena)

**INFORMAZIOA BILTZEN DUEN ERAKUNDEA:** Mugarik Gabe Nafarroa

**LEKUA:** Nafarroa

2011ko bukaera arte, ez zen Nafarroan inolako HBE-rik burutu esparru publiko zein pribatuan. Emakume batek arautegian bildutako suposizio legalei heldu nahi bazien, beste autonomia-erkidego batera bideratua izaten zen (Euskadi, Aragoi eta Madrilera batez ere). Nafarroako Gobernuak HBE-ak ez burutzeko ematen zuen arrazoia, 2004ko Osasun Kontseilariaren adierazpenen arabera, Nafarroako ginekologoak horren kontrakoak zirela zen eta ez zeudela horrelako interbentzioak egiteko prest. Haatik, 2010eko apirilean, komunikabideetan hamaika ginekologok idatzitako gutun bat argitaratu zen, zeinetan osasun publikoan HBE-ak burutzeko inolako eragozpenik existitzen ez zela baieztatzen zuten, baita interbentzio horiek egiteko prest zeuden profesionalak bazeudela ere. Nafarroako Gobernuak gutun honi eman zion erantzuna, Osasun Kontseilariaren adierazpenen arabera, kontra zeudenak ginekologoak ez zirela esatea izan zen, baizik eta anestesistak eta erizainak bezalako bestelako kolektibo profesional batzuk.

Egoera honen aurrean, HBE-aren aurka dauden osasun esparruko profesionalen Erregistroa sortzea erabakitzen da. Txosten honen erredakzio datan, erregistro hau, emaginei, anestesistei eta ebakuntza-gelako erizainei ere irekia, pertsona bakar baten inskripzioa du.

## Zer gertatu zen? (Gertakariak)

18 urteko neska bat haurdun geratu zen Nafarroako herri batean. Koito-erlazio bat mantendu zuen mutil batekin eta hilerokoa jaisten ez zitzaionean, lagun batekin batera "predictor" bat erosi zuen. Emaizta ikustean jakin zuen haurdun zegoela. Bere adin txikiagatik eta informazio faltagatik nahiko babesgabe sentitu zen eta bere ahizpa nagusiarengana jo zuen. Bere ahizpa nagusiak berari ere, aurretik, gauza bera gertatu zitzaiola esan zion eta herriko sexologoarenera lagundu zuen, eta honek beharrezko kontaktuak eman eta kasua bideratu zuen. Bere ahizparekin batera Donostiara joan zen interbentzioa egitera. Interbentzioa baino lehen eta ostean psikologo baten kontsultatik pasatu zen. Ginekologo batek legratu bat egin zion. Hasiara batean, berak bere gain hartu zituen interbentzioaren eta bidaiaren kostuak baina aurrerago, une hartan bere bikotekidea zenak lagunduta, haurdun utzi zuen mutilak kostuen erdia ordaintzea lortu zuen. Izugarri eskertzen dio bere ahizpari une hartan eman zion laguntza fisiko eta emozionala; berarengatik izan ez balitz, oso bakarrik eta jarduteko baliabiderik gabe egongo zela dio.

## Zeintzuk dira arrazoiak eta egiturazko arazoak agerian uzten dituzten elementuak?

Sexu-hezkuntzari buruz eta ez desiratutako haurdunaldien prebentzioari buruz Nafarroako gizarteak jasotzen duen informazio eskasa, emakumeek zentzu guztietan kasu haue-

tan eskura dituzten baliabide urriak eta Nafarroako autonomia-erkidegoan emakumeak abortatzeko kanpora jo behar izana eragin duten presio politikoak.

Pentsaera kontserbadoreenaren inposizioak osasun sare publikoan abortatzea posible ez izatea eragiten du, legeak baimentzen duenean ere. Gainera, babesten duten emakumeek eta osasun-langileek epaituak eta zigortuak izaten jarraitzen dute abortatzeko etengabeko oztopoak jarriz eta betiere, erabakia zalantzan jarriz.

Botere publikoek erakusten duten kezkak, baita komunikabideek abortuen hazkundea tratatzeko duten era alarmistak ere, benetan garrantzitsua dena saihesten dute: ez desiratutako haurdunaldien zergatiak. Nagusiki hor kokatu behar da azaroa, eta beraz, prebentzio neurrietan.

Ez desiratutako haurdunaldien zergatiak ez dira beti hutsegite bat. Arrazoietakoa asko emakumeei sexualitate heterosexual eta genitala inposatzen dien gizartearen ondorio dira, zeinetan bete beharreko paper bat existitzen den eta eredu sexual batekin bat etorri behar den. Hori gutxi balitz, amatasuna irmoki sustraitua duen gizartea da.



## 2. lekukotza

---

**LEKUKOTASUNA EMATEN DUEN EMAKUMEA:** María Teresa Rivera.

**INFORMAZIOA BILTZEN DUEN ERAKUNDEA:** Abortu terapeutiko, etiko eta eugenesisikoaren zigorgabetasunaren aldeko herritar-elkartea (*Agrupación Ciudadana por la Despenalización del Aborto terapéutico, ético y eugenésico*).

**LEKUA:** El Salvador

El Salvadorren abortua erregulatzen duten arauak eraldatuak izan ziren 1997an, munduko marko zorrotzenerariko bat ezarriz emakumeen ugalketa eskubideei dagokienez. Eskema totalitario batean, gizarte osoaren balore absolutu gisa bizitzarako eskubidearen izenean, emakumeei desiratu gabeko haurdunaldi baten aurrean erabakitzeko banakako eskubidea ukatu egiten zaie kasu guztietan, baita sexu bortxaketa baten ondorio direnean, fetuak uteroaz kanpoko bizitzarekin bateraezinak diren sortzetiko malformazioak dituenen eta haurdunaldiak zailtasun obstetrikokoak izan eta emakumearentzako osasun eta bizitzarako arriskua suposatzen duen kasuetan ere.

Abortuaren erabateko debekua Kode Penal eta Prozesal Penal berrien sorrera eta onarpenen testuinguruan eman zen, Bake Akordioan (1992) sinaduraren ostean. Aurreko legegintzak jasotzen zituen abortuaren era ez zigorgarri guztiak ezabatu ziren. Une horretan bertan, eta hurrengo urtean legegintza penalean figura honen ezabaketa bultzatu zuten indar fundamentalista eta ultrakontserbadore berberak Errepublikaren Konstituzioaren erreforma baten onespena sustatu eta lortu zuten; honek, Estatua eta pertsonaren arteko ardura ezarri zuen, "sortzen den unetik".

Ikerketa berriek diote legegintza penalaren zigor-aplikazioak perfil nahiko zehatza duten bezeria duela: emakume gazteak, pobrezia egoeran bizi direnak eta hezkuntza-maila baxukoak; orokorrean, erditze goiztiarretan eta laguntza medikurik gabekoetan zailtasun obstetrikokoak izaten dituzte eta ospitale publikoetara odoljarri larriekin iritsi ohi dira eta askotan shock egoeran. Abortua eragin izanagatik susmagarri direnak artatu dituzten larrialdietako gelan bertan salatuak izaten dira, horrela, une horretan bertan, prozesu judizialei hasiera emanez. Hasiera batean abortuagatik salatuak dira eta beranduago delituaren tipifikazioa aldatu egiten dute, larriagotutako erailketagatik kondenatuak izan arte, 30 eta 50 urte bitarteko kartzela zigorrekin.

Abortu terapeutiko, etiko eta eugenesisikoaren zigorgabetasunaren aldeko herritar-elkartearen ikerkuntza baten arabera 129 emakume larriagotutako abortu edo homizidio arrazoiengatik prozesatuak izan ziren 2000 eta 2011 urte bitartean. Herritar-elkartetik, 2009tik aurrera, prozesatutako 7 emakumeren askatasuna lortu da; gertakari hauek presio sozial eta mediatikoarekin batera eman ziren.

### Zer gertatu zen? (Gertakariak)

María Teresa Rivera: 28 urteko emakume gaztea, 8 urteko haur baten ama ezkongabea, ehun-makina bateko langilea eta Mejicanos-en bizi zena.

Teresak ez zekien haurdun zegoela, 2011ko azaroaren 24ko goizean, sabelean min handi bat eta komunera joan beharra (bere etxebizitzaren baldintza prekarioak zirela eta komuna fosa septiko bat da) sentitu zituenean. Bertan egonda, fosan, odol-galera baten ondorioz fetua galdu zuen; Teresa konorterik gabe geratu zen. Teresaren amaginarre-

bak Gurutze Gorrira deitu zuen Gizarte Segurantzaren El Salvadorko Institutura urgentziaz eramateko. Ohiko medikuak, aztertu zuenean eragindako balizko abortua zegoela erabaki zuen eta Polizia deitu zuen. Teresari, eriondo egoeran egonda ere ospitaleko ohatilan bilurrak jarri zizkioten. Hurrengo egunean kaserna polizialera eraman zuten, ahul eta sukarrez egon arren.

Aldi berean, Suhiltzaile Nazional eta Polizia Nazional Zibilaren sistema martxan jarri zen. Hauek Teresa bere semea eta amaginarrebarekin bizi zen koloniara joan ziren “non bizi da bere semea hil duen emakumea?” oihukatuz. Teresaren etxea topatu zuten eta fosa septikoaren miaketa burutu zuten, zeinetan Teresak galdu zuen fetua topatu zuten.

Bake Auzitegian Fiskaltzak Teresa larriagotutako homizidioaz akusatu zuen eta bere behin behineko atxiloteta agindu zuten, errotzerik ez zuelako. Gero, kasua San Salvadorreko Sententziaren Hirugarren Auzitegira iritsi zen. Prozesuaren ibilbidean autopsia bat egin zen eta honekin auzitegiko medikuak fetua hipoxia perinatalaren ondorioz hil zela ondorioztatu zuen, hau da, oxigeno faltaren ondorioz.

Bista publikoan epailea lekuko batean oinarritu zen: makinako giza baliabideen arduraduna. Honek adierazi zuen Maria Teresak 2011ko urtarrilean haurdun zegoela esan ziola, baina epaitegira eraman zuen gertakaria 2011ko azaroaren 24an jazo zen, beraz, haurdunaldiak hamar hilabete eta 24 eguneko luzera izango luke. Bere sententzia, klinikoki ezinezkoa den gertakarian oinarritu zuen.

Bista publikoan 40 urteko kartzela zigorrera kondenatua izan zen, Epailearen arabera, berak eragin baitzuen hipoxia perinatala fetua fosa septikora jaurtitzean. Hipoxia edo asfisia perinatala utero barruan edo erditzearen ondorengo uneetan agertu daitekeen gaitz natural bat da; hainbat arrazoik eragin dezakete, eta ezin da mekanikoki eragin.

Penaleko Hirugarren Kameran apelazioa egon zen eta honek sententzia berretsi zuen. Gero kasua Kasaziopean jarri zen eta ez zuen aurrera egin.

Kondena honen berezitasuna, bere zorrotasun izugarriaz gain, justiziako eragileen akats larri batean oinarritu zela da; joera misoginoz betetako kondena eta salvadortar gizartean errotutako kultura patriarkalaren barruan legitimatzen den instituzio indarkeriaz ezaugarritua.

## **Zeintzuk dira arrazoiak eta egiturazko arazoak agerian uzten dituzten elementuak?**

Egiturazko arazoa salvadortar gizartea emakumeen gorputzaren, sexualitatearen eta ugalketa gaitasunaren kontrolaren erreferente mundial bilakatu nahi duten talde ultra kontserbadore eta fundamentalisten gurariekin loturik dago (eliza katolikoaren hierarkia barne).

Sistema Judizial bat, zeinetan misoginia eta emakumeen kontrako aurreiritziak gailentzen diren.

Teresaren kasuan bezala emakumeak kriminalizatzeak asmo eredugarria du, abortatu izanagatik susmagarriak diren eta amatasunaren mandatua betetzen ez duten emakumeak kondenatzeko.

# SALAKETA IDAZKIA



## Marta Dolado Galindez

Abokatua, Bilboko Auzolan modulu psikosozialeko talde juridikoko kide. Familia eta zuzenbide penalean espezializaturia, Bizkaiko Abokatuaren Bazkuneko Letraduen Batzordeko kide – entitate honetan parte hartzen du etxeko indarkeriaren ofiziozko txandan inskribatuta dagoelako-. Auzolan ordezkatzen du Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokian.

## I. AUZIPETUTAKO EKINTZAK

---

- 1.- 18 urteko emakume nafarra. Haurdun dagoela jakinda, baita Borondatezko Haurdunaldiaren Etetea (BHE), bere herrialdetik kanporako bidaia eta gainerako gastuak bere gain daudela ere; nahiz eta orduko Estatu Legeak bere egoera babestu eta BHE doan izan behar izan.
- 2.- El Salvadorreko emakumea. Haurdun zegoela jakin barik, nahi gabe eten zuen haurdunaldia eta gizahilketa larria egotzita, kondenatua izan zen eta 40 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, nahiz eta auzia aditu eta lekukoaren akatsetan oinarritu eta hauek horrela adierazi.

## II. URRATUTAKO ARAUDIA

---

Espainiar Estatuak honako NAZIOARTEKO TRATATUAK hautsi ditu:

- 1948ko Nazio Batuen Giza Eskubiden Deklarazio Unibertsala.
- Giza Eskubideen Defentsarako eta Oinarrizko Askatasunetarako Europako Konbentzioa, 1950ekoa.
- Eskubide Zibil Eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1966. urtea.
- Umearen eskubideen hitzarmena, 1989.
- Ekonomia, giza eta kultur eskubideen nazioarteko ituna. 1966. Urtea.
- 2000. Urteko emakumearen kontrako era guztietako diskriminazioen ezabaketaren hitzarmena eta bere esku dagoen protokoloa.
- Nazioarteko Gorte Penalaren Erromako Estatutua, 2000koa.

Espainiar Estatuak berretsita, bere zuzenbide positiboaren parte dira. Beraz, behartuta dago bertan gordetzen diren eskubideak errespetatzera, baita onarpena sustatzera eta ezartzen direla bermatzera ere.

Horrez gain, Espainiako auzian martxoaren 3ko sexu eta ugalketa osasunari eta borondatuzko haurdunaldiaren eteteari buruzko 2/2010 Lege Organikoa urratu da.

EL SALVADORREKO ERREPUBLIKARI dagokionez, Estatu honek honako nazio eta nazioarteko baliabideak urratu ditu:

- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1966.
- Ekonomia, Giza eta Kultur Eskubideen Nazioarteko Ituna, 1966.
- Giza Eskubideen Inguruko Ameriketako Hitzarmena, 1969.
- Emakumearen kontrako era guztietako diskriminazioen ezabaketaren hitzarmena, 1979.
- Umearen Eskubideen Hitzarmena, 1989.
- Emakumearen kontrako biolentzia saihesteko, zigortzeko eta errotik kentzeko amerika arteko hitzarmena, 1994.
- Pertsonen, batez ere emakumeen eta umeen, salerosketa saihesteko, reprimitzeko eta zigortzeko protokoloa. 2000.

### **III. SALAKETARAKO ZERGATI OROKORRAK**

---

1.- ESPAINIAR ESTATUA: Maria Garcia andrearen Giza Eskubideen eta, bereziki, sexu eta ugalketa eskubideen urraketa.

2.- EL SALVADORREKO ERREPUBLIKA: Maria Teresa Rivera andrearen Giza Eskubideen eta, bereziki, sexu eta ugalketa eskubideen urraketa. Baita errugabetasun-presuntziarako eskubidearena eta prozesu bermearena ere.

#### **a) Sexu- eta Ugalketa-eskubideen definizioa**

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 2002an adierazi zuen nazio legeek errekonozitutako giza eskubideek sexu eskubideak hartzen dituztela bere baitan. Horrez gain, giza eskubideen nazioarteko dokumentuak eta aho batez onarturiko eta giza eskubide unibertsaletatik banandu ezinak diren beste akordio batzuk ere bai.

Hauen barnean daude, hertsaduratik, bazterketatik eta biolentziatik kanpo, hurrengo ekintzetarako pertsona ororen eskubideak:

- ahalik eta osasunik onena, sexualitateari dagokionez, sexu eta ugalketa- osasun zerbitzuetara sarbidea;
- sexualitatearen inguruko informazioa bilatu, jaso eta eman;
- sexu-heziketa;
- gorputz segurtasunarekiko errespetua;
- bikotekidearen hautaketa;
- sexualki aktiboa izan edo ez aukeratu;

- onartutako sexu harremanak;
- onartutako ezkontza;
- eduki edo ez, eta noiz eduki seme-alabak; eta
- sexu bizimodu egokia, ziurra eta atsegina gauzatu.

“Ugalketa eskubideak” izendapena berria da. 1984ko Amsterdameko “*Emakumeak eta Osasunari buruzko Nazioarteko Batzarrean*” sortua izan zen. Unibertsalki “re-prorights” ere deitu izan zaie. Teheranen, 1968an, izandako “*Giza Eskubideen Nazio Batuen Lehendabiziko Konferentzia*” delakoan zenbat seme-alaba izan eta zenbateko maiztasunarekin eduki askatasun osoz erabakitzearen inguruko giza eskubideari buruz lehenengoz hitz egin bazen ere, Kairon, 1994an izandako *Biztanleria eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konferentzia* delakoan sortu zen Ugalketa Eskubideak kontzeptua.

Aipaturiko konferentzian formulatu ziren hauek lehenengoz: “*Ugalketa-Eskubidea bikote eta norbanako guztien eskubideen oinarritzko onarpenaren baitan dago; hala nola, zenbat haur eduki, zenbateko maiztasunarekin izan, seme-alabak izateko eskubidea eta hone-tarako informazioa eta baliabideak jasotzekoa eta ahalik eta ugalketa eta sexu osasun onena lortzekoa. Eskubide honen barnean dago ugalketa-erabakiak diskriminatua izan gabe, hertsadurarik eta biolentziarik gabe hartzeko eskubidea. Horrela adierazten dute Giza Eskubideen Baliabideek*”

Urtebete geroago *Emakumearen IV Mundu Konferentzia* izan zen Beijing-en, Txinan. Eta Ekintza Planean jaso zen ugalketa-eskubideak nazio legeetan, giza eskubideei buruzko nazioarteko dokumentuetan eta Nazio Batuen beste dokumentu egokietan onartutako giza eskubide zenbaiten barnean daudela.

Biltzarrean hau ere adierazi zen: “*eskubide hau gauzatzerakoan bikoteek eta norbana-koak kontuan izan behar dituzte jaiotako eta jaioko diren seme-alaben beharrak eta bere komunitatearekiko eginbeharrak. Eskubide hau era arduratsuan gauzatzeak ugalketa-o-sasunaren eta familia-antolaketaren inguruko estatu eta komunitate-politiken ezinbeste-ko oinarri izan behar du*”.

Ugalketa-eskubideak giza eskubideen barnean herrialdeen barne-araudian eta Nazioar-teko Eskubide Publikoan onartu dira. Horrela, nazioarteko biztanleria eta garapen baliabi-deen barnean dago. Era berean, Espainian eta El Salvadorren barne eskubidea den emaku-mearen kontrako era guztietako diskriminazioen ezabaketaren hitzarmenean, derrigortzat jotzen da Estatuetan emakumeari gizonari aitortuak zaizkion eskubide berberak ziurtatzea.

Beijing-eko biltzarrean (1995) honela definitu zen ugalketa-osasuna: “*Sexu-bizimodu egokiaz eta arrisku gabekoaz gozatzeko eta ugaltzeko gaitasuna. Ugaltzea erabakitzeko askatasuna, ez egiteko, noiz egin eta zenbateko maiztasunarekin*”.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitzen du ugalketa-osasuna: “*ugal-keta-sistemeekin, eta bizitzako garai guztiekin, loturiko ongizate fisikoa, mentala eta giza-ongizatea. Ugalketa-osasuneko arreta metodo, teknika eta zerbitzu multzotzat jotzen da eta hauek ugalketa osasunean eta ongizatean laguntzen dute ugalketa osa-suneko arazoei aurre hartuta eta irtenbidea emanda. Honen barnean dago sexu-o-sasuneko arreta eta azken honen helburua bizi-kalitatea eta harreman pertsonalak hobetzea da*”.

Kairon, Egipton, 1994an izandako *Biztanleria eta Garapenari buruzko Munduko Konferentzia* delakoan zehaztu ziren, lehenengoz historian zehar, zenbait giza eskubide ugalketa-eskubidetzat. Kairoko ekintza-programaren arabera, *“ugalketa-eskubideak giza eskubide zenbaiten barnean daude nazio legeetan, giza eskubideei buruzko nazioarteko dokumentuetan eta Nazio Batuek aho batez onartutako beste dokumentu egokietan. Eskubide hauek bikote eta norbanako guztien eskubideetan oinarritzen dira. Hala nola, zenbat haur eduki, zenbateko maiztasunarekin izan, seme-alabak izateko eskubidea eta honetarako informazioa eta baliabideak jasotzekoa eta ahalik eta ugalketa eta sexu osasun onena lortzekoa. Eskubide honen barnean dago ugalketaren inguruko erabakiak diskriminatua izan gabe, hertsadurarik eta biolentziarik gabe hartzeko eskubidea. Horrela adierazten dute Giza Eskubideen dokumentuek. Eskubide hau gauzatzeko bikoteek eta norbanakoak kontuan izan behar dituzte jaiotako eta jaioko diren seme-alaben beharrak eta bere komunitatearekiko eginbeharrak”*.

Amerika arteko sisteman *San Salvadorreko Protokoloa* delakoak oso garatua du osasun eskubidea eta “herriaren ondasuntzat” aitortzen du. Honetan ezarritako neurriak ugalketa-osasunari egokituz gero, esan liteke Estatuak derrigortuta leudekeela ugalketa-osasunari arreta jartzera, eta honek, Estatuko eskumen barneko guztientzat erabilgarri behar lukeela egon: herritarrak ugalketa-osasunaren arloan hezi eta arrisku gehien duten taldeen eta, pobrezia eraginez egoera ahulenean daudenen ugalketa-osasun beharrak ase.

Sexu-eskubidea ez da sexu-harremanak izatea bakarrik, ezpada, oinarritzko giza-eskubide zenbaiten multzoa. Hori dela eta adierazten dugu **abortatzeko eskubidea murriztea giza-eskubideak urratzea dela**.

## **b) Bizi-eskubidea**

Bizi eskubidea honako artikuluetan jasota dago: 62 Giza-eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 3. artikuluan, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 6.ean, Umearen Eskubideen Hitzarmenaren 6.ean, Giza-eskubideen Europako Batzarraren 2.ean, Giza-eskubideen Afrikako Gutunaren 4.ean, Giza-eskubideen Arabiar Gutunaren 5.ean eta Kairoko Ekintza Programaren 8.21 eta 8.27. artikuluetan.

Bizi-eskubide hau baliabide hauetan ezagun eginda, osasunarekin loturiko kontuetan ezartzen hasi da. Bere izaera positiboa baliatu da eta osasunaren eta giza duintasunaren testuingurua egotzi zaio. Horrela, Giza-eskubideen Batzordeak esan du “Bizi-eskubidea” espresioa gizakiari atxikitutakoa dela eta ezin daitekeela era murriztailean aplikatu. Ildo beretik, eskubide hau babesteak Estatuak aldeko neurriak hartzera behartzen dituela gaineratu du.

## **c) Osasunerako eta mediku-harrerarako eskubidea**

Osasunerako eta mediku-harrerarako eskubidea nazioarteko hainbat tratatutan dago onartua. Esate baterako, *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (gaztelaniazko PIDESC)* 12.artikuluan adierazten du parte diren Estatuak “pertsona orok ahalik eta osasun fisiko eta mental onena izateko eskubidea” onartzen dutela.

Emakumeen kontrako Diskriminazio Era Guztiak Deuseztatzeari Buruzko Hitzarmenak ere 12.artikuluan zera dio: “parte diren Estatuak, behar diren neurri egoki guztiak hartuko dituzte, mediku-harrera arloan emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko. Ho-

rrela, gizonaren baldintza berberetan, osasun zerbitzuetarako aukera ziurtatuko da, baita familia planifikazioarekin loturikoetarako aukera ere”.

#### **d) Diskriminazio eza eta berdintasun eskubideak**

Osasun eskubideari dagokionez, CEDAW delakoak ere baztertzen du emakumeen kontrako diskriminazioa mediku-harreraren arloan eta aldarrikatzen du baserriko emakumeak osasun zerbitzuetara eta informaziora heltzea eta horretarako era guztietako diskriminazioak ezabatzea. Horrela, Estatuak zera bete behar dutela ezartzen du: “Nahigabeko haurdunaldiaren prebentzioari lehentasuna eman familia-planifikazioaren eta sexu-heziketaren bidez eta amatasunaren ondorio diren hilkortasun tasak gutxitu amatasun zerbitzuen bitartez, arriskurik gabe eta jaioaurreko harrerarekin. Ahal den neurrian, abortatzea zigortzen duen legedia zuzendu beharko litzateke, eta horrela, abortatu duten emakumeei ezarritako zigor-neurriak indargabetu”.

#### **e) Norbanakoaren ziurtasunerako eskubidea**

Norbanakoaren ziurtasunerako eskubidea honako artikuluetan dago jasota: *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren* 3. artikuluan, *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna* delakoaren 9.ean, *Umearen Eskubideei buruzko Konbentzioaren* 37.ean, *Giza Eskubideen Europar Konbentzioaren* 5.ean, *Giza Eskubideen Amerikar Konbentzioaren* 7.ean, *Giza Eskubideen Gutun Afrikarraren* 6.ean, *Giza Eskubideen Gutun Arabiarraren* 5.ean eta *Kairoko Ekintza Programaren* 7.2 eta 7.11 artikuluetan.

Norbanakoaren ziurtasunerako eskubidea, segurtasun fisikoa barne, abortuaren eta Giza-Eskubideen kontuan gakoa da. Haurdunaldia nahi gabekoa denean eta legeak emakumeak aurrera egin dezala eskatzen duenean, egoera honek Gobernuak emakumearen gorputzean bidegabe sartzearagin dezake, eta ondorioz, eskubide hau urratzea. Era honetan, abortuari dagokionez, pertsonaren segurtasunerako eskubidetzat har daiteke nahi gabeko haurdunaldia amaieraraino eramatea edo askatasunez eta behartua izan gabe etetea erabakitzeke emakumearen eskubidea.

#### **f) Askatasunerako eskubidea**

Abortatu izana zigortzeak emakumeen askatasun eskubidea urratzea dakar. Abortatu duten emakumeei ezarritako sententziak emakumeen eskubideen kontrako eraso gehigarria dira, izan ere, hautamenez kartzelaratzen dira euren osasun beharrak ase gura dituzten emakumeak.

Emakumearen Kontrako Diskriminazioak Ezabatzeko Komiteak euren legeak berrikustera bultzatu ditu Gobernuak era boluntarioan abortatzea erabakitzen duten emakumeen zigorrak eta hauen kartzelaratzea ezabatzeko.

Askatasun-eskubidea urratua izateko arriskuan dago emakumeak medikuaren laguntza eskatzeko konbentzitu gura dituztenean, medikuek sala ditzaketen beldurrak eragin diezaiekeen ikara dela eta, hauek emakumeen lege kanpoko ekintzaren berri jakindakoan.

Horrez gain, askatasun eta segurtasun-eskubideak, abortu kasuetan, emakumearen erabakitzeke askatasuna babesteko aplikatu dituzte auzitegi nazionalak. Seme-alabak izan edo ez, noiz izan eta zenbateko maiztasunarekin erabakitzeke askatasuna, alegia.

## g) Pribatutasun-eskubidea

Pribatutasun-eskubidea honako artikuluetan dago jasota: *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren* 12.ean, *Umearen Eskubideei Buruzko Konbentzioaren* 16.ean, *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna* delakoaren 17.ean, *Giza Eskubideen Amerikar Konbentzioaren* 11.ean, *Giza Eskubideen Europar Konbentzioaren* 8.ean, *Giza Eskubideen Amerikar Konbentzioaren* 11.ean, *Giza Eskubideen Gutun Afrikarra* delakoaren 4., 5., 18. eta 29.ean eta *Giza Eskubideen Gutun Arabiarra* delakoaren 17. eta 38.ean.

Haurdunaldiaren eta amatasunaren inguruko erabakiak oso pertsonalak dira eta, hain zuzen ere, pribatutasun-eskubideak babestu beharreko interesen eredu dira.

Abortuari dagokionez, emakumearen pribatutasun-eskubide hau arriskuan egon daiteke egoera askotan.

Lehenengo eta behin, emakume haurdun baten pribatutasun eskubideak ahalmena ematen dio abortua izan gura duen erabakitzeko eta emakume batek ere ez du erabaki hori hartu behar jazarpen penalaren mehatxupear.

Bigarrenik, pribatutasun-eskubidea arriskuan dago osasun arloko langileek abortatu gura dutenen edo abortatu ondoren harrera jaso behar dutenen informazio konfidentziala hedatzen dutenean.

Hirugarrenik, emakumeen pribatutasun-eskubidearen urraketa dakarte emakumeak abortatzeko baimena bikotekidearen baimenaren arabera onartzen duten politikek.

## h) Informazio eskubidea

Eskubide hau, espresuki ezarrita dago *Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren* 19.artikuluari, baita CIPD-en VII. kapituluari ere. Azken honek zera adierazten du: *“persona orok du, sexu eta ugalketa arloan, bere osasun egoeraren, eskubideen eta erantzukizunen berri argi jasotzeko eskubidea eta onuren, arriskuen eta ernalketa erregulatzeko metodoen emankortasunaren eta, kasuan-kasuan, haurdunaldi bakoitzak izan dezakeen inplikazioaren inguruko informazioa izateko ere bai.”*

Horrez gain, ugalketa-osasunaren gaineko informazioa Emakumeen kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatze Hitzarmenaren 10.kapituluan nabarmenduta dago. Bertan, emakumeek osasuna bermatuko duen informazio material zehatzera sarbidea izan dezatela exijitzen da.

Informaziorako eskubidea, bereziki osasunerako eskubidearekin erlazionatzen denean, berarekin bi betebeharrak daramatza: kontrakoa eta aldekoa; kontrakoa, Estatuaren aldetik informazioa ematea ez eragozteko eta aldekoa, informazio osoa, zuzena eta beharrezkoa emateko betebeharra, abortuaren inguruko informazioa barne, horrela, ugalketa eta osasun eskubideak babesteko.

## i) Tratu krudel, anker eta umiliagarria ez jasateko eskubidea

Tratu krudel, anker eta umiliagarria ez jasateko eskubidea honako artikuluetan jasota dago: *Giza Eskubideen eta Eskubide Politikoen Adierazpenaren* 5.ean, *Eskubide Zibilen Nazioar-*



teko Itunaren 7.ean, Umearen Eskubideei Buruzko Konbentzioaren 37.ean, Giza Eskubideen Europar Konbentzioaren 3.ean, Giza Eskubideen Amerikar Konbentzioaren 5.ean, Giza Eskubideen Gutun Afrikarraren 5.ean, Giza Eskubideen Gutun Arabiarra delakoaren 13.ean eta Kairoko Ekintza Programaren delakoaren 4., 4.9. eta 4.10.ean.

NBE-aren Giza-Eskubideen komiteak adierazi du legezko eta abortu ziurrerako sarbideak galaraztea tratu krudel, anker eta umiliagarria eragin dezakeela, hala nola, abortu osteko mediku-harrera faltak.

## **j) Zenbat seme-alaba izan eta jaiotzen arteko maiztasuna erabakitzeako eskubidea**

Eskubide hau sarritan izan da errepikatua nazioarteko adostasuna duten hainbat dokumentutan. Esate baterako, CEDAW-aren 16.artikuluak dio: *“Parte diren Estatuak egoki diren neurriak hartuko dituzte ezkontzarekin eta familia-erlazioekin zerikusia duten gaietan emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeke*. Bereziki, gizon-emakumeen berdintasunetik zera ziurtatuko dute: libreki eta arduratsu erabakitzea zenbat seme-alaba izan eta jaiotzen arteko denbora, eta horrez gain, informazioa, heziketa eta eskubide hauek gauzatzeko baliabideak eskura izatea”.

Beste alde batetik, *Biztanleria eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programa (gaztelaniazko CIPD)* delakoaren 7.2 paragrafoan azaltzen da ugalketa-osasunak beregain hartzen duela pertsonak ugaltu edo ez, noiz, eta zenbateko maiztasunarekin erabakitzeako askatasuna dutela. 7.3 paragrafoan bikoteen zein norbanakoaren oinarritzko eskubidea aipatzen da. Honen arabera, bikoteek eta norbanakoek zenbat seme-alaba izan eta jaiotzen arteko tartea libreki eta arduratsu erabakitzeako eskubidea dute eta eskubide hau gauzatzeko beharrezko informazioa eta baliabideak izatekoa. Hau da, CIPD-ek CEDAW-aren 16.artikuluaren ezarritako oinarria barne hartzen du: seme-alaba kopurua eta jaiotzen arteko tartea libreki eta arduratsu erabakitzeako eskubidea. Hala eta guztiz ere, aitortzen du eskubide hau ez dagokiola gizonari eta emakumeari ezkongaien testuinguruan ulertuta, ezpada, egoki onartu behar zaiela “bikoteei eta norbanakoari”.

## **k) Aurrerapen zientifikoaren onurez gozatzeko eskubidea**

*Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 15 1.b artikuluak zera dio: “Parte diren Estatuak honako Itunean pertsona oroaren aurrerapen zientifikoaren onurez eta honen aplikazioez gozatzeko eskubidea onartzen dute”.*

## **l) Erlijio eta kontzientzia askatasunerako eskubidea**

Erlijio eta kontzientzia askatasunerako eskubidea honako artikulutan dago jasota: *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 18.artikuluaren, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna delakoaren 18.ean, Umearen Eskubideen Konbentzioa delakoaren 14. eta 30.ean eta Giza Eskubideen Europar Konbentzioaren 9.ean.*

**18. artikulua:** Pertsona orok du pentsatze, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea. Honen barnean erlijioa edota sineskera aldatzeko askatasuna dago. Era berean, norbere erlijioa edota sineskera banaka zein taldeka eta jendaurrean zein pribatuan adierazteko eskubidea; izan irakaskuntzan, praktikan, gurtzan zein betetzean.

**14.1 artikulua:** Parte diren Estatuak umearen pentsatzeko askatasunaren, kontzientziaren eta erlijioaren eskubidea errespetatuko dute.

**9. artikulua:** Pentsatzeko, kontzientzia eta erlijio askatasuna: 1. Pertsona orok du pentsatzeko askatasunaren, kontzientziaren eta erlijioaren eskubidea eta honek barne du erlijioa edota usteak aldatzeko eskubidea.

Erljio-fedea abortuarena bezain pertsonala da.

Erljio askatasunerako eta kontzientziarako giza eskubideak ez du mugarik onartzen eta jarritako eta jarri gabeko erlijioei aplikatzen zaie. Halaber, erlijiorik ez izateko eskubideari ere egokitzen zaio. Era berean, erlijio askatasunak berarekin dakar eskuarki, edo esklusiboki, sorturiko legeak erlijio baten arabera betetzeko askatasuna. Horrez gain, barnean du norbere kontzientziaren arabera jarduteko eskubidea eta ez arrotzak diren erlijio-dotrinen arabera.

**Laburbilduz,** sexu eta ugalketa-eskubideak testuinguru kultural eta historikoen barruan daude eta sexu berdintasuna eta ekitatea dute helburu. Diskriminazio mota orotan aske izatea; aniztasunarekiko errespetua; bere amatasunaren arloan emakume orok duen erabakitzeko eskubidea; informazio objektiboa, benetakoa, egokia eta argudio zientifikoetan oinarritutakoa izateko eskubidea; sexu-lehentasuna adierazteko eta adostutako erlazioak izateko eskubidea; intimitatea eta bizitza pribaturako errespetua -isilpekorako eskubidea barne-; antisorgailu ziur, eraginkor, eskuragarri era egokiak lortzeko eskubidea; Osasun Zerbitzu integralak eta kalitatezkoak; sexu-heziketa osoa, laikoa eta zientifikoa; sexualitatea era askean gauzatzeko errespetua; torturen, hertsaduraren, esplotazioaren, sexu-abusuen eta beste edozein eratako biolentzietatik kanpo.

## Abortuaren esparru legala Espainiar estatuan

---

### Aurrekari historikoak

#### Abortuaren inguruko legedi historikoa Espainiar Estatuan

1985eko despenalizazioa (uztailaren 5eko 9/1985 Lege Organikoa) Espainiar Estatuko giza eta lege-aldaketarik garrantzitsuenetakoa izan zen. Bertan, abortua ordura arte ilegala izan zen. Salbuespen bakarra Katalunian izan zen, II. Errepublikara garaietan, 1936ko abenduan onartutako *Ley de Aborto de la Generalitat de Catalunya* deituriko araua. Hau Lehendakartzaren Dekretu bidez onartu zen eta *Diario Oficial de la Generalitat* egunkarian argitaratua 1937ko urtarrilaren 9an. Horrez gain, bertan, ez zen erabakitzeko emakumearen adin mugarik ezartzen. 1938an ezabatu zen.

60. hamarkadan Espainia zen legedia abortua despenalizatzeko joerara egokitu ez zuen Europako herrialde bakaretakoa. Haatik, 1973an, Efe agentziak aipaturiko *Fundación Fomento de Estudios y de Sociología Aplicada*ren txosten baten arabera, herrialde honetan 114.000 abortu izan ziren.

#### 9/1985 Lege Organikoa

9/1985 Lege Organikoan, 1985eko uztailaren 5ean onartua, hiru hipotesitan despenalizatu zen eragindako abortua: haurdun dagoen emakumearen arrisku larria, osasun fisikoa zein psikikoaren kasuan (hipotesi terapeutikoa), bortxaketa baten ondoriozko haurdunaldia zenean (kriminologia-hipotesia) eta fetuan malformazioak edo tarak, fisikoak edota

psikikoak zeudenean (eugenesia-hipotesia). Lege honen arabera, umedunak haurdunaldia eten zezakeen zentro publikoetan zein pribatueta; kriminologia-kasuetan lehenengo 12 asteetan, eugenesikoan hasierako 22 asteetan eta kasu terapeutikoan haurdunaldiaren edozein momentutan.

Bigarren eta hirugarren hipotesietan legeak ezarritako baldintzak betetzen zirela ziurtatzen zuen mediku-txostena eskatzen zen, eta bortxaketa kasuetan, polizia-salaketa bideratu beharra zegoen alde aurretik. Hiru hipotesi hauetan ez zen zigorgarri mediku batek, edo bere zuzendaritzapean, eragindako abortua, ez eta bermatutako osasun zentro batean, izan publikoa edo pribatua, emakumearen baimen zehatzarekin eragindakoa ere. Gainerako kasuetan Kode Penalak hainbat kartzela-zigor ezartzen zizkion bai umedunari, bai legez kanpoko abortuak eragiten zituen medikuari.

*Ugalketa eta Sexu Osasuna eta Haurdunaldiaren Gogozko Eteatea* deituriko Martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa ezarri arte, abortatzeagatik emakumeen eta osasun arloko profesionalen kontrako 300 prozesu judizialek gora ireki ziren. Lehenengo legezko abortua Insalud-eko mediku boluntarioek egin zuten Asturiasen 1985eko abuztuaren 10ean.

Legeak bi Dekretu Erreal jasotzen ditu: ekainaren 5eko 825/2010 *Legearen Garapen Partziala* izenekoa (legearen 16.4 eta 17.2 artikuluei buruzkoa) eta 731/2010 *Asistentzia-Kalitatea* izenekoa.

Haurdunaldiaren borondatezko eteteak polemika handia sortu izan badu ere, 2007ko amaieran azaldu zen berriro indartsu abortua erregulatzeari buruzko eztabaida, Bartzelona eta Madrileko klinika pribatueta eragindako haurdunaldi aurreratuen eteteak argitara atera zirenean.

Giza erakunde ugari abortuaren legea berrikustea proposatu zuten, jarrera kontrajarritatik baina: batzuk murrizketak ezartzearen alde eta bestek epe-legearen alde. Azken honen arabera, abortu librea eta debaldekoa onartuko zen haurdunaldiaren lehenengo asteetan.

## **2/2010 Lege Organikoa**

2010eko martxoaren 3an *Ugalketa eta Sexu Osasuna eta Haurdunaldiaren Gogozko Eteatearena* izeneko 2/2010 Lege Organikoa aldarrikatu zen. Lege honen helburua da Munduko Osasun Erakundeak ezarritako ugalketa eta sexu-osasuneko oinarrizko eskubideak bermatzea, haurdunaldiaren gogozko etetearen baldintzak erregulatzea eta aginte publikoen betebeharrak ezartzea. [13] [14] [15] Legea 2010eko uztailaren 5ean ezarri zen.

II. Tituluan, 13. eta 14. artikuluetan, lehenengo 14 asteetan zehar eragindako abortuaren despenalizazioa zehazten da, baldintza birekin: emakumeak eskubideei, prestazioei eta amatasunerako laguntzei buruzko beharrezko informazioa jasoko duela, Lege honen 17. artikuluan 2. eta 4. ataletan zehazten den moduan; eta bigarrena, gutxienez 3 eguneko tartea izango duela arestian aipatutako informazioa jasotzetik operazioa gauzatu arte.

15.artikuluan adierazten da haurdunaldiaren borondatezko eteterako epea 22 astera igotzen dela "amaren edota fetuaren bizia edo osasuna arriskuan izanez gero". Aste horretatik aurrera, hipotesi bitan soilik eten ahal izango da haurdunaldia: "fetuaren bizitzea galarazten duen anomaliaren bat aurkituz gero" edo "fetuaren diagnostiko garaian oso larria eta sendaezinezko gaitza -komite kliniko batek hala berretsitakoa- aurkituz gero".

## **Egungo araudiaren eta 1985eko despenalizazioaren arteko konparati- boak.**

Hipotesirik hipotesi joanda, berrikuntza hauek ditugu:

- Aurreko legedia urratzearen hipotesia (12 astera arte), egungo legediaren emakumeak aske erabakitzeko epearen barne-atal bat da.
- Fetuaren anomalia larriengatik abortuaren hipotesia berdin dago egungo legedian, 22 astetako epearekin eta aditu biren txostenarekin (15.b artik.).
- Emakumearen bizi edo osasun-arrisku larriaren hipotesia berdin dago, lehenengo 22 asteetan, baina egun aditu bik eman behar dute irizpena eta lehen batena onartzen zen (15.a artik.).
- 23. astetik amaierara arteko emakumearen bizi edo osasun-arrisku larriaren hipotesia lehen onartuta zegoen, gaur ordea, debekatu egin da.
- Aurreko legedian ez zegoen fetuan bizia galarazten duen anomalia ezta gaitz oso larri edo sendaezinezko hipotesirik. Lehenengo kasuan, orain Haurdunaldiaren Borondatezko Etetea (HBE) haurdunaldi osoan zehar onartzen da aditu biren txostenarekin. Bigarrenean ere, Autonomia Erkidegoak izendatutako Komite Kliniko baten oniritziarekin etetea haurdunaldi osoan zehar onartzen da. (15.c artik.)
- Lege berrian aukera askeko epea onartzen da, 14 aste. Epe honetan derrigorrezkoak dira informazio-gutuna eta hausnarketarako hiru egun (Lege Organikoaren 14. artik.). Aurreko legean ez zegoen horrelakorik.
- Aurreko legean emakume gazteek 18 urterekin erabaki zezaketen, orain 16rekin. (13.4. artik.).
- Legedi bietan zigortzen da onartutako kasuetatik kanpoko abortua. Lehen kartzela zigorra ezartzen zen, orain, ordea, isuna.
- Lege bietan zigortzen da osasun arloko langilea kartzela zigorrarekin eta gaitasungabetzearekin abortua eragiteagatik. Berrian, langileak informazio gutuna ez emateagatik eta hausnarketarako epea ez betetzeagatik zigortzen dira.
- Lehen ez zen antisorgailu sistemarako sarbide eskubiderik aipatzen eta orain gai honi buruzko aipamen generikoak egiten dira ( 5.,6. Eta 7. artik.).
- Legedi bietako batean ere ez da objekzio-kontzientzia arautzen, baina 19.2.2. artikuluan aipatzen da.
- Orain, ez lehenago, HBE gauzatzeko langileen formazioa arautzen da. (8.artik.).
- Modu berean, gaur egun HBE-rako debaldeko laguntzarako sarbidea bermatzen da. (18. artik.)
- Heziketa afektibo-sexuala aipatzen da lege berriaz gero ( 9. artik.).

## Legearen akats eta gabeziak

Zergati horregatik abortatu gura duen emakumeak egin beharreko bidea gaiztotu eta luzatu egiten da. Ondorioz, larriagotu egiten da jakinik 22 astetako epe-muga duela.

23. astetik amaierarako denbora ez da emakumearen bizi eta osasunerako arrisku larriko hipotesizat hartzen.

Legedi berriaren arabera, aukera askeko epea erakunde feministek eta ugalketa-eskubi-deen erakundeek proposatutako en arteko laburrena eta laguntza gutxi duena da. Informazio-gutuna eta hausnarketarako hiru egunak emakumeen aukera askearen kontrako presio-ahalegina dira.

Hipotesi onartuetatik kanpo abortatzen duen emakumeak zigortua izaten jarraitzen du. 6 eta 24 hilabete arteko isuna ez ordaintzeak kartzela-zigorra ekar dezake.

Segurtasun juridiko eza larria mantentzen da hasierako hamalau astetatik aurrera abortua eragitea baimentzen duten argibideei jarraiki abortua eragiten duten osasun arloko langileentzat. Gainera, hauek zigortzen dira administrazio kontuak leporatuta, hala nola, HBE-aren aurreko informazioa ez luzatzea.

Oraindik ere ez zaio sistema publikoaren bidezko finantziarioari heltzen beste botika edo txertoekin egiten den moduan.

Ez da inolako aurrerapausorik ematen HBE-ak, orain arte, ia zentro publiko baten ere ez egitearen auzia konpontzeko.

Sexu eta Ugalketa-eskubi-deen formazio markoaren aipamenaren eta HBE-aren praktika klinikoaren zehaztapenaren hutsuneak igarri dira.

## Abortuaren esparru legala El Salvadorren

---

### Aurrekari historikoak

Latinoamerikan bi garai handiren araberrako jarrera dago: XIX. mendeko legedia penalea eta XX. mendeko kodifikazioen aurrerakoa. Lehenengoan, "familia moralari" ematen zaio lehentasuna, abortuaren delituak pribilegio handiak jasotzen ditu eta umedunaren eta honen familiaren erreputazioa babestu egiten da. Bigarrenean, *honoris causa* abortua desagertzen hasten da.

Periodizazio hau ez zen erabat bete izan El Salvadorreko legedian, izan ere, gutxienez 1998ko kode penalera arte, oraindik ere *honoris causa* abortua indarrean zegoen abortu terapeutikoaren, kriminologikoaren eta eugenesikoaren jarraibideekin batera.

Ondoren, gure ibilbide historiko laburra hiru garaitan banatuko dugu: lehenengoa 1998ko legediaren aurrekoa, bigarrena 1998ko legediaren ondorengoa (1997ko apirilean onartutako kode penal berriaren ezartzeak aldatua) eta hirugarrena, prozesu konstituzional biren bidez, legedi honen kontra egitea helburu duena.

## 1826-1904 bitarteko legedi penalak

El Salvadorreko legediak sei kode penal izan ditu: 1826koa, 1859koa, 1881ekoa, 1904koa, 1974koa eta azkenik, 1998koa. Azken hau dago egun indarrean.

**1826ko kode penalak**, oro har 1859ko kode penalari loturikoa, kontsiderazio berezia zuen umeduna heriotza-zigorra kondenatua izanez gero eta bere 72. artikuluan zera jasotzen zuen: *“umedunari ezarritako sententzia bat ere ez zaio honi jakinaraziko, ezta gauzatu ere egingo jaiotzetik 40 egun igaro arte, berak espresuki baimenduta ez bada. Epai-betearazlea, baina, ez zaio inoiz ere jakinaraziko erditzea burutu arte eta koarentena igaro arte”*.

Berrogei eguneko epe honek indarrean segituko du geroko legedietan. Bere atal nagusian, aipaturiko kodeak besteek eta umedunak berak eragindako abortuak ezberdintzen zituen. Ezberdintasun honen harira, hirugarren batek eragindako abortuak sei eta hamar urte bitarteko kartzela zigorra zuen, umedunaren baimenarekin eraginda zenean, salbu. Kasu honetan, lau eta zortzi urte bitartera gutxitua izaten zen zigorra eta emakumeak berak eragindakoak lau eta zortzi urte bitarteko kartzela-zigorra izaten zuen.

1826ko kode penalarekin jarraituz, delitu mota bi ezberdintzen dituen araudiaren aurrean gaude: menpeko bizia mintzen duten delituak eta bizi independentea babesten dutenak. Lehenengo kasuak gehienez 10 urteko kartzela-zigorra zuen; eta bigarrenak, hilketa-delituen kasuan, heriotza-zigorra.

**1881eko kode penalak**, era berezian tratatzen zuen jaiogabekoa umedunaren behin-behineko kondena bitartean. 73. artikuluan zera adierazten zuen: *“fetua kaltetu dezakeen amaren kontrako edozein zigor jaiotzaren ondoren ezarri beharko da”*, eta heriotza-zigorri dagokionez, aurrekari araudiari eusten zion eta jaio eta berrogei egun igaro arte atzeratzen zen. 366. artikuluan ume-hilketaren figura ageri da; honen arabera, *“bere desohorea estaltzeko hiru egun bete ez dituen seme-alaba hiltzen duen ama presoaldi txikiarekin zigortuko da”*.

Abortuaren kasuan, amaren baimenak oraindik ere balioa zuen eta emakumeak berak eragiten zuenean abortua edo hirugarren batek eragitea baimentzen zuenean, “presoaldi-txikia” jasotzen zuen. Zigor hau areagotzen zen hirugarren batek biolentziarik eta amaren baimenik gabe eragiten zuenean. Biolentziarekin eraginez gero, zigorra “presoaldi-handira” areagotzen zen.

Beste alde batetik, kode penal honetan errudun delituak zeuden begi bistan. Ohorearen balorazioa oraindik ere garrantzitsua da eta amak “desohorea ezkatzea” helburu zuen kasua zentzategi-presoaldiarekin zigortua izaten zen. Horrez gain, zigor nagusia zegoen medikuak parte hartzen zuen abortu delituari.

**1904ko kode penalak** 1826ko kodeak fetuari aitortzen zizkion zenbait kontsiderazio gordetzen ditu eta 26. artikuluan zera arautzen du: *“ez zaio heriotza-zigorra gauzatuko haurdun dagoen emakumeari eta ez zaio ezarritako sententzia jakinaraziko harik eta haurra jaio eta berrogei egun igaro arte”*. Aurrerago, VIII. tituluari, berriro ere hilketa (III. kapituluari) eta abortu (V. kapituluari) delituak bereizten zituen eta bien arteko erdibideko babesa arautzen zuen ume-hilketekin loturikoak (IV. kapituluari).

Berriro ere, ohoreak berebiziko garrantzia du eta funtsez baldintzatzen du fetuari ematen zaion babes penala. Aipaturiko kodearen arabera, umedunak eragindako abortuak

“desohorea ezkutatzea” duenean helburu, zigorra urte biko “presoaldi handira” gutxitua izaten zen.

Haur-hilketak (lehenengoz izenez aipatuta) ere “ohorearen” ideia-eremuan grabitatzeko izan zuten, amaren aldetik jaio-berriaren heriotza zetzan “bere desohorea ezkutatzeko”, jaio osteko 48 ordura izanda ere. Arrazoi horregatik, hiru urteko “presoaldi handiarekin” zigortutako onuradun hipotesi bat izanda.

Beste alde batetik, 1904ko kode penalak baimena arindu zuen eta bere abortua eragiten edo hirugarren batek eragitea baimentzen zuen emakumeari hiru urteko kartzela-zigorra ezarri zion.

Azkenik, emaitzak gaituriko figura zegoen (365. artikulua). Honen arabera, bi urteko presoaldi-handiarekin zigortzen zen abortatzeko helbururik ez zuena, baina azkenean “era biolentean” jokatzeagatik berau eragiten zuena.

Amaitzeko, **1974ko kode penalak** arestian aipaturiko proiektuen ildo nagusien jarraipena izango litzateke. Sorkuntza produktuen babesa, jaio aurretik eta ondoren, “abortuarekin” eta “hilketa arinduarekin” lotuta daude, hurrenez hurren. Azken honek haur-hilketa kasuak ordezkatzeko ditu, beti ere, “amak haurra jaio bitartean edo jaio eta hurrengo 62 orduetan hilko balu emozio bortitz baten eraginez eta egoera zurigarrian”. Azken hau aldaketa nabarmena da, izan ere, 1960ko proiektuarekin eta beste aurrekarirekin alderatuta, jaio bitarteko, edo jaio eta berehalako bizi-hondatzea arintzea desohorearen inguruan grabitatzeari uzten dio eta “emozio bortitz” multzo bihurtzen da, errudun izatetik urruntzen duena eta leporatu ezinezkoa hurbiltzen duena.

Abortuaren delituari dagokionez, umedunaren nahiak gakoa izaten jarraitzen du zigorra ezartzerakoan. Azken honen baimena baldin badago, “berezko edo lortutako abortuaz” hitz egin daiteke, eta honek urtebete eta hiru urte bitarteko kartzela-zigorra izango luke edo bi eta lau urte bitartekoa “onartutako abortua” leporatuta. Zigor hauek, biak ala biak, “baimen gabeko abortuagatik” jartzen den zigorra baino leunagoak dira. Kasu honetan, abortu eragileak, amaren baimenik gabe egiteagatik, hiru eta zortzi urte bitarteko kartzela-zigorra jasaten zuten.

Beste alde batetik, zigorrik gabekoak izaten jarraitzen zuten medikuaren hutsaren ondoriozko abortuak edo emakumeak nahita eragindakoak, beti ere, umedunak eraginda izanda.

Abortu terapeutiko eta kriminologikorako jarraibideak berriro ere agertu ziren, baina Justizia Ministerioaren 1960ko proiektua ez bezala, azken argibide hau salbuesletzat hartu zen eta ez aringarritzat. Azkenik, puntu honetan, kodeak aurreko salbuespenei beste argibide bat gehitu zien, eugenesikoa, edo “*mediku batek emakumearen baimenarekin eta fetuaren itxuragabetasun larria ekiditeko helburuarekin eragindakoa*”. Beste behin, ohoreak lekua du abortuaren arautzean eta hau “jarrera egokia zuen emakumeak” eraginda zenean, bere ohoreari eusteko eta bere haurdunaldia jakinarazi gabe, zigorra nabarmen gutxitzen zen eta sei hilabete eta urtebete bitartekoa izaten zen.

## 1998ko Kode Penalak (indarrean)

1998ko Kode penalak 1974ko legediari aldaketa ugari egin zizkion eta, oro har, azken 150 urtean abortuaren delituari ezarri izan zitzaizkion legeei.

### 133. artikulua: onartutako abortua eta propioa

Emakumearen baimenarekin abortua eragingo lukeenak, bere abortua eragingo lukeen emakumeak, edo beste batek eragitea onartuko lukeenak, bi eta zortzi urte bitarteko kartzela-zigorra jasango luke.

### 134. artikulua: baimenik gabeko abortua

Emakumearen baimenik gabe abortua eragiten duena lau eta hamar urte bitarteko kartzela zigorrarekin zigortua izango da.

Zigor bera jasango du emakumearen abortua eragiten duena, baimena era bortitzean edo gezur bidez lortuta.

### 135. artikulua: larriagotutako abortua

Abortua medikuak, farmazeutikoak edo lanbide hauetan laguntzaile lanak egiten dituenak eragingo balute, aipatutako lanbidean aritzen diren bitartean, sei eta hamabi urte bitarteko kartzela-zigorra jasango lukete. Horrez gain, iraupen bereko inhabilitazio bereziaren zigorra ezarriko litzaieke.

Ageri denez, indarrean dagoen kode penalean balio "absolutua" du "bizia" ondasun juridikoak (gizakia hala da sortzen den momentutik konstituzioaren 1. artikulua arabera), beraz, desagertu behar dute balio honi kalte egiten dieten zigor-gabetze adierazpen legalek. Zergati horiek direla-eta desagertu zen *honoris causa* abortua, "hilketa arindua" (haur-hilketa modua) eta, agian guztietan aldaketarik eztabaidagarriena, abortu terapeutikorako, eugenesikorako eta kriminologikorako argibideak ere desagertu egingo dira.

## IV. SALAKETA ZEHATZERAKO ZERGATIAK

---

**MARIA GARCIA**ren kasuan, Espainiar Estatua honen erantzule da:

Ez du kalitatezko sexu-heziketa eskaini koito-erlazio ziurrak eta babestuak nola izan azaltzeko eta abortua gai tabua bihurtu du eta emakumeak kasu horietan jarrera egokiz joka dezaten baliabide gabe utzi ditu.

Ez du abortua osasun-prestazio publikotzat hartu, gainerakoak bezala, eta emakumeak klinika pribatuera joanarazi ditu horrek dakartzan gastuak beregain utzita.

Emakumeak, edozein dela adina, adin txikikotzat hartu ditu eta behartu euren erabakiak osasun edota epai-arloko langileek babestera.

**MARIA TERESA RIVERA**ren kasuan, El Salvadorreko Errepublika honen erantzule da:

Abortuaren inguruko legedia erabat murriztailea izan du eta honek Giza-Eskubide guztien urratzea eragin du, batez ere, emakumeen ugalketa-eskubideak.

Jazarpen eta kriminalizazio mekanismoak ezarri ditu abortua eragin izana susmatzen duten emakumeen kontra.



Jazarpena eta mehatxu legalak erabili ditu abortua eragiteagatik salatutako emakumeen defendatzaileen kontra.

Ez ditu sexu-programa eraginkorrak sustatu ez hezkuntza alorrean, ez eta osasun arloan ere.

Ez du El Salvadorreko emakume guztien beharrezko sexu eta ugalketa-osasuna bermatuko dituen sistema izan.

Emakumeen kontrako estatu-biolentzia gauzatu du abortuaren kriminalizazioaren bidez eta berme konstituzionalik gabeko kondena erabiliz. Horrela, errugabetasun-presuntziarako eskubidea urratu du.

## **V. EPAIMAHAIARI ESKAERAK**

---

### **a) Estatuei gomendioak**

1. Gaiaren inguruko legedian oinarritzat har ditzatela giza-eskubideak, eta bereziki, sexu eta ugalketa-eskubideak.
2. Ekintza-plana edo estrategia oso bat gara dezatela urratutako eskubideak bermatzeko.
3. Araudi-markoa eta politika publikoak egunera ditzatela nazioarteko itun lotesleak zaintzen dituzten komiteen oharren eta gomendioen harira.
4. Hala gura duen emakumeari haurdunaldiaren etete ziur eta doakorako sarbidea bermatzea.
5. Edozein eratako Haurdunaldiaren Gogozko Etetea despenaliza dezatela.

### **b) Espainiar Estatuari gomendioak**

1. Beharrezko baliabideak ezar daitezela emakumeen eskubideak errespetatu daitezela. Bereziki, euren ugalketa eta sexu-eskubideen ingurukoak.
2. Beharrezko baliabideak gehi daitezela nahi gabeko haurdunaldiak ekiditeko eta, beraz, abortuak saihesteko.
3. HBE-ak umeduna bizi den autonomia erkidegoan, erabat doan eta osasun publikoan egin daitezela beharrezko neurriak har daitezela.
4. Sexu eta ugalketa-heziketa, bai hezkuntza arautuan bai horretatik kanpo, bermatuta. Baita antisorgailuetarako sarbide askea ere.
5. Aborturako sarbidea, eskusiboki, dagokion emakumeak eskatuta bermatuta, babes judizial eta administratiborik gabe.
6. HBE-ak artatzen dituen medikuaren jarrera ez dadila auzitaratu eta despenalizatua izan dadila.

7. Batez ere, ugalketa eta sexu-eskubideei buruzko hitzarmenak, itunak, Europako Kontseiluaren gomendioak eta Nazioarteko konferentziak -Espainia parte dena, edo izan behar lukeena behintzat- errespetatu daitezela abortuaren inguruan Justizia Ministerioak iragarritako Kode Penalaren erreforman.

### **c) El Salvador Errepublikaren Estatuari gomendioak**

1. Emakumeen eskubideak errespetatu daitezela beharrezko baliabideak inplementatu daitezela, bereziki, euren ugalketa eta sexu-eskubideen ingurukoak.
2. Ondorioz, eragindako abortu kasu guztiak despenaliza daitezela eta ez daitezela auzitaratuak izan.
3. Nahi gabeko haurdunaldiak aurreikusteko beharrezko baliabideak gehitu daitezela eta, beraz, abortuak ekiditeko.
4. Sexu eta ugalketa-heziketa, bai hezkuntza arautuan bai horretatik kanpo, bermatuta. Baita antisorgailuetarako sarbide askea ere.
5. El Salvador parte dena, edo izan behar lukeen, ugalketa- eta sexu-eskubideei buruzko Hitzarmenak, Itunak, Europako Kontseiluaren gomendioak eta Nazioarteko Konferentziak errespetatu daitezela bereziki.

**MARIA GARCIAren kasuari dagokionez**, akusazio honek Epaileak bere ebazpenean ondorengo erabakiak sar ditzala eskatzen du:

1. Deklaratu dadila autonomia-instituzioak eta Espainiar Estatuak derrigorrezko, gutxieneko eta genero estereotipo gabeko sexu-heziketa ez eskaintzearen arduradun direla.
2. Deklaratu dadila abortua Espainiar Estatuan eta, batez ere Nafarroan, gai tabuaz gain, ideologia kontserbatzailea eta patriarkalak estalia eta isildua dela.
3. Deklaratu dadila Espainiako osasun sail publikoak ez duela abortua bere gain hartzen. Hori dela eta, pribatuetara jo beharra gastu handia da eta emakume askok, batez ere nerabeek, ezin diote aurre egin.
4. Deklaratu dadila ahaldu publikoek eta hedabideek abortuaz aritzeko darabilten modu alarmista eta emakumeak errudun jotzen dituztela.
5. Deklaratu dadila Espainiar Estatuak abortuak eragiten dituzten medikuak auzitaratzen eta kriminalizatzen dituztela arrazoi administratibo hutsak leporatuta.
6. Espainiar Estatuak, desaktibatu beharrean, sustatzen ari dela emakumeei inposatutako sexualitate heterosexual eta genitalaren ereduak. Bertan, gainera, amatasuna, sozialki, ia derrigorrezkoa da.
7. Espainiar Estatuak kondenatua izan dadila MARIA GARCIAri sortutako gastuei aurre egiteko zenbatekoa ordaintzera eta, horrez gain, Epaileak zehaztutako duen beste kopuru bat ere ordaintzera, kalte moral gisa.

**TERESA RIVERA**ren kasuari dagokionez, akusazio honek Epaileak bere ebazpenean ondorengo erabakiak sar ditzala eskatzen du:

1. Gaitzetsi dadila El Salvador Errepublikaren aldetik Teresa Riveroren giza, sexu- eta ugalketa-eskubideen urraketa.
2. Eska diezaiela Giza eskubideen Babeserako nazioarteko instantziei behatzeko eta emakumeen bortxaketaren kontra azal daitezela. Izan ere, Teresa Riveroren kasuan bezala, jazarriak, salatuak, auzipetuak eta kondenatuak dira emakume asko El Salvadorren abortua eta hilketa larriagotua leporatuta.
3. El Salvadorreko Estatua akuilatua izan dadila 1998ko Kode Penalaren erreformarako nazio-eztabaida serioa eta zientifikoa sustatzeko, abortuaren irudia despenalizatuko duena.
4. Abortu kasuak direla-eta jazarriak izan diren emakumeen kontra gauzatutako biolentziagatik kondenatua izan dadila El Salvadorreko Estatua.
5. El Salvadorreko Estatua kondenatua izan dadila errugabetasun-presuntziorako eta beharrezko berme penal eta prozesalekin epaiketarako eskubideak urratzeagatik.
6. Estutua izan dadila El Salvadorreko Estatua Teresa Rivero berehala aske uzteko.
7. Teresa Riverak El Salvadorreko Errepublikaren aldetik jasandako kaltearen ordaina jaso dezala, kalte moralengatiko indemnitzazioarekin; eta ekintza hauek errepikatuko ez diren bermea izan dezala.

Bilbon, 2013ko ekainaren 7an

## BIBLIOGRAFIA

---

GUIROLA, Yolanda. *Estudio y Análisis sobre la Legislación Nacional e Internacional en Salud, Derechos Sexuales y Derechos Reproductivos*. San Salvador, 2007ko maiatza.

Consejo Internacional de Políticas de Derechos Humanos. *Sexualidad y Derechos Humanos*. Ginebra, Suitza, 2010.

Justizia arloko Komisio Koordinakundea. *Recopilación de Leyes Penales*. San Salvador 2009.

LAMM, Eleonora. *Las restricciones de acceso a un aborto legal y seguro como violación de los derechos humanos de las mujeres*. 2008ko maiatza.

FEUSIER, Oswaldo Ernesto. *Pasado y Presente del delito de aborto en El Salvador*. UCA Unibertsitatea, San Salvador.

MOSTERIN, Jesús. *Obispos, aborto y castidad*. El País egunkaria. 2009ko martxoa.

Erakunde Feministen Nazio Koordinakundea. *Interrupción voluntaria del embarazo. El derecho de las Mujeres a decidir*. 2007.

VÁZQUEZ María C. eta CABA, Eva. *Derechos Sexuales y reproductivos en Cooperación Internacional*. Toledo 2009.

CARRERA, M.José. eta Dolado, Marta. *Ley del aborto ¿Por fin?* Bilbo 2010.

LAURENZO, Patricia: *El aborto en la legislación española: una reforma necesaria*. Málaga 2005.

NAVARRO-VALLS, R. 2009. *Análisis jurídico del Proyecto de Ley del aborto*. Documentos del Foro de la Sociedad Civil

Emakume abokatuen XXI. Biltzar Estatala *La despenalización del aborto. Propuestas para su regulación legal*". Oviedo 2008

Emakume abokatuen XIII. Biltzar Estatala. *La colisión entre el derecho a la inviolabilidad del propio cuerpo y el respeto a la diversidad cultural*. Cádiz 1999 .

Emakume abokatuen VII. Biltzar Estatala. *Derecho reproductivo*. Las Palmas 1993.



**EMAKUMEEK  
INDARKERIARIK  
GABEKO BIZITZARAKO  
ESKUBIDEA**



# ADITUAREN TXOSTENA



## Rita Segato

Antropologo argentinarra, ikertzailea eta Brasiliako Unibertsitatean irakasle eta Garapen Zientifiko eta Teknologikoaren Kontseilu Nazionaleko ikertzailea. "Antropologia eta Giza Eskubideak" ikerketa taldeko zuzendaria. "Un estudio de las violencias que afectan a las mujeres indígenas brasileras: tipos, contextos y estrategias de protección dentro del respeto a la pauta del derecho a la diferencia" Ikerketa Proiektuaren Koordinatzailea. Brasilgo Indioaren Fundazio Nazionaleko Emakumeen Koordinazio aholkularia, etxeko indarkeriaren aurkako Maria da Penha Legearen hedapen tailerrak gauzaten dituen. "Acciones en Género" Brasilgo GKEko lehendakartzako kide.

## Marlene Libardoni

Brasilgo ekonomialaria, genero ikuspegiarekin nazioarteko ekonomian eta makroekonomian formatua. Emakumeen giza eskubideetan aditua eta mekanismo internazionalen eta politika publikoen formulaziorako genero eta ekonomiaren arteko loturan. Brasília-Mulher talde feministako kide sortzailea eta "Movimento de Emancipação da Mulher, Brasília" taldeko sortzailea. "Agende Ações em Gênero Cidadania e Desenvolvimento" erakunde feministako bazkide sortzailea. Ikasketa eta Aholkularitza Zentro Feministako sortzaile eta kontseilaria.

## I . GAIAREN ANALISI OROKORRA<sup>1</sup>

---

### Sarrera

---

Dokumentu honen oinarria genero indarkeria eta genero eta indarkeriaren arteko harremanen ulermenerako eredu teoriko bat da, egiturazko patriarkatuaren izaera biolentoa kontuan hartuta. Baiezatu egiten da hemen eta frogatzen saiatzen da, soilik genero indarkeriaren gaineko behaketa sakon batekin berau osatzen duten krudelkeria erak eta kopuruak murrizteko bideak topatzea lortuko dela. Xede hori lortzeko, ezinbestekoa da indarkeria mota hau non errotzen den, etengabe zergatik hazten den, eta Estatuak, lege eta politiken etengabeko ugaltze eta hobekuntzaren bidez muga jartzea zergatik lortzen

---

<sup>1</sup> Dokumentu hau originala da, eta bere erreferentzia iturriak hauek dira: Segato, Rita Laura: 1) *Indarkeriaren Funtsezko Egiturak*. Buenos Aires: Prometeo, 2003; 2) *Ciudad Juarez-en Eraildako Emakumeen Gorputzean Eskritura: Lurraldea, Subiranotasuna eta Bigarren Mailako Krimenak*, Mexiko, D.F.: Sor Juanaren Klaustroko Unibertsitatearen Argitalpenak, 2006; 3) *Zer da feminizidio bat? Azaleratzen ari den eztabaida baterako oharrak*, Belaustegiogitia, Marisa eta Lucia Melgar: *Muga, indarkeria, justizia: diskurtso berriak*. PUEG-UNAM, UNIFEM. Mexiko, 2007; 4) *Femigenozidioa eta feminizidioa: tipifikazio proposamen bat*, *Herramienta Aldizkaria*, 49. alea, 2012ko martxoa; 5) *Femi-geno-zidioa krimen gisa, Giza Eskubideen nazioartearen baitan: zuzenbidean sufrimendua aipatzeko eskubidea*, Fregoson, Rosa-Linda eta Cynthia Bejarano: Ameriketako feminizidioaren kartografia bat, 2010 Mexiko DF: UNAM-CIIECH/Emakumeen bizitza eta askatasunerako Ikertzaileen Sarea; 6) *Generoa eta kolonizazioa: irakurketa gakoan eta deskolonizazio-hiztegi estrategiko baten bila*, Bidasecan, Karina eta Vanesa Vazquez Laba: *Feminismoak eta Kolonializazioa. Latinoamerikan eta Latinoamerikatik feminismoa deskolonizatzen*, Buenos Aires: Godot argit., 2011



ez duen jakitea. Geure buruari galdetzen diogu, hortaz, zein den legearen eta Estatuaren papera. Emakumeen kontrako indarkeria hilgarriaren bi indarkeria moten arteko perzeptzioan argitasun handiagoa beharrezkoa dela errepikatzen dugu. Eta, ikuspuntu hau ardatz izanik auzitegiak epaituko dituen kasuen irakurketarekin bukatu egiten dugu.

## **Patriarkatua eta Indarkeria: Genero eta indarkeriaren arteko harremanaren ulermenetik epaitutako kasuen ulermenera**

---

Genero indarkeriaz hitz egiten dugun bakoitzean oso garrantzitsua da genero motibazioetan oinarritzen den indarkeriazko jarrera, "patriarkatua" deitzen dugun egitura konplexu baten gertakari zentrala dela ulertzea. Ez da posible gertatzen dena ulertzea: zergatik gertatzen den, zerk adierazten duen indarkeriazko jarrera eta nola geldiarazi generoa den indarkeria sortzeko makina hori, gertakari zentral horren etiologia ulertzea ahalbidetuko digun eredurik gabe. Emakumeak jasaten duten indarkeria horretatik babesteko eta genero arazoak direla eta ematen diren erasoen kopurua txikiagotzeko saiakeran Estatuaren eta Giza Eskubideen nazioarteko baliabideen porrot erlatiboaren ulermenean ere ezin da aurrerapausorik eman, genero harremanak antolatu eta indarkeria hori eragin, errepikatu eta hedatu egiten duen egitura patriarkalaren azterketa sakon batetik abiatzen ez bagara.

Errepikatzen den portaera behagarrien kopuru baten atzean dagoena aldarrikatzea da eredu bat. Teoriarik gabe, hau da, genero arazoengatik indarkeria martxan jartzen duena ulertzeko eredurik gabe, biribilean ibiltzea da edo modu eraginkor batean genero indarkeriari buruzko datuek erakusten duten norabide progresiboa -hainbat zentzutan- aldatzeko esku hartzera eramaten ez gaituzten azaleko dimentsioak deskribatzea da. Egiatan, harrigarria bada ere, nahiz eta emakumeek inoiz ez dugun orain adina gaitasunik izan salatzen eta inoiz ez dugun Estatu eta gizartearengandik babesa eskatzeko gaitasun gehiagorik izan; inoiz ez gara orain bezain ahul egon eraso hilgarrien aurrean eta egun emakumeen gorputzak jasaten dituen krudelkeria era ezberdinen aurrean. Zergatik? Legegintza formala ez delako "patriarkatu" deitzen dugun pertsonen arteko harremanak antolatzen dituen indarkeriazko artefaktu hau desartikulatzeko kapaza. *Epaituak izango diren hiru kasuen xehetasunetan ikus daitekeen moduan, epaileen, fiskalen eta justizia arloko beste eragileen pentsamoldea bera, izan hauek emakume zein gizon, egitura patriarkala jatorri duten logika eta estimuek formateatu dute. Egitura patriarkal hau subjektuen barruan eta kanpoan aurkitzen da aldi berean; hauen guztien desioak bideratuz, hautaketak zehaztuz, baita gure aldatetarako borondatea traizionatuz ere.* Beste hitz bazuetan, Estatuaren ordenaren justizia administratzaileen pentsamoldea eta sentimenduak formateatzen dituen egitura, hauek epaitu beharko dituzten erasotzaileen pentsamolde eta sentimenduak formateatzen dituen egitura bera da: eredu patriarkala; hau da, generoaren jatorri bitar eta ezberdina duen egitura. Honek iraunkorrak eta errepikariak diren eta kasuistika egitura egonkor horrekin lotzeko hausnarketa konplexua behar duten zantzak sortzen ditu. Egonkorra, baina ez a-historikoa.

Generoa patriarkatua da: ezberdinak diren bi estatusen arteko harremana eskema bitar batean (hemen dual hitzaren sinonimo ez dena) antolatzen duen egitura: maila femeninoa eta maila maskulinoa, gorputz femeninoak eta gorputz maskulinoak ikur dituelarik, edo zehatzago esanda, ikono dituelarik; nahiz eta ez derrigorrez eta ez beti gorputz hauen-gandik ordezkatuak egon. Pentsamolde orokorrean, ordezkatzeko dituzten *dramatis-personae*ak, harremanetan emakumezkoaren eta gizonezkoaren bi posizio horiek ordezkatzeko dituzte eta ezkutuko ordenan botere harreman bat irudikatzen dute; lehendabizikoa

eta oinarrizkoena den botere harremana, gero eskala progresibo batean errepikatu egingo dena harreman mota ezberdinetan: arraza-boterea, kolonia-boterea, inperioko boterea, eta abar. Ezkutuko ordena hau, konta ezin ahala portaera eta elkarrekintzatan errepikatzen den patroia, genero ordena edo patriarkatua da. Zentzu honetan, patriarkatua eta generoa egitura bat dira, maila desberdinetan dauden biren arteko harremana, gizarte-harremanen gramatika sortzailea eskaintzen duena. Esan dezakegu gramatika baten aurrean gaudela, gure esakune eta portaeretan pentsatu gabe errepikatu egiten dugun zerbaiten aurrean.

Generoaren lehendabiziko eszena, eszena familiarra da, egitura honen irudikapena familia normatibo bat da: beste estatus batek baino ospe eta balio handiagoa duen estatua dago; bere ahotsak autoritate handiagoa du eta eszena horretan dauden gainontzeko pertsonaiak epaitu eta balio erlatiboago egosten dien begirada botatzen duena. Hori onartu egiten duen beste mailak, ohore eta sonaren jabe egiten du eta eszena horretako gainontzeko pertsonaiei agindu bat birbidaltzen die; eta egiterakoan, eszena osoaren errepikatzaile eta biderkatzaile lana betetzen du, bere harreman egiturak zehaztua: amaren funtzioa, maila femininorako modelatzea. Aitaren funtzioa bat bada ere, egitura sinboliko hau antzezten duen eszena osoa kontrolatzen du: balioaren eta men egite unibertsala ordezkatzeko duen paper berezia da, beraz, esan genezake posizio hegemoniko batez ari garela, izan ere: bere egia balio orokorreko eta unibertsaleko egia da. Pertsonaiak lurpeko ordena baten jarioak besterik ez dira, gizon eta emakumez jantzen direnak. Lurpeko ordena hori, patriarkatua, matrize heterosexual edo genero deitzen dugun makina hori da, eta boterearen eta ospeareen lehendabiziko egitura osatzen du. Botere ororen funtsezko zelula, espazio sinbolikoa: bere aginduak onartzen eta men egiten ikasten dugun atmosfera.

Lehendabiziko botere zelula horrekin ikasten duguna, jarrera maskulinoa -edo aitaren funtzioa- jarrera femininoaren -edo amaren funtzioaren- beharrezko eta ezinbesteko men egiteaz elikatu egiten dela da. Eta jarrera maskulinoaren autoritate eta ospearekiko obedientzia, errespetu eta mendekotasun jario bat ematen dela. Jario hori ez badago, ez dago maskulinitaterik, botere maskulino hori ez da behin eta berriz onarpen eta botereaz hornitzen duen jarrera femininoaz elikatzen; ezta bere berdinen aitortpenaz ere. Jarrera femininotik maskulinora doan hobari eta esker onen jario hori gabe jarrera maskulinoa ez da eraikitzen eta ez da, bere anatomia dela eta, agintea jaso duten "gizon-plataforma" hori indartuko.

"Ordain" izendatu dezakegu posizio femininotik maskulinora garraiatzen den obedientzia eta men egite jario hori. Ordain horrek eraiki, elikatu, gidatu eta bideratu egiten ditu subjektu jakin batzuk, ziklikoki eta erregularri, posizio hori betetzera. Esan bezala, jario hori posizio femininotik maskulinora mugitzen da, eta posizio maskulinoa betetzen duen subjektuak ordainarazpen on edo behartutako ordainarazpen bidez, era baketsu edo bortitz bidez, posizio horretara bideratzeko ezinbestekoa den ordain hori ateratzen du. Soilik funtsezko sorrera zelula hau ulertuz ulertuko ditugu egitura hau, bere obedientzia eta men egite fluxuekin, errepikatzen dituzten beste ziklo guztiak; hau da, beste botere zikloak -arraza artekoa, inperiala, koloniala, metropolitarrak-. Generoak, ugaltzeko duen egitura bikoitzarekin, posizio maskulinoa elikatu eta eraikitzen duen ordain feminino baten ordainarazpenaren beharra duela esaten dugunean jada indarkeriaz hitz egiten ari gara, eta nire ikuspuntutik, *usurpazioaz*. Usurpazioa, indarkeria sortzailea, eta dohain femininoaren nahitaezko desjabetze bidez bere hasierako produkzioaren ostean betirako, etenik gabe, femininoaren bizkar eta bere kalterako ugaltzera kondenatua dagoen



maskulino bat da. Ezaugarri femeninoa emateak balioztatu eta berronetsi egiten du haien artean trukagarriak diren eta oso ondo bereizten ez diren sei potentzien sorrera eta errepikapena -sexuala, belikoa, politikoa, ekonomikoa, intelektuala eta morala-. Hauek gabe subjektu batek ezingo du bere gizontasuna aldarrikatu.

*Maskulinitatea eraikitzeko, dohain horren zirkulazioa indarkeriaren funtsezko zelula da.* Ekonomia desjabetzaile berdingabea, ezarria eta iraunkorra da. Maskulinitatea eraikitzen duen dohaintza femenino hori ez da errealitatean indarkeria praktika gabe emandakoa. Bizitza sozial guztia inpregnatzen duen indarkeria morala du atzean, egiturazko indarkeria sinbolikoa; guztiok arnasten dugun atmosfera bera dena.

Hortaz, generoa, egitura ezberdin bat izanagatik, ordain baten usurpatzetik banaezina dela esaten ari gara. Ordain baten ordainarazpena da, onean edo txarrean, "gera garaietan edo bake garaietan", Catherine MacKinnonen adierazpena erabiliz. Beraz, generoa eta indarkeria banaezinak dira, eta generoa, bere horretan, indarkeriaren pedagogia bat da. Beste hitz batzuetan esanda, generoa indarkeria da inposizio eta usurpazio baten menpe dagoelako. Hau ulertzen badugu, ulertuko dugu zeinen zaila den Estatutik abiatuta indarkeria indizeei eustea, subjektuen bizitza sozialean eta sentitzeko eta jarduteko moduetan eraldaketa sakonik egin gabe; bereziki, hauen esku badago justizia ematea. Estatu bera, instituzio multzo konplexu gisa, nazioa gobernatzeko bere arautegiekin, bere baitan biltzen du gizarte eta lurraldearen gaineko erabaki-boterea. Boterea eta posizio maskulinoa, subjektu ororen bizitzako hasiera eta sorrera fase batetik, eszena familiarraren bidez eszena sozialean sartzen denetik, bereizezinak dira. Estatu, hau da, esfera publikoa, balio unibertsal gisa aurkeztu arren, bere egiak orokortzat jo arren, eta Giza Eskubideen garaian "inklusibotzat" jotzen diren estrategiak sortu arren, sinbolikoki maskulinoa da harremanen egituran posizio bat betetzen duen entitate gisa. Gure irudimenean kokatzen da funtzio eta paper maskulino gisa, eta bere eragile eta ordezkariak, nahiz eta emakume izan, plataforma horren arabera jardun eta adierazten dira. Estatuaren izaera maskulino hori Estatu Nazional eta "indarkeria zilegiaren" monopolioa duten bere indar polizial eta militarren arteko harremana zehaztu duen haren historiaren ondorio bat ere bada. Estatu eta familiaren, publiko eta etxekoaren arteko aurkakotasunaren irakurketa klasikoen kontra eginez, Judith Butlerrek, "El Grito de Antígona" lanean baieztatzen du bi entitate horiek ez direla aurkakotasunean aurkitzen, jarraitutasunean baizik. Izan ere, familia da Estatuaren esanetan soldadu (eta polizia) jardungo duten gizonezkoak ugalduta eta hezten dituen. *Estatuaren eginkizunari datzekion maskulinitate hau, epaituak izango diren kasuetatik abiatzen da, argi eta garbi.*

Eredu patriarkalaren analisi oso azkar eta sumario den honetatik abiatuz, aldi berean familiarra eta estatala dena, *intra-psikikoa* eta soziala, inertzia handikoa espeziearen denborarekin nahasten den tarte historiko batean, afektua eta adimena gidatzen dituen, subjektuen kognizioan eta irudimenean ezartzen dena; posible da esatea generoak, posizioen arteko harreman gisa, egiturazko izaera duela, eta hori dela eta, gizarte guztietan bizitza antolatzen duela. Hala ere, aipatu beharra dago, era desberdinean eragiten duela erregimen komunitarioa duten gizarteetan edo Estatuaren esku-sartze handia duten gizarteetan. *Azken hauetan, bereziki Estatu-frontea komunitateetan intrusio-hedapenean aurkitzen den horietan -nahiz eta orain azaltzeko denborarik ez egon, landutako kasuetan argi eta garbi irakur daitezkeen ondorioak dituzten arrazoiak direla eta- patriarkatuaren indarkeria eta hilkortasuna irmoagoak dira, eta aurre egitea zailagoa da.* Genozidio fenomeno bezalaxe, paradigmatikoki holokausto indigena, afrikar eta judua, modernitatearen berezkoa da, hau da, arrazionaltasun-tresneria modernoarena; genero indarke-

riaren mota jakin batzuk eta, bereziki, gure garaiko patriarkatuaren ondoriozko heriotza kopurua, harrapatu ezin daitekeen eta hazi egiten den zifra, gorputzak gauza bihurtzeko joerarekin eta merkantilismoarekin bereizezina den fenomeno bat da.

## Zergatik eta zertarako legeak

---

Baieztaatu dugun bezalaxe, Estatu egitura patriarkalaren atal baldin bada eta Estatu Modernoak jarrera maskulinoa, maila publikoa eta legeen arteko harreman hori areagotu baino ez badu egiten; baita hauek biztanleria unibertsalari buruzko berdintasun formalaren fase liberala gainditu dutela ematen duenean eta xede demokratikoagoa eta bidezkoagoa duen fase batean sartzen direnean ere, nola justifika dezakegu itxaropen inbestimendua Estatuko justiziaren eragitean? Ikusi al dugu lege estatal edota estatuz gaindiko ezarpenak genero indarkeriari, bereziki heriotza eragiten duen indarkeriari, muga jartzen ari dela, ala? Zein da zuzenbidearen eraginkortasun maila? *Aztertzen ari garen kasuetan egiazta daitekeenez, justizia arloko eragile eta administratzaileek beraien ideologia patriarkala barneratua dutela esaten badugu, zein da legeak egitearen eta epaitzearen zeregina? Esan genuen bezala, errealitatea dekretu bidez aldatzea posible ez bada pertsonen estimuak eta baloreak sakonki eraldatu gabe; zer da legea-rengandik espero dena? Zein da zuzenbidearen eta berau kudeatzen duten auzitegien benetako eginkizuna?*

“Sinboliko” deitzen duten auzitegi baten bezperatan gaude, hain zuzen ere, izaera sinbolikoa denean auzitegi ororen dimentsiorik garrantzitsuena, baita zilegitzat jotzen den eta botere estatalek kontrolatzen duten indarkeria horren erabilera ezarri egiten duten ofizial horietakoa ere. Izan ere, argudiatu dudan moduan, zuzenbidea lortzeko borroka, alor diskurtsiboko liskar bat besterik ez da. Epailiek botatako sententzien errendimendua baino askoz gehiago da, zuzenbidea pertsonen eskuetan dagoen tresna da; kode juridikoak diren goi-mailako narratibak kontsokratutako hitzen erreperitorioa.

Honek esan nahi du, alor juridikoa, guztiaren gainetik, alor diskurtsibo bat dela, eta horrexegatik, -Rudolf Von Ihering-en saioa birgogoratu- Zuzenbidea lortzeko gerra, bai legeak egiteko zentzuan baita eginda daudenen estatusaren eraginkortasunaren zentzuan ere, alde batetik izendapena lortzeko borroka dela, giza sufrimenduaren izenen kontsakarazio juridikoa lortzekoa, jadanik erabilpenean dauden izenak juridikoki tronuratzekoa; eta bestetik, legearen hitzak argitaratu eta erabileran jartzeko, pertsonen ahotan jartzeko borroka.

Beste hitz batzuekin esanda, borroka bikoitza da. Alde batetik goi-mailako narratiba izaera duten kode juridikoetara iristeko, eta horietan auzi-jartzaile gisa erregistratzeko gaitasuna lortzekoa. Bestetik, legeak baimendutako hitzei balioa ematekoa, ez soilik auzitegietan, eguneroko harremanetan ere.

Beste alde batetik, legeak dira, Estatuaren bidez, nazioek interesen komunitate bakoitzaren existentziaren onarpena eta onospena kontsakaratzeko modua; eta euren “nik salatzen dut” idiosinkrasiko eta partikularra men egiten dute. Diskurtso juridikoak ontzat hartzen ez badu interesen identitate batean oinarritutako komunitate edo giza kategoria egonkor bat, emakumeen kategoria adibidez, Estatuak ez dio izaterik onartuko, jakina. Legeak, era honetan, gidatzeko asmoa duen kolektibo eta giza kategoria bakoitzaren profila onartu eta erregistratuko duen instituzio gisa jarduten du. Horrela, zuzenbidea lortzeko gerra, inskripzio hori eskuratzeko gerra da; eta hori lortzen duenak gaitasun hori erakusten du,

osotasun ontologiko hori, besteen artean izatearen estatutu hori, lortzen ez duten horien gainerik.

Legeak, bere baitan ordezkaturia sentitzen den subjektu kolektibo baten eragina balioztatzen uzten duen entzungarritasuna edo ahalmen diskurtsiboa baldin badu, bere eragin-kortasunaren gainean oso zehatza den muga bat dago. Muga hori bere gaitasun diskurtsiboaren arabera da. Izan ere, azken hau, epaien terminotan, "bere eraginkortasun normatibo hutsaren parean edo gainerik kokatuz ordezkatzeko dudanean, gaitasun diskurtsiboak emango dion berezko errendimendu bereizgarria izango duela susmatzen baitut". Eta, zein izango litzateke legearen dimentsio diskurtsiboari, sinbolikoari, datxekion errendimendua? Existitzen diren gutxiengo diskriminatuei eta euren eskaerei ikusgarritasuna eta irimotasuna emango diena bera. Maila legegilearekin eta juridikoarekin pertsonen sentsibilitate etikoan eragina izateko eta modelatzeko duen gaitasuna hemen neurtzen da. Zuzenbidea, eta bereziki Giza Eskubideak, herrien sentsibilitate etikoaren garapenaren historiari modu bereizezinean loturik daudelako.

Legearen diskurtsoak, alde batetik, Estatuko botere esparruetan modu eskasean irudikatutako diren diskriminatutako pertsonen sufrimendu eta zorientasun nahiei buruz hitz egin behar du, ekitate perspektiba batetik eta existitzen diren ezberdintasunekiko sentikortasunez. Bestetik, bere kontsakrazioa eta eminentzia kontuan harturik, bere diskurtsoak diskriminaziorik jasaten ez dutenengan eta diskriminatuenganako sentsibilitaterik ez daukatengana modu eraldatzailean eragina izan behar du, horiengana iritsiz eta horiek limurtuz. Hau guztia dela eta, legeak alor honetan eraginkortasunik lortzen ez duenean, hau da, ez du pertsonen etika eta gizalegezkoa zer den eta zer ez, ona eta txarrari buruzko ideia arruntak ordezkatzeko, interpelatzea eta eraldatzea lotzen ez duenean; ez du indar errealik izango eta eraginkortasun normatiborik gabeko legea izango da nahitaez. Ezaugarri honek estatusunean jartzen ditu legearen kausaltasun normatiboarengan sen onak jartzen duen fedea eta lege eta praktikaren arteko kausa-efektu erlazioaren gaineko suposizioa. *Landuko ditugun gaitetik azaleratzen dena, direlako hiru instantzien testuan adierazten den pentsamendu juridikoa da: torturari buruzko Nazio Batuen testuek eta nazioarteko bitartekoei, derrigorrez lekualdatutako zuzendutako lege berezi kolonbiarrak eta etxeko indarkeriari buruzko legegintza espainolak ez dutela lortu botere estatala ordezkatzeko duten eta justizia kudeatzen duten pertsonen kontzientziataraino iristea. Kontzientzien limurtzerik gabe, ez dago eraginkortasunik. Hortaz, sortzen den lehendabiziko gomendioa ahots eskatzaileen eta legearen limurtze eta propagandaren aplikazio lan bat da, sen ona astindu eta errotutako sinismen eta baloreak desegonkortzeko xedez. Eta era honetan, nazioaren parte den askotariko publikoa interpelatu, kontsakratutako agintea duen diskurtso juridikoarekin kontaktatzen denean eta behartsuenen interesekiko egokia denean-, sentsibilitateak eraldatzeko. Bigarrena, euren eskariak asetzeko gai ez den legea eraldatzeko sektore horiek egiten duten borroka da, jada martxan dagoena. Helburu hori lortzeko giza eskubideen nazioarteko eszenaz baliatzen dira, legegintza antiterroristak jasotzen duen bost inkomunikazio eguneko salbuespen erregimenaren figura ezabatzeke borrokaren kasuan bezala.*

Perspektiba honekin bat etorritik, legegileen eta sistema judizialaren protagonismoa juristek irudikatzen dutena baino konplexuagoa litzateke; guztiaren gainerik, bere aginte izendatzailearen bidez subjektu posizio jakinei zilegitasuna emateko papera izango luke delako. Hau, funtzio juridikoaren ikuskera askoz demokratikoagoa iruditzen zait: teoriak errealitatea deskribatzeaz gain preskribatu ere egiten badu, zuzenbidea pertsona

guztien kontu gisa ulertzea zigortzen ariko ginатеke; izan ere, nahiz eta gutxi batzuk eta eskusiboki legean adierazitako behar bezalako prozesuen atal gisa izan daitezkeen “zuzenbidearen eragile”, pertsona guztiak izan daitezke berdin berdin era askotarikoak diren behar bezalako prozesuen “zuzenbidearen diskurtsoaren eragile”. Legean zigortutako “behar bezalako prozesuaren” eskusibitatea ez da bete behar, eta bestelako “behar bezalako prozesu” mota batzuk, era askotarikoak, defendatu behar ditugu, auzitegi honen kasuan bezala.

Orain arte esandakoarekin “legearen eraginkortasun normatiboa” edo “zuzenbidearen eraginkortasun sinbolikoa” izendatzen duanaren gaineko arreta deitzen saiatu naiz; “zuzenbidearen eraginkortasun performatibo” gisa ere deskribatu daiteke eta Julieta Lemaitre-  
ren “zuzenbidea konjuru gisa” formulazioaren antza dauka.

Legeak, ez du errealitatean eragin behar soilik epaileek ematen dituzten epaien bidez; batez ere, bere izenen eguneroko erabileraren bitartez sustraitu behar da, publizitate kanpainen bidez eta jadanik pertsonen artean mugitzen diren izenen onartzearen ondorio gisa; betiere berritutako sufrimendu motak adierazteko, errekonozimendua esperientzia gisa emanaz. Angelu honetatik helduta, zuzenbidea lortzeko borroka Edward Said eta Homi Bhabha bezalako autore batzuek “kontatzeko eskubidea” izendatu dutenarengandik hurbil dago, izan ere, interes komunek osatutako subjektu kolektibo batek egindako inskripzioarako eskaria, batez ere, nazioaren goi mailako diskurtsoa den diskurtso juridikoa kontatzeko eskubidea ere bada. *Zentzu horretan, auzitegi sinboliko batek lege ororen botere eraldatzaile handiena duen dimentsioa azpimarratzen du eta horretan espezializatzen da. Izan ere, isiltasunak eta ikusgai uzten dituen hutsegiteak, subjektu ahulen begien, Estatuko eragileen eragitearen eta zuzenbidearen erabilera ofizial eta normatiboaren aurrean ikusgai jartzera esplizituki gonbidatzen duen dimentsioa da.*

## **Genero indarkeriaren egitura eta eraldaketak**

---

Sexu-indarkeria eta indarkeria fisikoan kontzentratuko gara genero harremanetan jatorria duten eta bere egitura ezagutarazten duten era paradigmatico gisa. Diskurtso le-  
galean idatziz jasotzen diren beste indarkeria mota batzuk: moralak, psikologikoa, finan-  
tzarioa eta azken bat, -normalean legeetan ahaztu egiten dena- elikadura-indarkeria,  
jarrera maskulinoa maiztasunez baieztatu eta errepikatzen duten praktikak dira, gizar-  
teen egunerokotasunean genero desberdintasunaren “normaltasuna” osatzen duen “ar-  
gamasa hierarkikoa” sortuz. Hau legeetan kokatu izana konkista handia izan da, baina  
hala ere, sen onean txertatetik urrun dago oraindik. Jadanik diskurtso juridikoan barne-  
ratuta dagoen sentsibilitate etiko berri hau sen onean txertatzeko borroka da, hain zuzen  
ere. Izan ere, pertsonak diskurtso hau erabiltzen ez badute, baliorik ematen ez badiote,  
ez da posible izango legeak eraginkortasun materialik erdiestea. Dena den, arreta indar-  
keria sexual eta fisikoan jartzen ari garenez, asmoa genero indarkeria era guztiak ondorio  
dituen egitura bat, eskeleto bat azaleratzea da.

Genero erasoari buruzko, eta bereziki sexu erasoari buruzko tesi feministaren aurkikun-  
tza handia, bortxaketa krimenerako bokazioa duen norbanako gisa ulertu daitezkeen bor-  
txatzaile baten arazo pertsonala, pribatua dela eta barruan zerbait ulertezina duela ondo-  
rioztatzen laguntzea izan da. Bortxaketaren ez-ohiko edo salbuespen izaera defendatzen  
duen tesi juridiko-medikuari tesi feministak egindako kritika hori oso garrantzitsua izan  
da, eraso horren izaera soziala nabarmentzen duelako. Tesi horri, bortxaketa desbide-  
ratze bat baino genero ordenaren mandatu bat dela, maskulinitatearen mandatu dela

esaten duen ideia gehitu behar zaio. Beste alde batetik, aurretik arrazoitu dudan moduan, uste dut gehiegizko enfasia jarri dela erasotzailea eta biktimia erlazionatzen dituen ardatzean -“gorrotoaren” ardatza-, izan ere, gorroto lotura hau ez da erasoaren egitura osagai bakarra, ezta nagusia ere. Berez, sexu erasoan harreman ardatzak aktibo daukela uste dut. Bat, bada, egiazki, erasotzailea eta biktimia erlazionatzen dituen; baina bada beste bat, eraso azkartzeko erabakigarria dena: erasotzailea bere parekoekin, bere gisakoekin, korporazio maskulinorako ermandadean anaikideak direnekin lotzen dituen ardatz horizontala, hain zuzen ere. Erasotzaileak bere biktimia menderatzen duenean, bere biolentzia adierazgarria da eta alderdi bikoitza izan dezake, izan ere, bortxatzaileak elkarrizketa bikoitza mantentzen du: ardatz bertikalean, erasotzaileak biktimia zentzatu du, diziplinatzen du; baina ardatz bertikalaren gainetik erabakigarria den ardatz horizontalean, bere parekoei *mandatu* baten kontuak ematen dizkie. *Mandatu* hau, bere burua gizon gisa berreraikitzean datza, eta gizon-posizioa lortu bere biktimari mendetasuna ordainaraziz, kasu honetan sexu motakoa. Bere parekoei taldearen aurrean, ordainarazitako ordainaren nabaritasuna adierazten du; bete egiten du, posible den erarik bakunean, kofradia maskulinoan jatorria duen *agindua*.

Gizonezkoen arteko hartu-emanaren ardatz horizontala ardatz bertikalaren aurrean gailentzen dela ulertzen badugu -azken honekin erasotzaileak biktimarekiko gorrotoa adierazi nahi delarik-, hemen sexu eraso, bere era posibleetako batean ere, “gorroto” krimen gisa definitzen ari ez garela ulertuko dugu.

Perspektiba honetatik bortxaketa, anaikide zelatariei eskainitako gizontasun azterketa mota gisa ulertu izan daiteke; hauek presente egon daitezke -banda edo talde mafiosoetan gertatzen den bezala- edo absente, erasotzailearen buruan dagoen solaskide gisa. Biktimarengandik erasotzailearengan ematen den, indarrez lortutako, opari edo ordaina; hau da, biktimak, indarrez, ematen dion opari hori, horrela osatzen den boterea bera da. Erasotzaileak era honetan biktimari bere bizitzaren boterearen zatia galdegiten dio, bere maskulinitatea botere gisa elikatu asmoz. Espainoleko “rapiña” hitza, ingelesez bortxaketa esan nahi duen “rape” hitza eta portugaleraz mutiko esan nahi duen “rapaz” hitzak, guztiak ala guztiak etimologia komuna duten hitzak dira. Sexu menderakuntza maskulinitatea osatzen duten moduetako bat da. Eta bortxaketa, azken batean, hau lortzeko era bat. Ez da existitzen munduan bortxaketa ezagutzen ez duen gizarterik, nahiz eta batzuetan bortxaketa mota honek eragin handia izan, eta beste batzuetan, orokorrean tribu-gizarteetan, eragin oso txikia izan -lehenaldian idatzi dut, soilik izenezko-zigor figura gisa existitzen zen gizarte askotan, praktika topatzen ari delako-.

Ardatz bertikalaren gainetik ardatz horizontalaren nagusitasunaren eskema honek, “gorrotoaren ardatza” deitu genezakeenak, Ciudad Juarezeko emakumeen erailketen kasuak bezalakoak topatzean -erailketa torturarekin, sexu-organoen ebaketarekin, bortxaketa jendetsuekin batera ematen denean- berau aplikatu eta kasuen irakurketa bat proposatzea ahalbidetu zuen. Ardatz horizontalak, kofradia maskulinoaren ardatzak edo parekoei botere eta ospearen anaitasunak Ciudad Juarezeko jardun zuen egitura mafiosoaren estruktura argitzen laguntzen du. Ohiko bortxaketaren kasuan bezala, Ciudad Juarezeko ezaugarri bihurtu eta ikusgarri egin zen genero-krimen mota hau indarkeria adierazgarri gisa ere uler daiteke; biktimari eta bere ingurukoei zuzendutako mezuak igortzen dituen indarkeria, baina, eta batez ere, herrian jarduten duen edo duten korporazio mafiosoek zuzendutakoak ere bai. Hau garrantzitsua da, sexu eraso moten ulergarritasunaren maila berri batera eramaten gaituelako. Hau, *ezinbestekoa izango da barne gatazkaren testuinguruan jazotako bi kasuak ulertzeko edo, aurretik zehaztu dudan moduan, auzitegi*



*sinbolikoak epaitu nahi dituen kasu kolonbiarra eta espainiar legeak zehaztutako inkomunikazio epean torturatua eta iraindua den emakumearen kasu euskaldunaren gerra mota berrien agertokian. Pertsonen arteko harremanen testuinguruan ematen ez den eta barne mailako motibaziorik, agerikoa ez behintzat, ez duen indarkeria mota bat ulertzeko ahalegina da.*

Honetarako, Ciudad Juarez-en gertatutakoaren esperientzia paradigmatikoki eta zoritxarez ez ulertua bilakatu da. Oso garrantzitsua da, hala ere, Ciudad Juarez-eko emakumeen kontrako indarkeriari buruz irakasten diguna entzutea. Termino kuantitatibo hutsetan nabarmentzen ez den genero indarkeria mota bat ikus dezakegu; bere ezaugarri berriak dira nabarmentzen direnak: heriotza sortzen duen tortura sexuala, hainbaten arteko ekintza, egileen behin betiko zigorgabetasuna. Hiru ezaugarri horiek genero indarkeriaren gainean beste era batera pentsatzera eramaten gaituzte, garai berri batean, goian adierazitako ardatzetan oinarritako ulermen eredutik abiatuta, baina eredu hori egoera batera aplikaturik orain. Hemen dago ardatz horizontalaren garrantzia, ardatz bertikala zehaztu egiten duena. Ardatz horizontalean, modu esplizituagoan eta larriagoan oraindik, benetan "normatiboa" esanenez, bortxaketa agindu bat ere gauzatzen da. Baina oraingoan aldatutako mandatu bat gertatzen da: ez du biktimaren mendekotasun eta borondate jabetzaz hitz egiten, edo bere intseminazioaz eta sexu zerbitzuetara murrizteaz gerraren itxura klasikoetan bezala; sexu bidez bere suntsiketa lortzeaz ari da. Heriotza emateraino era horretako torturaz. Eta erasotzailearen eraikitze, berritze eta maskulinitatearen plataformara bideratzeari buruz ere ez du hitz egiten, hau da, kofradia maskulinoko kide gisa onartua izateaz; ermandade mafiosoko kide gisa onartua izateko bere titulazio eta prestakuntzaz baizik -"mafiaz" hitz egiten denean zentzu zabalean ulertuta. Kide-titulua lortzeko, krudelkeria gaitasuna baloratzen da; eta epe luzeko zigorgabetasunak lurralde-kontrola adierazten du. Zentzu honetan, krimen hauei ulertu behar den zerbaitez gehitzen zaie: emakumearen gorputzaren mendekotasun banatuaren gainerako dimentsio belikoa, lurraldekoa, jurisdikzionala eta betiere zigorgabea. Gorputz horretan, eta bere suntsiketaren, korporazio armatuaren aliantza hautsezina, bere kidegoaren hiltzeko gaitasuna eta minaren aurrean gizonaren sentikortasun eza adierazten dira; baita lurralde baten okupazio jurisdikzionala -nahi adinako-. Zentzu honetan, kontrol jurisdikzionala adierazten duten krimenak dira. Mendean hartutako emakumearen gorputzaren subiranotasun partekatua alegoria eta dokumentua da; lurralde jurisdikzio baten, eskualde baten, subiranotasun partekatuen "eskritura", nik izendatu dudana bezala.

*Korporazio armatuko kideen aurrean ikusgai jarritako sexu eraso, gatazka egoeran -Ciudad Juarezeko kasu zehatzean, gizarteko sektore demokratiko eta legalista eta Estatuko sektoreekin- asko interesatzen zaio auzitegi honi, izan ere, Kolonbian eta Euskadin gertatutako sexu bidezko tortura kasuen antzeko egitura du. Hau da, gatazkaren testuinguruan jazotako bortxaketa da, edo hedatzen ari diren gerra eredu berriak izendatu ditudan gerra informaletan jazotakoa, ez ohikoetan. Horietako batzuk gerra zikinak dira; eragile estatualak legea betez edo bete gabe egituretatik at jarduten dute eta horrela Estatuko eragileek osatutako eskudroi para-estatalak osatzen dituzte, errepresio antiterrorista euskaldunaren kasuan bezala edo antolatutako eskudroi para-estatalen gerra zikina, Kolonbiako kasuan bezala. Guda informal hauetan, ohikotasun maila baxuekin, eraso sexualak ulertu behar den paper eta funtzio berri bat betetzen du. Egitura horiek, eszena beliko berri horietan jardutean, dira kontaktu behar ditugunak, ikusgai jarri behar ditugunak, ulertarazi -erasotzaileei barne- eta desegin behar ditugunak, kontaktetan eta orain arte ulertzeko zailak ziren eszena horretan gertatzen diren hainbat gauza argitzeko lanean enfasi berezia jarriko duen legearen erabileraren bitartez.*

Arrazoi honengatik garrantzitsua da argi uztea krimen hauek lurralde baten gaineko subiranotasun juridikionalak eta eskumen subiranoak eraginak direla, eta ez "gorrotoak" eragindakoak. Zentzu honetan, nahiz eta erasotzaileak bere biktimarekiko sentitzen duen "gorrotoaren" ideia ulerterraza izan, bere mugapenak hautematea beharrezkoa da, hain zuzen ere balore faltatik eratorritakoak. Maskulinitatearen forma beliko berrien eraginari hain konplexua den emakumeenganako "gorroto" sentimendua egozteak hainbat akats ditu: lehendabizi, interes enpresarial eta politikoak dituzten -legez kanpoko negozioak eta elitearen arteko itunak- oso konplexuak diren dimentsio politiko eta sozialeko -patriarkatuaren egitura- arazoak azaltzeko kausa bakarreko azalpen sinplea izateagatik; eta bigarrenik, emozio pribatuetan oinarritutako azalpena izateagatik: "gorrotoa", intimitatearen esparrua gainditzen duten botereen interesek osatzen duten panorama batez ari garenean.

Genero eraso hilgarrien eragingarria "gorrotoa" dela esaten duten kausa-bakarreko azalpenak eta sen onak, hau da, feminizidioak "gorroto krimen" gisa definitzen dituztenak, genero krimenen aldaera desberdinetan zer gertatzen den ulertzeko gaitasunari min handia egin diote. Kausalitatea, eta okerrago oraindik, kausalitate-bakarra, edozein giza ekintza lantzeko erabat azalekoa den modua da.

Honekin, nahiz eta gaiaren inguruan orain luzatzea posible ez izan, "gorrotoari" dago-kion azalpenarekin gertatzen den era berean, uler dezagun ideia hau: maskulinitatea erasotzen duen lanbideetan eta aginte postuetan emakumeen goranzko mugimendua gizezkoek eragindako indarkeriak gora egitearen "kausa" gisa. Azalpen bakar gisa formulatzerakoan, kausa-bakarreko tesi ere bada, eta genero indarkeriaren aldaerei ulergarritasuna emateko aztertu beharreko dimentsioen kopuru murriztailea da. Bukatzeko, jadanik aboratzeko feministak argi utzi duen moduan, oso garrantzitsua da gurari sexualari dagokion edozein erreferentzia eta izaera sexuarekiko asebetetzea bortxaketa eta beselako sexu erasoak burutzeko arrazoi gisa errotik kentzea. Benetan, ez guke "krimen sexualak" esamoldea erabili behar; horren ordez "sexu bidezko" krimen, eraso eta tortura erabili beharko genituzke beti.

## **Tipifikatu: femizidioen eta duten dimentsio publikoaz jabetzeko zailtasunaren zatiketa erabakigarria**

---

Ciudad Juarezeko gertakariak, beraz, munduaren begi-bistan utzi dute, alde batera utzi ezin daitekeen genero indarkeriaren alorreko eragite bat. Zoritxarrez, oraindik ez dugu bere ikasgaia ikasi. Guda informalean aniztasuna da nobedadea, ez ohiko gatatzak, kontinentean zehar hedatzen direnak, barne guda, guda zikina, sektore disidenteen genozidioa, korporazio armatu paraestatalen operatiboak, metodo paraestatal edo salbuespeneko metodoekin jarduten duten Estatuaren sektore armatuak, *mara* eta mafia-taldearen arteko enpresa-gudak, gizaki, arma eta droga-trafikoa bezalako antolatutako krimenen irabazi-negozioek sortzen duten eta handitzen ari den deklaratu gabeko kapitalaren kontrol-gatik guda, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa, esklabotzaren molde berriak, hainbat eratako bahiketak. Gerra-eszena hori hedatuz doa eta politikarekin etengabe artikulatuz doa, talde politiko-jarraitzaileen deklaratu gabeko hauteskunde-fondoak elikatuz; eta azaleko enpresa-pilaketekin, askotan "bigarren errealitate" horretako aurrealdeak, zeinetan azaleko deklaraturako kapitalaren baturak deklaratu gabeko txanponaren hazten doazen fluxuetan erantzuna duen. Gainera geroz eta gizaki kopuru handiagoaren bitzita eta heriotzaren kontrolean ere eragina du, eta batez ere, geroz eta herri gehiagoren kontrol politikoan ere bai. Eskala handiko ekintza kriminalak sortutako deklaratu ga-



beko kapital kopuru handiaren lurpeko fluxuak babestua egon eta diziplinatua izan behar du legez kanpoko mertzenarioen armada izugarrietatik, herri-agintariei erantzuten dieten korporazioak. Lurpeko ekintza horretatik gerra estatu amaigabea ateratzen da.

Era honetako guda informaletan emakumezkoen gorputzak -eta femeninoa- xede edo erabilera berezi bat dauka. Iraganeko ohiko gudetan, lurraldeak hartuak izaten ziren eta emakumeak masiboki bortxatuak, euren gorputzak konkistatzaileek mendean hartutako lurraldearen gehigarritzat hartzen zituzten, garaitutako jabetzen gaineko menderakuntza keinu gisa. Historian zehar, emakumeen gorputza lurraldeari lotua ulertu izan da beti, beti eman izan zaio lurraldetasun paper bat gudaren eskemaren barruan eta guda-irudi gisa: beretu zituen, masiboki intseminatu zituen, barnerratu zituen, bere jabetza gizon eta familien artean banatu, gorpu esklabo eta morroi gisa eta ohelagun-gorpu gisa.

Gaur egun, emakumearen gorputzak guda eszenan zuen antzinako paper horren eraldaketa baten aurrean gaude. Orain hedatzen ari diren guda informaletan, emakumeen gorputza sexu indarkeriaren bitartez hiltzeraino torturatua da; honen suntsiketarako beti, baina ez horiek bakarrik, gehiegikeria eta intrusio sexuala erabiltzen dira. Uler dezagun gorputz hori ez dela menderatutako subjektibotasun femeninoaren kontrolpean dagoen azken lurralde-gotorlekua soilik; milaka urteko eta partekatutako pentsamolde baten eraginez, figura maskulinoaren kontrolpean eta babespean dagoen lurralde gisa ere ulertua da kolektiboki. Figura maskulino horiek babesten dute emakumearen gorputza eta estatus iraunkorreko behinolako kontratua dela eta, zaindu beharko lukete eta bere intimitaterako atearen monopolioa eta kontrola bidegabeki daukate. Egitura hori da kapitalismo berantiarren berezkoak diren hainbat eratako korporazio armatuek erasotzen dutena. Lehenago ere esan dugun bezala: "emakumearen gorputza, bataila-eremua"; izan ere, horretan erasotzen dira, kikitzen dira, izutzen dira, desmobilizatzen dira eta, tarteka, euren zaintza eta babesaren kontu dauden gizon-osteak garaitzen dituzte. Horretarako gudan zuzenean sartuta ez dauden, hau da, gudariak ez diren biktimen kontrako ez ohiko ankerkeria erabiliz. Gerraren modernizazioak hiritarren hilketa progresiboa suposatzen bazuen, gerraren formalizazio ezak emakumeen hilketa progresiboa dakar berekin gaur egun.

*Euskal Herriko Nazioarteko auzitegiak landutako kasuetako bi, hilketarik gabe baina, menderatze profanazio honi dagozkio, emakume auzi-jartzaileen bortxaketaren bidez.*

Gogoeta hauetatik aurrera, beraz, posiblea da baieztatzea, txosten hau hasterakoan esan den bezalaxe, genero indarkeria guztiek eta femizidioek, familia-eremuan, bizitzaren lehen fasean zehazten den patroia bati erantzuten diotela, eta bizitza sozial guztia zeharkatzen du berau, alor sinbolikoan agintzen duen eta estimu eta baloreak bideratzen dituen egitura patriarkal batetik antolatzen baitu. Hala ere, era berean, egon badago, tratu krusel eta hilgarria tartean sartzen dituen genero indarkeria mota berezi bat; hau berezi eta zehaztu egiten da. Genero indarkeria guztia estrukturala bada, eta genozidio sistematiko baten kopuruarekin alderagarria den heriotza kopurua eragiten badu hainbat eszenatoki desberdinetan, emakumeen biktimizazioaren kontrako borrokan dauden estrategien helburuak betetzeko, hau da, minaren sorburuak ikertu eta desartikulatzeko, ezinbestekoa da erabat inpersonalak diren eszenatokitik ematen den genero indarkeria mota bat dagoela ulertzea. Femizidioen kasuan, guztiek genero eta egitura patriarkaleko indarkeriazko izaerari erantzuten badiete ere, zigorgabetasunaren bukaera tipifikazio zorrotz baten menpe dago. "Feminizidio" izenaren erabilera bera ezagutzera eman dadila, eta sailkapen orokor honen barruan, eragiten dituen zergatiak kontuan hartuta, gutxienez bi



klase garrantzitsu desberdintzeko gai izan dadila: alor pertsonal edo pertsonen arteko arrazoiei lotuta joan daitezkeenak -pertsonen arteko krimenak, etxeko esparruan ematen direnak eta serie-erasotzaileenak-, eta pertsonen arteko erabateko izaera dutenak, norbaiten baitan sorburua ez dutenak; eta haien jomugan emakume kategorია dago, genero gisa, edo arraza, etnia edo gizarte jakin bateko emakumeak -aurkako korporazio armatuko kide diren emakumeak, beste auzo bateko emakumeak, aurkako tribu bateko emakumeak edo emakumeak orokorrean, salerosketa bezala-. Gizaki baten eraso edo ezabapen sistematiko baten aurrean gaude, ez diona arrazoi intimo bati erantzuten. Azken hauen artean gerra mota berrien testuinguruan ematen diren genero erasoak sar daitezke, pertsonen salerosketetan ematen direnak, Asiako herrialdeetako emakumezko haurtxo eta umeen abandonua edo desnutrizioa, eta abar.

Feminizidio edo "femi-geno-zidio" mota hauek "genozidio" mailara bi dimentsiotan hurbiltzen dira: pertsonen arteko testuinguruan ematen diren eta emakumeen hilketa xede duten erasoak dira. Erasotzaileak antolatutako kolektibo baten parte dira, edo hobeto esanda, erasotzaileak dira kolektibo edo korporazio baten parte izateagatik, eta denen artean jokatzeko dute; eta biktimak ere biktima dira kolektibo baten parte direlako, kasu honetan maila sozial baten zentzuan.

Honi dagokionez, egiaztatu daiteke, "Femizidioak: justiziaren porrotaz hitz egiten duten zenbakiak" atalean barneratuta dauden datuetatik abiatuz, barne mailako hainbat eratako guda aitortuak pasatu dituzten edo jasaten ari diren herrialdeetan emakumeen kontrako hilketa indarkeriaren kopuruak handiagoak direla. Honek adieraziko luke kopuru hori handitu egiten duena pertsonalitate ezaren testuinguruan ematen diren krimenen hazkundera dela, eta beraz, guda eta femizidioen hazkundera nabarmenaren artean proportzionaltasun zuzena dagoela. Zoritxarrez, joera besterik ezin dugu erakutsi, izan ere, zehaztapen gehiago egitea ezinezkoa da, oraindik ere estatistiken sorrerarako datu bilketak egiteko galderen programazioan ez dagoelako kontzientziarik. Bereizi egin beharko lirake arrazoi pertsonalizatuekin lotuta doazen krimenak (etxekoak, pertsonen artekoak, seriean egiten direnak, eta abar) eta kolektibo edo korporazio armatuek emakume kategoriaren aurka burutzen dituzten krimen orokortuak. "Femigenozidio" krimen hauek, genero krimenak, erasotzaileen eta biktimen esparruan generikoak, guztiz inpersonalak eta masiboak, bere ezaugarriengatik emakumeen genozidioaren definiziora hurbiltzen direnak, hazten ari dira kopuruan eta interpersonalekin edo pertsonalizatuekin proportzioan, lehen aipatutako arloan agertzen diren zenbakietan adierazten den bezala. Hau jakin badakigu, herrialde batzuetan badaudelako bi motak berezita bildutako datuak.

Feminismoaren sektore batzuek bereizketa honen kontra egin izana, Ciudad Juarezeko kasuan segurtasun indarrek, agente judizialak eta komunikabideek erakusten duten emakumeen kontrako krimenen "bereizketa eza" asmo argiarekin bat egiten bukatzen du. Ez bereizteko asmo horrek iritzi publikoan eta agintarien pentsamoldean oso sendoa den joera kontserbadoreari erantzuten dio eta bide batez berau elikatzen du. Aldi berean, komunikabideen estereotipiak iraunarazten ditu, emakumeek jasandako eraso guztiak esparru intimoan, etxeko esparruan eta pertsonen arteko esparruan kokatuz; arrazoi emozio eta estimuetara murriztuz. Bai tipifikazioan zein estatistiketan ala gogoeta feministan herriak tartean sartzen dituzten, eta gatazkari eta gizarte osoari eragiten dioten interesen presioei dagozkion erabat publikoak eta inpersonalak diren genero krimenen existentziaren aurrean ez ikusiarena eginda -taldeen arabera erasotzaile eta biktimaren paperean protagonista direnak, hau da, talde antolatutako edo erakunde armatuak; gizon egileak eta biktimen kategoría generikoak-, emakumea etxeko kapsulan sartzen duen

estereotipoa errepikatzen laguntzen da eta bere eskaerak pribatizatzen ditu, hau da, mistika-femeninoaren ideologia betikotzen da.

Komunikabideen, agintarien eta feminismoko sektore oso garrantzitsu batzuen alde-tik -bereizi, tipifikatu eta espezifikoki eta protokolo eta prozedura desberdinekin iker-tu egin behar direnak- krimen mota berezi hauen existentzia bistartzeko ezezkoan amaiera duen genero krimen guztien pribatizazioarekin, praktika juridikoari eta bik-timen kexak kontenplazten dituen justizia baten administrazioari negatiboki eragiten dieten bi estereotipo doitu eta berrelikatu egiten dira: **1.** Alde batetik, emakumeen kontrako krimenak eskubide propioz maila publikoan burutazio gisa ez ulertuak izaten jarraitzeko laguntzen du. Izan ere, emakumeen kontrako krimen guztiak, pentsamendu kolektiboan, intimitatearen esparruaren atmosferak kutsatuta daude, hau da, garai modernoan berezko den pribatizatutako etxetiartasuna. *Era honetan, korporazio armatu bateko kideek, izan hau modu para-estatalean jarduten duen eragile estatalek osatutakoa, euskal kasuan bezala, edo korporazio armatu para-militar edo militar batekoak, lekualdatutako emakume kolonbiarraren kasuan bezala, bortxaketa eta gehiegikeriez baliatuta bahitu edo atxilotu duten emakume bat sexualki erasotzen dutenean, subjektu hori "sexualizatzen" dutela esan daiteke. Hau da, bere intimitate esparruan atzematen dute eta erasoa despolitizatzen dute, genero ereduaren berezko diren estatus ezberdinetako harremanen esparrura biltzen dute eta justizia erabat publiko baten aukeratik aldentzen dute. Pentsamendu kolektibo konplexu bat dago tartean: zeinetan sexualitatea eta legea banandutako maila bateraezinetan dauden; sexuala maila pribatuan, intimoan edo etxekoan eta legea interes unibertsal eta orokorreko maila publikoan. Horrek eragiten du, mugimendu feministak eta horri buruzko hainbat lege egon arren, garaitzeko zaila den erresistentzia bat egongo dela beti, maila sexualeko delituak gizar-tearen interes orokorreko plano unibertsalean kokatzeaz ari garenean. Asko dira honi buruzko adibideak, erasotzaile berberen eskutan behin baino gehiagotan bortxatua izan den erreklamazioa egiten duen emakume kolonbiarrak bere kexarekin sartzeari uko egitea barne. **2.** Guztiz kontrakoa gertatzen da emakumeak gizonetzkoa erasotzen duenean, nahiz eta etxe barruan ematen den defentsa propioa izan. Estatuak berehala salatuko du indarkeria mota hau, pentsamendu publikoak bultzatuta, erabat publikoa eta garrantzia orokorrekoa den indarkeriaren erabilpenaz baliatzeko gaitasun hori ukatuta; indarrean zegoen legediaren izaera modu nabarmenean urratuz jokatu zuten justiziarren administratzaileek auzipetutako emakume espainolaren kasuan bezala: bere senar erasotzailearengandik babesteko indarra erabiltzeagatik modu desegokian kondenatua izan zen.*

## **Euskal Herrian Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegian epai-tuak izango diren kasuei buruzko azalpenak**

Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegian lana emango duten kasuak gogoan hartzeko orain arteko hautemateen garrantzia kontuan hartzeko modukoa da eta, neurri handi batean orain arteko azalpenaren garapenean tartekatua geratu zen. *Nahiz eta lehenengo begiradan auzitegiak landuko dituen kasuetan, horietako bi, sexu indarkeriari buruzkoak direla eta hirugarrena eraso fisikoa duen etxeko indarkeriari buruzkoa dela pentsatzera eramaten gaituen; begirada sakonago batekin hiru kasuetan erasoa, egiatan, zeharo juridikoa dela ikus dezakegu.* Laburbilduz, eta epaiketaren aurreko eztabaidetan sortuko diren esamesei aurrea hartuz, proposamena egiten dutenen kasuen deskribapenak laguntzen dituzten gogoeta interesgarriei ondorengoa iradokitzea posible da:

**1. kasua:** emakume euskaldun baten aurka inkomunikazio aldian burututako indarkeria sexistaren aurkako salaketa: kasuari erantsita doazen eta oso egokiak diren azalpen eta gogoeta zehatzez gain, eta dokumentu honetan jadanik jasota daudenez gain, posiblea da honakoa gehitzea:

1. Estatuko eragileek hemen legea alde batera utziz jokatzeko dutela, euren ekintzak direla eta eragile para-estatal transformatu, euren berezko hiritar zintotasuna minduz.
2. Atxilotuak jasandako, besteren artean, mota sexuarekiko indarkeriak helburu bikoitza duela ematen du; bat esplizitua: informazioa lortzea, horrela era okerrean tortura informazio fidagarria lortzeko bermea dela baieztatuz; eta ezkutukoa bestea: diziplina-terroren indarkeria era bat da, bortxaketa beti den legez, gizateriaren historian sakontasun handiko denbora-horizonte batean, garai modernoetan larriagotuz gizalegeko estatusa kentzea, bere existentzia eremu publikoan, heriotzaren parekoa da. Emakumeari bera menderatzen duen lege bat ezartzen zaio, bere gizalegeko xedea kenduz; eta bere gorputza biluztasun eta esposizio egoeran egotea onartzen du galdeketa lehengo egunetan, horrela, bere azken gotorlekua den haren gorputza beraren kontrola kenduz. Begi-bistakoa da, kasu honi dagokion eszenaren salbuespen egoeran, hiritar hitzarmenaren alor modernoaren muturreko ahultasuna erakusten dela, bere sexualizazioaz baliatuz mendekotasuna femeninoa den estatus mailan berrezarritik.
3. Tortura psikologikoaren formetako bat emakumearekiko ahaidetasuna dela eta, loturik dauden pertsonen erantzukizunaren oinarritik abiatzen da: torturatua izaten ari delarik ezkontidearen oihuak entzuten ditu, mehatxatu egiten dute bere senideak bahitu eta jotzearekin, amona barne; hau ere biluztua eta bortxatua izango delarik.
4. Preso dagoenaren ugalketa gaitasuna ere mehatxatua da; xede etnozida duen ohi-ko diskurtsoa, seguruenik dagokion hitzarmenaren kokagarria dena: bere jatorri-etnikoa suntsitu egingo da.
5. Pertsonak duen gizatasunaren heriotza den heriotza moraleko mehatxu gisa bortxaketa mehatxua erabiltzen da. Bortxaketak, argudiatu dudako moduan, subjektu moralak suntsitzeko gaitasun hori dauka, gizatasuna kentzeko gaitasun hori, ematen den atmosfera patriarkal horren eraginez: estatus zibilaren indargabetzea eta, beraz, heriotza morala.

**2. kasua:** Bortxaketa, mehatxu eta bere ondasunak, bera eta bere seme-alaben mantentzea denda txiki bat barne, kentzearen biktima izandako emakume baten derrigorrezko lekualdaketa. Kasuan jadanik agertzen diren gogotei gehitu egiten zaie:

1. Bere seme-alabak mehatxatuz emakumea erasotzen ari dela.
2. Herri txiki bateko emakume honentzat, bere identitatea eta gizartean duen papera argi eta garbi bere amatasunarekin hertsiki lotuta doazela eta bortxaketa bidez, gorpua ikusgai duelarik eta milizia para-militarrak indarrez hartzen duelarik bere amatasun-papera txikitu egiten da.
3. Bortxaketa erailketaren iragarpen gisa burutua izan zela, hau da, oraindik burutu gabeko feminizidio asmoaren esanahi eta balioa izan zuela.

4. Bortxaketa gertaeren unean salaketa jaso beharko luketen Estatuko ordezkariak, ez zute- la egin, sexu erasoari garrantzia kenduz. Honek baieztatzen du indarkeria sexualari eraso delituaren balioa, zentzu publikoan, emateko saiakerari pentsamolde menderatzaileak jarritako oztopoa, eta hau zokoratzeke eta intimitate gai guztien artean sartzeko duen joe- ra. Sexu bidezko tortura "sexu indarkeria" kategoriara baztertua denean gertatzen dena- ren antzeko zerbait, "sexu" dimentsioa pribatutasun esparruarekin lotzen denean publi- kotasun esparruarekin lotuta doan "tortura" dimentsioarekin erlazionatu beharrean.
5. Biktimak jasandako eraso sexualak politizatzea gomendatzen dela.

**3. kasua:** Oso hitzaurre onarekin, berdintasun formalaren printzipiotik abiatzen ez diren legeen testuinguruan kokatua. Berdintasuna bermatu beharrean, genero desberdinta- suna jasotzen dute modu desberdinean eta ekitatiboan zigortzen baitituzte gizon eraso- tzailea eta emakume erasotzailea. Auzi-jartzaileek kasua azaltzeko erabiltzen dituzten azalpen argigarriak, hurrengoak gehitzea posible da:

1. Kasu honetan legegileek senaren maila gainditu dutela erakusten da eta, ekitate prin- tzipioaren bitartez, legearen aurreko berdintasun formaleko printzipioaren gainetik pasa eta desberdintasun eszena batean berdintasuna sortzeko legeak egin zituzten.
2. Legearen erretorikak, zoritxarrez, ez zuen indar normatiboa eskuratzeko beharrezko gaitasun limurtzailea atzematea lortu, Gipuzkoako Fiskaltzak kontrako araua jaulki baitzuen. Honek erakusten du zein puntutaraino, legeak limurtzen ez badu, ez due- la eraginkortasun sinbolikorik eskuratzen eta ez duela justiziako administratzaileen sentsibilitate etikoa eraldatzea lortzen; ez du eraginkortasun materialik erdiesten.
3. Genero Indarkeriaren Erabateko Babeserako Lege Organikoaren desobedientziak era- kusten du etxeko-indarkeria etxetiar esparruaren barruan mantentzen dela eta ez zaio, zentzu publiko batean, legegintzaren esparrura sartzen uzten. Hau da, legearen termi- notan, defendatzeko eskubide zilegia litzatekeena alde batera uzten da eta eszena ez- kontideen arteko borroka baten planora murrizten da. Senar-emazteen arteko kontuak ezin dira legeen mailan sartu, ezin dira ezkontza loturaren intimitatetik askatu.
4. Mugimendu horrek, egia esan, berriro ere saihestu egiten du legeak orekatu nahi zuen botere harremana, eta desabantaila femeninoa betiketzea bermatzen du.

## **II. FEMIZIDIOAK: JUSTIZIAREN PORROTAK HITZ EGITEN DUTEN ZENBAKIAK**

### **Datu-iturriak**

Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuei dagokienez, bereziki femizidio edo feminizidioei buruzkoei dagokienez, hemen aurkeztutako datuen iturri nagusiak hauek dira: Femicide: A Global Problem. Small Arms Surveys, Research Notes – Number 14 – February 2012 y Global Burden of Armed Violence 2011: Lethal Encounters (GBAV), Chap- ter Four – When the Victim is a Women (Alvazzi del Frate, 2011).

"Small arms survey-k" erailketaren emakume biktimen datu baserik handienetako bat sortu du, 2004-2009 urteetarako 111 herrialde eta lurraldeetako emakumezkoen biztan- leriaren %56ko estaldurarekin.

## Datuak


Ikasketek, ikerketek eta datuek emakumeen kontrako indarkeria herrialde eta kontinente guztietan presente dagoen arazo globala dela erakusten dute.

“Small arms survey” ikerlanaren atala den “Femicide: A Global Problem” (*Femizidioa: arazo globala*) txostenaren arabera, feminizidioei buruzko zenbakiak (emakumeen hilketak), 2004-2009 urteetan urteko 66.000 hilketa gehitzen zituzten; batez ere gizonekoek, nahita, burutu-tako erailketa guztien (396.000 heriotza) biktimen %17a.

Feminizidio tasarik altuena edo altua (6 edo 3 emakumeren erailketa baino gehiago emakumezkoen 100.000 biztanleko) duten 25 herrialdeetatik erdia baino gehiago Amerikakoak dira: 4 Karibearen (Jamaika, Antillak, Bahamak, Belize); 4 Erdialdeko Amerikan (El Salvador, Guatemala, Honduras, Dominikar Errepublikak); 6 Hego Amerikan (Guyana, Kolonbia, Bolivia, Venezuela, Brasil, Ekuador).

Feminizidio tasarik altuena duten 12 herrialdeetatik bost Latinoamerikakoak dira (El Salvador, Guatemala, Honduras, Kolonbia, Bolivia) eta emakumezkoen 100.000 biztanleko sei emakumeen hilketak gainditzen dituzte.

**FIGURA 2 do Femicide: A Global Problem**  
Average femicide rates per 100.000 female population in 25 countries and territories with high and very high rates, 2004-09



Bitartean, garrantzitsua da kontuan hartzea eskualde edo herrialdeetako feminizidio tasek maila nazionalako aldakuntza adierazgarriak ilun ditzaketela; Ciudad Juarez, Chihuahua, Mexiko, 2009ko feminizidio tasa 100.000 emakumeko 19,1ekoa izan zen; batez besteko nazionala 2004-2007 urte bitartean 2,5ekoa zelarik. Desberdintasun hau Brasilen ere ikus daiteke; Espirito Santoko 2008ko feminizidio tasa 100.000 emakumeko 10,9koa zen; eta batez besteko nazionala 4,3ko 2004-2009 aldian.

2009an Ciudad Juarez en hildako emakume eta umeen kopurua esanguratsua da. Geografia eta Estatistika Institutu Nazionalak 1990 eta 2009 bitartean 669 erailketa neurtu zituen, Giza Eskubideen urraketa larria. XX. Irudiak 1990 eta 2009 urte bitarteko feminizidioaren joera azaltzen du, maila nazionalean eta Ciudad Juarez en. 2007 eta 2008an erabateko hazkundearekin, 2009an ikusten den muturra gizonezkoen hilketen tasaren antzekoa da. Bitartean azpimarratu behar da, emakumeen exekuzio basatiek, haietako asko hil aurretik torturatuak baitira, guda eremuetan orokorra izaten den basakeria adierazten dutela.


Feminizidio tasarik altuenak sexu bietako erailketa tasa altu edo oso altuak dituzten herrialde eta lurraldeetan ikus daitezke. 100 biztanleko 12ko tasarekin, El Salvador da feminizidio tasarik altuena duen herrialdea, Jamaikak (10,9), Guatemalak (9,7) eta Hegoafrikak (9,6) jarraituta.

Feminizidio tasarik altuenak dituzten eskualdeak, indarkeria hilgarri tasarik altuenak dituzten eskualdeekin bat datoz. Erailketa tasarik altuenak dituzten bost eskualdetatik lau feminizidio tasarik altuenak dituzten eskualdeen sailkapenean goi postuetan daude. Beheranzko ordenan: Hegoafrika, Hego Amerika, Karibe, Erdialdeko Amerika (Alvazzi Del Frate, 2011, 119.orr.). Beste alde batetik, feminizidio tasak Ekialdeko Europan eta Errusiar Errepublikan Federalean neurrigabeteki altua dirudi erailketa orokorren tasarekin alderatuta.

Feminizidioaren krimenak zigorgabetasun indize altua erakusten du. El Salvador eta Honduraseko kasuetan zigorgabetasun tasa ehuneko 77ra iritsi daitekeela baloratzen da.

Feminizidio tasa bereziki altuak dituen herrialde multzoak emakumearen kontrako indarkeriarekiko tolerantzia maila altuak ere agertzen ditu; justizia sistemak erailketetarako ez eraginkorrak izan ohi dira orokorrean, baliabide gutxirekin eta kasu horietan beharrezkoa den ikerketa sakona egiteko behar izaten den borondate politikorik gabe. Kasuak ez ikertuak izan ohi dira eta ondorioz ez dago prozesurik; horregatik oso ebazpen eta zigor gutxi ematen dira (Alvazzi del Frate, 2011, 122.orr.). Esaterako, ikerketa berri batek 2008 eta 2010 urte bitartean Hondurasen jakinarazitako 1.010 feminizidio kasuetatik soilik 211 eraman izan ziren gortera eta apenas 56 iritsi ziren sententziara (Sanchez, 2011, 40.orr.; Alvazzi del Fraten, 2011, 122.orr.).

**Figure 1 Femicide rate and number of femicide victims for every 100 male homicide victims in 83 countries, 2004-09**



Erailketa tasa altuak dituzten herrialdeek erakusten dituzte, orokorrean, emakumeen kontrako indarkeria hilgarri tasarik altuenak. Bien bitartean, erailketaren biktima diren emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremanak joera desberdinak erakusten ditu herrialdeen artean. Herrialde batzuetan, erailketa tasa baxuak dituzten horietan bereziki, emakumezko biktimen tasa gizonezkoen tasarengandik oso hurbil dago. Erailketa tasarik baxuenak dituzten 13 herrialdeetan, emakumeen hilketa tasa hildako 100 gizoneko 66koa da, gutxi gorabehera. Erailketa tasa altuak eta oso altuak agertzen dituzten herrialdeetan, feminizidio tasak gizonezkoen erailketen proportzio dezente baxuagoa suposatzen du: 16,3 tasa altuko herrialdeetan eta 12,5 tasa oso altukoetan.

Korrelazio negatibo bat existitzen da erailketen tasa eta feminizidioen (hildako emakumeak) proportzioaren artean. Beste hitz batzuetan, erailketa kopurua handitzen den heinean, hildako emakume kopurua murrizten dela ematen du. Hilketaren biktimak gizonezkoak emakumeak baino 10 aldiz gehiago diren lekuetan ere, Brasil, Kolonbia, Puerto Rico eta Venezuelako kasuetan bezala, emakumeak ez daude beste leku batzuetan baino seguruago; hau horrela da, aldi berean, herrialde hauek feminizidio tasarik altuenak erakusten dituztelako denbora tarte horretan (Alvazzi del Frate, 2011, 123.orr.).

Erailketa tasa altuenak erakusten dituzten herrialdeek, beste lurralde batzuekin alderatuta, erailketan biktima diren gizon eta emakumeen proportzio altuak ere badituzte. Herrialde jakin batean hildako emakumeen proportzioa hildako gizonezkoekin alderatuta txikia denean ere, egungo feminizidio tasak altua izaten jarraitzen du. Tasa altu hauentzako azalpen posible bat estalitako antolatutako krimena eta bandek emakume eta umeen kontra burutzen dituzten indarkeria ekintzak izan daitezke, feminizidioa bereziki.

Emakumeen hiltzaile gehienak gizonezkoak dira, maiztasunez biktimaren familiako kideak eta askotan uneko bikotekidea edo bikotekide ohia. Biktima eta erasotzailearen arteko harreman intimoak maiz krimenaren egilea identifikatzen laguntzen du. Biktima eta erasotzailearen arteko harremanari buruzko informazioa biltzen duen 54 herrialde eta lurraldetako lagin batek erakusten du indarkeria hilgarri interperstonalen proportzioa txikiagoa dela feminizidio tasa altuenak dituzten herrialdeetan. El Salvadorren eta Kolonbian, esaterako, feminizidio tasarik altuenak dituzten herrialdeen artean aurkitzen direnak, soilik feminizidio guztien ehuneko hirua izan zen uneko bikotekideak edo bikotekide ohiak burutua. Beste alde batetik, Txipre, Frantzia eta Portugalen (feminizidio tasa oso baxua duten herrialdeak), uneko bikotekideek edo bikotekide ohiak burututako emakumeen erailketak hilketa guztien ehuneko 80 baino gehiago dira (Alvazzi del Frate, 2011, 129-130.orr.).

The Global Burden of Armed Violence-k (GBAV) 2008an burututako erailketa guztien ehuneko 60ko batez bestekoa su-armekin burututakoa izan zela uste du (Geneve Declaration Secretariat, 2008, 5.orr.). Erabilitako arma motari buruzko zifra zehatzak biltzen dituen 24 herrialdeko lagin baten azterketak feminizidio tasa eta su-armen erabileraren arteko korrelazio zuzena erakusten du. Feminizidio tasa altuak dituzten herrialdeek su-armekin burututako feminizidioen proportzio altua erakusten dute. Su-armak mundu osoan erabiliak dira feminizidio guztien heren batean. Brasilen, Kolonbian, El Salvadorren, Guatemalan eta Hondurasen, bien bitartean, su-armak feminizidioen ehuneko 60an baino gehiago erabiliak izan ziren (Alvazzi del Frate, 2011, 131.orr.) eta Ciudad Juarezek, Mexiko, su-armekin burututako feminizidio tasarik altuena aurkeztu zuen, feminizidio guztien ehuneko 80a, ia ia su-armekin gauzatutako gizonezkoen hilketen ehunekoa bezain altua (Alvazzi del Frate, 2011, 132.orr.).

Zifra horietatik ondoriozta daiteke su-arma bidez gauzatutako feminizidioa femi-geno-zidioa-reakin erlazonatuta dagoela, zeinetan ez den biktima eta erasotzailearen arteko harreman interpersonalik existitzen. Indarkeria hilgarri tasa altuek ezaugarritutako herrialdeen artean, emakumeak maiztasun handiagoz esparru publikoan hiltzen dituzte, baita banda eta antolatutako taldeek hiltzen dituztenean; testuinguru horietan, feminizidioak orokorrean axolagabetasun eta zigorgabetasun klima batean gertatzen dira. Feminizidio tasa altuenak dituzten herrialdeetan, gizonezko eta emakumezkoen erailketen arteko desberdintasun proportzionala handiagoa da, su-armen erabilera ere handiagoa eta biktima eta erasotzailearen arteko harreman interpersonalen kopurua txikiagoa.

### **III. ESKUBIDEEN URRAKETA: EREMU ARAUEMAILEA. EMAKUMEAREN KONTRAKO INDARKERIA ETA FEMIZIDIOAREN TIPIFIKAZIOA**

---

#### **Emakumeen giza eskubideen nazioarteko babes tresnak**

1967an, lehenbiziko aldiz, Nazio Batuen Batzorde Orokorrak Emakumearen kontrako Diskriminazioaren Ezabaketari buruzko Adierazpena hartu zuen, gai honen inguruko paradigma berri bat sartuz. NBE-k 1975. urtea Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu zuen, Emakumeari buruzko Munduko Lehen Hitzarmena burutzea proposatuz.

1979an, NBE-aren Batzar Orokorrak Emakumearen kontrako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeari buruzko Hitzarmena onartu zuen -CEDAW-. Gaur egun, 187 Estatu Kidek osatzen dute. CEDAW Hitzarmenak printzipio gisa eskubideen berdintasuna, giza-duintasunarekiko errespetua eta bere herrialdeko bizitza politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalean emakumearen parte-hartzea gizonezkoarekiko berdintasun baldintzetan defendatzen ditu. 1999an CEDAW Hitzarmenaren Eskumen Protokoloa sortu zuten, Hitzarmena bi mekanismorekin indartuz: eskaera eskubidea, Hitzarmenean adierazten diren eskubideen urraketan salaketak ahalbidetzen dituen eta ikerketa prozedura, Batzordea emakumeen giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoaren existentzia ikertzeko gaitu egiten duen.

Eskumen Protokoloak emakumeek nazioarteko justizia eskuratzea bermatzen du -era zuzen eta eraginkorragoan- babes sistema nazionalak euren giza eskubideen babesean akatsak edo hutsegiteak erakusten dituenen.

1992an, saioen 11. aldian, CEDAW Batzordeak, emakumearen kontrako indarkeria modu espezifikoa lantzen duen 19. Gomendio Orokorra onetsi zuen. Aurrekarietan Batzordeak honakoa baieztatzen du:

1. *Emakumearen kontrako indarkeria, eskubide eta askatasunak gizonezkoarekin berdintasunean gozatzea larriki eragozten duen diskriminazio era da.*
2. *1989an, Batzordeak gomendatu zuen Estatuak bere txostenetan indarkeriari buruzko eta aurre egiteko hartutako neurriei buruzko informazioa barneratzea (12. Gomendio orokorra, saioen zortzigarren aldia).*
3. *1911an ospatutako saioen hamargarren aldian, hamaikagarren aldiko denbora tarte bat 6. artikulua eta emakumearen kontrako indarkeriarekin, sexu xaxatzearekin eta emakumeen esplotazioarekin erlazonatutako Hitzarmeneko beste artikulua batzuk ez-*



tabaidatu eta aztertzeke erabiltzea erabaki zen. Asanblada Orokorrak 1990eko abenduaren 18ko bere 45/155 ebazpenean deitutako Giza Eskubideen Munduko Konferentzia 1993an ospatuko zelako aukeratu zen gai hori lantzea.

4. *Batzordeak, Estatu Kideen txostenek emakumearen kontrako diskriminazioa, haien kontrako indarkeria eta giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen urraketen arteko harreman estua beti era egokian islatzen ez zutela ondorioztatu zuen. Hitzarmenaren zentzuzko ezarpenak Estatu Kideek emakumearen kontrako indarkeria mota guztiak ezabatzeke neurri positiboak hartzea galdegiten du.*
5. *Batzordeak proposatu zuen, Estatu Kideek euren lege eta politikak aztertzean eta Hitzarmenarekiko adostasun txostenak aurkeztean emakumearen kontrako indarkeriari buruzko hurrengo oharrak kontuan izatea.*

Eta Ohar Orokorretan jarraitzen du:

6. *Hitzarmenaren 1. artikulua emakumearen kontrako diskriminazioa definitzen du. Definizio horrek sexuan oinarritutako indarkeria barneratzen du, hau da, emakumeari emakume izateagatik zuzendutako indarkeria edo era desegokian eragiten diona. Kalte edo sufrimendu fisiko, mental edo sexuala eragiten duten ekintzak biltzen ditu; baita ekintza horiek burutzeko mehatxuak, behartzeak eta askatasunaren beste ukapen mota batzuk ere. Emakumearen aurkako indarkeriak Hitzarmenaren xedapenak urra ditzake, espresuki indarkeriari buruz hitz egiten ari direla kontuan izan gabe.*
7. *Eskubide eta askatasun horiek biltzen dituzte:*
  - a) *Bizitzarako eskubidea;*
  - b) *tortura edo bestelako tratu anker, krudel eta umiliagarriak jasan behar ez izateko eskubidea;*
  - c) *nazioarteko edo barne gatazka armatu baten garaietan giza arauen arabera berdintasun egoeran babestua izateko eskubidea;*
  - d) *askatasun eta babes pertsonalerako eskubidea;*
  - e) *legearen aurrean berdintasun eskubidea;*
  - f) *familia barruan berdintasun eskubidea;*
  - g) *posiblea den osasun fisiko eta mental mailarik altuena izateko eskubidea;*
  - h) *lan baldintza justu eta mesedegarriak izateko eskubidea.*
8. *Hitzarmena agintari publikoek burututako indarkeriari ezartzen zaio. Indarkeria ekintza horiek giza eskubideen inguruko nazioarteko zuzenbidea edo bestelako hitzarmenak betez, Estatuaren betebeharren urraketa bat ere suposa dezakete; Konbentzioa urratzeaz gain.*
9. *Hala ere, Hitzarmenak (2. eta 5. artikuluetan e) eta f) puntuetan) dioenaren arabera, diskriminazioa Gobernuak edo haien izenean burututako ekintzetara mugatzen ez dela azpimarratu behar da. Esaterako, Hitzarmenaren 2.artikuluko e) atalean; Estatu Kideek edozein pertsonak, elkartek edo enpresak burututako emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeke neurri egokiak hartzeko hitza ematen dute. Nazioarteko zuzenbideari jarraiki eta giza eskubideen itun espezifikoek jarraiki, Estatuak ere ekintza pribatuen erantzule izan daitezke, baldin eta behar bezalako arretaz eskubideen urraketa eragozteko edo indarkeria ekintzak ikertzeko, zigortzeko eta biktimei kalteak ordaintzeko neurriak hartzen ez badituzte.*

1993an Vienan burututako Giza Eskubideen Munduko II. Konferentziak, bere Hitzarmenean, 18. paragrafoan *emakumearen eta umearen giza eskubideak giza eskubide unibertsalen atal besterenezin, partaidearazle eta zatiezina direla* kotsakratzen du. Vienako Konferentziak, emakumeen giza eskubideak babestea eta bultzatzea, indarkeriarik gabe bizitzekoa barne, Estatu Kideen betebeharra dela adierazten du:

*Indarkeria edota jazarpen eta sexu esplotazio era guztiak, bereziki aurreiritzi kultural eta pertsonen nazioarteko salerosketarekin zerikusia dutenak, duintasunarekin eta pertsonaren babilioarekin bateraezina dira, eta ezabatuak izan behar dira. Hau lor daiteke garapen ekonomiko eta soziala, hezkuntza, amatasunaren arreta eta osasun eta babes soziala bezalako arloetara bideratutako legegintza-neurriekin, jarduera nazionalekin eta nazioarteko lankidetzarekin.*

1993an, abenduan, NBE-aren Batzar Orokorrak Emakumearen kontrako Indarkeria Ezabatzeke Hitzarmena hartu zuen. Bere 1. artikuluan, emakumeen kontrako indarkeria honela definitzen du:

*“Ondorio gisa emakumearentzako kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa duen edo izan dezakeen eta sexu femeninoko kide izatean oinarritutako indarkeria ekintza guztiak, baita hauek burutzeko mehatxuak, derrigortzeak edo askatasunaren urraketa bidegabeak; bizitza publikoan zein pribatuan burutuak izan”.*

Emakumearen kontrako Indarkeria Saihestu, Zigortu eta Errotik Ezabatzeke, Estatu Amerikarretako Erakundearen Batzar Orokorrak 1994an hartutako Ameriken arteko Konbentzioak (Belém do Pará Konbentzioa), lehendabiziko aldiz indarkeriarik gabeko bizitza izateko emakumeen eskubidea ezarri zuen. Belém do Pará Konbentzioak emakumeen aurkako indarkeria haien giza eskubideen urraketa eta oinarritzko askatasunen urraketa gisa lantzen du, eta alor politiko, juridiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletik aurre egiten dio. Bere 1. artikuluan, emakumeen kontrako indarkeria honela definitzen du:

*“Emakumearen heriotza, kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten duen generoaren oinarritutako edozein ekintza edo jokaera; bizitza publikoan zein pribatuan izan”.*

Indarkeriaren definizio honek, Hitzarmenaren 2. artikuluekin bat etorritan, familia barruan, etxeko esparruan zein edozein harreman interpertsonaletan, komunitatean edota Estatuan burututako indarkeria jasotzen du:

*“Emakumearen kontrako indarkeriak indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa bil-tzen dituela ulertuko da:*

*a. familia barruan edo etxeko esparruan edo bestelako harreman interpertsonaletan ematen dena, izan erasotzailea eta emakumea etxebizitza berean bizi direlako edo bizi izan direlako. Beste batzuen artean bortxaketa, tratu-txarrak eta gehiegikeria sexualak hartzen ditu barnean;*

*b. komunitatean gertatu izana eta edozein pertsonak burutu izana. Beste batzuen artean bortxaketa, tortura, pertsonen salerosketak, behartutako prostituzioa, bahiketa eta lan eremuan, hezkuntza instituzioetan, osasun zentroetan edo beste edozein lekutan ematen den jazarpen sexuala hartzen ditu barnean; eta*

*c. Estatuak edo bere eragileek burutu edo onartu izana; edonon gertatzen delarik ere”.*

NBE-aren Emakumearen kontrako Indarkeriaren Ezabaketari buruzko Adierazpenean (1993)

agertzen den emakumearen kontrako indarkeriaren definizioa onartuta, Belém do Pará emakumearen kontrako indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala bere Giza Eskubideen urraketa dela berresten du; *genero* kategorია emakumearen indarkeriaren oinarri gisa sartzten du; emakumeek arlo pribatu zein publikoan indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea bermatua izateko eskubideen katalogo bat ezartzen du; emakumearen kontrako indarkeriaren kontzeptu zabal bat barne hartzen du eta Estatu Kideek eduki eta inplementatu behar dituzten betebeharrak zehazten ditu.

Nazio Batuen Erakundeak 1995ean Beijing-en burututako Emakumeari buruzko Munduko VI Konferentzian onartu zuen emakumeen kontrako indarkeria "berdintasun, garapen eta bake helburuak lortzeko oztopoa dela eta oinarritzko askatasunen eta giza eskubideen gozamina urratu eta kaltetu egiten dituela".

Emakumearen kontrako indarkeria Emakumeari buruzko Munduko IV Konferentziaren Ekin-tzarako Plataformaren hamabi helburuetako bat da, eta Beijing-eko Hitzarmenean Gober-nuek "emakume eta umeen kontrako indarkeria mota guztiak saihestu eta ezabatzeko" eta "emakumeek eta umek dauzkaten giza eskubide guztiak bultzatu eta babesteko" hitza eman zuten.

1998an Erroman, Nazioarteko Gorte Penalak (CPI) sortzen duen Erromako Estatutua onar-tua izan zen. CPI-aren helburua nazioarteko zuzenbidea bultzatzea da eta bere mandatua pertsonak epaitzea, eta ez Estatuak. Bere eskuduntza norbanakoek burututako krimenik larrienak dira: genozidioa, gerra krimenak, gizateriaren kontrako krimenak eta eraso krimenak.

2008an, Emakumearen kontrako indarkeria Saihestu, Zigortu eta Errotik ezabatzeko Ame-riken arteko Hitzarmenaren Jarraipen Mekanismoko Adituen Batzordeak, feminizidioa deli-tuaren maila autonomo gisa onartuta, abuztuaren 15ean Femizidioari buruzko Adierazpena (2008) onetsi zuen. Bertan, femizidioa honela definitzen da:

*"... genero arrazoiak direla eta emakumearen erailketa bortitza; izan familia barruan, etxeko esparruan edo bestelako harreman interpersonalean; komunitatean edo edo-zein pertsonak burutua edo Estatuak edota bere eragileek burutua edo onartua, hau da, egiteagatik edo ezer ez egiteagatik, utzikeriagatik"*<sup>2</sup>.

Adierazpen honetan, Adituen Batzordeak Estatuak emakumeek justizia eskuratzeko bide gehiago eta hobeak bermatu behar dituztela adierazi zuen. Horrela, ikerketa kriminalen sis-tema eta indarkeria jasan duten emakumeei ematen zaien babesa hobetuz, besteren artean, auzitegiko mediku adituen erabileraren bitartez, erasotzaileen zigorgabetasunarekin bukatze-ko prozedura judizialak hobetuz eta prozedura horietan behar bezalako arreta jartzen ez duten funtzionarioak era egokian zigortuz.

Nazio Batuen Batzar Orokorrak, 2009ko urtarrilaren 30eko bere 65/155 Ebazpenean -Emaku-mearen kontrako indarkeria mota guztiak ezabatzeko ahaleginen areagotzea- "Emakume eta umeen kontrako indarkeria ekinga guztiak bortizki gaitzesten ditu, izan Estatuak burutuak izan norbanakoek edo eragile ez estatalek burutuak. Eta, era berean, familia barruan, komu-nitatean orokorrean eta Estatuak nonahi burutuak edo onartuak diren indarkeria sexual mota guztiak ezabatzeko eskatzen du." (4. orr., 8. paragrafo)

<sup>2</sup> Adituen Batzordearen Femizidioari buruzko Hitzarmena [MESECVI/CEVI/DEC. 1/08 dokumentua, 2008ko abuztuaren 15ekoa, 2.puntua]

Batzar Orokorrak:

*“Estatuak estutzen ditu emakumeen kontrako indarkeria ekintzen zigorgabetasunari amaiera jar diezaioten ikerketa burutuz, beharrezko berme prozesalekin epaituz eta errudun guztiak zigortuz; emakumeak legearen aurrean babes berdinez gozaten duela bermatuz baita justizia eskuratzeko aukera berdinez ere. Gainera, azterketa publikoa egin behar zaie emakume eta umeen kontrako indarkeria era guztiak sustatzen, zuri-tzen edo onartzen dituzten jarrereri ” (4. orr., 11. paragr.)*

*“Munduko hainbat lekutan gatazka armatuen iraunkortasuna emakumearen kontrako indarkeria era guztiak ezabatzeko oztopo garrantzitsua dela berresten du. Eta, kontuan hartuz munduko leku askotan gatazka armatuak edo terrorismoa eta bahiketak bezalako bestelako gatazkak irauten dutela, baita atzerritarren okupazioa, gatazka etnikoak eta bestelakoak eskualde gehienetako emakume zein gizonei etengabe eragiten dien errealitate bat direla; Estatuak eta nazioarteko komunitatea egoera hauetan bizi diren emakume eta umeen sufrimendua nabarmentzera bultzatzen ditu; lehentasunezko arreta eskaini eta sufrimendu hori arintzeko laguntza handitu; halaber, zigorgabetasunarekin bukatzeko, emakume eta umeen kontrako indarkeria ekintzak burutzen direnean behar bezala ikertuak izango direla eta errudunak epaituak eta zigortuak izango direla bermatu. Aldi berean, nazioarteko gizarte zuzenbidea eta giza eskubideei buruzko nazioarteko arauak errespetatzeko beharra azpimarratuz.” (4. orr., 12. paragr.)*

*“Nazioarteko dekretuak debekatutako emakume eta umeen hilketa eta ablazioa eta sexu indarkeria delituak, gatazken konponbiderako prozesuen testuinguruan, amnistia-riaren neurritik baztertzeko beharra azpimarratzen du” (4. orr., 13. paragr.)*

Batzar Orokorrak Estatuak estutzen ditu, honakoak ere egiteko:

*“Emakume eta umeen kontrako indarkeria era guztiak legeak delitu zigorgarri gisa tipifika ditzala, eta legegintza nazionalean delituaren larritasunarekiko proportzionalak diren zigorrak ezarri, baita indarkeriaren objektu izan diren emakumeei sortutako kal-teak, behar bezala zigortu eta konpontzeko zehapenak ere.” (6. orr., 16. paragr.)*

Azkenik,

*“Nazioarteko auzitegi penal bereziek zigorgabetasunarekin bukatzeko ahaleginean, emakumeen kontrako indarkeria ekintzen egileak erantzule egitean eta zigortzean egi-ten duen ekarpena azpimarratzen du; baita Nazioarteko Gorte Penalak egin dezakeen ekarpena ere. Eta Estatuak estutzen ditu, lehentasunez 2002ko uztailaren 1ean inda-rrean sartu zen Erromako Estatutua berresteko aukera edo berari batzeko aukera az-ter dezaten”*

2013an, emakumearen eta umearen kontrako indarkeria Emakumearen Izaera Juridiko eta Sozialaren (CSW) Nazio Batuen Batzordearen 57. saioan gai nagusia izan zen. Bukaerako do-kumentuan, Batzordeak baieztatzen du:

*“emakume eta umeen kontrako indarkeriak, emakume eta gizonezkoen arteko botere harremanak ezaugarritu dituen ezberdintasun historikoan eta egiturazko ezberdinta-sunean dituela sustraiak. Eta aipatutako indarkeriak munduko herrialdeetan indarrean jarraitzen duela eta giza eskubideen gozamen orokortuaren urraketa suposatzen due-*



*la. Genero arrazoiengatik indarkeria emakume eta umeek giza eskubide guztiez eta funtsezko askatasunez gozatzeko duten eskubidea urratzen duen diskriminazio mota bat da. Boterearen erabilerak eta nagusikeriak eta arlo publiko zein pribatuko kontrolak ezaugarritzen dute emakume eta umeen kontrako indarkeria; eta honen arrazoiak azpian diren eta hau iraunarazten duten genero estereotipoei loturik dago, baita indarkeriaren aurrean emakume eta umeen ahultasuna handi dezaketen beste faktore batzuei ere". (1. orr., 10. paragr.)*

Dokumentuan, Batzordeak gatazka armatuetan jazotzen den emakumeen kontrako indarkeria lantzen du espezifikoki:

*"Batzordeak Estatuak estutzen ditu gatazka armatuko egoeretan eta gatazkaren ondorengoetan ematen diren emakume eta umeen kontrako indarkeria ekintzak irmoki salatzen. Indarkeria sexualak eta genero indarkeriak biktimei eta bizirik ateratakoei, eta baita senideei, komunitateei eta gizarteei ere eragiten diela onartzen du; kontuak emateko neurri eraginkorrak hartzea eskatzen du, eta helegiterako aukera eraginkorrek eskaintzea ere bai". (3.orr., 13.paragr.)*

Eta, feminizidioaren gaia ere bai:

*"Batzordeak genero arrazoiengatik burututako emakume eta umeen hilketak direla eta kezka adierazten du, aldi berean eskualde desberdinetan -bereziki feminizidio kontzeptua legegintza nazionalen barneratu duten herrialdeetan- indarkeria mota honi aurre egiteko burututako ahaleginak onartzen dituelarik". (4.orr., 24.paragr.)*

Egindako aurrerapenak onartuta ere, Batzordeak bere kezka adierazten du emakumeen kontrako indarkeriari amaiera jartzeko oraindik gaitz behar diren erronka eta arazoak aurrean:

*"Batzordeak onartzen du, aurrerapausoak eman badira ere, emakume eta umeen kontrako indarkeriari aurre egitera bideratutako neurriak ezartzeko esparruan konpromisoak betetzeko orduan eta hutsuneak konpontzeko orduan gogoan hartzeko hutsune eta erronka ugari badirela, oraindik ere. Generoaren gaia kontuan hartzen duten politika nahikorik ez egoteak; marko juridiko eta normatiboen ezarpen ezegokiak; datu bilketa, analisi eta ikerketa prozesuen urritasunak; baliabide finantzario eta giza baliabideen falta eta berauen esleipen urriak; eta egindako ahaleginak beti integralak, koordinatuak, koherenteak, iraunkorrak eta gardenak ez izateak eta modu egokian ikuskatuak edo ebaluatuak ez egoteak kezkatzen dute gehien Batzordea". (5-6.orr., 33.paragr.)*

Marko juridiko eta normatiboen ezarpena eta kontuak ematea sendotzeko gaiari dagokionez, Batzordeak, beste batzuen artean, Gobernuak neurri hauek hartzeko estutu egiten ditu:

*Emakume eta umeen kontrako indarkeria delitutzat tipifikatuko duten lege eta neurri zorrotzen aplikazio azkar eta eraginkorra bermatu, aztertu eta dagokionean onetsi. Baita, prebentziorako eta babeserako genero arazoak, urrutze aginduak eta larrialdiko babesa kontuan hartuko dituzten diziplina anitzeko neurrien ezarpena aurreikusiko dutenak ere. Horrela errudunei dagokien ikerketa, auzitaratzea eta zigorra ezarriko zaie eta zigorgabetasunari amaiera jarriko zaio; eta era berean, biktimei eta erasotik bizirik ateratako emakumeei laguntza zerbitzuak eskainiko zaizkie eta ordaintza bitartekoak eta giza baliabideak eskura jarriko zaizkie. (A, 6.orr., "c" paragr.)*

Batzordeak feminizidioei aurre egiteko neurriez hitz egiten du. Batzordeak eskatzen du:

*“Legegintza nazionala indartzea, dagokionean, genero arrazoiengatik burututako emakume eta umeen indarkeriazko hilketak zigortzeko helburuarekin. Eta indarkeria mota deitoragarri horiek saihestera, ikertzera eta errotik ezabatzerako bideratutako politika edo mekanismo espezifikoak ere biltzea”.* (A, 7.orr., “e” paragr.)

Gatazka armatuetan ematen den emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Batzordeak proposatutako neurriak dira:

*“Gatazka armatuetan eta ondorengo egoeretan, emakume eta umeen aurkako indarkeria era guztiak saihestea, indarkeria sexuala eta genero indarkeria barne; horien aurrean erantzutea eta modu eraginkorrean ekitea lehentasuna direla bermatzea. Bereziki, zigorgabetasunari, justizia eskuratzeko emakumeek dituzten oztopoei amaiera jartzeko errudunen ikerketa, auzitaratze eta zigorra beharrezkoak direnean. Era berean, lehentasuna izango dute jakinarazpen eta salaketa mekanismoek, biktimei eta bizirik ateratakoei zuzendutako babes zerbitzuek, osasun zerbitzu eskuragarri eta lorgarriek, bereziki osasun sexuala eta ugaltze-osasuna, eta birgizarteratze neurrien ezarpenak; baita gatazkaren konponbideetan eta gatazka ondorengo erabakietan eta bakearen bermatze prozesuetan emakumearen parte hartzea handitzeak.”*(A, 8.orr., “l” paragr.)

*“Emakume eta umeen hilketengatik, ablazioengatik eta haien kontra nahita burututako erasoengatik, baita nazioarteko zuzenbideak debekatzen dituen sexu indarkeriako erasoengatik ere, kontuak ematen direla bermatu; gatazkaren konponbidearen testuinguruan ematen den amnistia neurritik kanpo uzteko beharra azpimarratuz. Eta gatazkaren konponbideko prozesuko etapa guztietan, baita gatazka hauen ondorengo egoeretan ere, emakumeen erabateko parte hartze eraginkorra bermatu behar da, besteren artean, trantsiziozko justizia mekanismo bidez.”*(A, 8.orr., “m” paragr.)

*“Zigorgabetasunari amaiera jarri, emakume eta umeen kontra erasorik larrienak buztzen dituztenak bere ekintzen gaineko kontuak ematen dituztela eta zuzenbide nazional eta nazioarteko zuzenbidearen markoen barruan zigortuak direla bermatuz; delitu horien ustezko egileak justizia nazionalaren arabera, edo dagokionean nazioarteko justiziaren arabera kontuak ematera derrigortuak izateko beharra azpimarratuz”.* (A, 8.orr., “n” paragr.)

Batzordeak, antolatutako krimenen barruan edo emakumeen salerosketaren barruan ematen diren emakumeen kontrako indarkeria egoerarako ere proposatzen ditu neurriak:

*“Antolatutako delinkuentzia transnazioaletik eratorritako emakumeen eta umeen kontrako indarkeriari aurre egin, pertsonen salerosketa eta estupefaziente-trafikoari barne. Eta emakumeen kontrako indarkeria saihesteko eta errotik ezabatzeko politika espezifikoak hartu, delituaren prebentzio estrategien barruan”.* (A, 9.orr., “r” paragr.)

*“Herrialdeko eta nazioarteko aldebiko lankidetzak indartu, indarrean dauden mekanismoak sendotuz eta ekimen berriak martxan jarriz Antolatutako Delinkuentzia Transnazioalaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmenaren arabera eta Pertsonen Salerosketa-bereziki emakume eta umeena- Saihestu, Menderatu eta Zigortzeko protokolo osagarriaren arabera; eta Pertsonen Salerosketari Aurre Egiteko Nazio Batuen Munduko Akzio-Plana ezarriz”.* (A, 9.orr., “s” paragr.)



Azkenean, "oinarri enpirikoa hobetzeari" buruzko atalean, Batzordeak datu bilketa hobetzearen beharra agerian uzten du; hori baita emakume eta umeen aurkako indarkeria erasoei buruzko informazio argiena izateko modua:

*"Datu administratiboen bilketa, harmonizazioa eta erabilpena hobetzea, besteren artean, dagokionean, emakume eta umeen kontrako indarkeria gertakariei buruzko poliziaren datuak, osasun sistemarenak eta botere judizialarenak; esaterako, egile eta biktimaren arteko harremanari dagozkion datuak, kokapen geografikoari buruzkoak... Horrela, datuen bilketan alderdi etikoak, konfidentzialak eta segurtasunekoak kontuan hartzen direla bermatuz, eskainitako zerbitzu eta prozesuen eraginkortasuna hobetuz eta biktimaren segurtasuna babestuz". (D, 18.orr., "ooo" paragr.)*

Europar Batasunaren Europar Parlamentuaren esparruan, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko hainbat ebazpen onartu ziren: 1986an, emakumeen kontrako indarkeriari buruzko Ebazpena (1986.7.14ko JO C 176, 73.orr.); 1997an, Europar Batasunean emakumeen kontrako indarkeriaren erabateko gaitzespen kanpaina bat garatzeko beharrari buruzko Ebazpena (1997/10/06ko JO C 304. zenbakia, 0055.orr.).

Nazioarteko baliabide horiek guztiek helburu bera jarraitzen dute: berdintasunaren, duintasunaren eta askatasunaren balioa bermatu, Estatu Kideek inolako diskriminaziorik gabe giza eskubideen gauzatzeko aske eta osoa ziurtatzeko duten beharra betearazi, eta emakumeentzako indarkeriarik gabeko bizitza ere bermatu.

## **Emakumearen kontrako indarkeriari buruzko legedia**

---

### **Latinoamerika eta Karibea**

Belém do Pará Hitzarmenaren Inplementazioari buruzko Hemisferioko Bigarren Txostenarekin bat eginez -Emakumearen kontrako Indarkeria Saihestu, Zigortu eta Errotik ezabatzeko Ameriken arteko Hitzarmenaren Ezarpenaren Jarraipenerako Mekanismoa-, Belém do Pará Hitzarmenak "Hitzarmena adostu duten Estatu Kideetan Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko lege eta politikak egiteko gida-lerroak eman ditu, baita bere inplementaziorako marro politiko eta estrategikoa garatzekoak ere" (9. orr.)<sup>3</sup>

Herrialde batzuetan, Hitzarmena berrestea edo atxikimendua ematea nahikoa da ezarria izan dadin. Beste batzuetan, bere argitaratzea edo arau nazionalen aldarrikapena beharrezkoa da. Karibeko hainbat Estatutan ez dute legegintza nazionalaren gehitze-prozesuari buruzko informaziorik ematen; nahiz eta Parlamentuak bere xedapenak ezartzeko legeak hartu behar dituela azpimarratzen duten. Batzuek baieztatzen dute hauek zuzenbide orokorretik garatu daitezkeela. Batzuetan, Brasilen eta Argentinan esaterako, honek maila konstituzionala du. Beste batzuk, Txile kasu, Errepublikako Lege maila duela zehazten dute. Beste Estatu batzuek, mailarik aipatu gabe, Hitzarmena eta giza eskubideen inguruko beste akordio batzuk barne antolamenduaren gainetik daudela ezartzen dute (Kolonbia, Guatemala edo Paraguai-ko kasua) eta bertan dauden berme eta edukia ezarpen zuzenekoak direla (Ekuador, Mexiko edo Perun). Beste kasu batzuetan indarkeriatik at bizitzeko eskubidea izaera konstituzionala duen akordioa da, Boliviaren kasua, eta eskubidea emakumezkoiei bezalaxe gizonezkoiei ere bermatzen zaie. Uruguai-ko soilik derrigorrezko ezarpenekoa dela aipatzen du eta Trinidad eta

---

<sup>3</sup> Hemisferioko Txostena eskudun agintari nazionalak Adituen Batzordeak egindako galdetegiarri emandako 28 erantzunetan oinarritua dago. Baita 21 Estatuek (kideek) Adituen Batzordeak burututako herrialdeko aurretiko txostenei buruz egindako ohar eta gogoetetan ere, eta Latinoamerika eta Karibeko Emakumeen Eskubideen Defentsarako Batzordeko gizarte zibeleko erakundeek egindako 8 gerizpeko-txostenetan ere bai.

Tobagon Hitzarmena inplementatzeko arau bat behar dela, bestela bere neurriek izaera limurtzailea baino ez lukete izango.

Belém do Pará Hitzarmeneko 1. artikuluko emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa, nagusiki emakumeen kontrako indarkeriari buruzko lege integralak egin diren herrialdeetan edo legegintza azken bost urteetan modernizatu den lekuetan barneratua izan zen, modu oso edo partzialean. Gaur egun arte Mexiko (2007), Venezuela (2007), Guatemala (2008), Kolonbia (2009), Argentina (2009) eta El Salvador (2010) dira lege hau dutenak; bitartean Paraguayk eta Peruk gai honi buruzko lege proiektuak izatea lortu nahi dute. Ekuadorrek, nahiz eta aipatutako legea ez eduki, Belém do Pará Hitzarmenaren definizioa bere Konstituzioan sartu du, eta bertan kotsakratzen du aldi berean emakumeek indarkeriarik gabeko bizitza izateko duten eskubidea. Costa Ricak Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Zigor-Lege bat dauka, baina bere aplikazio esparrua ezkontideen edo bikotekideen arteko harremanetara mugatzen da.

Indarkeria fisikoa, psikologikoa eta sexuala Bolivia edo Ekuadorren kasuan zenbait antolamendutan aurkitzen zirela ere azpimarratu behar da; emakumeen kontrako indarkeria lege integraletatik hasita, etxeko indarkeriari buruzko legeetara, Kode Penaletara eta baita Konstituzioetara ere. Eta indarkeria ekonomikoa, ondarezkoa edo finantzarioa ez zela Hitzarmenarengandik espresuki aipatua izan, baina nazioarteko mailan indarkeria motatzat hartzen da dagoeneko, eta lehen aipatutako arauetan biltzen da. Are gehiago, herrialdean burutzen diren emakumeen kontrako beste indarkeria mota batzuen onarpena ondo nabaritzen da. Horien artean indarkeria morala daukagu, emakumearen kontrako kalumnia, iraina edo laidoa inplikatzan duen edozein jarrera gisa ulertuta; eta indarkeria sinbolikoa, emakumearen kontrako mendekotasun, desberdintasun eta diskriminazio harremanak errepikatu eta transmititu egiten dituzten mezu, balio eta ikurrak kontuan hartzen dituenak.

Batzordeak herrialde batzuetan indarkeriaren lege integraletan indarkeria feminizida honela definituta jasotzen dutela ere ikusi du:

*“emakumeen kontrako genero indarkeriaren muturreko adierazpena, arlo publiko zein pribatuan euren giza eskubideen bortxaketaren ondorio. Gizartearen eta Estatuaren zigorgabetasuna berekin izan dezakeen portaera misoginoen multzoak osatzen du eta emakumeen erailketan edo bestelako indarkeriazko heriotzan izan dezake bukaera”<sup>4</sup>*

Dokumentu honetan, eskualdeko feminizidioari buruzko legegintzaren inguruko informazioa landuko dugu.

## Femizidioari buruzko legedia

---

Femizidioak herrialde gehienetako legedia penaletan barneratuta ez dagoen gai bat izaten jarraitzen du, berau saihesteko eta zigortzeko politika penalei buruzko informazio eskasarekin, nahiz eta eskualdeko/zonaldeko femizidio tasak altuak izan, kasu batzuetan **OME-ren (Osasunaren Mundu Erakundearen) adierazlearen arabera** pandemiaren antzeko datuak ere hartzen dituelarik. Carcedoren arabera, Ana (2010) 2006an herrialde hau 100.000 emakumeko 12,7 erailketako datura iritsi zen, OME-k epidemikotzat jotzen duen 100.000 pertsonako 10

<sup>4</sup> Emakumeak Indarkeriarik Gabeko Bizitza eskuratzeko Mexikoko Lege Orokorreko (2007) 21. artikulua eta Emakumeak Indarkeriarik Gabeko Bizitza Eskuratzeko El Salvadorreko Lege Berezi Integraleko (2010) 9.b artikulua.



tasa gairitu zuelarik. Guatemala, urte hartan bertan tasa epidemiko horretatik hurbil egon zen, izan ere 100.000 emakumeko 9ko tasara iritsi zen.<sup>5</sup>

Hemisferioaren Lehenengo Txostenean (2008), Belém do Pará Hitzarmenaren Inplementazioaren Jarraipen Mekanismoaren Adituen Batzordeak, femizidio krimenaren ezaugarri berruzko adostasun falta argi utzi zuen, krimen hau saihestu eta zigortzeko politika penal baten ildo batzuk proposatu zituen eta Femizidioari buruzko Adierazpena hartu zuen.

Hemisferioaren Lehenengo Txostenaren arabera, Adituen Batzordeak Estatu talde batek femizidio indarkeriaren lege integralen bitartez landu duela behatzen du. Kasu hauen artetik, soilik Guatemalan dute femizidioa delitutzat jotzen duen lege berezi bat<sup>6</sup> eta honi aurre egiteko politika publiko baten oinarriak dauzka.<sup>7</sup>

El Salvadorrek "indarkeria feminizida" emakumeentzako indarkeriarik gabeko bizitza lortzeko lege integralean indarkeria mota gisa definitzen du.<sup>8</sup> Baina urrats bat gehiago ematen du, ez soilik femizidioa kriminalizatuz<sup>9</sup>, baizik eta suizidio feminizida ere bai.<sup>10</sup>

5 Carcedo, Ana. *Ez dugu ahazten ezta onartzen ere: Femizidioa Erdialdeko Amerikan 2000-2006*. San Jose: CEFEMINA, 2010, 35. orr.

6 Femizidioa eta Emakumearen kontrako beste Indarkeria Moten aurkako Guatemalako Legea. 22-2008 Dekretua, 2008ko maiatzaren 2a.

6. artikulua: Femizidioa

Femizidio delitua burutzen du emakume eta gizonen arteko harreman ezberdinen testuinguruan emakume bati, emakume izateagatik, heriotza eragiten dionak; horretarako hauetako edozein egoera baliatuz:

Arrakastarik gabe biktimarekin bikote edo intimitate harreman bat izaten edo berreskuratzeko saiatu izana.

Ekintza burutzen den garaian edo aurretik biktimarekin familia-harremanak, senar-emazte harremanak, bizikidetzak-harremanak, intimitate edo ezkongai-harremanak, adiskidetasun-harremanak edo lan-harremanak mantentzea edo mantendu izana.

Biktimaren kontra behin eta berriz errepikatutako indarkeriaren ondorio izatea.

Edozein motatako armak erabiliz edo erabili gabe burututako talde-erritu baten ondorio izatea.

Sen sexualak asetzeko biktimaren gorputza gutxietsiz, edo sexu-organoen mozketak ekintzak-ablazioa- burutuz edo bestelako edozein mozketak mota burutuz. Misoginia dela eta.

Gertakaria biktimaren seme-alaben aurrean burutzen denean.

Kode Penalaren 132. artikuluan aipatzen diren edozein baldintza aldi berean gertatzen badira.

Delitu honen erantzuleak hogeita bost eta berrogeita hamar urte bitarteko kartzela zigorra bete beharko du, eta ezin izango zaio inolako zigorraren murrizketarik onartu, arrazoiak edozein delarik ere. Delitu hau burutu izanagatik prozesatutako pertsonak ezin izango dute inolako ordezkorik neurritzeko.

7 Ibid, VI kapitulua, *Estatuaren Betebeharrak*.

8 Emakumeak Indarkeriarik Gabeko Bizitza Eskuratzeko El Salvadorreko Lege Berezia. 2010Eko azaroaren 25eko 520. dekretua.

9. artikulua: Indarkeria motak

Lege honen ondorioetarako, indarkeria motatzat jotzen dira:

[...]  
b) Indarkeria feminizida: emakumeen kontrako indarkeriaren muturreko forma da, bere giza eskubideen urratetaren ondorio, alor publiko zein pribatuan, gizartearen edo Estatuaren zigorgabetasunera daramaten jokoera misoginoen multzoak osatuta. Hau feminizidioan buka daiteke, edota emakumeen indarkeriazko beste heriotza mota batzuetan.

9 Ibid, II Izenburua, *Delituak eta Zigorrak*.

45. artikulua: Feminizidioa

Emakume izateagatik gorroto edo gutxiespen sentimenduak bitarteko direla emakume bati heriotza eragiten dion pertsonak, hogeita eta hogeita hamabost urte bitarteko kartzela zigorra jasoko du.

Emakume izaeraren gorroto edo gutxiespen hartzen da hauetako edozein baldintza betetzen denean:

Erailketaren aurretik erasotzaileak emakumearen kontra burututako indarkeria gertakariaren bat egon izana, biktimak gertakari hori salatzen duen ala ez kontuan hartu gabe.

Erasotzailea biktimaren edozein arrisku eta ahulezia fisiko edo psikologikoko egoeraz baliatu izana.

Erasotzailea generoan oinarritutako harreman desberdinek ematen dioten nagusitasunaz baliatu izana.

Emakumearen erailketa baino lehen erasotzaileak biktimaren askatasun sexualaren kontrako delitutzat jotzen den edozein jokamolde burutu izana.

Sexu-organoen mozketaren ondoriozko heriotza izatea.

46. artikulua: Larriagotutako feminizidioa

Feminizidio delitua hogeita hamar eta berrogeita hamar urte bitarteko kartzela zigorrarekin zigortuko da, ondorengo kasuetan:

Funtzionario, langile publiko, udal-langile, agintari publiko edo agintaritzako eragile batek burutzen bada.

Bi pertsonak edo gehiagok burutuko balute.

Biktimaren edozein senideren aurrean burutuko balitz.

Biktimak hamazortzi urte baino gutxiago dituztenean edo adin nagusikoa denean, minusbaliotasun fisiko edo mentalarekin.

Erasotzailea konfiantza-harreman, adiskidetasun, hezkuntza-harreman edo lan-harremanek ematen dioten nagusitasuna dela eta gailenduko balitz.

10 Ibid, II Izenburua, *Delituak eta Zigorrak*

48. artikulua: lagundutako edo eragindako suizidio feminizida.

Emakume bati bere buruaz beste egiteko laguntza eman edo hori burutzera bultzatzen duen pertsona bost eta zazpi urte bitarteko kartzela zigorrarekin zigortua izango da, ondorengo edozein baldintza baliatzen bada:

Aurrean dugun legean edo beste edozein legetan bildutako edozein indarkeria modu edo mota gertatu bada aurretik.

Salatua biktimaren edozein arrisku egoeraz edo baldintza fisiko edo psikikoz probestu izana, honen kontra lege honetan edo beste edozein legetan bildutako edozein erako indarkeria burutu izanagatik

Mexikok ere “indarkeria feminizida”<sup>11</sup> definitzen du bere arauan, eta Estatu federala denez gero, federazioa osatzen duten estatuetan tipifikatu dadin prozesu bat hasi du.<sup>12</sup> Era berean, genero alerta bezalako ekintza jakin batzuk zehazten ditu, hauek zonalde jakin batean, izan norbanakoek zein komunitateak berak burututako indarkeria feminizidari aurre egin eta erro-tik kentzeko gobernu-ekintzen multzoa direlarik.<sup>13</sup>

Beste alde batetik, Costa Ricak senar-emazteen artean edo aitortuta dauden edo ez dau-den izatezko bikoteen artean jazotako femizidioa zigortzen du, baina ez du ezer esaten komunitatean ematen diren femizidioen inguruan ezta Estatuak burutzen dituen femizidioen inguruan ere.<sup>14</sup>

Kasuen beste kopuru garrantzitsu batean, Kode Penalek feminizidioa erailketaren larrigarri gisa zigortzen dute. Adibidez, Kolonbiak erailketaren larrigarri gisa barneratzen du, hau emakume baten kontra burutzen denean “emakume izateagatik”.<sup>15</sup>

Brasilen, larrigarria suposatzen du “etxeko harremani, bizikidetzari edo abegi onari nagusi-tzen zaienean, edo lege espezifikoarean arabera emakumearen kontrako indarkeriarekin bu-rutzen denean”.<sup>16</sup>

Venezuelan larrigarria suposatzen du “ezkontideak, ezkontide ohiak, ohaideak, ohaide ohiak, biktimarekin ezkon-harremana, izatezko harremana edo elkarrekin bizita edo gabe afektibo-tasun harremana izan duenak” burutzen duenean.<sup>17</sup>

Estatu kopuru txikiago batek femizidioa parrizidio mota gisa arautzearen alde egin du, hau da, erasotzailearen ezkontide edo bizikidearen hilketa gisa. Txileko Kode Penalak

---

Fragileak, bera eta biktimaren artean lehenik existitzen ziren edo existitzen diren harremanek sortutako nagusitasunaz baliatzen bada.

11 Emakumeak Indarkeriarik Gabeko Bizitza Eskuratzeko Mexikoko Lege Orokorra, 2007ko otsailaren 1a. 21. artikulua: Indarkeria Feminizida Emakumeen kontrako genero indarkeriaren muturreko adierazpena, arlo publiko zein pribatuan euren giza eskubideen bortxaketaren ondorio. Gizar-tearen eta Estatuaren zigorgabetasuna berekin izan dezakeen portaera misoginoen multzoak osatzen du eta emakumeen erailketan edo bestelako indarkeriazko heriotzan izan dezake bukaera.

12 Adituen Batzordeak egindako galdeketeri Mexikoko Gobernuak emandako erantzunarekin bat eginez, 2010eko uztaila arte, 18 Estatuk eta Barruti Federalak jadanik sartua zuten euren legeetan “indarkeria feminizida”.

13 Emakumeek Indarkeriarik Gabeko Bizitza Eskuratzeko Mexikoko Lege Orokorreko 22. artikulua.

14 Emakumeen kontrako Indarkeriaren Zigorrei buruzko Costa Ricako 8589 Legea, 2007ko apirilaren 25a. 21. artikulua: Feminizidioa Hogei eta hogeita hamabost urte bitarteko kartzela zigorra ezarriko zaio senar-emazteak izanik, izatezko lotura aitortua izan ala ez, emakumea hiltzen duenari.

15 Kolonbiako Kode Penala, 2000ko uztailaren 24ko 599 Legea.

103. artikulua: Erailketa (homizidioa)

Beste norbait hiltzen duen pertsonak berrehun eta zortzi (208) eta laurehun eta berrogeita hamar (450) hilabete bitarteko kartzela zigorra jasoko du.

104. artikulua: Larriagotzen duten egoerak

Kartzela zigorra laurehun (400) eta seiehun (600) hilabete bitartekoa izango da, aurreko artikuluan jasotako jokabidea baldintza hauetan betetzen bada: 1. Ezkontide edo kide harreman iraunkorretan; familiako aita eta familiako ama, nahiz eta etxebizitza berean ez bizi, hauen aurrekoetan edo ondorengotetan eta adopziozko seme-alabetan; eta modu iraunkorrean etxeko batasunean aurkitzen diren gainontzeko pertsonetan.

[...]

11. Emakume baten aurka, emakume izateagatik burutuko balitz.

16 Emakumearen kontra etxeko indarkeria eta familia indarkeria saihesteko mekanismoak sortzen dituen Brasilgo Kode Penala, 1940ko abenduren 7ko 2848 Lege Dekretua; 11340 Legeak eraldatua. 2006ko abuztuaren 7ko Maria da Penha Legea.

61. artikulua: Larriagotzen duten egoerak

Zigor bat beti larriagotzen duten egoerak dira; baldin eta krimen gisa kalifikatuak ez badira, edo krimena osatzen ez badute:

[...]

II. Eragileak krimena burutu zuenean:

[...]

f) Nagusitasun gehiegikeriarekin edo etxeko harremanez, bizikidetzaz edo abegi onaz baliatuta edo lege bereziak dioenaren arabera (ldazkaritzaren itzulpena) emakumearen kontrako indarkeria erabiliz.

17 Emakumeek Indarkeriarik Gabeko Bizitza Eskuratzeko Venezuelako Lege Organikoa, 2007ko martxoaren 16koa.

65. artikulua, paragrafo bakarra

Kode Penalean tipifikatutako nazioarteko erailketen kasuan, bere kalifikazio guztietan, lege honetan aurreikusitako delituen egilea senarra, senar oha, ohaidea, ohaide oha, biktimarekin ezkon-harremana izan zuen pertsona, izatezko bikotea edo afektibotasun harremana izan duen pertsona -elkarbizitzarekin edo gabe- denean, ezartzen den kartzela zigorra hogeita zortzi eta hogeita hamar urte bitartekoa izango da.

bereziki ezartzen du hilketa hori femizidio izendatuko dela “biktima egilearen ezkontide edo bizikidea” denean edo izan denean.<sup>18</sup>

Bere aldetik, Peruko Kode Penalak feminizidiotzat joko du emakumearen hilketa “emakumea egilearen ezkontide edo bizikidea denean edo izan denean, edo antzeko harreman batek lotu baditu”.<sup>19</sup>

Azkenik, Karibeko herrialdeetan figura arauetatik kanpo dagoenen, emakumeen hilketak erailketa, erailketa larrigarriekin eta asasinatze gisa epaitzen dira.

Bigarren txostenean, femizidioaren ikusgarritasun handiagoa nabarmentzen du eta bere prebentzio eta zigortzerako neurriak hartu beharra ere bai. Honetan oinarrituz, epaile eta fiskalek mota penal honen eta bere larrigarrien aplikazioaren jarraipena egiteko beharra azpimarratzen du, batez ere, eskualdeko feminizidioaren hainbat definizio legeletan agertzen diren genero arrazoen balorazioan. Era berean, jarraipen horrek biktimaren senideei justizia eskuratzea galarazi ahal dien oztopo judizialen ezabaketa bildu behar du, hala nola zigorraren murrizketa erasotzaileak “emozio biolento” baten eraginpean jardun duela argudiatzen duenean

Aldi berean, Batzordeak nabaritzen du Estatuak biktimaren bikotekideak burututako femizidioak zigortzen bildu dituztela ahaleginak, izan senarra, mutil-laguna edo ohai-dea; izan unekoak edo iraganekoak; hau da, femizidio intimotzat ezagutzen dena zigortzen.

Horrekin alde batera uzten dira esparru publikoan jazotako femizidioak, izan biktimaren ezagun batek burutua, komunitatean burutua edo Estatuak burutua. Ikuskatutako arauetako gutxitan topatzen da emakumeen hilketa edo femizidioaren larrigarri gisa egilea funtzionario publiko bat denean. Horregatik, Estatu Kideei gomendatzen zaie esparru publikoko femizidioen egileak zigortzeko arauak izatea.

## **Estatutik eratorritako emakumeen kontrako indarkeriari buruzko legedia**

Belém do Pará Hitzarmeneko 2c) artikuluan ezartzen da emakumeen kontrako indarkeriak barne hartzen duela “Estatuak edo bere eragileek burututako edo onartutako indarkeria, hau nonahi ematen delarik ere”. Horretxegatik, 7.1. artikuluan, Estatu Kideak *“emakumeen kontrako indarkeriari dagokion edozein ekintza edo jarduteri uko egitearekin bat dato; baita agintariek, bere funtzionarioek, pertsonalak eta eragile zein instituzioek betebeharrak honekin adostasunez jokatzen dutela zaintzearekin ere.”*

18 Txileko Kode Penal, 2010eko abenduaren 18ko 20480 Legearengatik eraldatua. 390. artikulua

Lotzen dituen harremana ezagututa, bere aita, ama, seme-alaba edo bere arbaso edo ondorengoren bat edo bere ezkontide edo bizilaguna hiltzen duen pertsona parrizida gisa zigortua izango da, kartzela zigor handienarekin, biziarteko kartzela zigorrarekin. Aurreko tartean deskribatutako delituaren biktima egilearen ezkontidea edo bizilaguna bada edo izan bada, delituak femizidio izena hartuko du.

19 Peruko Kode Penal, 2011ko abenduaren 27ko 29819 Legea dela eta eraldatua.

107. artikulua: Parrizidioa/Feminizidioa

Jakinda, bere arbasoa, ondorengoa -naturala edo adopziozkoa-, bere ezkontidea dena edo izan dena, bere bizilaguna edo antzeko harreman bat duen pertsona edo antzeko harreman bat izandako pertsona hiltzen duena, askatasuna kenduko dion zigorra jasoko du, hamabost urtetik gorakoa. Askatasuna kenduko dion zigorra ez da hogeita bost urtekoa baino txikiagoa izango, 108. artikuluko 1, 2, 3 eta 4 puntuetan agertzen diren ekintza larriagotu egiten duten egoeraren bat ematen bada.

Delituaren biktima egilearen ezkontide edo bizilaguna bada edo izan bada, edo antzeko harreman bat izan badu egilearekin, delituak feminizidio izena haratuko du.

Estatuak edo bere eragileek burututako emakumeen kontrako indarkeriaren zigorrari dagokionean, Adituen Batzordeak Estatu kopuru txiki batek zigor motaren bat daukala ikusi du, Kode Penalean adierazia nagusiki; izan banandutako zigor gisa edo erasotzailea funtzionario publikoa izatea delituaren larrigarri gisa zigortuta. Konstituzio eta emakumeen kontrako indarkeriari buruzko lege integral batzuek Estatutik burututako indarkeria jasotzen dute; edo "indarkeria instituzionalaren" figuraren partetzat jotzen dute.<sup>20</sup>

Estatu kopuru garrantzitsu batek ez dauka gai honi dagokion antolaketa espezifikorik; hala ere, batzuek azpimarratzen dute, hutsune hori izanagatik ere, Estatutik eratorritako emakumeen kontrako indarkeria kasuak Kode Penalaren arabera epaituak izan daitezkeela; izan ere, honek ez du egileen artean bereizketarik egiten.

Adituen Batzordearen arreta deitzen du neurri hauek, nagusiki, funtzionario publikoetan jartzea arreta; soilik neurri gutxi batzuek indar armatu edota poliziaak aipatzen dituztenean. Aztertutako erantzunetan ez da aipatzen formalki eragile estatalak ez diren arren, bere eraginpean, bere onarpenarekin edo bere baimenarekin jarduten dutenen egoera.

Gatazka armatuaren barruan ematen den sexu indarkeriari dagokion zigorrari dagokionez, Adituen Batzordeak kezka antzematen du soilik Kolonbiak eta Txilek dituztela gairi buruzko arau espezifikoak. Era berean, Estatu gehienek sexu indarkeria guda-krimen gisa edo gizateriaren aurkako krimen gisa zigortu ez dutela nabari du. Honek, krimen hauek gatazka armatua dagoenean soilik ez (gatazka armaturen barruan ematen diren sexu indarkeria eta guda krimenen kasua izango litzatekeena), gatazka hau ez dagoenean ere, herritarren kontrako patroiz sistematikoa edo orokortua frogatzen denean (gizateriaren aurkako krimenen kasua) krimen hauek kondenatzea ahalbidetuko luke. Adituen Batzordeak interes handiz antzeman zuen Txilen, sexu indarkeria, genozidiora daraman ekintza gisa ere biltzen dela.

Eskualdean ematen diren sexu indarkeria kasuen ugaritzeak, gatazka armatuetan eta giza eskubideen bortxaketa masiboetan berau guda arma gisa eta emakumeen gorputzak eta bizitzak menderatzeko bitarteko gisa erabiltzen dela erakusten du. Bere ezaugarriak eta tes-tuinguru hauetan duen eragina dokumentatu zituzten *Egiaren Komisioa*, *Giza Eskubideen Amerika barruko Sistema* eta *Epaitegi Nazionalak* bezalako trantsiziozko justiziaren mekanismoen bitartez. Sexu indarkeriak modu zorrotzagoan eragiten die behartuta lekualdatutako emakumei; izan ere emakume hauek bere beharren arabera babesa behar dute, genero ikuspegiarekin behartutako lekualdaketez suposatzen dituzten arriskuak kontuan hartuta.<sup>21</sup>

Horregatik, Batzordeak ezinbestekotzat jotzen du aipatutako indarkeria delitu autonomo gisa zigortzeko xedapenak sartzeari, Nazioarteko Gorte Penalak (1998) sortutako Erromako Estatutuak erabakitzen duen moduan. Horrek prebentzio neurri bat osatzen du, etorkizunean errepikatzea ekiditeko asmoz.

Adituen Batzordeak arreta deitu zuen Estatu talde batek Erromako Estatutuaren berrespena lortu zuelako, indarkeria sexuala tortura, gerra krimen eta gizateriaren krimen gisa

---

20 Gaur egun indarrean dauden indarkeriari buruzko lege integralki, indarkeria instituzionaltzat jotzen dute zerbitzari publiko batek emakumei bere eskubideez edo funtsezko askatasunaz gozatzea oztopatzeko edota galarazteko edo diskriminazio helburuarekin burutzen duena; baita emakumei legean bildutako indarkeria motak saihesteko, artatzeko, ikertzeko, zigortzeko eta ezabatzeko helburua duten politika publikoez gozatzea galarazteko xedez burutzen duena, edo berau galarazten duena.

21 Trantsiziozko justizia mekanismoen bidez egindako kasu hauen dokumentazioa, Hemisferioko Txostenaren arabera ikus daiteke 52, 53, 54,55 eta 56 oharretan.

zigortzeko xedapenak barneratuta Estatutua bete zutela defendatuz. Batzordeak uste du Hitzarmen hori berrestea edo horri batzeak delitu hauek saihestea eta zigortzea baimenduko duten neurriak hartzeko Estatuaren borondate politikoa erakusten duela. Haa-tik, Erromako Estatutuak gerra krimenez, gizateriaren kontrako krimenez edo torturaztat zein jarrera hartu behar diren nabarmentzen du; baina ez ditu zigor motak, kartzela zigorrak, larrigarriak edo aringarriak zehazten eta beraz, ezin daiteke zuzenean ezarri. Horregatik, hitzarmen honek figura horiek legegintza penal nazionalaren arabera garatuko dituzten arau osagarriez lagunduta joan behar du eta; jadanik indarrean egotekotan, Erromako Estatutuetan adierazitako estandarrekin bateratzea.

Era berean, nahiz eta galdetegian parte hartu ez izan, herrialdeko txosten batzuetan argi gelditzen da emakume, ume eta gazteen kontrako sexu indarkeriaren ugaritzea natura-hondamendietan zehar. Giza Eskubideen Amerika barruko Batzordeak, berriki, aipatutako indarkeriaren prebentzio eta zigorrerako kautelazko neurriak ezarri zituen Haitin. Adituen Batzordeak Estatuari gogorarazten die natura-hondamendi bat bezalako testuinguruetan areagotu egiten dela aurretik ere existitzen zen emakume eta umeen kontrako indarkeria. Hori dela eta, horrelakoen aurrean Estatuak eman beharreko erantzunak kontuan hartu behar du emakume eta umeen babesa, eta haien kontrako indarkeria mota guztiak saihesteko eta zigortzeko neurriak hartu behar ditu.

## Europa/ Espainia

---

Azken urteetan zuzenbide espainolean aurrerapausoak eman dira genero indarkeriaren kontrako borroka arloko legegintzan. Hala nola, Herritarren Segurtasun, Etxeko Indarkeria eta Atzerritarren Gizarteratze arloetan Neurri Zehatzen irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoa; Kode Penalaren azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa eraldatzetik eratorritako azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoa; edo Etxeko Indarkeriaren Biktimen Babes Agindua arautzen duen uztailaren 31ko 27/2003 Legea. Hauetaz gain, hainbat Autonomia-Erkidegok, euren eskumenen eremuaren arabera onartzen dituzten legeak ere badaude. Lege hauek guztiek esparru desberdinetan eragina izan dute bere araudien bidez: zibilean, penalean, gizarte-esparruetan edo hezkuntza esparruetan.

Genero Indarkeriaren kontrako Babes Osorako Neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa prebentzio-, heziketa-, gizarte-, laguntza- eta ondorengo arreta-alderdiak baitan hartzen ditu, baita normalean erasoen sorburu diren familia esparruan edo bizikidetzan esparruan eragiten duen araudi zibila ere, edo Administrazio Publikoetako ordezkari printzipioa ere bai.

Era berean, Lege honek arautzen dituen indarkeria adierazpen guztiek jaso beharreko zigor erantzunari erabakitasunez heltzen zaio. Legeak genero indarkeria modu integralean eta diziplina aniztetik bideratzen du; sozializazio eta heziketa prozesutik hasita.

Berdintasunaren lorpena, giza duintasunarekiko errespetua eta pertsonen askatasuna maila guztietako sozializazioan lehentasunezko helburua izan behar dira.

Emakumearen kontrako indarkeria saihestu eta errotik ezabatzeko Legeak, prozedura zuluak eta uztailaren 31ko 27/2003 Legeak ezarritako sumarioa bezalakoak ahalbidetuko dituzten prozesu-neurriak biltzen dituen legea izan behar du. Baina gainera, alor zibil eta penalean, emakumeak eta haien seme-alabak babesteko neurriak eta larrialdi izaerarekin burutuak izateko kautelazko neurriak uztartu behar ditu.

1. artikulua *Legearen Helburua* zehazten du:

1. *Aurrean dugun Legeak diskriminazioaren, ezberdintasun egoeraren eta gizonezkoek emakumeen gainean duten botere harremanen adierazpena den indarkeriaren aurka jardutea du helburu. Indarkeria hau emakumeek jasaten dute, haien ezkontide diren edo izan diren edo antzeko afektibotasun harreman batekin lotuta dauden edo egon diren pertsonengandik.*
2. *Lege honen arabera indarkeria hau saihestu, zigortu eta errotik kentzea eta biktimei laguntzea helburu duten babes integralerako neurriak zehazten dira.*
3. *Aurrean dugun Legeak aipatzen duen genero indarkeriak indarkeria fisiko eta psikologiko guztiak biltzen ditu, sexu askatasunaren kontrako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo debeku bidegabeak barne.*

Bere IV izenburuan Legeak izaera penaleko arauak sartzen ditu. Hauen bitartez lesio mota larriagoen barruan, lesioa erasotzailearen emaztearen kontra edo emazte izandakoaren kontra edo berarekin harreman bat duen edo izan duen emakumearen kontra egiten denean, zigor penala handituko duen zehaztasun bat gehitu nahi du. Aurretik aipatutako emakumeen kontra jazotzen diren edozein motatako derrigortze arin eta mehatxu arinak ere delitu gisa zigortuak izango dira.

2. artikuluan *Printzipio Gidariekin* Legeak, besteren artean, hurrengo helburuak lortzeko bideratuta dauden neurrien multzo bat eratzten duela ezartzen dute:

- f) *Babes instituzionaleko sistema oso bat ezartzea. Estatuko Administrazio Orokorrak, Emakumearen kontrako Indarkeriaren aurkako Gobernuko Ordezkaritza Bereziaren bitartez, Emakumearen gaineko Indarkeriaren Behatoki Estatalarekin elkarlanean, aurrean dugun Legean jasotzen den indarkeriaren biktimei babesa eskaintzera zuzendutako politika publikoen sorrera bultzatzea.*
- g) *Indarrean den alor penal edo zigor-alor eta alor prozesalak indartu, genero indarkeriaren biktimei, instantzia jurisdikzionaletatik, erabateko babesa bermatzeko asmoz.*
- h) *Botere publiko desberdinen baliabide eta tresna mota guztiak koordinatu, genero indarkeriaren gertakariak saihesten direla bermatzeko, eta dagokion kasuan, errudunei zigor egokia ezartzen zaiela bermatzeko.*

# AUZITEGIARI AURKEZTUTAKO KASUEN LABURPEN-FITXAK

## 1. lekukotza

---

**LEKUKOTASUNA EMATEN DUEN EMAKUMEA:** Ines Arana (fikziozko izena)

**INFORMAZIOA BILTZEN DUEN ERAKUNDEA:** Plazandreak

**LEKUA:** Donostia, Gipuzkoa, Euskal Herria

Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integrala deitutakoak gizonezkoek bere bikotekide diren edo izan diren emakumeengan burututako indarkeria eta emakumeek edo bestelako senideek gizonezkoengan edo beste senideengan burutu dezaketena era desberdinetan zigortzen du. Genero indarkeria edo indarkeria matxista modu berezian, zigor larriagoarekin, eteteko aski garrantzitsua dela ulertzen du.

Haatik, auzitegien praktikan, salbuespen batzuetan izan ezik, Asturiaseko Audientzia Probintzialeko (3. sekzioa) 2007ko ekainaren 11ko Sententzia kasu -zeinetan emakumea indarkeriaren biktima izanda bere burua defendatzeko jardun zuela uste izan zen-; emakume baten aurkako eraso bat eta honen aldetik defentsa fisikoa daudela argudiatzen da, bien artean onartutako liskar bat bezalako zerbait. Horrela, erasotzailea eta erasotua kondenatuak izaten dira; lehenengoa Kode Penalaren 153. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, eta bigarrena artikuluko 2. paragrafoaren arabera. Gipuzkoako Fiskaltzak jarraitzen duenildoaren arabera, genero indarkeriaren biktimek erasotzaileari lesio bat eragiten diotenean, nahiz eta arina izan, defentsa ez da guztiz burutuko eta biktimak auzipetuak eta kondenatuak izango dira.

Benetako arazoa Indarkeriaren Legearen hutsaltzea da, izan ere, era honetan ezartzen bada, alde batetik biktimak babesgabe uzten ditu, eta bestetik bitan bihurtzen du biktima. Eragina, hain zuzen ere, Indarkeriaren Legeak babestu beharko lukeen biktimaren aurka jotzen duela da. Egiten ari den Lege Integralaren jurisprudentziaren interpretazioaren arabera, biktima soilik izango da babestua erasotzailearen aurrean jarrera guztiz pasiboan agertzen duenean.

## Zer gertatu zen? (Gertakariak)

Inesek urte eta erdi zeraman bere bikotekidearekin bizitzen. Lehendabiziko urtean zehar harremana ona izan zen; baina aurrerago, bere zereginez besterik ez ziren kezkatzen eta jada ez zegoen bikote-harremanik. Testigantza honen aztergai diren gertakariak jazo baino lau hilabete lehenago harremanak okerrera egin zuen gizona geroz eta hotzago azalduz, kontrolatzaileago. Jadanik ez zeukaten intimitate sexualik. Tarteke, gizonak ez zion kalera ateratzen uzten altxatzea galaraziz edo ate aurrean jarriz ateratzen ez uzteko.

Ubeldurak izatera iritsi zen, baina ez zen inoiz medikuarenera joan tira bira baten ondorioa zirelako eta ez zeudelako ageriko lekuetan; "ninfomana eta emagaldu" deituz iraindu egiten zuen; emakumeak proiekturen bat zuenean gizonak barre egiten zion eta balioa kentzen zion. Bere guraso eta adiskideengandik erabat aldendu zuen eta beste mutil batzuekin egotea debekatzen zion.

Salatutako gertakarien egunean eta lan egiten zuten taberna itxi ostean kopa bat hartzera joan ziren eta biak bertan egonda, mutila desagertu egin zen nora zioan esan gabe. Ezin izan zuen telefono bidez aurkitu, gero beste kopa bat hartzera joan zen eta geroago bere auzora, oinez. Etxera iristean gizona ez zegoen bertan eta oheratu egin zen. Hurrengo egunean era horretan nora joan zen galdetu zion, haserre zegoela esan zion eta bazihuala bere herrira.

Orduan gizonak altxatzea galarazi zion, baina borroka baten ostean libratzea lortu zuen. Egongelarantz abiatu zen eta gizonak jarraitu egin zuen helduz, astinduz eta sofaren kontra bultzatuz. Emakumeak sukaldarantz korrika egin zuen, gizonak jarraituta, heldu eta pare-taren kontra bultzatzen zuena. Emakumeak borroka egiten zuen gizonarengandik libratu ahal izateko. Sukaldean egonda, eta armairuen kontra bultzatu zuenean, armairu bat erori egin zen; gizonak hormaren kontra bultzatu zuen emakumea odola zeriolarik eta negarrez ari zelarik. Balkoira irten zen eta lurrean egonda, gizonaren ama atera egin zen (goiko pi-suan bizi zen) zer gertatzen zen galdezka; berak, negarrez, jaisteko eskatu zion. Ertzaintzari deitzen saiatu zen sukaldean zegoenean baina gizonak sakelakoa indarrez kendu zioen eta zoruaren kontra hautsi zuen; gizonaren sakelakoa hartu eta 112 zenbakira deitu zuen.

Azken 4 hilabeteetan borroka etengabeak izan dira eta armairuak apurtuta dituzte gizonak haien kontra bultzatzen duelako. Emakumeak ez zuen lehenago salatu maite duelako eta aldatuko zela pentsatzen zuelako. Emakumeak gizonari atzamarka eta koska egin bazion bere indarkeriaz babesteko izan zen.



## 2. lekukotza

---

**LEKUKOTASUNA EMATEN DUEN EMAKUMEA:** Maria (fikziozko izena)

**INFORMAZIOA BILTZEN DUEN ERAKUNDEA:** Sinisten duten Emakumeen Bizitzarako Korporazioa (*Corporación para la Vida Mujeres que Crean*)

**LEKUA:** Medellin, Antioquia, Kolonbia – Hegoaldeko Amerika

2002 eta 2003 urteetan Medellin auzoetako gerrilla edota hiri-milizien garaipen eta Segratasun Indar eta paramilitarren porrot militarrenengatik ezaugarritzen zen. Tiroketak hilketa selektibo eta bortxatutako desagertuengatik ordezkatuak izan ziren. Agintariak hirian homizidio gutxiago daudela ospatzen dute, haatik, bortxatutako desagertuen eta salatuz geroko mehatxuen hazkundeak azaltzen du izuaren eta gerraren bilakaeraren modalitate berria.

Auzoetako egoerak ere ez zuen hobera egin; urte horretako martxoan Nutibara Kazikea Blokeko komandante paramilitar batek esan zuen banda eta milizia desberdinetatik hautatutako 4.000 gizon zituztela, baita Medellingo 45 auzotan presentzia ere. Era berean, Poliziako komandante ohiak, Gallego jeneralak, aitortu zuen hain zuzen ere paramilitarrek hiriko talde armaturik berriena izanda, urte bat baino gutxiagoko epean komunitatean bere gerra estrategia errotzea lortu zutela.

2002 urterako, Medellingo Santo Domingo auzoan, Nutibara Kazikea Blokea jabe zen. Urte horretan bertan, kalean negozioren bat zutenei kobratzen hasi ziren, baita denda eta etxeei ere. Nutibara Kazikea Blokea 2001ean Kolonbian sortu zen antolakunde paramilitarra da, eta Medellinen Diego Fernando Murilloren, *Adolfo Paz* ezizenez, agindupean jardun zuen Kolonbiako Autodefentsa Batuetan.

Testigantza honen garrantzia baloratzen da, gertakarien tamainarengatik, hainbat gertakariaren kondentsazioagatik eta eragile berberak behin eta berriz burututako bortxaketen errepikapenagatik. Gertakari hau prototipotzat har daiteke herrialdeko talde armatuen -legal eta ilegal- "modus operandiari" dagokionez. Izan ere, etengabe emakumeen gorputza eta bizitza gerrako ondasun edo altxor gisa hartuak dira; eta era berean, bortxaketan ematen diren irainak larderia, tratu-txar, mehatxu eta lekualdatzeak bezalako beste-lako indarkeriaz lagundurik doaz.

Ezin aipatu gabe utzi gatazka armatuaren biktima diren emakumeen ugaritasuna; asko, indarkeria sexualaren, behartutako lekualdatzeen, bortxatutako desagertuen, bahiketaren, behartutako errekrutatzeen, harrapakinen, mehatxuen eta asasinatzeen biktimak.

### Zer gertatu zen? (Gertakariak)

"Ni Santo Domingo Jakintsua auzoan bizi nintzen, ez nuen arazorik inorekin. Talde armatuak sortzen hasi ziren; zurrumurruek ziren. Gero hormak margotzen hasi ziren AUC-ak zirela esanez, Nutibara Kazikea Blokea. Asteko kuota bat kobratzen hasi ziren eta ordaintzen ez bagenuen zorra pilatuz zihoala esaten zuten, eta era batera edo bestera kobratuko zigtela. Berandu iristen zen jendeari lapurtzen hasi ziren. Nik frijitu oliotsuak saltzen nituen (kaleko salmenta postu bat), haiek "erostera" joaten ziren eta esaten zidaten "aizu, hau galeren liburuan sartu". Jendeak erosteari utzi zion haiek han egotearen beldur zelako. Saltzeari utzi genion eta haiek zergatik galdetzen zuten, ea beldur nintzen. Ordaintzeari utzi nion ni nire dirua nekez ari nintzelako irabazten, gero haiei nire irabazien zati bat emateko; hori ez zen bidezkoa.

Nire semeetako bi, 16 eta 10 urtekoak, "gurdi" bihurtu zituzten. Egoera honen aurrean nire semeak auzotik ateratzea erabaki nuen; emakume batek lagundu zidan, komoda baten barruan atera zituen garraio batean; ahizpa batengana eraman genituen.

Haiek konturatu zirenean "Perruncho" ezizenez ezaguna zena nire etxera joan zen eta zer gertatu zen galdetu zidan eta ondorioak pairatu behar nituela esan zidan. Ni auzotik ezin mugitzeko agindua zegoen.

Abenduaren 16an, nire seme-alabak gabonsarien bederatziumen batera joan ziren senide batengana; auzora gauetz iristearren, lehengusina horren etxean geratu ziren goizalde-ara arte. Arratsaldeko 6:30 eta 7:30 bitartean, atea jo zuten, auzoko mutikoak zirela esanez. Nire seme-alabei zerbait gertatu zitzaizela pentsatu nuen eta atea ireki nuenean "Pinchon", "El Zarco", "Perruncho" eta "Popis" ezizenez ezagunak ziren lau gizon sartu ziren, likorea eskuan. Sartzen lehendabizikoa "Perruncho" izan zen eta arma bat jarri zidan kopetan. Nik atzera korrika eginez erantzun nuen; etxean ez zegoen gelarik, gortinekin bereizitako egongela handi bat baizik. Haiek hartu ninduten, ohean bota ninduten, oheari lotu eta bortxatu ninduten. "Pichonek" bortxatu ninduen, nik ikusi nuen, baina gainontzekoek ere; nik begiak ixten nituen, baina batzuetan irekitzen nituen eta laurak ikusten nituen. Haietako batek bortxatzen ninduen bakoitzean besteei esaten zien "egin zuk; zure txanda da, nik bukatu dut jada". Horrela gau osoa eman zuten ni bortxatzen, goizeko zazpiak arte. Horri harro jarri izanagatik gertatzen zitzaidalda esaten zidaten, nire seme-alabak, ez hiltzeko, auzotik atera izanagatik.

2003ko urtarrilean, gertakari hau errepikatu egin zen. Egun horretan "Perruncho" eta "El Zarco" berriro ere etxean sartu ziren eta batek armarekin apuntatzen zidan bitartean, besteak bortxatu egin ninduen berriro. Gero hiltzearekin mehatxatu ninduten. Nire lau seme-alabekin eta auzoko beste familia batzuekin lekuz aldatu nintzen. Fernandok, haietako batek, laguntza eman zigun; gau batean atera ginen, ezer gabe, eta bidean gidari bat topatu genuen autobus batean. Laguntzeko erregutu nion, hilko gintuztelako; hainbat erreguren ostean onartu egin zuen, Jaungoikoaren borondatea bete zedila esanez. Autobusera igo ginen eta balak garraioaren gainetik pasatzen sentitu genituen. Ateratzea eta hiriko erdigunera iristea lortu genuen. Erdigunean geundela, bakoitza ahal izan zuen lekura joan zen, ez genuen berriro kontakturik izan.

Santo Domingon nire etxea eta nire ondasun guztiak utzi nituen (...). Oroitzapenak nire gorputzean geratu ziren...

Medellingo Prokuradoretzan lekualdatzea deklaratu nuen 2008ko apirilaren 23an. Eta urte bereko uztailean erresoluzio bat eman zidaten, zeinetan Lekualdatutako Biztanleriaren Informazio Sistemari sartzeko ukatu zidaten, lekualdaketatik urtebete pasa ostean deklaratu izanagatik. Ez nuen lehenago deklaratu beldur nintzelako, izua sentitzen nuen, laztura, kezka, ikara soilik berriro ere hainbeste min egin ahal zidatela imajinatuta... Birjarpenera errekurtso bat jarri nuen Gizarte Ekintzarako Agentzia Presidentzialean, Antioquiako Lurralde Unitatean; horren emaitza, laguntza humanitarioa "Medellingo Prokuradoretzan indarkeria sexualaren deklarazioa gehitu behar duzu, bertan lekualdaketara soilik deklaratu baitzenuen" izan zen".

Gatazka armatuaren markoan emakumeen kontrako indarkeriak askotarikoak dira eta emakumeen gorputz eta bizitzetan askotariko minak sortzen ditu: beldurrak, isiltasuna, deserrotzea, gizarte-ehunaren suntsiketa, segregazioa, anonimotua (lekualdatutako ema-

kumeek, sarritan, bere jatorria ezkutatzeko ahalegina egiten dute esklusioaren eta estigmatizatzearen beldur), inhibizioa, errua, lotsa, mina, amorrua, lasaitasun eza, konfiantza eza, esperantza eza eta bakardadea. Indarkeria sexualaren kasuan, biktima emakumeengan inpaktu gisa azpimarra daiteke autonomiarik gabeko subjektibotasun bat, soberania aukerarena, xede den lehendabiziko autonomia: bere gorputzaren jabe izatea; izan ere, Maria bezalako emakume askok esaten dute ezabaezina den marka gisa geratu zaiela gorputzean, azalean, ariman “arimaren pitzadurak azaletik atera zitzaizkidan”.

### 3. lekukotza

---

**LEKUKOTASUNA EMATEN DUEN EMAKUMEA:** Beatriz Etxebarria. Oihana fikziozko izena erabilia Auzitegian.

**INFORMAZIOA BILTZEN DUEN ERAKUNDEA:** Egiari Zor

**LEKUA:** Bilbo, Bizkaia, Euskal Herria

#### Zer gertatu zen? (Gertakariak)

*Oihanak lehenengo pertsonan kontaktzen ditu bere atxiloketaren unea, Madrilerako bidaiak eta inkomunikazioko bost egunak.*

2011ko martxoaren 1ean, goizaldeko 4:00rak aldera atea suntsitzen dute. Iletik heltzen didate eta egongelara eramaten naute airean. Bularretakoarekin nago eta ez didate miaketan zehar arropa jartzen uzten. Egongelan indarrez menderatzen naute eta sofan bilurrak jartzen saiatzen dira. Haserretu egiten dira txiki ditudalako. Sofan eserita jarraitzen dudana bitartean "ikusiko duzu zelako bost egun pasako dituzun" esaten didate.

Trastelekuko miaketan pixka bat zorabiatzen naiz. Oso estu heltzen didate besotik, markak uzten dizkidate. Sokazko bilurrak jartzen dizkidate eta geroz eta gehiago estutzen dituzte.

Etxetik ateratzerakoak mehatxatu egiten naute: ez begiratzeko eta ez hitz egiteko nire bikotekidearekin. Autoa zegoen lekura eramaten naute eta miaketan zehar begiratzea galarazten didate. Bilboko auzitegi medikuarenera eramaten naute: ondo begiraten naute, bilurren markak dauzkat eskumuturretan, zainak handituta eta urraduraren bat; besoak gorrituta, heltzeko moduarengatik eta gogortuta.

Patrolean igotzen naute. Begiak ixtera behartzen naute eta haien eskuekin tapatzen dizkidate. Beste auto batekin topo egiteari buruz hitz egiten dutela entzuten dut. Gelditu egiten dira. Guardia Zibil bat, *Komisario* deitzen dutena, nire bila etortzen da eta autoz aldatzen gara. Oraingoa ez da Patrol bat, auto arrunt bat da sartzean antzematen dudana espazio eta altuerarengatik. *Komisarioa* belarrira oihuka hasten zait eta mehatxuka: "militarra naiz eta hiltzeko entrenatuta nago". Bi aukera ditudala esaten dit: hasieratik hitz egin, edo ez. Poltsa bat nola ateratzen duten nabaritzen dut eta eskuen gainean jartzen didate.

Madrilerako bidaiak zehar kolpeak eta kokotekoak ematen dizkidate, eta mehatxuak etengabeak dira. Autoa geldituko dutela esaten didate eta "biluztuko zaitut, elurretara bota eta goitik behera zabalduko zaitut". *Komisarioak* jaka kentzen du eta nire gorputzaren kontra igurzten hasten da. Bere ondoan dagoen beste polizia *Komisarioa* "baretzen" du, baina berak ere mehatxatu egiten nau. "Poltsa" egiten didate bitan Madrilerako bidean.

Polizia-etxean gela desberdinak zeuden: batean gainontzeko atxilotuen oihuak entzuten nituen eta beherago zegoen beste bat bazegoen, isolatua zegoela iruditzen zitzaidan, eta hor tratua oraindik txarragoa zen. Lehenengoari "gela gogorra" deituko diot eta besteari "oso gogorra".

Mehatxuek jarraitzen dute eta *Komisarioak* ziega batean sartzen nau eta zer egingo dudana ondo pentsatzeko esaten dit. Ziegatik ateratzen naute eta auzitegiko medikuarengana eramaten naute. Astearteko 20:30ak izango dira. Torturatua izaten ari naizela esaten diot. Ziegara eramaten naute berriro ere.

“Gela gogorrera” eramaten naute. Bertan gainontzeko atxilotuen oihuak entzuten nituen. Aulki batean esertzen naute eta eskuak bustitzen dizkirate, elektrodoak diruditen zerbaiten zarata entzuten dudan bitartean. Ziegan nengoenean ere zarata hori entzuten nuen. Hitz egin behar dudala esaten didate eta arropa kentzen hasten dira, erabat biluzik utzi arte. Biluzik egonda, ur hotza botatzen didate gainetik. Berriro ere poltsa jartzen didate, hirutan jarraian ere. “Bainuontzia” egitearekin mehatxatzen naute. Biluzik egonda, lau hankatan jartzen naute aulki baten antzeko zerbaiten gainean. Baselina ematen didate uzkian eta baginan eta objektu bat pixka bat sartzen didate. Biluzik jarraitzen dut eta manta batez biltzen naute eta kolpeak ematen dizkirate. Heldu egiten naute, astindu eta lurretik altxatzen naute.

Ziegaraino eramaten naute berriro ere, asteazkeneko goizera arte. Auzitegiko medikua bisitatzen dut berriro ere. Jasotzen ari naizen tratuari buruzko zerbait kontatzen diot eta bere jarrera txarra da.

Ziegara itzultzen naiz eta hor “atseden” pixka bat hartzen saiatzen naiz. Tarte bat pasatzen denean, *Komisarioa* etortzen da eta “gela oso gogorrera” eramaten nau. Han biluztu egiten nau berriro ere. Iletik tiratzen dit, kolpeak ematen dizkit buruan eta belarrira oihu egiten dit militarra dela eta hiltzeko entrenatuta dagoela eta “barrutik guztiz suntsituko zaitut, ezin izateko etarra txikirik izan”.

Ziegara eramaten naute berriro ere eta han egon eta gero, auzitegiko medikuarenera. Ez diot ezer kontatzen, azken bisitan kontatu nion torturen kontakizuna zalantzan jartzen zuenean bere jarrera zein izan zen ikusita.

Galdeketetan jende asko egoten zen beti. Behin zazpi ahots desberdin zenbatzera iritsi nintzen. Nire bikotekidearekin behin eta berriz mehatxatzen naute (eta bere ahotsa entzuten dut torturatua den bitartean). Nire neba atxilotzearekin ere mehatxatzen naute. Akordiorik egon ezean nire gurasoak atxilotzeaz gain nire amona kulerotan eraman eta bortxatuko zutela ere esaten zidaten.

Azkenurreko egunean *Komisarioak* berriro ere biluzten nau. Manta bat botatzen du lurrera, oihu egiten du eta bortxatuko nautela esaten didate, berriro ere. Bera arropa kentzen hasten dela iruditzen zait, gerrikoa nola kentzen duen entzuten dut. Orduan, *Garmendia* deitzen dutena bera lasaitzen saiatzen da, gelatik ateratzen du eta hitz egiten dutela entzuten dut. *Garmendia* berriro ere gelan sartzen da eta deklaratu dudala zin egiteko esaten dit.

Azken egunean sei galdeketa ere izan nituen. Bigarren deklarazio poliziala larunbatean egiten dut 5:40an. Ostean, ez naute berriro biluzten eta agresibitatea txikiagoa da; nire bikotekidea ikusi nahi ote nuen galdetzeraz ere iritsi ziren.

Mehatxuek ez zuten etenik izan Auzitegi Nazionalera heldu arte. Furgoian, *Komisarioak*, nire ondoan eserita zegoela, esan zidan epailearen aurrean deklarazioa berretsi behar nuela.

Inkomunikazio epe osoan zehar, medikuarenera joaten nintzenean izan ezik, karatula desberdinekin begiak estalita izan nituen. Baten bat latexezkoa zen eta hauts moduko bat zeukan; haiek esaten zuten begiak irekitzen banituen itsu geldituko nintzela. Nik nabaritzen nuen kentzen zidatenean (medikuarengana joateko) begietan azkura nuela tarte batez. *Komisarioarekin* nengoenean beste karatula bat jartzen zidaten, honek belusezkoa zirudien.

Inkomunikazio epean zehar batez ere hiru poliziarekin egon nintzen (*Komisarioa, Inspektorea* eta *Garmendia*, ez zena hain basatia), nahiz eta galdeketetan jende asko egon ohi zen beti gelan. Epailearen aurrean polizia deklarazioa ukatu egin nuen eta tortura sufritu izana salatu nuen.

Espainiar Auzitegi Nazionaleko Penaleko Gelako presidentek, Fernando Grande-Marlaskak, atxilotutako lauztat eskatutako "habeas corpus" eta tortura saihesteko protokoloaren aplikazio eskaerak ukatu egin zituen.

Auzitegi Nazionaleko sententzian, bozka partikular bidez, Ramon Saez Valcarcel magistratuak erabaki kondenatzailearen aurrean ezadostasuna adierazten du, kargurako frogak bakar gisa inkomunikatutako eta torturak jasandako atxilotuak epailearen aurrean egingako aitortpena erabili ezin dela ulertuta, bere aurreko adierazpena ukatu duenean, eta are gehiago tortura prebenitu edo saihesteko bermeak egon ez direnean.

2011ko martxoaren 15ean "Oihanak" Bilboko epaitegian salaketa bat jartzen du. 2011ko irailaren 28an prozedura artxibatua da. Artxibatzea errekurritu egiten da Auzitegi Konstituzionalean, zeinek ez duen babes errekurtsioa tramitera onartzen ez omen dagoelako oinarritzko eskubide baten urraketarik.

2011ko azaroaren 15ean salaketa Europako Giza Eskubideen Epaitegian jartzen da.

# SALAKETA IDAZKIA



## María Naredo Molero

Abokatua, ikertzailea eta hiritar segurtasun, genero indarkeria eta kriminalitatearen prebentzio gaietan aholkularia. Hiritar Segurtasunerako tokiko Koordinatzailea da, Berdintasun Agentea eta segurtasun, genero eta giza eskubideen arloetan aditua. Genero indarkeriaren aurreko erantzun instituzionalari buruzko hainbat ikerketa garatu ditu. Gaur egun Amnistia Internazionalarekin elkarlanean aritzen da emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako kanpainan laguntzaile aditu gisa. Amnistia Internazionalak Espainian emakumeen aurkako indarkeriari buruz egindako txosten garrantzitsuenen elaborazioa koordinatu du.

## I. SARRERA

---

Indarkeria Matxistaren ardatzean hurrengo kasuak izan dira aztertuak: Ines Arana, bere burua bere bikotekidearen erasoetatik babesteko indarkeria erabili eta Fiskaltzak akusatatu egin zuen eta 2013an ez ohiko tratatuaren egile gisa kondenatua izan da. Oihana<sup>1</sup>, 2011an Audientzia Nazionalak antolatutako sarekada polizial batean atxilotua; "lege antiterrorista" ezarri zioten eta inkomunikazio epean torturatua izan zen (tratatu txar larria eta sexu eraso). Gertakariak ikertu eta argitu gabe. Maria<sup>2</sup>, emakume kolonbiarra, talde paramilitar batek burututako xaxatze eta eraso sexisten biktima. Gertakariak salatu zituen, baina poliziaren diskriminaziozko tratua eta pasibotasunaren aurrean, talde paramilitarraren<sup>3</sup> aldetik eraso handiagoen beldur bere familiarekin lekualdatzera behartuta ikusi zuen bere burua.

Kontzientzia Auzitegi agurgarriari: behin dokumentu orokorrean modu zabalean deskribatzen diren kasuak ikertuta eta aztertuta, Fiskaltza honek Espainiar eta Koloniar Estatuaren aurkako salaketa aurkeztu du arau lotesle (nazioartekoak, herrialdekoak eta estatukoak) eta era guztietako indarkeria matxistaren<sup>4</sup> aurrean emakumeen giza eskubideen babeserako bestelako eredu eta gomendioen urraketa dela eta.

## II. ARAUTEGI LOTESLEA ETA AKUSAZIOAK OINARRI DITUEN GOMENDIOAK

---

Espainiar Estatuak zein Kolonbiarrak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala<sup>5</sup> sorburu duten itun internazionalak berretsi dituzte. Zehazki, Fiskaltza honek burututako Salaketa

---

1 Fikziozko izena

2 Fikziozko izena

3 Testuingururako informazio gisa Nagore Laffage Cassasola kasua (erasotua eta femizidioaren biktima 2008an) eta baita Atzerritarrentzako Harrera-Etxeetan (Zapadores, Valentzia, 2010 - Noura Kasua-, Capuchinos, Malaga, 2006) sexualki erasotutako emakume migratzaileen kasuak ere aztertu izan dira. Eta kasuak irudikatzen dituzten kezka arrazoiak egiaztatzen dituzten gizarte zibileko erakunde txostenak kontsultatu dira. Malagako Harrera-Etxeko kasua deskribatzeko, ikusi Amnistia Internazionalaren txostena- Espainiako atala (2009): *Emakume eta umeek biolentziarik gabe bizi ahal izateko eskubidea. Genero indarkeriaren beste biktimak: sexu bidezko eraso eta pertsonen salerosketa.*

4 Idazki honetan bereizi gabe erabiltzen dira indarkeria matxista, genero indarkeria eta emakumeen kontrako indarkeria kontzeptuak.

5 Gogorarazi behar da, Espainiar Estatuak oraindik ere ez duela langile migratzaileen eta euren familien giza eskubideen babeserako Nazioarteko Ituna berretsi. Batzar Nagusiak hartua 1990eko abenduaren 18ko 45/158 ebazpenean.

Idazkiaren formulazioak bi Estatuak berretsitako, eta beraz, guztiz lotesleak diren ondorengo nazioarteko tresnen baitan aztertutako kasuak ditu oinarri:

- *Eskubide Ekonomikoen, Gizarte eskubideen eta Kultura eskubideen Nazioarteko Ituna eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna.*
- *Emakumeen kontrako era guztietako diskriminazioen ezabatzeari buruzko Hitzarmena (CEDAW, ingeleseko siglak), halaber bere hautazko protokoloa.*
- *Arraza-diskriminazioaren era guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa, eta*
- *Torturaren eta bestelako tratu edo Zigor Anker, Krudel edo Umiliagarrien kontrako konbentzioa, halaber bere hautazko protokoloa.*<sup>6</sup>

Itun hauek Estatuak eta euren instituzio ezberdinak, autonomikoak edo departamentuak eta tokikoak barne, berauetan ezarritako eskubideak *errespetatzera*, eskubide hauen urratzea *saihestera* eta bere aitortpena *sustatzera* behartzen ditu. Horretarako, Estatuak instituzioek, legeria aproposa hartuz behartuta egoteaz gain, bere erabateko ezarpenera bermatu behar dute neurri eta politika desberdinak erabiliz eta hartutako neurrien eraginkortasuna ziurtatu behar dute jarraipen eta ebaluazio ekintzen bitartez.

Aipatutako baliabide arauemaileez gain, Nazio Batuetako Batzar Nagusiak emandako bi erabaki kontuan hartuak izan dira: Emakumearen Kontrako Biolentzia era guztiak Ezabatzeko Adierazpenak onesten duen 1993ko 48/104 Ebazpena, eta hutsegitea saihesteko eta emakumearen kontrako biolentzia ezabatzeko justizia penaleko neurriari buruzko 1998ko 52/86 Ebazpena.

Kolonbiako kasuan, Estatuaren arduraren, eskubide humanitarioari dagokion nazioarteko araudian ezarritakoan, baita Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak genero ikuspegitik egindako bake eta segurtasun arloko Ebazpenetan (1325, 1820, 1888 eta 1889 Ebazpenak) ere sostengatzen da.

Zonaldeko ikuspegitik, Ameriketako herrialdeak 90. hamarkadan sortu zituen araudi eta jurisprudentzia benetako aurrerapausoa izan ziren Estatuak emakumeen kontrako biolentzia era guztien aurrean duten arduraren berresteko. Emakumearen Kontrako Indarkeria Saihestu, Zigor eta Ezabatzeko Amerika arteko Hitzarmenak ("Belem do Pará" izenarekin ezaguna den Hitzarmena) eta Amerika arteko Gortearen jurisprudentziak kasu adierazgarri batzuetan, aurrerapauso garrantzitsua suposatzen dute zentzu honetan. Berrikiago, Europar Batasunak genero indarkeriaren aurka borrokatzeko politikak eratu beharra aitortu du<sup>7</sup>, eta, azken bi urteetan, Estatuak birformulatu behar duten garrantzia handiko araudi loteslea hartu du<sup>8</sup>. Gainera, giza eskubideen Europako beste tresna batzuetan adierazitako estandar eta betebeharrak handitu egin dira<sup>9</sup>. Azkenik, Tortura saihesteko Europar Batzordeko Torturaren Aurkako Europar Hitzarmenak egindako txostenak kontuan hartu dira.<sup>10</sup>

<sup>6</sup> Kolonbiar Estatuak ez du tresna hau berretsi, nahiz eta batzorde desberdinek horretarako estutu izan. Espainiar Estatuak berretsi egin zuen (2006ko ekainaren 22ko berreste tresna).

<sup>7</sup> Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko, Batasunaren marko politiko berriaren lehentasun eta ardatz orokorreari buruzko 2011ko apirilaren 5eko Europar Parlamentuaren Ebazpena.

<sup>8</sup> Pertsonen salerosketa eta umeen kontrako sexu gehiegikeriei buruzko zuzentarauetz gain (2011/36/UE zuzentzara eta 2011/93/UE zuzentzara), ezinbesteko arau bat berriki onartua izan da: Europar Parlamentu eta Batzordearen 2012ko urriaren 25eko 2012/29/UE zuzentzara. Honen arabera, delituen biktimen eskubide, laguntza eta babesari buruzko arauak ezartzen dira.

<sup>9</sup> Emakumeen kontrako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borroka eta prebentzioari buruzko 2011ko maiatzaren 11ko Europar Batzordearen Hitzarmena, gaur egun Gobernu Espainiak berretsitako prozesua.

<sup>10</sup> 10 1989ko uztailaren 5ean Espainiar Estatuak berretsia.





Herrialdeko esparruan, Konstituzio nazionalz gain, bi Estatuetak Kode Penaletan indarkeria fisiko, psikiko eta sexualeko delituen tipifikazioaz gain eta Auzitaratze Kriminaleko Legeez gain, emakumeen aurkako biolentzia saihestu eta honi aurre egiteko legedi zehatzen (Espainiar Estatuan Genero Indarkeriaren Aurkako Erabateko Babeserako Neurrien 1/2004 Lege Organikoa; eta Kolonbiar Estatuan *emakumeen kontrako biolentzia eta diskriminazio moduen sentsibilizazio, saiheste eta zigor arauak* zehatzen dituen 2008ko 1257 Legea) existentzia azpimarragarria da. Hurrengo atalak, espainiar legeriak gai honetan dituen hutsuneak alde batera utzi gabe, lege honek emakumeen aurkako biolentzia era ohikoenetakoa den adierazpenaren aurrean jakintza arloen arteko testuinguruan kokatutako erantzuna bermatzea izan zuen xede.<sup>11</sup> Arreta, babes eta justizia arloetako eskubideen katalogo zabala ere onartu zuen.

Gainera, aipatutako nazioarteko itunen betetzea ikuskatzen duten batzordeen gomendio orokorrak, eta zehatzago genero arrazoiengatik diskriminazioaren adierazpen eta ondorio den emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean estatuek duten ardurari buruzko *CE-DAW Batzordearen 19. gomendio orokorra*, kontuan izan dira. Bukatzeko, Nazio Batuen Kontalarien txostenak ere kontuan izan dira, baita emakumeen kontrako indarkeria eta tortura arloko bestelako nazioarteko mekanismoak ere.<sup>12</sup>

### **III. AKUSAZIOAREN ARRAZOI NAGUSIAK: BETEBEHARREN ETA GIZA ESKUBIDEEN MARKOKO FUNTSEZKO PRINTZIOEN URRAKETA**

Indarkeria matxistaren aurrean Espainiar eta Kolonbiar Estatuak ematen duten erantzuna ez dator bat nazioarteko tresnetan ezarritakoarekin lau alderdi orokorretan.

Estatu espainola ondorengoaz salatua da:

- a) Genero indarkeriari partzialtasunez heltzeaz, hau adierazteko beste era batzuei dagokienez oinarrizko hutsuneak utziz.
- b) "Diskriminazio eza" printzipioa ez betetzeaz, biktima multzo zehatzak babesik gabe utziz.

Bata eta bestea (Estatu espainola eta kolonbiarra) ondorengoaz salatuak dira:

- c) Aberriratzeko eskubidea ez bermatzeaz.
- d) "Eskubideak errealitate bihurtzea" delakoan, emakumeen giza eskubideei dagokienez haien nazioarteko ardurak ez betetzeaz; bereziki sektore polizial eta judizialeko profesionalen trebakuntza eta kontuak emateari dagokionez.

#### **a) Espainiar Estatuak modu partzian erantzuten du emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean**

Emakumeen aurkako biolentzia era guztiak ezabatzeko Nazio Batuen Itunak Estatuak es-tutzen ditu erantzuteko "emakumearentzako sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa on-

<sup>11</sup> Legeak gizonzkoen indarkeria bikote eta bikote ohien barruan ematen denean baino bildu ez zuela azpimarratzea garrantzitsua da. Familia barruan ematen diren gehiegikeria sexualak, lan esparruan ematen den sexu-jazarpena edo helburu sexual edo lanerako erabiltzeko helburuarekin egiten diren emakumeen salerosketaren gisakoak emakume eta umeen aurkako indarkeriaren eguneroko seinale dira.

<sup>12</sup> Tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker eta umiliagarri buruzko Torturaren prebentziorako Batzorde Europarra eta Nazio Batuen Kontalari Espezializatua.

torio izan dezaketen sexu-karaktere femeninoetan oinarritutako biolentzia ekintza guztien aurrean, baita ekintza hauekin lotutako mehatxu, bortxaketa edo askatasun-gabetzearen aurrean ere, arlo publikoan zein pribatuan”.<sup>13</sup> Estatuko eragile zein norbanakoek eragindako emakumeen kontrako biolentzia era desberdinen aurrean, genero arrazoiak direla eta ematen den diskriminazioan oinarritutako gertakari zatiezin gisa ulertua (“jarraia”), jarduteko garrantzia CEDAW-ren Batzordeak bere 19. gomendio orokorrean nabarmendua izan da<sup>14</sup>.

Aurrekoa urratuz, Espainiar Estatuak “genero indarkeria” soilik bikote barruan edo bikote-ohien harremanetan ematen den diskriminazioan oinarritzen den emakumeen kontrako biolentzia maskulinoarekin alderatu du. Genero indarkeriaren adierazpenetako bat, behin-behinekotasunez, tratu legegile autonomo baten xede izateari uko egin gabe, Estatu espainolari leporatu egiten zaio *1/2004 Legearen* gehiegizko ardazteak eragin garrantzitsua duelako testuinguraketa faltan eta geldotasunean harreman estuetatik at emandako femizidioen kasuan edo Estatuko eragile zein norbanakoen egindako sexu-biolentziaren kasuan. Estatu espainolean egindako emakume eta umeen erailketak “genero indarkeria” gisa jasotzen diren estatistika ofizialetan agertzen ez direlako arreta deitzen zaio, nahiz eta azterketa labur batek kasu hauek diskriminazio matxistaren fruitu direla testuingura zezakeen. Kasu batzuetan aurretik sexu-erasoak<sup>15</sup> izan dituzten femizidioez ari gara, beste kasu batzuetan krimena sexu-harreman<sup>16</sup> bat mantentzeko ezezkoaren aurrean ematen da. Erantzulea bikotekidea izan ezean, ikerketa genero ikuspeirik gabe geratzen da eta kasuak “gertakari” izaera hartzen du. Fiskaltza honek Espainiar Estatu gehiegikeria larri hauen aurrean genero ikuspeirik gabe jokatzegatik salatzen du, izan Gobernu espainoleko kideen partetik, izan epaitetza edo fiskaltza bezalako bestelako botere publikoen aldetik.

Moteltasuna nabarmena da biolentzia matxistaren “beste” adierazpen hauen aurrean Espainiar Estatuak legedia zehatza prestatu ez duela aintzat hartuta. Halaber, ez du genero ikuspegia eta behar adina baliabide dauzkan emakumeen kontrako biolentzia era guztiak bere baitan hartzen dituen egintza-planik burutu.

## **b) Espainiar Estatuak ez du “diskriminazio eza” printzipioa bermatzen**

Diskriminazioaren debekua Nazioarteko Zuzenbidearen Giza eskubideen oinarritzko printzipioetako bat da. Estatuak bere jurisdikziopean dagoen pertsona orori, bere egoera pertsonal eta soziala kontuan hartu gabe, oinarritzko eskubideen katalogo hau babestu behar diola esan nahi du. *1/2004 Legeak*<sup>17</sup> esandako printzipioa berresten duela gorabehera, gaur egun Estatu espainolean dirauten arau eta jarduteek emakume sektore jakin batzuen kontrako diskriminazio zuzena eta zeharkakoa suposatzen dute. Hauen artean, akaso, emakume migratzaileena da paradigmaticoena.

13 Emakumearen kontrako indarkeriaren ezabapenari buruzko Hitzarmena. Batzar Orokorraren 1993ko abenduaren 20ko 48/104 Ebazpena; NBE-aren dok.: 1994ko otsailaren 23ko A/RES/48/104; 1. Art.

14 Emakumearen kontrako Diskriminazioaren ezabapenerako Batzordeak hartutako 19. gomendio orokorra, 11. saioa, 1992. U.N. Doc. HRI/GEN/1/Rev. 1 at 84 (1994), 4. paragrafoa.

15 Marta Del Castillo kasua (Sevilla): 2009ko urtarrilaren 27an bere bikote kide ohiak bortxatu ostean eraildako 17 urteko neska gaztea. Gorpua desagerrarazi zuen lekua argitu gabe. Kasuari buruz, Sevillako Fiskal Nagusiak esan zuen “Legearen arabera, ez da genero indarkeria arazoa, izan ere, kasu bat Emakumearen Kontrako Indarkeria epaitegiaren eskumena izateko gizon eta emakume bat beharrezkoak izateaz gain, haien arteko harremanean nolabaiteko egonkortasuna ere egon behar du, eta hau ez zen kasua”.

16 Nagore Laffage kasua (2008ko uztailaren 7a, Nafarroa): Ezagun batek bortziki erasotu eta ondoren eraildako emakume gazte baten kasua. Nahiz eta delitua oinarrian biktimak sexu-harremanak ukatzeagatik erasotzaileak emakumea zigortu nahia egon, ez zen “genero indarkeriatzat” jo eta ez zen diskriminazio matxistako kasu gisa onartu. Bai herri-epaimahaiaik eta baita Auzitegi Gorenak gertakariak (bi aringarriekin) erailketatzat jo zituzten eta ez asasinatetzat salaketek eskatzen zuten bezala, nahiz eta erasotzaileak biktimak eraso fisikoen ostean zuen babesgabetasuna aprobetxatu izan heriotza eragiteko.

17 1/2004 Legearen 17. artikulua diskriminaziorik ez oinarria kontsaktzen du.



Emakume migratzaileei dagokienez, Estatu zeharkako diskriminazioan erortzeaz salatzeko da, topatzen dituzten zailtasun gehigarriak kontuan ez hartzeagatik eta eskubideei buruzko informazioa eskuratzeko neurri eraginkorrek ez hartzeagatik, salaketaren unean eta prozesuan zehar itzultzaileak eskaintzearena kasu<sup>18</sup>. Baina diskriminazio (zuzen) iturri nagusia legez kanpoko egoeran aurkitzen diren emakume migratzaileei eragiten diena da; giza eskubideak babesten dituzten mandatuei migrazio kontrolaren betekizunen gainetik lehentasuna ez emateagatik. Atzerriartasun Legeak indarkeria matxistaren biktimei batek salaketa bat ipintzerakoan kontratu polizia kanporaketa-espeditante baten irekierarekin bukatzeko ezartzen duen aukera<sup>19</sup> Nazioarteko Itunen kezka iturria izan da. 2011ko martxoan, Arrazagatik Diskriminazioaren Ezabatzea bultzatzeko Nazio Batuen Erakundeak "Atzerriartasun Legearen 31bis artikulua legez kanpoko egoeran aurkitzen diren emakume atzeritarrei Estatuaren eremutik kanporatuak izateko (...) beldurra sortu eta genero indarkeriaren kontrako salaketa jartzeko asmoa kentzeko aukera" dela eta kezka adierazi zuen.<sup>20</sup>

Salaketa honek, era berean, bi autonomi erkidego desberdinetan gertatutako bi antzeko kasu barneratzen ditu (polizia funtzionarioek egindako sexu gehiegikeria larrien biktimei eta lekukoek kanporaketa) 2006an (Capuchinos zentroa, Malaga)<sup>21</sup> eta 2011an (Zapadores zentroa, Valentzia)<sup>22</sup>. Aipatutako kasuetan Estatuaren moteltasunak justizia administrazioaren ardura eta arreta falta larria suposatzen du, Fiskaltzarena bereziki. Atzeritarrentzako Harrera-Zentroetan aurkitzen diren emakume atzeritarren sexu-erasoen salaketan aurrean Estatuak ez zuen justizia bermatzeko betebeharra bete; ikerketa zehatz baten bitartez, eta larritasun handiko gehiegikerien aurrean, funtsezko lekukoek kanporaketa agindu zuen. Fiskaltzaren jokoera hau, biktimei tratatu txar erantsia izateaz gain, ordaintza eskubidearekiko bateraezina da. Erantzuleei zigorra ezartzeko beharrezko frogak ahaldu zuen krimenen zigorgabetasunean lagunduz.

Espainiar eta Koloniar Estatuak ez dute biktimei ordaintza eskubidea bermatzen

CEDAW-a betetzen dela ikuskatzen duen Nazio Batuen Erakundeak, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei "salaketa eta ordaintza, kalte-ordainketa barne, prozedurak"<sup>23</sup> bermatzeko estutu ditu Estatuak. Nazioarteko Zuzenbidearen arabera<sup>24</sup> aberriratzeko eskubideak suposatzen du: **a)** ekonomikoki ebalagarriak diren kalteengatik **ordainketa**, **b)** lehengoratzeko eta errehabilitazioa, hau biktimei ahal den neurrian erasoaren aurreko egoerara itzultzean datza, bere errehabilitazio fisiko, psikiko eta soziala barne. **c)** **asebetezko**, honek bortxaketen etetea, gertakarien egiaztapena, egiaren zabalpen publikoa eta biktimearen duintasuna eta erreputazioa berrezarriko duten adierazpen ofizialak barnebiltzen ditu; eta **d)** **ez errepikatzearen bermeak**: Estatuak eraso errepikatuko ez dela

18 Ikusi Amnistia Internazionala- Atal espainola: *arriku gehiago eta babes gutxiago. Emakume migratzaileak Espainian genero indarkeriaren aurrean*, 2007ko otsailaren 25a.

19 Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta eskatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoa, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren erreformakoa.

20 ADEE-ren 2011ko martxoaren 10eko Espainiako 18.-20. aldizkako txostenaren inguruko azken oharra. NBE-aren dok.: CERD/C/ESP/CO/18-20

21 Capuchinos Zentroko kasuan nazioarteko deialdia luzatzera ere iritsi zen kanporatzea etetea (Amnistia Internazionala Warm Actions: 16/07/2006 eta 18/07/2006), hala ere, salatutako 10 emakumeetako 7 kanporatuak izan ziren.

22 Prentsa-oharra. Noura kidearekiko elkartzasuna adieraziz Atzeritarrentzako Harrera-Zentroen itxierarako kanpaina, 2010eko uztailaren 27a.

23 Emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzeko batzordeak egindako 19. gomendio orokorra, 11. saioa, 1992. NBE-aren dok.: HRI/GEN/1/Rev.1 at 84 (1994), 24. paragrafo

24 Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko bortxaketen eta giza eskubideen bortxaketa larrien biktimei helegiteak aurkezteko eta ordaintzak erdiesteko duten eskubideari buruzko printzipio eta arauak, <http://www2.ohchr.org/spanish/law/repaciones.htm>

ziurtatu behar du eta bizirik ateratako biktimei mehatxu edo errepresalien aurrean babes eraginkorra eman.

Genero indarkeriarekin zerikusia duten lege eta politika publikoei dagozkien aurrerapau-soak ez dira ordaintza eskubidera heldu. Giza eskubideen erakundeek deialdiak eginagatik ere, ordaintza eskubidea ez zen bereziki *1/2004 Legea* barneratua izan eta Espainiar Gobernuak ez du bultzatu eskubide hau gauzagarri egin dezakeen marko legegile egokia. Jasandako eraso Estatuko instituzio eta eragile baten arreta faltarekin zerikusia duten egoeren aurrean ere, ez dira biktimek edo euren familiek erraztasunez ordaintza jaso dezaten bideak ireki.<sup>25</sup> *Delitu bortitzak eta sexu-askatasunaren kontrakoak jasandako biktimenzako 35/1995 Laguntza Legea*<sup>26</sup> ez da tresna eraginkorra indarkeria matxista jasan duten biktimen ordaintza eta errehabilitaziorako ere. Eskatzen diren baldintzen zorroztasunak laguntza hauek eskuratu ahal izatea eragozten die biolentzia matxista, era desberdinetan, jasandako biktimen gehiengoari. 2009an Amnistia Internazionalak egin-dako txosten batek "genero indarkeriatik (sexu indarkeria eta salerosketa barne) bizirik ateratako biktimek jasotako tratua beste delitu mota batzuk jasandako biktimek jasotakoarekin, terrorismoaren biktimak kasu, alderatuta ordaintza justu eta egokia jasotze-ari dagokionean zeharo desberdina"<sup>27</sup> dela eta kezka adierazten zuen. Aipatutako *35/1995 Legea* eta *Terrorismoaren biktimekiko elkertasuna 32/1999 Legearen* konparaketa egin ostean erakundeak kezkatuta ondorioztatzen zuen Estatu espainolak modu desberdinean jokatzeko zuela, arreta txikiagoa eskainiz genero indarkeriaren biktimei. Behar bezalako neurririk hartu ez denez, egoera honek gaur egun ere bere horretan dirau.

Gatazka armatuaren testuinguruan, aipatutako giza eskubideen nazioarteko sistemaren arauetz gain, gatazka armatuetan ematen diren sexu-erasoen kasuan ordaintza jasotzeko eskubideari buruzko oinarritzko printzipio multzo bati jaramon egin behar zaio.<sup>28</sup> Printzipio multzo honen arabera "sexu-eraso eta beste edozein genero delitu jasandako biktimen kasuan, Estatuak krimen hauek **emakume eta umeengan, euren familia eta komunitatearengan dituzten dimentsioaniztun eta epe luzerako** ondorioak kontuan izan behar dituzte, ikuspegi espezializatu, osatu eta diziplina anitzekoen beharraz."<sup>29</sup>

2011an, Kolonbian, Kongresuak Biktimen eta Lurren Itzulpenen Legea onartu zuen, horrek ordaintza eskubidearen ikuspuntutik aurrerapausoa suposatu zuelarik. Alabaina, Amnistia Internazionalak berriki egindako txosten batean bildutako gabeziak dauzka legeak, nahiz eta gatazkaren milioika biktimek jasandako bidegabekeria batzuen konponketarako bidean lehendabiziko pausu garrantzitsua izan, beharrezkoa izango da modu era-

25 Sylvia Bassaniren kasua, epaitegiari hainbat idazkiren bitartez babesa eskatu ostean 2008ko apirilaren 10ean eraila, Amnistia Internazionalak kasu paradigmatico gisa dokumentatua izan zen. Nahiz eta bere erailketa eskatutako babesaren aurreko geldotasun judizialaren testuinguruan jazo izan, ez da horri buruzko inolako konturik eskatu eta aipatutako hilketaren ostean Botere Judizialaren Batzorde Orokorra hasitako informazio bik-tek ez zuten langileria judizialari zuzendutako inolako diziplinazko espedienteren irekieran ondorio izan. Ikusi Amnistia Internazional – Espainiako atala: *Errrealitate setatia, betetzeke dauden eskubideak. Genero indarkeriaren kontrako erabateko babeserako neurrien Legea egin zenetik hiru urte*. 2008ko uztaila. Angela Gonzalez Carreñoren kasua ere beste eredu bat da. Ordaintza eskubidearen aitortza ezaren ostean, genero indarkeriaren beste biktima bat; kasu honetan, bere erasotzaileak bere ataba hil zuen. Erantzun judiziala argia da, izan ere neskatila salba zezaketen babes neurriak ukatu zizkion epaileak. 2013ko irailan, egun bideratze fasean aurkitzen den banakako keza bat jarri zion CEDAW-ren Batzordeari.

26 *Indarkeriazko delituen eta sexu askatasunaren kontrako delituen biktimei laguntza*, abenduaren 11ko 35/1995 Legea (1995eko abenduaren 12ko 296. EAO -Estatuko Aldizkari Ofiziala- )

27 *Amnistia Internazionala – Espainiako atala (2009): Indarkeriarik gabeko bizia izateko emakume eta umeen eskubidea. Genero indarkeriaren beste biktimak: sexu indarkeria eta pertsonen salerosketa*, txostenean, erakundeak sarbiderako baldintzak, baremoak, kopuruak, behin-behineko laguntzak eskuratzeko aukerak, tratamenduen gastuetara iristea eta hainbat laguntza bateragarri egiteko aukera alderatzen ditu; eta arlo guztietan sexu askatasunaren aurkako delitu bortitzen biktimenganako bidegabekeria konparatiboa adierazten du, terrorismoaren biktimenzako laguntza legean ezarritakoari dagokionez.

28 Emakume eta umeek helegiteak aurkeztu eta ordaintzak erdiesteari buruzko Nairobiko Adierazpenak, 2007.

29 Nairobiko Adierazpenak, 3.E paragrafoa.

ginkorrean aplikatzen dela bermatzeko neurriak sortzea. Lege berriak bizirik ateratako biktimen bizitzetan benetako eragina izan dezan, agintariek biktimek eta euren familiek, eta berauek ordezkatzeko erakundeek, erabateko parte-hartzea izatea eta legea aplikatzeko mekanismoen garapenean galdetuak izatea bermatu behar dute.<sup>30</sup>

Beste lege batzuen garapena, Justizia eta Bakearen Legearena kasu, denbora mekanismo bat eransten du – 2010eko apirila arte- biktimek prozesu administratibo eta ez judicial baten ostean, Estatuarengandik banakako diru-ordaintza eskuratu ahal izateko. Mekanismo honen muga esanguratsuenetako bat ordaintzan Estatuak duen ardura ez aitortzea izan zen, baita biktima zehatzen bazterketa ere. Txostenen arabera, sexu indarkeriatik bizirik ateratako oso emakume gutxi jaso izan dute ordaintza bide honetatik. Nahiz eta Justizia eta Bakearen Legeak erabaki judizialetan oinarritutako ordaintza mekanismo bat barneratu, eskubide hau eskuratzeko prozesu judiziala bukatzeko baldintza bete behar izateak traba handia suposatzen du.<sup>31</sup>

Estatu espainol eta kolonbiarrak “eskubideak errealitate bihurtzeko” duten betebeharra ez dute betetzen

Nazioarteko erabakiak eta gai honetan eragile eskudunek egiten dituzten interpretazioak kontuan hartuz, baieztatu daiteke Estatuak duten “behar bezalako arretaz” jarduteko betebeharraren urraketa hiru gelditasun eratan izan daitekeela: a) legegintzaren arloan lanik ez egitea zigor, babes mekanismo eta ordaintzen bidez; b) legeak eraginkortasunez betearazteko mekanismorik ez garatzea; eta c) neurri horien eraginkortasuna ez ebaluatzea, nahi den emaitza lortzen dela ziurtatzeko.

Bi Estatuak (espainola eta kolonbiarra) emakumeen giza eskubideak babestera behartzen dituzten nazioarteko itun nagusiak berretsi dituzte eta, *1/2004 Legea* eta ordaintzaren esparruko lege kolonbiarretan egindako salbuespenekin, gai honetan legeak egin izanagatik ezaugarritzen dira. Hala ere, nabarmena da emakumeek aipatutako nazioarteko itun horietan eta estatu mailako legeetan bildutako eskubide garrantzitsuak eskuratzeko sarbideak eraginkorra izan gabe jarraitzen duela. Araua emakumeen errealitatetik aldentzen duten oztopoen gehiengoak politikaren borondate faltan, legegintza garatzeko bideratzen den finantzaketa eskasean eta instituzioen erantzunean jarraitzen den patroio diskriminatzailean du oinarria.

Espainiar Estatuak, *1/2004 Legea* onartu zenetik zortzi urte igaro ostean, ez du bizirik ateratako emakumeek eta emakumeen-elkarteek sustatutako neurrien ebaluazio sakinik egin.

Kolonbiar Estatuak azken urteetan Estatu Espainiarra baino haratago iritsi da legegintza eta politika arloetan. 2008an, Gorte Konstituzionalak lekualdatutako emakume eta umeen kontrako genero indarkeriaren arazoari ekitea agindu zien hainbat ministrori<sup>32</sup>. 2011 eta 2012an, paperaren gainean aurrerapauso argia suposatzen duten arau eta po-

30 Amnistia Internazionala: *Hori da guk galdegiten duguna. Justizia egin dadila. Kolonbiako gatazka armatuan emakumeen kontra burututako sexu indarkeriako ekintzengatiko zigorgabetasuna.* (AMR 23/018/2011)

31 Amnistia Internazionala: *Hori da guk galdegiten duguna. Justizia egin dadila. Kolonbiako gatazka armatuan emakumeen kontra burututako sexu indarkeriako ekintzengatiko zigorgabetasuna.* (AMR 23/018/2011)

32 Kolonbiako Gorte Konstituzionalaren 2008ko 092 Autoak gobernari emakumeen eskubideen perspektibatik, horietako bat sexu indarkeriari aurre egitera bideratuta dagoena, behartutako lekualdaketei buruzko politika publikoetan existitzen diren hutsuneak betetzera bideratutako 13 programa sortzeko agintzen dio.

litikak onartzen jarraitu du Estatuak.<sup>33</sup> Hala ere, hurrengo atalean garatzen den bezala, emakumeen elkarteek eta giza eskubideen elkarteek neurri legal hauetako gehienak modu eraginkorrean ezartzen ez direla egiaztatzen duten datuak eta dokumentazioa aurkezten jarraitzen dute, eta hortaz, emakumeen bizitzetan eta euren justizia eta ordain eskubidean duten eragina oso mugatua da oraindik ere.<sup>34</sup>

## IV. AKUSAZIOAREN ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

Auzitegi honen aurrean salatutako hiru kasuen ikerketaren ostean, Fiskaltzak uste du giza eskubideen babesaren arloan betebeharrak zehatzen urraketa dela eta Espainiar eta Koloniar Estatuak salatuzko arrazoiak daudela.

### **Espainiar Estatuak ez du “behar bezalako arretaz” jokatzeko indarkeria matxistaren biktimak justiziara heldu eta berau lortzeko oztopoak ezabatuzko.**

Nazio Batuen Batzar Orokorrak Estatuari “biolentzia jasan duten emakumeen beharretara behar bezala egokituak egongo diren, eta kasuen ebazpen zuzena erraztuko duten bide eta prozedura judizial eskuraerazak hornitzea” aholkatu zien<sup>35</sup> Ebazpen honetan bertan, erreferentziazko nazioarteko tresna gehienetan bezalaxe, Estatuak estutu egiten dira euren funtzionario eta profesionalak trebatu ditzaten emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean duten jokoan gehiegikeria hauek testuinguratu eta genero ikuspegia izan dezaten.

*1/2004 Legeak Emakumearen gaineko biolentzia Epaitegien sorrera ezarri zuen, eta genero indarkeria bere gain hartzen zuten Fiskaltzak, bikotearen barruan eta bikote-ohiak eragindako biolentzia matxistarekin erlazionatutako delituen gaineko zigor-prozesuak bideratu eta bultzatzeko organo gisa ezarri zituen. Honez gain, Zigor-epaitegi eta Auzitegi probintzial zehatz batzuen espezializazioa lortzeko antolamenduak ezarri zituen.*

Agintaldi legegilearen argitasuna gorabehera, “teorikoki” espezializatutako organo hauek zortzi urtez indarrean egon ostean, indarkeria matxista jasandako biktimek justiziarako sarbiderako eta honen lorpenerako eragozpenak dituzte gaur egun. Berriki egindako hainbat txostenetan ageri den oztopoetako bat salatuek zigorgabetasun estrategia gisa egiten duten “kontrasalaketa” da.<sup>36</sup> Botere Legegilearen Kontseilu Orokorrak egin duen *“Bikote harremanetan edo bikotekide-ohiek burututako genero indarkeriak eta etxeko indarkeriak eragindako hildako biktimei buruzko 2011ko txostenaren”* arabera, 2010ean hildako emakumeetako hiru aurretiaz salatu zituzten haien hiltzaileek.

“Kontrasalaketa” estrategia justizia-administrazioan eremu bat behar du bere xedea

33 Esaterako, 2012ko 1542 Legea dela eta “2004ko 906 Legearen 74. artikulua berregiten da, kode penaleko prozedura” edo 2012ko 037 Lege Proiektua dela eta “2000ko 599 Legearen eta 2004ko 906 Legearen hainbat artikulua aldatu egiten dira, eta sexu indarkeriaren biktimei justiziarako sarbidea bermatzeko neurriak hartzen dira, bereziki gatazka armatuaren kausaz ematen den sexu indarkeria; eta beste xedapen batzuk arautzen dira”.

34 Ikus: *Amnistia Internazionala, Kolonbia: Justiziaren aurrean ikusezinak. Gatazkaren barruan burututako sexu indarkeriagatiko zigorgabetasuna: jarraipen txostena* (AMR 23/031/2012); *Amnistia Internazionala: Hori da guk galdegiten duguna. Justizia egin dadila. Kolonbiako gatazka armatuaren emakumeen kontra burututako sexu indarkeriako ekintzengatiko zigorgabetasuna.* (AMR 23/018/2011); eta *Human Rights Watch, Eskubideak irismenetik at.* Osasunari, justiziarik eta Kolonbian lekualdatzera behartutako genero indarkeriaren biktimei diren emakumeentzako babesari oztopoak, 2012.

35 Delituen prebentzio eta justizia penalaren alorretan emakumearen kontrako indarkeriaren ezabapenerako Estrategiak eta Neurri Praktikoaren Ereduak. NBE-aren dok.: 1998ko otsailaren 2ko A/RES/52/86, 10d paragrafoa.

36 *Amnistia Internazionala – Espainiako Atala: Zer nolako justizia espezializatua? Genero indarkeriaren kontrako Lege Integralarengandik zazpi urtera: justizia eta babesa eskuratzeko oztopoak.* 2012ko azaroa. Eta Argituz: *Arabako nekazari eremuko emakumeen esperientziatik genero indarkeriatik ateratzeko bidean dauden behar, oztopo eta jardute egokiak*, 2011.

lortzeko. Ines Aranaren kasuan (1. kasua), salatuaren seinale fisikoen aurrean, Ministerio Fiskala bera da emakumearen aurkako salaketa egiten duena. Honek, salatuek soilik ez, baita justizia-administrazioaren gainontzeko mailek ere duten arduraren garrantzitsua agerian uzten du, izan ere, aipatutako estrategia indargabetzearen ordez, berau babestu edota sustatu egiten dute.

Hiru elementuk laguntzen dute lan honetan: a) epaitegiek ez dute gehiegikerien ikerketa sakona egiteko jardura garatzen; b) emakumeenganako diskriminazio aurreiritziek indarrean diraute eta justizia-funtzionarioen zati handi batek ez du genero ikuspegiarekin jokatu; c) ez da lehenetsia emakumeak behin eta berriz biktima ez izateko neurriak hartzea.

### **a) Estatuak ez du “behar bezalako arduraz” jokatu indarkeria matxistaren ikerketan.**

Indarkeria matxista frogatzea bereziki zaila suertatzen da orokorrean intimitatean egiten baita. Zailtasun hau kontuan izanda eta ikerketaren arduraren instrukzio-epaitegiaren gain egonagatik ere (edo *Emakumearen gaineko Biolentzia Epaitegia* eraso bikote barruan edo bikotekide ohien partetik eman den kasuetan), kezkarria da biktimen jazoera egiaztzeko frogak aurkezten ez badituzte, kasua ia ofiziozko ikerketarik gabe artxibatua dela jakitea. Behin-behineko artxibatzeen bilakaera datuek – gertakariak frogatu gabe gelditzeagatik prozedurako dokumentuak – joera kezkarria adierazten dute: 2007tik hona salaketak %4 baino gutxiago hazi eta azken urteetan jaitsi egin diren bitartean behin-behineko artxibatzeak %158 hazi dira<sup>37</sup> 2005ean aipatutako epaitegiak sortu zirenetik. Ofiziozko ikerketa eskasaren testuinguru honetan, “kontrasalaketak” emakumeen kontaktari buruzko zalantza elementu gisa agertzen dira eta, “elkarren arteko biolentzia” edo “bikoteen liskarrak” direla argudiatuta, alde biak kondenatu edo absolbitu egin ohi dira.

**b) Estatuak ez ditu kasu hauetarako izendatutako epailetzako eta fiskaltzako langileen espezializazioa eta aurreiritzirik eza bermatzen.** 1/2004 *Legeak* ezartzen duen espezializazioa ez dago bermatua, eta hein handi batean profesional bakoitzaren interes eta sentsibilitatearen arabera da. “Espezializazio” mandatu legalak *Emakumeen kontrako Indarkeria Epaitegien* sorrerarekin hauei indarkeria matxistan “espezializatuak” titulartasuna ematen zitzaizkien sinesmenaren ezarpenean lagundu zuen. Haatik, 2008ra arte ez zen derrigorrezkoa izan epaile hauen prestakuntza, eta data horren ostean ere, prestakuntza horren sendotasunik ezak ez du bermatzen benetako espezializazioa.

“Kontrasalaketaren” balioa zigor gabetasun estrategia gisa erabilia profesionalen espezializazio eraginkorraren faltaren ondorio da; espezializatorik gabe, delitu hau beste edozein bezala tratatzen jarraitzen dute eta ez dituzte ezaugarritzen dituzten botere harremanak ezagutzen. 1. kasuan aipatzen zen bezala, biktimaren defentsaren ondorioz erasotzaileak izan dezakeen edozein “seinale” dela eta emakumeen kontrako neurriak hartzea agintzen duen Fiskaltzaren barne araua, erantzun espezializatuaren gabeziaren adibiderik nabarmenena izan daiteke. Baina ez da isolatutako ekimena. Akusazio honek Estatu espainolean emakumeen kontaktak arlo judizialean – teorikoki espezializatutako epaitegietan barne - aitortzeko dauden erreparoiak 1/2004 *Legearen* garapen urteetan desagertu ez direla argitzen duen informazioa du. Aitzitik, aipatutako legearen onarpenaren ondorengo urteetan salatzen duten emakumeekiko sinesgarritasun faltari buruzko

<sup>37</sup> Botere judizialaren Kontseilu Orokorra (2012): 1/2004 L.O-ren aplikazioko datu estatistiko judizialak. Zazpi urteen laburpena (datuak 2005eko uztailatik 2012ko ekainera)

aurreiritzia bereziki zabaldu da<sup>38</sup>, biktima multzo honentzat justizia lortzeko oztopo gehigarri bat suposatzen duena.

**c) Estatuak ez du “behar bezalako arretaz” jokatzeko prozesu judizialean behin baino gehiagotan biktima izateko arrazoien ezabaketan.** “Kontrasalaketa” estrategiak azken urteetan ehunaka emakume euren erasotzaileen antzeko zigorrera kondenatuak izaten ari direla<sup>39</sup> dakar berekin. Bereziki garrantzitsua da zigorrak emakume migratzaileei suposatzen dien kaltea. Nahiz eta gehienetan kartzela zigorra etenda gelditu, aurrekari penalik ez izateagatik, legez kanpoko egoeran aurkitzen diren emakumeek 2 edo 3 urte itxaron behar izaten dituzte bizileku baimenetara iristeko kondenak sortutako aurrekari penalak indargabetu arte. Behin-behineko bizileku eta lan baimenak dituzten emakumeen kasuan, aurrekari penalek baimenaren berritzea eragotzi diezaiekete, emakumea berriro ere legez kontrako egoerara itzuliz.

“Kontrasalaketa” estrategia ez da berria, baina bere erabilpenak indarra hartzen duela dirudi. Hala ere, testuinguru judizial espainolean, ez da traba garrantzitsu hau zigorgabetasun eta gertakarien argitze ezarekin eta emakumeak berriro ere biktima izatearekin erlazionatzen duen analisi ofizialik existitzen.

Espezializazio judizialeko mandatu legala, prestakuntza, portaeren azterketarik eta kontu ematerik gabe egin denez, ez da gai izan justizia eragileen beharrezko eraldaketa bultzatzeko. Eraldaketa hau burutzen ez den bitartean emakumeek justizia lortzeko oztopo gehigarriak topatzen jarraituko dute.

## **Espainiar Estatuak ez du “behar bezalako arretaz” jokatzeko indarkeria matxistaren muturreko adierazle den torturaren aurrean**

Estatu derrigortuta dago “behar bezalako arduraz jokatzera emakumearen kontrako biolentzia ekintza guztiak saihesteko, ikertzeko eta, legegintza nazionalaren arabera zigortzeko, izan Estatuak zein norbanakoek burututakoak”.<sup>40</sup> Giza Eskubideen Nazioarteko zuzenbidearen tresnek, Estatu espainolak berretsitakoak, eta nazioarteko jurisprudentziak ezartzen dute estatu-mailako eragileek burututako bortxaketa, edota haien oniritzi edo baimenarekin burututakoa, torturatzat har daitekeela. Era berean, sexu-indarkeriaren beste era batzuk, bortxaketa mehatxuak, laztan desegokiak, gehiegizko araketak, txantaje sexuala, edo sexu erako irain eta laidoak esaterako, torturatzat edo tratu txartzat har daitezke, tratu krudel, iraingarri eta ankerrak ezaugarritzen dituzten elementu nagusiak aurkezten badira.<sup>41</sup>

Torturaren aurkako borrokaren nazioarteko esparruan genero ikuspegia sartzeari buruzko txosten zehatz batean, Torturaren aurkako Nazio Batuen Kontalari Bereziak

38 Berdintasun-Ministerioko genero indarkeriari buruzko Estatu Behategiaren IV. urteko-txostenaren arabera (2011ko azaroa), biztanleriaren %76,1ak uste du arlo honetan ematen diren salaketa faltsuen kopurua beste arlo askotan ematen diren salaketa faltsuen kopuruaren parekoa dela. Hala ere, ezin mespretxagarria den gutxiengo batek (emakumeen artean %12,3ak eta gizonez artean %16,1ak) emakume asko haiek babesten saiatzen den legez, salaketa faltsuak jartzeko baliatzen direla uste du.

39 Botere Judizialaren Kontseilu Orokorren txostenen arabera *salaketen datuak, erregistratutako prozedura penal eta zibilak, emakumearen aurkako indarkeria epaitegiaren eskatutako babes-aginduak eta arlo honetan organo jurisdikzionalak emandako epaiak*, 2011 eta 2012 urte bitartean, 651 emakume euren bikotekide edo bikotekide-ohiek jarritako salaketak zirela eta kondenatuak izan ziren; aldi berean haiek ere salatuta zeuden.

40 Emakumeen kontrako indarkeria era guztiak ezabatzeko Nazio Batuen Adierazpena. Batzar Orokorren 1993ko abenduaren 20ko 48/104 ebazpena; NBE-aren dok.: 1994ko otsailaren 23a, A/RES/48/104, 1. art.

41 Tortura eta bestelako tratu eta zigor krudel, anker eta umiliagarrien inguruan Batzar Orokorren 1984ko abenduaren 10eko 39/46 ebazpena, 1.art, hartutako hitzarmena; sinadurari, berrespenari eta atxikimenduari irekia.



azpimarratu zuen *“torturaren aurka emakumeen babes markoa genero kontuak ahaztu gabe ezartzeak duen garrantzia (...) Ekintza bat “tortura” gisa sailkatzeak estatuarentzako estigma gehigarri handia suposatzen du eta tortura ekintzak zigortzeko, egileak epaitzeko eta biktimen ordaina ezartzeko betebeharrak irmoa bere baitan hartzen duten ondorio juridikoak sendotzen ditu”*.<sup>42</sup>

Txosten honetan bertan, Kontalariak biktimaren “inpotentzia” eta ekimenaren “asmoa”<sup>43</sup> elementuak bereziki garrantzitsutzat jotzen ditu. Eta inpotentziaren elementua pertsona batek beste baten gainean erabateko boterea gauzatu duenean sortzen dela baieztatzen du. Emakumeen kasuan hau ez da soilik banakako botere harremanetara mugatzen, gizarte patriarkalek bereziki duten botere estrukturalaren eragina ere hor da. Emakumearen menpekotasunarekiko gizartetan axolagabetasunak, edota bere babesak inpotentziaren elementuaren osagai bat osa dezake.<sup>44</sup>

“Asmoari” dagokionez, Kontalariak baieztatzen du “bete egiten dela beti emakumearen kontrako biolentzia espezifiko denean, hau diskriminatzailea den zentzuan eta Hitzarmentean (Torturaren aurkako) zerrendatutako asmo posibleetako bat diskriminazioa den zentzuan”.<sup>45</sup>

Oihanaren kasuan (2. kasua) biltzen diren gehiegikeria eta indarkeria polizialak tortura suposatzen dute, izan ere, biktimaren inpotentzia egoeran oinarritzen dira (atxiloketaren inkomunikazio egoeran egoteagatik larriagotua) eta biktima, emakumea izanik, iraindu eta mendean jartzeko asmoari erantzuten diote. Bizirik ateratakoak kontatutako mehatxu polizialek adibide gisa balio dezaten: “barrutik guztiz sunsituko zaitut, ezin izateko etarra txikirik izan”.

Bai aztertutako kasuek zein euren datek, Oihana – 2011, Noura – 2010, Capuchinos, Malaga – 2006, Espainiar Estatuak, Kontalariak aipatutako 2008ko txostenean esaten duen eran jarduketatik urrun, gehiegikeria larri hauen aurrean torturaren osagai marxista aitortzen duten prebentzio eta ekimen planik garatu ez duela nabarmentzen dute.

## **Espainiar Estatuak ez du “behar bezalako arretaz” jokatu tortura saihesteko**

Duela hamarkada bat baino gehiago nazioarteko eta herrialdeko torturaren prebentzioari buruzko itunen zaintzarako mekanismoek euren eginkizunen artean tortura kasuak dokumentatzea dute.<sup>46</sup> Hori horrela izanagatik ere, Torturaren aurkako Hitzarmentaren Medikuntza Protokoloaren berrespenetik haratago,<sup>47</sup> Estatu espainolak ez du gehiegikeria hauek errotik kentzeko ahaleginik egin, eta ez du arazoaren dimentsioa aitortzen.

42 Tortura eta bestelako tratu eta zigorrak, anker eta umiliagarrien inguruko Kontalari Nagusiaren txostena, Manfred Nowak. NBE-aren 2008ko urtarrilaren 15eko A/HRC/7/3 dok., 26. paragrafoa.

43 Tortura eta bestelako tratu eta zigorrak, anker eta umiliagarrien inguruko Kontalari Nagusiaren txostena, Manfred Nowak. NBE-aren 2008ko urtarrilaren 15eko A/HRC/7/3 dok., 34. paragrafoa.

44 NBE-aren 2008ko urtarrilaren 15eko A/HRC/7/3 dok., 28. paragrafoa.

45 NBE-aren 2008ko urtarrilaren 15eko A/HRC/7/3 dok., 30. paragrafoa.

46 Torturaren gaiari buruzko Kontalari Nagusiak, bere agintaldian, 2003aren urriaren 5etik 10era Espainiara egindako bisitar dagokion txostena. (E/CN.4/2004/56/add2), 58. paragrafoa.

47 Berrespen tresna: 2006ko ekainaren 22ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 148.zbkia

Arartekoak, Euskadiko Herriaren Defendatzaileak, "tortura errotik kentzeko bidean aurrerapausoak emateko modurik eraginkorrena espazio eta denbora opakuekin -hau da, atxilotutako pertsonaren bermeak ahultzen dituzten horiekin- bukatzea eta polizia operazioen kontrol mekanismoak indartzea da."<sup>48</sup> Gaur egun, legedi espainolean torturaren prebentzioa oztopatzen duten espazio zein denbora "opakuak" existitzen dira. Behar bada, prebentziorako oztopo mota honen adibiderik adierazgarriena Auziperatze Kriminalen Legean ezarritako "inkomunikazio egoerako atxiloketa" sistema da,<sup>49</sup> testuinguru honetan eman zen Oihanak salatutako indarkeria. Immigranteen Harrera-Zentroen testuingurua zonalde "gris" gisa aipatzea ere beharrezkoa da, berme juridikoen terminotan. Harrera-Zentro hauetan askatasuna ukatua duten eta polizia zaintzen dituen pertsonak aurkitzen dira, nahiz eta inolako deliturik burutu ez, euren jatorrizko herrialdera berehalako kanporatzearen zain. Testuinguru gisa erabilitako dokumentatutako beste bi kasuetan gertatzen den bezala (Capuchinos zentroa, Malagan eta Zapadores zentroa, Valentzian) agintariek sexu indarkeriaren salatzaileen kanporaketa berretsiko balute, benetan kezkarria izango litzateke, zigorgabetasun eraginkorrerako tarte zabalak sendotuko dituelako.

Inkomunikazio egoeran ematen den atxiloketaren kasuan, Espainiar Estatuak tortura saihesteko duen betebeharra hausten du atxiloketa mota hori mantentzen baitu nahiz eta torturaren aurkako nazioarteko eta herrialdeko zaintzarako mekanismo nagusiek bere ezabapena gomendatu "tortura burutzeko aukerak sortzen dituelako eta tratu krudel, anker eta umiliagarria edota torturazko tratua suposatuta dezakeelako bere horretan".<sup>50</sup> Baina, gainera, Estatuak bere babeserako betebeharra hausten du bere atxiloketa guztietan Batzorde Europarrak gomendatzen dituen hiru babes-neurriak hartzen ez dituelako (pertsonaren atxiloketaren eta aurkitzen den lekuaren berri eman familiari; instrukzio epaileak zehaztutako auzitegi-medikuarekin batera berak aukeratutako konfiantzazko mediku batek aztertze aukera; atxiloketa esparruen bideo-kamera eta grabaketa bidezko zaintza eguneko 24 orduetan). Batzorde Europarrak Torturaren prebentziorako egin berri duen txostenean kezka adierazten du Batzordeak Espainiar Estatura egindako aurreko bisitan (2007) gomendatutakoari jaramonik egin gabe, 2012an "inkomunikazio egoeran atxilotutako pertsonen haiek aukeratutako pertsona bati (edo bere herrialdeko kontsulatuari, atzerritarren kasuan) bere atxiloketaren berri eman eta non dagoen jakinarazteko eskubideaz, berak aukeratutako abokatu izateko eskubideaz edo lekukorik gabe ofiziozko abokatuarekin elkarrizketa izateko eskubideaz, polizia deklarazio formala egin ostean ere, legalki ezin zutelako gozatu. Haiek aukeratutako mediku batek aztertze eskubidea ere ez dute".<sup>51</sup>

Oihanaren kasuan ez zen aipatutako inolako babesik erabili. Gainera, hala kasu honetan nola Etorkinen Harrera-Zentroetan sexu indarkeriaren biktima izandako aztertutako emakume migratzaileen kasuetan, larritasunez erreparatzen da salatzaileek ez zutela inolako babesik jaso euren salaketaren ostean eta harrera eta atxilotze zentroetan mantendu ziren, salatutako eragileen aldetik edozein errepresalia jasotzeko aukerarekin.

48 Arartekoa (2004): torturaren aurkako Arartekoaren adierazpen instituzionala, 5.orr

49 509, 510, 520 bis eta 527 LEC artikuluek arautua.

50 Torturaren gaiari buruzko Kontalari Nagusiak, bere agintaldian, 2003aren urriaren 5etik 10era Espainiara egindako bisitari dagokion txostena. (E/CN.4/2004/56/add2), 66. paragr.

51 *Tortura eta bestelako zigor eta tratu anker edo umiliagarrien prebentziorako batzar europarrak Espainiara* 2011ko maiatzaren 30etik ekainaren 13ra burututako bisitari buruz *Espainiar Gobernuari zuzendutako txostena*. CPT/Inf (2013) 6, 15. orr, 13 paragr.

## Espainiar Estatuak ez du behar bezalako arretaz jokatzeko tortura ikertzeko

Oihanaren kasuak tortura ikertzeko arreta falta nabarmen uzten du. Tortura salaketa baten ikerketa “azkar eta inpartzialarekin” erlazionatutako nazioarteko eta Europako txosten eta gomendioetan agertzen diren hiru funtsezko elementuk huts egin dute kasu honetan:

- a) Segituan instrukzio epaileari jakinarazitako auzi-medikuaren txosten zehatza,
- b) atxiloketaren etetea eta atxilotua epailearen esku uztea,
- c) atxilotuari, berak aukeratutako mediku batek, esplorazioa egitea.

Hiru elementu hauen urraketa, aldi berean tortura saihesteko babeseta eta biktimaren babesarako frogaren direnak, gehiegikeria hauen zigorgabetasunari mesede egiten diote, izan ere, kasu hauetan lekuko inpartzialik ez egotea erantzuleen auzitaratzea zailtzen du. Oihanaren kasuan, biktimaren salaketarekin hasitako kausaren artxibatzea auzi-medikuen geldotasunaren eta atxilotze aldiko lehendabiziko tortura seinaleen aurrean arreta judicial ezaren ondorio da, neurri handi batean.

## Espainiar Estatuak ez du “behar bezalako arretaz” jokatzeko sexu indarkeria tortura gisa zigortzeko

Tortura gisa sexu indarkeriaren zigorgabetasunari mesede egiten dion beste faktoreetako bat nazioarteko estandarren arabera egindako delituaren definizio falta da, baita bere larritasuna islatzen duen zigor egoki baten falta ere. Kode penal espainolak tortura ohiko delituen artean kokatzen du eta bere zigorrak ez du jokabide hauen larritasuna islatzen, nahiz eta Nazioarteko Auzitegi Penaleko Estatutuak<sup>52</sup> nazioarteko zuzenbidean kokatzen duen, gizateriaren kontrako krimen gisa, guda krimen gisa edo genozidio gisa ere. Legegintza eta jurisprudentzia espainolak ere ez ditu nazioarteko jurisprudentziak arlo honetan egindako aurrerapausoak bildu.<sup>53</sup>

Kode penal espainolean, sexu indarkeriaren tipifikazioak ere ez ditu delituaren betekizun baliabideekin erlazionatutako funtsezko aurrerapenak biltzen. Sexu indarkeria larria tipifikatzeko elementu gisa bi bitarteko soilen exigentziak (biolentzia edo beldurraztea) Nazioarteko Auzitegi Penalaren Krimenen Elementuei buruzko dokumentuan bildutako sexu erako ekintza larriak burutzeko bitarteko zabalarekin alderatuta oso bestelako da.<sup>54</sup> Araudien bateratze falta honek sexu indarkeriaren jarraipen eraginkorrerako eta zigorrerako oztopoa suposatzen dezake, bereziki atxiloketaren testuinguruan.

Tortura eta bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Umiliagarrien aurkako Hitzar-menak (13 eta 14. artikulua) Estatuak tortura jasan duen biktima batek ordaina eta konpentsazio justu eta egoki bat, erabateko lehengoratzeko lortzeko bitartekoak barne, izateko eskubidearen alde egin dezaten galdegiten du. Babesik gabe, ikerketarik gabe, zigorrik gabe, nazioartean ezarritako konponketarako eskubidea eskuratzeko da biktimentzat.

52 2002ko maiatzaren 27ko EAO-ren 126. zenbakian argitaratutako berrespen tresna.

53 Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penala [Jean Paul Akayesu Fiskalaren kasua, 1998ko irailaren 2ko epaia] edo Antzinako Jugoslaviarako Nazioarteko Auzitegi Penala [Furundzija Fiskalaren kasua, 1998ko abenduaren 10eko epaia].

54 Ikusi, esaterako, Nazioarteko Auzitegi Penalaren Krimenen Elementuetan bortxaketa edo sexu indarkeria batzordean ezartzen duela, erasotzaileak “indarkeriaz edo indarkeriaren mehatxu bidez edo gogorkeria bidez jardutea eskatzen duela; hauek izan daitezke pertsona horren edo horien kontra edo beste baten kontra indarkeriari dion beldurrak eraginda, beldurraztea, atxiloketa, zapalkuntza psikologikoa edo nagusikeriaren bitartez; edo gogorkeria ingurune bat aprobetxatuz edo pertsona horrek edo horiek benetako baimena emateko duten gaitasun faltaz baliatuz”. Erromako Estatutua, Krimenen Elementuak, 2002. Gogorkeria inguruaren elementuak nazioarteko epaitegien jurisprudentzian aurrekariak dauzka.

## Kolonbiar Estatuak ez du emakumeen segurtasuna bermatzen indarkeria matxistaren eta derrigorrezko lekualdatzeen aurrean.

Mariaren kasua (3.kasua) emakumeen antolakundeek Kolonbian, barne gatazka armatua eta eragile estatal, paramilitar eta beste talde armatu batzuek burututako krimen hauek duten zigorgabetasun kutsuarekin erlazionatuta dauden dokumentatutako kasuen zerrenda luze bateri gehitzen zaio. Mariaren kasua, krimenen zigorgabetasunaren ondorio den segurtasun falta nagusienetarikoa batekiko paradigmaticoa gertatzen da: derrigorrezko lekualdatzea.

Kolonbiar Estatuak, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea eta zuzenbide humanitarioa betez, sexu indarkeria saihestu eta errotik kentzeko, bizirik ateratako zerbitzuak errazteko eta krimena ikertu eta erantzuleak justiziaren aurrean azaltzeko betebeharra du. Akusazio honek frogatutzat jotzen du Kolonbiar Estatuak 2002 eta 2003an (Mariaren derrigorrezko lekualdaketaarako bide eman zuten auzitaratutako kasuko erasoak eman ziren data) Medellinen emakumeen giza eskubideak babesteko betebeharrean huts egin zuela. Eta, hamar urte geroago, emakumeek erasorik gabeko bizitza izateko duten eskubidea, eta sexu indarkeria jasan eta bizirik irauten duten emakumeek egia argitzeko, justizia eskuratzeko eta ordaintzarako duten eskubideek bermatu gabe jarraitzen dutela.<sup>55</sup>

2008an, herrialdeko Gorte Konstituzionalak sistematikotzat jotzen dituen krimen hauen iraunkortasuna baieztatu zuen, "sexu indarkeria gatazka armatu kolonbiarraren testuinguruan hedatuta dagoen ohiko jarduera sistematiko eta ikusezina" dela adierazi zuen "esplotazioa eta sexu-abusua bezalaxe".<sup>56</sup> Auto honek sexu indarkeria krimen sistematiko gisa aitortua izateko aurrerapauso garrantzitsua suposatu du.

Txosten ofizialen arabera, Medellingo kasu hauek emakumeen kontrako indarkeriaren -izan erailketa, sexu indarkeria edota giza eskubideen kontrako gehiegikeriak- iraunkortasuna adierazten dute. 2012an hiria inguratzen duten komuna desberdinetan emakumeen kontrako indarkeria sexistaren 836 kasuren informazioa bildu zen.<sup>57</sup> Hau, auzo hauetan ematen den sexu biolentziaren icebergaren tontorra baino ez da; izan ere, sexu-krimen gehienei buruzko informazioa lortzen ez dela, ezkutuan gelditzen dela, kontuan hartu behar da.

Gaur egun, bloke eta talde paramilitarren iraunkortasunari buruz, Nazioaren Fiskaltza Orokorra 2011an argitaratutako kudeaketa txostenean (2009-2010) aitortu zuen Kolonbiako Autodefentsa Batuen (AUC)<sup>58</sup>

desmobilizazioaren ondorioz "egitura paramilitarren hirugarren belaunaldia" deitutakoa sortu dela. Bere helburu nagusia "AUC-ek delitu egiten zuten zonalde garrantzitsuetan boterea berrartu, ez soilik lurraldearena, baizik eta ekonomikoa, logistikoa eta soziala ere, eta gainera beste fronte paramilitarrek esku-hartzea izan zuten lurraldeetara ere hedatzea" izan da.<sup>59</sup>

55 2011ko ekainaren 7an, Ana Fabricia Cordoba eraila izan zen. Anak, Urabako eskualdetik lekualdatuta izan ostean, Medellinen bere lidergoa indartu zuen, han izan zen eraila autobusez bidaiatzen ari zenean. Idazkaritza teknikoaren txostenaren arabera: Emakumearen Etxea. "Jarraipen Mahaiaren iruzkinak 2008ko 092 Autoari eta Gobernu nazionalaren 2011ko martxoaren 16ko, uztailaren 13ko eta azaroaren 8ko txostenei"

56 Gorte Konstituzionala. 2008ko apirilaren 14ko 092 Autoa

57 Medellingo "Ponereria" (2013): Medellingo hiriburuan giza eskubideen egoerari buruzko txostena, 2012, 123.orr

58 Nutibara Blokea kide zuen talde paramilitarra, Mariaren aurka burutu zituzten krimenen erantzuleak (3.kasua)

59 Nazioko Fiskaltza Orokorra, Kudeaketa txostena, 2009ko abuztua - 2010eko azaroa, Bogota 2011 <http://fqn.fiscalia.gov.co:8080/Fiscalia/archivos/InformedeGestion/infogestion2009-2010.pdf>

“Akusaziorako arrazoi nagusiak” atalean aurreratu denez, beharrezkoa da emakumeen elkartek eragin duten presioari esker Kolonbiar Estatuak azken hamarkadetan legeak, politikak, planak, protokoloak eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean hartu beharreko beste neurri batzuk sortu dituela onartzea.<sup>60</sup> Hala ere, hainbat dokumentu aipatutako aurrerapauso legalak eta politiken sorreran emandako aurrerapausoak eraginkorrak izaten ari ez direla ziurtatzen dute. Dokumentu hauek<sup>61</sup>, datu eta kasuetan oinarritutakoak, emakume kolonbiarren giza eskubideen babesa oztopatu eta galarazten duten oztopo larriak daudela frogatzen dute, eta Kolonbiar Estatuak ez du “behar bezalako arretaz” jokutzen horien aurrean. Garrantzitsuenak ondokoak dira:

- Azken urteetan indarrean jarraitzen dute edota are gehiago larriagotzen dira emakumearen gorputza eta bizitza gutxien eta “objektu bihurtzen” duten kultura patriarkalak berezko dituen ereduak; gatazka armatuaren testuinguruak oraindik ere larriago bihurtzen dituelarik. Lekualdatutako edota pobrezia egoeran dagoen biztanleria biltzen duten hiriburu inguruko auzoetan (komunak), emakume eta umeen askatasunak eta segurtasunak bermatuta egon gabe jarraitzen dute.
- Gero eta agerikoagoak dira emakumeen kontrako indarkeria dinamikak, sexu indarkeria barne, lidergo eta giza eskubideen babesean egindako lanari esker. Mariaren kasua paradigmaticoa da botere paramilitarrak gizartean inizatiba soziala, ekonomikoa eta parte-hartzailea duten emakumeak zigortzen dituela islatzen duelako.
- Estatuak biktimak eraso berrien aurrean babesten ez dituela baieztatzen da. Fisikaltza honek aztertutako txostenetan, duela gutxi behin baino gehiagotan erasotutak izan diren emakumeen kasuen informazioa biltzen da, baita biktimak salaketa jarria zuenean ere.
- Diskriminazio elementuak, nortasun etnikoa, minusbaliotasuna eta beste elementu batzuk barne, kontuan izango dituen genero ikuspegidun politika kriminal baten falta.
- Trebakuntza eta kontuak emateko mekanismo ezak estatuko segurtasun-indarren artean aurreiritzi matxistak, praxi okerreko kasuak eta emakumeen kontrako indarkeria salatzen pizgarri falta dakartzate berekin.
- Sexu idarkeriagatiko salaketetatik eratorritako ikerketek eskasak izaten jarraitzen dute eta zigorgabetasun indizeek oso altu jarraitzen dute.
- Biktimaren ordaintza eraginkorra bermatzen duten sexu indarkeriako kasuak oso eskasak dira oraindik ere.

<sup>60</sup> Ikusi aurreko aipamenak.

<sup>61</sup> Amnistia Internazionala eta Human Rights Watchen aipatutako txostenez gain, ikusi honako dokumentuak: *Estatua eta emakumeen aurkako indarkeria Kolonbiako indarkeria soziopolitikoaren alorrean. Emakumeen erakundeek eta giza eskubideen erakundeek gatazka armatuaren testuinguruan ematen den sexu indarkeriarako Idazkari Orokorren Ordezkaritza Berezia aurkeztutako txostena*. Margoth Wallström anderea, Bogota, 2012ko maiatzaren 16a; *Emakumea eta Gatazka Armaturia Lan-mahaia. “Kolonbian ematen den emakume eta umeen kontrako indarkeria soziopolitikoari buruzko XI. Txostena”*. Bogota, 2012ko martxoa; eta *Giza Korporazioa: sexu indarkeriaren kontrako Auzitegi Sinbolikoa*. Bogotan 2011ko irailaren 26an burutua.

## IV. EPAIMAHAIARI ESKAERAK

---

### a) Estatuei gomendioak

Emakumeen kontrako biolentziaren aurrean “behar bezalako arretaz” jarduteko behar-raren hausteari bukaera jartzeko, Fiskaltza honek Epailari eskatzen dio Espainiar eta Kolonbiar Estatuak, hurrengo neurri gomendagarriak martxan jartzeko, estutu ditzala.

#### **Bi Estatuei zuzendutako izaera arrunteko gomendioak:**

1. Estatu eragileek edo norbanakoek eragindako emakumeen kontrako era eta adierazpen guztiei “behar bezalako arretaz” erantzuteko oinarri gisa giza eskubideen markoa eta ikuspegia onartzea.
2. Emakumeen kontrako biolentziari, torturari barne, erantzuteko neurri guztiak genero diskriminazioaren azkeneko adierazpentzat joko direla bermatuko duen eta berauen ezabaketa xede duen akzio plan edo erabateko estrategia bat garatzea.
3. Lege, plan eta neurri oro finantzatzen, ebaluatzen eta behar bezala gainbegiratzen direla bermatzea eta baita emakumeen erakundeek eta bizirik ateratakoek hauen lanketan eta eraginkortasunaren ebaluazioan parte hartzen dutela ere.
4. Emakumeen eta umeen aurkako era desberdinetako tamainari eta iraupenari dagozkion datuak sortu eta argitaratzea, metodologia egokiak erabiliz. Indarkeria matxistaren era desberdinetako salaketen erantzun judizialari buruzko informazio berezia (gutxienez biktimen sexu eta adinaren arabera sailkatua).
5. Indarkeria matxistaren aurrean, gatazka armatuaren barnean ematen den biolentziaren aurrean ere bai, emakumeen giza eskubideak espezifikoki babesten dituzten nazioarteko eta herrialdeko itun lotesleak ikuskatzen dituzten Komiteen behaketak eta gomendioak kontuan hartuz dagozkion eremu arauemaileak eta politika publikoak gaurkotu.
6. Diskriminazio debekua errespetatu eta indarkeria matxistaren aurrean emakume guztiei giza eskubideen erabateko babesa bermatu bere egoera pertsonal, sozial eta administratiboa kontuan hartu gabe. Premiazko neurri modura, Espainiar Estatuak diskriminazioa sortzen duten atzerriartasun legearen xedapenak ezabatu behar ditu, genero indarkeriaren salaketa galarazi edo oztopatu egiten dielako -bere adierazpenetako edozeinetan- legez kontrako egoeran dauden emakume atzerritarrei.
7. Indarkeria matxistaren biktimei salaketa bideetara iriste eraginkorra bermatzea eta poliziaren aldetik tratu egokia eta errespetuzkoa jasotzen dutela ziurtatu.
8. Emakumeen kontrako indarkeria delitu hauen zehaztapenak kontuan hartzea ikerketa judizial arduratsu baten arrazoiz izatea ziurtatu; biktimen intimitate eta segurtasunarekin guztiz errespetuzkoa dena eta eragindako kaltearekiko proportzionallak diren zigorrekin bide emango diena.
9. Indarkeria matxistaren biktimei kalte-ordainketa, lehengoratzeta, errehabilitazioa, asebetetzea eta ez-errepikatze bermeak barneratuko dituen ordain justua eta

egokia izateko eskubidea bermatuko dien legeria eta bestelako neurriak sustatu. Emakumeen kontrako biolentzia arloko Nazio Batuen Kontalari Bereziaren gomendioak bete eta ez-errepikatze eskubidea bermatzeko, generoan oinarritutako biolentzian laguntzen duten existitzen diren hierarkia patriarkalak eraldatzea Estatuaren betebeharra dela aintzakotzat hartu.

10. Era berean, emakumeek edo umeek jasandako biolentzia Estatuko instituzio edo eragile batek izandako gelditasunarekin edo praxi txarrarekin erlazionatuta dagoenean, ordaintza bermatu eta behar bezalako arretaz jokatu ez duen instituzio edo eragileari kontuak eskatuko zaizkiola ere bermatuko da.

### **1 eta 2 kasuei dagokienez, Espainiar Estatuaren betebeharrak:**

1. Arlo honetan eskuduntza duten epaile eta magistratu orean emakumeen kontrako biolentziari buruzko derrigorrezko heziketa bermatu, emakume eta umeen kontrako biolentzia sexualari buruzkoa barne, baita bere erro eta ondorioei buruzkoa ere, beharrezkoak diren neurriak hartuz.
2. Estatuko Fiskaltza Nagusiak, nazioarteko gomendioen arabera, prozesuan zehar ikerketan, prozeduraren bultzadan eta biktimen eskubideen babesean Fiskaltzak izan beharreko jokaera ezarriko duten irizpide zehatzak bilduko dituen barne araudi bat iradoki dezala, zigorgabetasun egoerak saihesteko xedez.
3. Emakumearen gaineko Biolentzia Epaitegiak deitutakoen funtzionamendua ebaluatzea, epaitegiko profesionalen iritzia kontuan hartzeaz gain, esparru judizialeko gainontzeko profesionalena (fiskaltza, abokatuak), biktima eta bizirik ateratakoena eta emakumeen erakundeena ere kontuan hartuz.
4. Biktimen testigantza errua egozteko froga bakarra ez dela bermatzea. Horretarako, polizia eta epaitegien ikerketa lana areagotzea gomendatzen da eta ofizioz gakoak diren instantziei txostenak eskatzea, hala nola oinarrizko arreta burutzen duten zentroak, zerbitzu sozialak, edo biktimarekin kontaktua izan duten arreta psikologikorako zerbitzuak.
5. Jardute judizial egokien gidaliburua sortu eta zabaltzea, sexu delituetan frogen balorazioa egiterakoan genero ikuspegia txerta dadin.
6. Torturaren aurkako borroka estrategia zabalago baten markoan, Estatuko eragileek burututako indarkeria matxista (fisikoa, psikologikoa eta sexuala) saihesteko neurri zehatzak ezartzea. Neurri hauek, gutxienez, Estatuko segurtasun-indarrak, auzitegiko medikuak, fiskaltza, abokatuak eta botere judiziala tartean sartu behar harko lituzkete.
7. Tortura saihesteko Europako eta nazioarteko mekanismoen gomendioak bete eta era berean tortura saihesteko, "inkomunikazio" egoeraren figura ezabatu atxilotetetan. Neurri honek indarrean jarraitzen duen bitartean, prebentzio neurri hauen gomendioak era eraginkorrean bete, atxilotetaren berri emanez hurbileko jendeari, abokatu asistentziak, mediku azterketa bateratuak (atxilotuak aukeratutako medikua eta auzitegiko medikua) eta galdeketa saio guztiak bidez grabatuz beharrezko segurtasun bermekin.

8. Espainiako Kode Penala berriren sexu indarkeriari eta torturari dagozkion definizioek nazioarteko estandar eta irizpideekin bat egin dezaten; honela, jazarpen eraginkorra eta krimen hauen larritasunarekin bat datozen zigorraren aurreikuspena ahalbidetuz.

### **3. kasuari dagokionez Kolonbiar Estatuaren betebeharrak:<sup>62</sup>**

1. Sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei justiziarako sarbidea bermatuko dien politika publikoa egin eta gauzatu; behar adinako baliabideen eskuragarritasunarekin eta betetze eraginkorrerako jarraipen mekanismoekin. Esandako politikak prebentzioa, sistema judicialari eragiten dieten oztopoen ezabaketa, babesa, arretoa eta ikuspegi psikosozialdun laguntza fisiko eta mentala bideratuko dituzten neurriak bildu beharko lituzke.
2. Talde paramilitarren existentzia onartu segurtasun eta justizia politika publikoetan trataera egokia izan dadin eta elementu armatu gisa epaituak izan daitezen.
3. Funtzionarioek salaketak jaso, ikertu, sexu biolentzia ekintzak epaitu eta baliabide egoki eta erreferentziazko parametroarekin langile guztiei, baita nekazaritza-zonaldeetan ere, ematen zaien aldikako derrigorrezko prestakuntza jasotzen dutela bermatu.
4. Atzerapenik gabe eta beharrezko bitarteko guztiekin Gorte Konstituzionalaren 092 Autoan adierazitakoa bete.
5. Sexu indarkeriako delituak auzitegi militarrek ikertzea ahalbidetu dezakeen legea edo konstituzioa aldatzeko proposamenik ez onartzeko ezta sustatzeko konpromisoa hartu. Era berean, herrialdeko eragile armatu legal edo ilegalek burututako guda delituengatik, gizateriaren kontrako krimenengatik eta genozidioengatik, eta hauen artean sexu indarkeria bereziki, amnistia, barkamena edo zigorgabetasuna onartzea galarazi.
6. 1325 Ebazpenean ezarritako Akzio Plan Nazionala sortzeko eta gauzatzeko Kolonbiar Estatuak duen konpromisoa betetzen dela bermatu.

### **b) Auzitaratutako kasuei buruzko erabakia**

Auzitaratutako kasuen inguruan, Epailari eskatzen zaio epaian honako erabakiak sartzeko:

1. Ines Aranak bere burua bere erasotzailearen indarkeriatik babesteko inongo delituri egin ez zuela aitortzea eta eraso matxista baten aurrean emakumeen defentsa, indarkeria matxistaren aurrean sumisio eta etsipen rol patriarkala hausten duen oinarritzko eskubidea dela baieztatzea. Inesek, justizia administrazioaren aldetik jasandako kalteagatik ordaina jaso dezala; honek, estatuaren lau arduraren arloetan ekintzak bildu ditzala (ordaintza, lehengoratzeta eta errehabilitazioa, asebetetzea eta berriro ez errepikatze bermeak).

---

<sup>62</sup> Akusazio honek bere egiten ditu emakume kolonbiarrek eta Amnistia Internazionalak aipatutako txosten eta dokumentuetan Estatu Kolonbiarrari egindako gomendioak.



2. Ordaintza ekintza kolektiboen artean, Fiskaltzak indarkeria matxista salatzen duten emakumeen inputazioa eskatzeko eta eraso burutu duenak bere "kontra salatzeko" erabiltzen duen "barne arauaren" berehalako bazterketa. Eta Estatuaren Fiskaltza Nagusitik era sakonean eta genero ikuspegitik, salatuek burututako "kontrasalaketak" ikertzeko eta biolentziaren inpunitatea xede duen edozein estrategia gogortasunez zigortzeko, fiskal guztiak estutuak izan daitezela.
3. Estatuaren Fiskaltza Nagusiko epaimahaiko fiskaltzak indarkeria matxista ematen den kasuetan, emakume eta umeen kontrako sexu erasoak barne, fiskaltzak izan beharreko jarduera zehazten duten jarraibide eta zirkularren berrikustea agindu dezala eta nazioarteko lehenetsunezko, genero ikuspegiko eta ez errepikatze aginduak betetzen direla ziurtatu dezala.
4. Espainiar Gobernuako instituzio erantzuleak, baita justizia administrazioa ere, tortura saihesteko nazioarteko eta Europako mekanismoen gaineko kezka aitortzeko estutzea; izan ere, gehiegikeria polizial mota hau ez da noizbehinkakoa Estatu Espainolean. Ematen dela onartzea errotik kentzeko lehen urratsa da.
5. Oihanak egindako tortura polizialaren aurkako salaketaren ondorioz irekitako kausa penalaren ikerketa berrireki dadila eta gertakariak sakonki ikertzera jo dadila. Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren erabakiaren zain, epaile honek, edozein argibide torturapean egin den susmoa badu, bere baliogabetasuna ezarri beharko luke; izan ere, neurri honek polizia ikerketan torturaren erabilera pizgarri bat ez izatea suposatuko luke.
6. Sexu biolentzia eta behartutako lekualdatzearen biktima izanik, Mariaren erabateko ordaintza eraginkorra bermatzea.
7. Kolonbiako agintariak, sexu indarkeria eta behartutako lekualdatzearen eta emakumeak euren bizitzaren jabe eta eskubideen defendatzaile izatea onartzen ez duten balore patriarkal eta militarren iraunkortasunaren arteko harremana aitortzea. Eta hemendik abiatuta, gizarte eraldaketarako neurriak babestu eta sustatu ditzatela.
8. Agintariak Kolonbian talde paramilitar berriak daudela aitortu dezatela, zehazki Medellinen, emakumeak euren jo puntuan dituztela, eta emakumeen segurtasuna bermatzeko dauden baliabide guztiak eskura jar ditzatela.
9. Sexu indarkeria ematen den kasuetan salaketa jartzeko dauden oztopoei sakonki ekitea eta, sistema judizial penalak, genero arrazoiengatiko diskriminazioa, generoarekin nahasten diren beste identitate batzuek duten eragina barne, justiziara iritsi eta berau lortzeko trabatatzat jotzen duela bermatzea eta neurri zuzenak hartzea.
10. Emakumearen sendotasunaren hazkundeari ekitea eta sexu indarkeriatik bizirik ateratako biktimen inguruko estereotipo diskriminatzaileak desagerraraztea estatuko funtzionarioen aldetik.





**EMAKUMEEK BIZIMODU DUINA  
IZATEKO ESKUBIDEA**



# ADITUAREN TXOSTENA



## Mertxe Larrañaga Sarriegi

Ekonomian doktore eta UPV/EHU nazioarteko ekonomiako irakasle titularra. Ekonomia feministan espezializatua, artikulak eta komunikatuak idatzi ditu, nagusiki lanei (letxeko lanak eta zaintza-lan ordainduak eta ez ordainduak) eta Lan Ekonomiari buruzkoak. Egungo krisiari buruz ere idatzi eta argitaratu izan du, genero ikuspegiarekin. Bi urte eta erdiz UPV/EHUko berdintasunerako zuzendaria izan da.

## I. SARRERA

---

Hona 3. ardatzaren txostena. Gai nagusia da emakumeen Bizimodu Duinerako Eskubidea eta hauek jasaten duten esplotazioa ekonomikoaren salaketa. Beraz, kontu ekonomikoez arituko gara, batik bat. Hala ere, eskubideen tribunalari zuzendutako txostena izanik, egoki iritzi diogu ekonomia- eta lan-eskubideei buruzko nazioarteko araudiaren sarrera laburrarekin hasteari.

Izaera ekonomiko handiagoa duten kontuak jorratuko ditugu ekonomia feministaren postulatuetatik. Teoria honek, oraindik ere gutxienena eta akademian gutxietsita izaten jarraitzen badu ere, gizartean oihartzuna izatea lortu du, batez ere, gaur egungo sistemaren aldaketa bultzatzen duten mugimendu eta erakunde mailan.

Txosten honen ardatzean, hasieran, emakumeen esplotazio ekonomikoa jorratzeko garrantzitsuak diren kontzeptuez hausnartuko dugu; hala nola, ekonomia, lanak eta enpleguak. Gero emakumeak sistematikoki kaltetzen dituzten ezberdintasun ekonomiko garrantzitsuenetako batzuk erakusten saiatuko gara. Puntu honetan, bereziki, lan eta enplegu ezberdintasunez arituko gara.

Hurrengo atalean globalizazioan murgilduko gara emakume askoren bizitzan oso garrantzitsuak diren bi kontu jorratzeko: zaintzen kate orokorrak eta enpresa multinazionalen enplegu eta, batez ere hegoaldeko, emakumeen bizitzetako ondorio batzuk.

Krisia gure bizitzetan erabat sartua dugunean, argi dago ezin izango dugula aipatu gabe utzi. Beraz, Atzeraldi Handiaren ondorioez hausnartuko dugu eta arreta berezia ipiniko dugu ezberdintasunen arloan. Azterketaren atalik zabalena Europako krisiaz arituko da; izan ere, larriena izateaz gain, hori ezagutzen dugu ondoen.

Azken atalean emakumeen eta gizonen egoeraz -bai mundu mailan, bai testuinguru hurbilagoan- zenbait zertzelada ematen saiatuko gara. Egoera ekonomikoaren ikuspegi sintetiko eta orokorra aurkeztu eta honen duela gutxiko garapena. Munduko emakumeena aurkeztea zaila da errealitateak oso ugariak dira eta.

Jakina da emakumez oro har hitz egiteak beraien arteko ezberdintasun izugarriak, eta haziz doazenak, ezkutatzea dakarrela. Eta ez bakarrik arrazoi geografikoak edo kulturalak dira kausa, genero-ezberdintasunak beste hainbatek zeharkatzen dituztelako ere bai: adi-

na, jatorria, etnia, giza maila, eta abar. Hala eta guztiz ere, xehetasunak aipatzen saiatuko bagara ere, sarritan emakumez eta gizonez arituko gara, oro har, batzuetan diskurtsoa erraztearren eta beste batzuetan, beste errealitate batzuk ezagutzen ez ditugulako.

Gainera, errealitate ekonomiko anitzez eta nazioarteko krisiaren generoarengatiko eragin ezberdinez gain, zenbait ezaugarri eta problema komun azpimarra daitezke. Jakitun gara azterketa hau ikuspuntu oso zehatzetik abiatzen dugula, hau da, garai eta errealitate zehatz baten bizi garen emakumeenetik, beraz, azterketa hau egokiagoa dela Iparraldeko gizarte-maila ertaineko emakumeen egoera ekonomikoa azaltzeko, gurearekin alderatuta, errealitate oso ezberdinean bizi diren beste emakume askorena azaltzeko baino.

## II. EKONOMIA ETA LAN ESPARRUKO NAZIOARTEKO ARAUDIAREN INGURUKO OHARRAK

---

Eskubideen ikuspegia deiturikoak giza-eskubideek eskaintzen duten kontzeptua darabil hauek garapen-politikei aplikatzeko, Estatuaren obligazio positiboekin: eskubide zibil eta politikoak, eta horrez gain, ekonomia, giza, kultura eta ingurumen-eskubideak (DESCA) erabat gauzatzeko egin behar duena. Giza-eskubideak Estatuako politika publikoak gidatu edo bidera ditzakeen programatzat definitu eta aplikatzen dira.

Eskubide-ikuspegiaren arabera, baztertutako sektoreei boterea emateko lehenengo pausua da Estatu behartuta dagoen eskubideen jabe sektoreak eurak direla onartzea. Kontzeptu hau gehitutakoan, politika egiteko prozesuen logika aldatu gura da abiapuntua ez dadin izan sorotsi beharreko laguntza behar duten pertsonak egotea, baizik eta zenbait prestazio eta jarrera eskatzeko eskubidea duen norbanakoa egotea (LNE&NBGP 2009). Alor honetan hasitako ekintzak ez dira agindu moral edo politikoak betetzea soilik kontsideratzen; baita giza-eskubideen hitzarmenek ezarritako obligazio juridikoak, aginduzkoak eta exijigarriak, eraginkorrek egiteko aukeratutako bidetzat ere. Baina, argi dago, eskubideak izatea ez da hauek lortzea.

Eskubideen ikuspegiak esan nahi du tribunal honen aurkezpenean esaten den moduan *“emakumeek biolentziarik eta edozein eratako bazterketarik gabeko bizitza askea izateko eskubidea dute, generoan oinarritutako erlazio ezberdinik ez dagoen giza sisteman bizitzeko, sexuen arteko mendekotasunean eta gutxiagotasun kontzeptuetan oinarritzen diren jarrera eta praktikarik gabe baloratuak eta haziak izateko, gizartearen garapen eta ongizatearen parte izateko eta, gizonen egoera berean, bizitza politikoaren, ekonomikoaren, sozialaren, kulturalaren eta beste edozein alorretakoaren parte izateko, horrela, giza-eskubide unibertsalez gozatzeko”*.

Berdintasun arloko lan-araudiko aurrerakuntzak eztabaida ezinak dira. 1948ko Giza-eskubideen Deklarazio Unibertsalean pertsonen arteko berdintasuna ardatz nagusia da eta era orokorrean onartua da; bai hainbat nazioarteko dokumentutan, izan hitzarmenak edota deklarazio hutsak, bai munduko gaur egungo estatuetakoa ia konstituzio politiko guztietan (GTZ 2003).

Gaur egun, berdintasunaren eskubideak giza duintasunaren printzipioaren aurre-onarpena adierazten du, giza-eskubideen osagarri: izaki bizidun guztiak berdinak dira eta eskubide berberak dituzte, izan ere, denek dute duintasun bera. Hortaz, duintasun bera izanik, eskubide berberen jabe izan behar dute. Honi dagokio Giza eskubideen Deklarazio

Unibertsalaren 1.artikulua; zera adierazten du: *“Izaki bizidun guztiak, jaiotzez, libreak dira eta duintasun bera eta eskubide berberak dituzte”*.

Giza-eskubideen nazioarteko baliabideek, gero eta zehatzagoak tradizioz baztertutako herrialdeetako eskubideen eskaintzari dagokionez (esate baterako, emakumeak, adin txikikoak, langile migratzaileak, ezinduak...), eremu juridikoa osatzen dute eta honetan finkatzen dira berdintasuna, zuzentasuna eta era guztietako diskriminazioak ezabatzea.

Giza eskubideen baliabide unibertsalak dira:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948)
- Era guztietako arrazakeria-diskriminazioen ezabatzeari buruzko Nazioarteko Hitzarmena (1965).
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (1966).
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (1966).
- Emakumearen Kontrako era guztietako Diskriminazioa Ezabatzeko Hitzarmena (1979).
- Torturaren eta beste Tratu edo Zigor Krudel, Anker edo Umiliagarriren kontrako Hitzarmena (1984).
- Umearen Eskubideen Hitzarmena (1989).
- Langile migratzaile eta honen senideen eskubide guztiak babesteko Nazioarteko Hitzarmena (1990).
- Minusbaliotasuna duten pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmena (2006).

Iturria: LNE eskubideak

Aparteko aipamena behar dute Ekonomia, Giza, Kultur eta Ingurumen-eskubideek (DESCA) (Sanchez et al.2011). Hauek nazioarteko onarpena jaso zuten Ekonomia, Gizarte eta Kultur Eskubideen Nazioarteko Itunean (gaztelaniaz, PIDESC).

Zeintzuk dira DESCA-k?

- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna, 3.art. PIDESC.
- Lanerako eta Segurantzza Sozialerako Eskubidea, 6.art. PIDESC.
- Familia-babeserako eskubidea, 10.art. PIDESC.
- Pertsona eta honen senideentzako bizi-maila duinerako eskubidea, baita elikadura, arropa, etxebizitzarako eskubidea ere, eta existentziaren hobekuntza jarraiturakoa ere bai. 11.art. PIDESC.
- Osasun fisiko eta mentalerako eskubidea, 12.art. PIDESC.
- Heziketarako eskubidea, 13.art. PIDESC.
- Bizi-kulturalean parte hartzeko eskubidea, aurrerakuntza zientifikoen onurez gozatzea, 15.art. PIDESC.
- Ingurumen eskubideak, 12.art, inc. 1,2,b) PIDESC.

Nazio Batuen Atalek; esate baterako, Nazioarteko Lanaren Erakundeak (gaztelaniaz, OIT), Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Emakumearen Kontrako era guztietako Diskriminazioak Ezabatzeko Hitzarmenerako Komiteak, DESCA delakoa onartu zuten.

DESCA direlakoak errealitate ekonomiko bidegabea eta giza eta kultura-bazterketa garaian, batez ere emakumeen kontra, bat-batean sartzea ez da estatu boterearen dohaina,

baizik eta politika eta giza borrokei esker historian zehar lortutakoa. Esan daiteke pertsonak, taldeak, erakundeak eta giza mugimendu zehatzak izan direla, espazio-denbora zehatzetan, antolatu direnak eta eskubideak eskatzeko borrokatu direnak. Gauzak horrela, hasiera batean, langile-mugimenduaren borroka Estatuek lan eta sindikatu-eskubideak onartzea lortu zuen. Hauek, Estatuek alegia, giza antolaketak eta borroka berdin behartuta, pixkanaka-pixkanaka, zenbait giza-eskubide onartu zituzten; hala nola, heziketa, osasuna eta etxebizitza. Giza-eskubideak onartzeko borroka, berdintasunaren ideiarekin batera, XIX. mendean eta XX. mendearen hasieran gertatu zen eskubideen orokortzea deituriko prozesuan. Honen eraginez, giza-eskubideak sartuko ziren; esate baterako, langileak babesteko eskubideak, jabetza mugatzea eta Konstituzioetan hezteko eskubidea xehetasunez erregulatzea.

DESCA izeneko eskubideek eskubide zibil eta politikoei duten balio juridiko bera dute. Honen harira, 1993ko Vienako Deklarazio eta Ekintza-programak zera adierazten du: *“giza-eskubide guztiak unibertsalak, banaezinezkoak eta independenteak dira eta lotuta daude. Nazioarteko Komunitateak Giza Eskubideak oro har tratatu behar ditu eta era bidezko eta zuzenean, maila berean eta guztiei balio bera emanda”*.

DESCA izenekoak baldintza objektiboak dira eskubide subjektiboak deiturikoak existi daitzen. Horrela adierazten du 1968ko Teherango Aldarrikapenak, zera aipatzen duenean: *“Giza-eskubideak eta oinarriko askatasunak banaezinak direnez gero, ezinezkoa da eskubide zibil eta politikoak gauzatzea ekonomia, giza eta kultur eskubideak gauzatu ezean. Giza Eskubideak aplikatzean aurrerakuntza luzea lortzea garapen ekonomiko eta soziale-rako nazio eta nazioarteko politika eraginkor eta egokien menpe dago”*.

Uko egin behar zaio DESCAn soilik programa-arauak diren ikuspegiari eta ez dutela eskubide subjektiborik ezartzen eta, beraz, ez direla justiziagarri. Honen harira, Ligia Bolívar, Victor Abramovich eta Christian Courtisek adierazten dute eskubide guztiek obligazio positiboak zein negatiboak ematen dizkietela Estatuari. Honek esan gura du eskubideak gauzatzea ekiditea eta hauek urratzeari uko egitea eta hauek era eraginkor baten gauza daitezen baldintzak ezartzeko obligazioak betetzea. Oinarri hauekin, CLADEM-en (Emakumearen Eskubideak Defendatzeko Latindar Amerikako eta Karibeko Komitea) elementua planteatuko dugu DESCAn definitzeko elementutzat: DESCAn *“pertsonen bizi maila egokia ahalbidetzen dutenak”* dira. Zentzu honetan, *“osasuna, hezkuntza eta, urrituz doazen giza aurreikuspenak emakume pobreenen gain daudela”* kontuan hartuta, Norma Enriquezek zera proposatzen du: *“orain denbora luze feministok defenditutako kausak berreskuratu”*, horretarako, nabarmentzen du eskubideak exijitzeko ezinbesteko dela hauek jende askorentzat ezagunak eta egokiak izatea, eta *“behar besteko gaitasuna izatea artikulatzeko eta mobilizatzeke eta presionatzeko indarra edukitzea”*.

LNE-ak ( Lanaren Nazioarteko Erakundea), 1919an eratu zenetik, aukera berdintasuna izan du helburu nagusi eta, esate baterako, jatorrizko Konstituzioak zera onartzen zuen *“lansari berberaren printzipioa, lan beraren truke genero bereizketarik gabekoa”*. Berziki emakumeei bideratutako lehenengo arauen helburua zen babesa eskaintzea debekuaren, murrizketaren edo neurri berezien bidez. Arau horien adibide dira, besteak beste, lan arriskutsuarekin lotutakoak, edo gaueko lana eta amatasuna babestekoak. Arau hauetako asko, gaur egun, baztertzaitzat jotzen dira. 1985ean Lanaren Nazioarteko Konferentziak aukera berdintasunaren eta gizonen eta emakumeen lan tratua inguruan erabakia hartu zuen eta, emakumeen babes neurriei dagokienez, aholkatu zuen emakumeei aplikatzeko moduko edozein babes-legedia ezagutza zientifiko gaurkotua eta

aldaketa teknikoak kontuan hartuta berrikusia izan zedila. Gainera, berrikusia izan behar zuen, osatua, hedatua, kontserbatua edo baliogabetua, nazio-egoeraren arabera. (LNE 2011a).

Lanean edozein eratako diskriminazioaren ezabatzea LNE-ren politikari datzekion printzipioa da. Horrez gain, LNE-ren oinarritzko zortzi hitzarmenetako biren gai nagusia da:

- Ordainsari-berdintasunari buruzko Hitzarmena, 1951 (100.zenbakia).
- Diskriminazioaren inguruko Hitzarmena (enplegua eta okupazioa), 1958 (111. zenbakia).

Bi oinarritzko hitzarmen hauez gain, beste bi hitzarmen lan munduan genero berdintasuna lortzeko ezinbesteko baliabidetzat jo dira:

- Familia-erantzukizuna duten langileei buruzko Hitzarmena, 1981 (156.zenbakia).
- Amatasuna babesteari buruzko Hitzarmena, 2000 (183.zenbakia).

Berdintasunari buruzko edo emakumeen eta gizonen beharrak, esplizituki aipatu gabe, kontuan hartzen dituzten beste arau esplizituak hauek dira:

- Lan erlazioaren amaierari buruzko Hitzarmena, 1982 (158. zenbakia).
- Enplegu-politikari buruzko Hitzarmena, 1964 (122.zenbakia).
- Haur-lanen era txarrenei buruzko Hitzarmena, 1999 (182.zenbakia).
- Zati bateko lanaldiari buruzko Hitzarmena, 1994 (175.zenbakia).
- Etxez etxeko lanari buruzko Hitzarmena, 1996 (177.zenbakia).

Berrikiago, 2009ko Lanaren Nazioarteko Hitzarmenean, lan zintzoaren ardaztat genero berdintasuna harturik, adierazten da lan munduko genero berdintasuna ez dela bakarrik giza-eskubide eta langileentzako justizia kontua; horrez gain, interes handia du, enpresa munduaren ikuspuntutik, lan emaitzentzat eta ezinbestekoa da ekonomiaren hazkunderako eta nazio mailako pobrezia gutxitzeari begira. Txostenak, gainera, gutxieneko segurtasun sarea jartzearen alde egiten du, pobrezia generoan hedadura ukazina duela kontuan hartuko duena. Ekonomizista kutsua duten argudio hauek erabiltzen dira, gure iritziz gehiegi, berdintasunaren arloan aurrerakuntzak errebindikatzeko orduan eta, ekonomiaren alorrean batik bat, justiziarekin eta eskubideekin lotutako argudioak, ia erabat, ordezkatu dituzte.

Azkenik, nabarmendu gura dugu 2011n 189. Hitzarmena onartu zela. Honen arabera, etxeko langileentzako, emakume nahiz gizon, lan ondradua onartzen da. Hau oso garrantzitsua da emakumeentzat, izan ere, sektore honetako langile gehienak emakumeak dira eta, ia beti, emakume pobreak. Ezaugarri hauek, ia ziur, zerikusi handia izango dute se-riotasun gabezi altua duen sektorea izatearekin.

LNE-ko zuzendari orokorra den Juan Somaviaren hitzetan, 189. Hitzarmenaren onarpenak *"une historikoa markatzen du, izan ere, lehenengoz nazioarteko lan baliabideak daude munduko lan-indarraren segmentu bati, funtsean sektore informalean okupatua, aplikagarriak. Horrela, etxeko lanaren balio soziala eta ekonomikoa behar bezala onartu dira. Baliabide hauek oinarri juridikoak dira langileek, emakume zein gizon, ekonomia formaleko langileek giza mobilizaziozko hamarkadetan lorturiko eskubideez errespetuz goza dezaten ziurtatzeko"*.



Nazioarteko gomendio honi jarraiki, Espainiako Gobernuak hobekuntzak sartu zituen sektore honen erregulazioan (azaroaren 14ko 1620/2011 Errege Dekretuan etxe eta familia-zerbitzuaren izaera bereziko lan-erlazioa erregulatzen da), baina, gaur egun, aurre-rakuntza hauek zalantzan jartzen ari dira ebaluazio arinegiak direla eta. Aldaketa hauek abenduaren 28ko 29/2012 Errege Dekretuan agertu dira. Dekretua kudeaketaren hobekuntzari, sistema berezian etxeko langileentzako giza babesari eta ekonomia eta giza alorreko beste neurri batzuei buruzkoa da. Aipatutako erreforma hau CC00ek *“atzera pauso burugabe eta bidegabetzat”* jo du.

Inguru hurbilagoetan, bai Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE), bai Espainiar Estatuko berdintasun-legeak aipatu nahi genituzke labur. EAEn, otsailaren 18ko 4/2005 legea, *Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako* Estatuan aitzindaria izan zen. Euskal Legearen III. artikulua parte-hartze alor ugarietan berdintasuna bultzatzeko neurriei buruzko da eta IV. artikulua lanaren gaian zentratzen da. Artikulu hauek ditu:

- 34. artikulua. Xedapen orokorra: *“Euskal administrazio publikoek aldizkako etxeko lanaren balio ekonomikoaren kalkulua egingo dituzte, pertsonen zaintza barne”*.
- 35. artikulua. Erantzukizun partekatua: *“Euskal administrazio publikoek gizonak etxeko lanez arduratzea bultzatuko dute”*.
- 36. artikulua. Xedapen orokorrak (enplegua): *“Euskal Administrazio publikoek, bere eskumenen barruan, abaguneak sustatu behar dituzte aukera- berdintasuna eta emakume eta gizonen tratua errealak eta eraginkorrak izan daitezen norbere kabuz edo norberari ez dagokion lan-sarbideen egoeran zein lan, formazio, promozio, lansari eta kontratuaren iraungitze-egoeretan”*.
- 37. artikulua. Enplegu-zerbitzuak.
- 38. artikulua. Enplegura sarbidea: *“Administrazio publikoek aginduko dute emakumearen kontratazioa sustatzeko neurriak aurreikusten dituzten enpresetara bideratutako laguntzetan”*; *“emakumeentzako enplegu egonkor eta kalitatezkoa sustatzeko programak garatuko dituzte”*.
- 39. artikulua. Formazio-planak.
- 40. artikulua. Emakume eta gizonen berdintasun planak eta politikak: *“Nagusi-ki, eta beti, diru publikoaren parte diren enpresek, bai eta enpresa pribatuek ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, barru-funtzionamenduan zein kanporako ekintzetan, sustatzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak dituzten planak edo programak osatuko dituzte”*.
- 41. artikulua. Erakunde laguntzaileak.
- 42. artikulua. Taldekako negoziazioa.
- 43. artikulua. Jazarpen sexista: *“Jazarpen sexista diziplinazko hutsegite larritzat hartuko da Euskal Administrazio publikoetan” eta “Euskal Administrazio Publikoek ofizioz jardungo dute jazarpen sexistaren salaketaren aurrean”*.

Espainiako kasuan, martxoaren 22ko 3/3007 Lege Organikoaren IV. titulua, emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoa, aukera berberekin egindako lanerako eskubideari buruzkoa da. Honako artikuluko ditu:

- 42. artikulua. Emakumeen enplegatzea hobetzeko programak.
- 43. artikulua. Taldekako negoziazio berdintasuna sustatzea: *“taldekako negoziazioaren bidez, ekintza positiboaren neurriak ezarri ahal izango dira emakumeen enplegatzea errazteko eta tratu berdintasunaren, eta emakumeen eta gizonen arteko lan-baldintzetan diskriminaziorik ezaren printzipioa modu eraginkorrean ezartzeko”*.
- 44. artikulua. Bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bateratzeko eskubideak: hauek langileei onartuko zaizkie; familia-ardurak, era orekatuan, nork bere gain hartzea sustatzeko moduan eta hauek gauzatzearen ondoriozko edozein diskriminazio baztertuko da.
- 45. artikulua. Berdintasun-planak osatzea eta aplikatzea: *“Berrehun eta berrogeita hamar langiletik gorako enpresen kasuan, aurreko atalak aipatu dituen berdintasun neurriek berdintasun-plana osatzera eta aplikatzera bideratuak joan beharko dute, kapitulu honetan ezarritako garrantzia eta edukiarekin. Halaber, lan-legedian ezarritako den moduan adostu beharko da”*.
- 46. artikulua. Enpresetako berdintasun-planen kontzeptua eta edukia.
- 47. artikulua. Berdintasun-planaren ezarketaren gardentasuna.
- 48. artikulua. Jazarpen sexuala eta laneko sexuagatiko jazarpena aurreikusteko neurri zehatzak: *“Enpresek jazarpen sexuala eta sexu arrazoiengatiko jazarpena ekiditeko lan-baldintzak sustatu beharko dituzte, hauek aurreikusteko prozedura zehatzak erabaki eta hau jasan dutenek jarritako salaketei eta erreklamazioei bide eman beharko diete”*.
- 49. artikulua. Berdintasun-planak boluntario ezarri gura dituztenentzako laguntza.
- 50. artikulua. Berdintasun alorrean, enpresentzako bereizgarriak.

Ez dugu atal hau amaitu gura Europan hasten ari diren lan-erreformak, beti ere balizko erakunde amorratu eta aseeginak diren merkatuak baretzeko, lan-eskubideen arloan atzerapauso izugarria direla esan gabe. Erreforma hauek, zalantzarik gabe, lan ezegonkorrerako joera areagotuko dute, Atzeraldi Handi honen aurretik gertatzen zen prozesua.

### **III. BERRIKUSTEN ARI DIREN KONTZEPTUAK: GARRANTZITSUENA ONDO BIZITzea DA**

---

Ekonomiaren helburua etekinak ugartzea den, eta horretarako, hazkunde ekonomikoa bi-latu behar delako ideia nagusiaren aurrean, uste dugu beharrezko dela gogoraraztea ekintza ekonomikoen azken helburua bizitzaren jasangarritasunak izan behar duela eta ulertzen dugu hori bizitzaren erreproduktio luzatua dela, halaber, honek baliabide naturalak zein zaintza eta estimu testuinguruak eta erlazioak eskatzen ditu (Picchio 2001; Carrasco 2009).

Prozesu honetan sartzen dira, beraz, gizakiaren beharren asetzeari, materialak zein maitasunezkoak, giza eta ingurumen-ingurugiro jasagarria.

Beraz, produkzio-lantzat hartu beharko lirateke bizi jasangarrirako laguntzen dutenak. Hala ere, ohiko ekonomiak lana enpleguaren sinonimotzat hartu du, izan ere, ekonomiaren mugak merkatuetan ezarri ditu, hau da; ondasunetan, zerbitzuetan eta diru-truk salerosten diren faktoreetan. Esklusiboki, merkatuez arduratuta, bazter utzi eta ez-ekonomikotzat eta ez-emankortzat jo dituzte merkatu horietatik kanpo garatzen diren ekintzak, baina, gure bizitzan oso garrantzitsuak direnak.

Bereziki, ordaindu gabeko etxeko lanez eta zainketez ari gara, baina, baita lan boluntarioez, eta abarrez ere. Etxeko lanak eta lan-saririk gabeko zaintzakoak ez-ekonomikotzat hartuta, ekonomiak merkatuak "izate autonomiak" balira legez aztertu ditu. Agente ekonomikoak ordezkatzeko dituztenak (homo economicus) honela ikertu ditu: subjektu arrazional, berekoi, independente, sentitzen eta jasaten ez dutenak, erabat bere burua aski dutenak, osasuntsu, ez oso gazte ezta zahar ere eta beti aktibo merkatuan ongizatea bilatzen dutenak irabazi ekonomikoaren bidez.

Zer esanik ez, merkatutik igarotzen ez den oro bazter utzita, ekonomiak ez ditu kontuan hartu tradizioz, ia esklusiboki, emakumeek egindako lanak eta merkatari-lanen eta merkatari lanak ez diren arteko erlazioa handia ikusaraztea ere ahaztu du. Areago, merkatari lanak ez direnek, sarritan, ekonomia-zikloak adosteko funtzioa bete dute, gaur egungo krisi garaian oso nabarmen ikusten dena.

Luzaro aintzat hartu ez diren eta, batez ere, etxeetan egindako lanak ikusarazteko erronkak zenbait ekonomista feministak ekonomia iceberg gisa ordezkatzeari eragin du. Iceberg honetan merkatu-ekonomia, merkatari-lanak egongo lirateke agerian, hau da, tradizioz diziplina ekonomikoak aztertutakoa eta atal murgilduak atal ez-merkataria ordezkatzeko luke, iceberg-a ahalbidetzen duen alde ezkutua, alegia.

Ekonomiaren ikuspegi konbentzionala zalantzan jartzen denean, honen mugak hausteaz gain, ekonomia-analisia merkatuez harago zentratzea bilatzen da. Halaber, munduaren ikuspuntu dikotomikoa hausten da (ekintza ekonomikoak/ez-ekonomikoak, merkatari-lanak/lan ez-merkatariak, maila publikoak/maila pribatuak) eta merkatari eta ez-merkatari alorren arteko loturak ikusarazten (Dalla Costa 2009).

Azterketa feminista honetatik zera nabarmentzen da: homo economicus prototipotik urrun, pertsona oro gara independenteak eta bizitzan zehar zaintza behar dugu. Nahi eta beharrian honen intentsitatea, argi dago, urteek aurrera egin ahala aldatu egiten da. Horretaz aparte, ukazina da inoiz zaintza-beharra bereziki intentsua dela; ahalmen ezberdinak dituzten pertsonen kasuan, esate baterako, edo, menpekoen kasuan, oro har. Menpekoak zaintzeak laguntza aldetik giza inbertsio handia eragiten du eta laguntza horren zati handia emakumeek ematen dute horren truk lan saririk jaso gabe (beste zati bat soldatapeko emakumeek ematen dute egoera prekarioan), lan hori maitasunaren ondorio izango balitz bezala. Lan hau generogatik ezberdintasun handiaren iturri da (Nussbaum 2012).

Iparraldeko herrialde askotan, azken hamarkadetan aldaketa handiak egon dira familia-zaintzen arloan. Aldaketa hauek zerikusi zuzena izan dute emakumeek lan-merkatuan sartzearekin. Horrela, emakume askok denbora osoko zaintzaileak izateari utzi diote, baina "etxeko lanak" ez dira desagertu. Beraz, emakumeek lan-merkatuan parte hartzeak

ez bazuen, ez-merkatari lanak desagertzea eragin, beste horrenbeste gertatu zen (pentsa zitekeen moduan) gizon askok lan saririk gabeko zaintza-lanak bere egitearekin. Gizonen aldetik zaintza lanetan aktiboki parte hartzeko aurka egite hau, akaso, lotuta egon daiteke bere ikustarazte eta baloratze ekonomiko eta sozial faltarekin. Hau gainditu gabeko ikasgaia da, izan ere, ordaindu gabeko lanen banaketa desberdina da ezberdintasun ekonomiko askoren oinarri (lan merkatuko ezberdintasunak, errenta banaketetakoak, pentsioetakoak, eta abar). Lanaren sexuaren arabera benetako banaketa ezinezkoa da "maskulinitasun" eredia gainditzeko eta gizonei eurei ere askatzaile izan dakiekeen beste ereduera abiatzeko gizonen aldetik lan sendorik gabe. Izan ere, soldatapeko lanean eksklusiboki aritzeak eta zaintza lanetatik kanpo egoteak autonomia handiagoa ematen die eta, aldi berean, botere ekonomiko eta soziala; baina izaera osoaz eta bizitzaren maila eta dimentsio ezberdinetan egotea galarazten die.

Edozein modutan, zaintzei dagokienez, ez dira ahaztu behar, are gutxiago krisi garaian, ziurgabetasunak eta aldaketak; ez dela etxean soilik zaintzen, etxetik kanpo ere zaintzen dela eta hauetan sektore publikoak, enpresek eta ekonomia sozial eta solidarioaren erakundeek esku hartzen dutela. Areago, maila ezberdineko zaintzen arteko lotura oso estua da eta honen ikusaraztea ekonomia feministaren ekarpen nabarmena da.

Etxetik kanpoko zaintzei balioa aitortzea garai ekaizsuotan oso garrantzitsua da, izan ere, krisiak aldaketa sasoiak dira eta alor honetan oso litekeena da aldaketak gertatzen aritzea; sektore publikotik etxekorako aldaketak, baina baita merkatutakoak ere. Oso zalantzarikoa da, bakarrik irabazi ekonomikoekin lotutako irizpideek gidatutako enpresak ongizaterako oinarritzko zerbitzuen kudeaketa eta hornidurari aurre egitea. Oraindik larriagoa da, hornidura horretan epe laburreko eta espekulazio-irizpideekin loturiko finantza-erakundeek parte hartzea. Gure ustez, arlo honetan oso interesgarria da hausnartzea eta eztabaidatzea, esate baterako, giza eta solidaritate-ekonomia erakundeek zaintzen horniduran izan behar luke ten paperaz. (Jubeto eta Larrañaga 2013).

## **IV. EMAKUMEEN KONTRAKO LAN DISKRIMINAZIOA: ENPLEGU TXARRAGOAK ETA SOLDATA BAXUAGOAK**

---

XX. mendeko bigarren erdialdeko aldaketa sozio-ekonomikoetatik garrantzitsuenetarikoa emakumeen lan-merkatutazte ugaria izan da eta prozesu hau ez da oraindik eten. Ez dugu zalantzarik emakumeak lanean izan duen parte hartzea ezinbestekoa izan dela autonomia ekonomikorako, izan ere, enplegua, gehienetan, gure ondasun eta beharrezanetarako diru-sarrerak lortzeko iturri nagusia (eta bakarra) da. Haatik, emakumeen merkatutaztea ez da berdintasunean egin eta laneko ezberdintasunak dira emakumeen kontrako diskriminazioaren adibiderik argiena eta unibertsalena. Argi gera dadin, lan-azterketa genero ikuspegitik egiten dugunean, gure ikuspuntutik egiten dugu; Europako ikuspegitik, alegia. Horrela, enpleguaz ari garenean, esplizituki zein inplizituki, gure inguruan oso orokortuta dagoen soldatapeko enpleguaz ari gara, baina hegoaldean, hain orokorra ez dena, ezta gutxiagorik ere. Askori "enplegu" hitzarekin lan emalea duen eta soldata jasotzen duen langilearen irudia datorkio gogora. Hala eta guztiz ere, herrialde pobretuetako langile gehienak, emakume zein gizon, lan-emalearen eta langilearen arteko erlaziotik urrun daude.

"Mendebaldeko" enplegu kontzeptua eta, horrekin batera, lehen aipatu ditugun soldatapeko eta soldatarik gabeko lanaren bereizketa eta lotura gehiago da mendebaldeko giza maila ertaineko eta lan ordutegi zehatza duten emakumeen kasua, hegoaldeko emakume askorena

baino (eta iparraldekoena ere bai). Hau da, soldata gabeko lanari buruzko produkzio akademikoa eta honen merkatari-lanarekin erlazioa herrialde aberatsetako ekonomia formalari dagokion enpleguan oinarritu da.

Gainera, nazioarteko erakunde zenbaiten hitzetan, oraindik ere, emakumeen enpleguaren ikuspegi instrumentala dago eta hau Munduko Bankuaren honako adierazpenean irakur daiteke: *“Pertsonen enplegua honek ematen dituen diru-sarreraren eta irabazien arabera baloratzen dute, baina auto-estimurako eta zoriontasunerako ekarpenegatik ere. Baina, enplegu mota batzuek gizarteari bestela eragiten diote. Emakumeen enpleguak familien dirua gatzatzeko eta seme-alaben heziketan eta osasunean inbertitzeko modua alda dezake”*. (Munduko bankua 2012)

Lana izatea emakume eta gizon gehienentzat ezinbestekoa da, izan ere, lehenengo eta behin, baliabide ekonomikoen iturri da. Baina gurea bezalako gizartean lana diru-sarrera baino gehiago da eta honen gabezia errenta faltatik harago doa: nortasun galera eragiten du, frustrazioa, depresioa, eta abar. Emakume zein eskualde aniztasunaz gain, badago ezaugarri bat kasu gehienetan komuna dena eta hau da:

#### Emakumeen lan parte-hartze eskasagoa

- Jardueraren zauria itxiz joan da, baina oraindik badirau.
- Emakumeen eta gizonen merkatuan parte hartzeko moduak, oraindik ere, ezberdinak dira.

#### Bereizketa okupazionala (estereotipoen garrantzia)

- Kontzentrazio handiagoa zerbitzu sektore gutxitan eta, sarritan, zaintzarekin lotua. (Bereizketa horizontala).
- Zuzendaritza postuetan emakume gutxi (kristalezko sabaia/bereizketa bertikala)

#### Prekarietate handiagoa

- Langabe-tasa altuagoak (ez beti) eta babes gutxiago langabezia egoeran.
- Zati bateko enpleguaren indar handiagoa eta, batzuetan, hau adiskidetzere tresnatzat hartzen da.
- Enplegu informaldaren indar handiagoa, batez ere, hegoaldean.
- Behin-behinekotasunaren indar handiagoa.

#### Soldata baxuagoak, honetan oinarrituta

- Formazio-ezberdintasunak
- Ezberdintasunak eskarmentuan eta antzinatean
- Bereizketa okupazionala, hau da, emakumeen postuei balio txikiagoa ematea.

Esan nahi genuke, ekonomiatik, azken urteotan, “kristalezko sabairako oztupoak”, gaztelaniarazko “techo de cristal” -zuzendaritza taldeetan emakumeen presentzia eskasa- delakoan zentratutako ikerketak ugaritu direla. Ikerketa mota hauek gutxietsi gabe, “elite txikian” oinarritutakoak direla diogu. Horrez gain, enpresa handien zuzendaritzan emakumeen parte hartze handiagoak ez du eragingo hauen estrategia aldatzea eta, esate baterako, euren enpresetako langileen lan baldintzak hobetzea (beharrezko baldintza izan daiteke, baina ez nahikoa, jakina). Gaur egun, arazo orokorragoa da eta emakumeak askoz gehiago kezkatzen ditu “suelo pegajoso” delakoan daudela, hau da, emakumeak piramide ekonomikoaren oinarrian mantentzen egiten dituzten indarrak daudela: ama-, ezkontide-, etxeko-lanak.

“Zoru koipetsu” horretan daude, zalantzarik gabe, ekonomia informalean lan egiten duten emakume gehienak. Lan informalaren kontzeptuaren barruan daude arau ekonomiko formalek edota oinarrizko babes legal eta sozialek gidatzen ez dituzten lanak. Garapen bidean dauden eskualde gehienetan, enplegu informala lan iturri handiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino. Gainera, emakumeak lan informalaren alde baztertuenetan eta esplotatzaileenean batzen dira, hau da, lan formaletan dagoen lanbide-bereizketa informaletan ere gertatzen da. Testuinguru batzuetan diru-sarrerak hain dira txikiak, ezen hainbat lanetan aritzeak ere ez baituen familia pobrezia muga gainditzera bultzatzen. Aurrerago ikusiko dugun moduan, emakumeen lan zaurgarritasuna oso altua da eta honek esan gura du askotan euren kabuz edo soldatarik jaso gabe lan egiten dutela familia-enpresetan edo landetan.

Gaur egun, lan formal eta erregularraren eta informalaren (edo ez estandarra) kalitatearen arteko ezberdintasuna enpleguaren egituran dagoen haustura nagusia da, batez ere hegoaldean, baina gero eta gehiago errenta altuko herrialdeetan. Langileek, emakume zein gizon, lan informaletan gutxiago irabazi ohi dute, diru-sarrera aldakorragoak dituzte, ez dute zerbitzu publiko eta oinarrizkoetara sarbiderik eta babesik, eta lan formaletako langileek baino pobrezia arrisku handiagoa dute. Horrez gain, pentsa daitekeenaren kontra, krisiak ere enplegu informalari eragiten dio eta, honen zehaztasuna da, lanaren galera ez dagoela babestua.

Lehen ere adierazi dugu ezberdintasun hauek ezin direla ulertu etxeko lanetan eta zaintzako soldatarik gabekoetan gertatzen dena kontuan hartu gabe. Aldi berean, emakumeen lan ezberdintasunek euren biziaz harago luzatzen den eragina dute, izan ere, ondorioz pentsio txikiagoak, etendako lan-ibilbideak... gertatzen dira. Nekez berdinduko dira emakumeen eta gizonen arteko lan baldintzak bizi baldintzak, oro har, berdindu ezean, eta bereziki, euren etxeko bizi baldintzak (Maruani 2004).

Berrito nabarmentzen dugu garrantzitsua pertsonak ondo bizitzea dela. Ez dakigu zer den ondo bizitzea eta bizitza onaren kontzeptua asko alda daiteke leku batetik bestera, pertsona batzuegandik besteengana, baina pentsatzen dugu ia beti esan nahi duela bizi luze eta osasuntsuaz gozatzea dela, kalitatezko heziketa izatea, bizi-maila duina lortzeko baliabideak izatea, komunitate-bizimoduan parte hartu ahal izatea, ziurtasuna izatea, hau da, biolentziarik gabeko tokian bizi ahal izatea, giza eskubideak bermaturik izatea, eta abar.

Enplegua izateak bizi-mailari eusteko behar diren diru-sarrerak izatea esan nahi du, baina bizi-kalitatea ez dago diru-sarreraren baitan bakarrik: zerikusia du, esate baterako, aisialdiarekin, lan-baldintzekin, iritzia emateko aukerarekin, lanarekiko gogobetetzearekin, eta abar. Beraz, ez dute lan guztiek balio, areago, gaur egun lana edukitzeak ez du esan nahi, nahitaez, autonomia ekonomikoa izatea, eta horren adibide dira langile pobreak, emakume nahiz gizon (ugari hegoaldean eta, gero eta gehiago, iparraldean). LNE-k (Lanaren Nazioarteko Erakundea) 1999an “lan (enplegu) ondraduaren” kontzeptua erabiltzea proposatu zuen nazioarteko lan-estandarrek beteko dituen lan-erlazioak izan beharreko ezaugarriak zehazteko. Lan ondraduak esan nahi du gizonen eta emakumeen aukerak izatea ekintza produktiboa gauzatzeko eta honek soldata justua ematea, ziurtasuna eta giza babesa edukitzea lanean, garapen pertsonalerako eta giza integrazioarako ikuspuntu hobek eskainiz eta parte hartze-eta elkartzeko eskubideak bermatuz. Baita aukera eta guztionezko tratu-berdintasuna ere. (Hernandez, Gonzalez eta Ramiro 2012).

Enpleguaz gain, giza babesa gakoa izan daiteke pertsonen ongizatean eta funtsezko garrantzia izan hauek pobreziatik eta eskasitatik libratzeko. Beldur horiek uxatzeko, hain zuzen ere, politika publikoek ez dituzte soilik oinarrizko zerbitzuak eskaini behar; horrez gain, pertsona

hauek zerbitzu horiek etorkizunean ere izatea bermatu behar dute. Honek dakar esate baterako, elkartzte, administrazio-politikez... (ziurtasun hori bermatzeko egokiak) hausnartzea. Honekin estu lotuta, 2010ean, LNE Babes sozialeko etxebizitza kontzeptua erabiltzen hasi zen. Babes sozialeko etxebizitza hau politika sozialen multzo osatu gisa definitzen da eta pertsona orori diru-sarrerera ziurra eta oinarrizko giza zerbitzuetara sarbidea bermatzeko diseinatua. Horrez gain, arreta berezia jarri zitzairen talde zaugarriari eta pertsonak bizi-arloan zehar babestu eta ahaldundu ziren. Babes sozialeko etxebizitzak honako bermeak ditu (LNE 2011b):

- Oinarrizko ziurtasuna diru-sarreretan transferentzia sozial mota anitzen bidez (esku-dirutan edo jenerotan), hala nola, pentsioak, prestazioak, diru-sarrerari laguntzak edota bermeak eta zerbitzuak eta abar. Azken hauek langabetuentzako eta langile pobreentzako enpleguari dagozkienak.
- Oinarrizko giza zerbitzuetara sarbide unibertsala eta eskuragarritasuna alor hauetan: osasuna, ura, saneamendua, hezkuntza, elikagai-ziurtasuna, etxebizitza eta nazio-lehentasunetan zehaztutako beste batzuk.

*Babes sozialeko etxebizitza* emakumeen ahalduntzerako tresna izan daiteke. Etxebizitza honen helburua gaur egun kanporatuta dauden pertsonentzako eta ekonomia informalarantzako oinarrizko giza babesa areagotzea da eta honek genero-ezberdintasunetako batzuk zuzentzeko aukera handiak eskaintzen ditu. Familia-erantzukizunei aurre egiteko laguntza publiko eta pribatu ezak eragiten du emakume askorentzat ekonomia informala izatea ordaindutako lanak (malgutasun nahikoarekin, autonomia dutenak eta soldatarik gabeko betebeharrak soldatapekoekin bateratzea ahalbidetzeko geografikoki hurbilak) eskaintzen dituen bakarra.

## **VI. EMAKUMEAK GLOBALIZAZIOAN: ZAINZA ETA ENPRESA TRANSNACIONALEN MUNDU MAILAKO KATEAK**

---

Globalizazio neoliberalak, XX. mendeko azken hamarkadetan finkatua, eragina izan du nazioarteko ondasun eta zerbitzu eta kapital eta eskulan mugimenduetan. Hala ere, kapitalismo globalaren aro honen ezaugarri nagusia da aurpegi askotako fenomenoak dela, eta hauen dimentsioak ez ditu soilik erlazio ekonomikoak hartzen, baita elkarri era konplexuan eragingo dioten sozialak, politikoak, erlijiozkoak eta juridikoak ere (Sousa Santos 2005). "Alternatiba bakartzat" hartzen zen globalizazio neoliberalaren hamarkadak ondorio negargarriak izan ditu mundu mailako biztanleria zabal batengan.

Kapitalaren mugimenduen liberalizazioan izandako aldaketak eta Atzerritar Inbertsio Zuzenaren (AIZ) hedapena globalizazioaren funtsezko osagai bi dira eta nazioarteko komertzioaren liberalizazioa ere nabaria da. Langileen mugimendua, baina, osotasun garai honetan traba gehien dituen osagaia da. Nazioarteko mugimendu migratzaileekin estu loturik, zaintza kate osoak deiturikoak osatu dira. Hauek pertsonen zaintza arloko globalizazioaren irudikapentzat uler daitezke. Kate hauek pertsonen zainketarako eta etxeko lanetarako emakume etorkinen kontratuen helegitearen ondorioz sortu dira. Kateon lotura emakumeak dira, hegoaldekoak batez ere, iparraldeko etxeak zaintzera datozenak (hegoaldeko herrialdeetan ere gertatzen da) eta askotan, euren seme-alaben zaintza beste emakume baten esku uzten dutenak, bai senideen bai era prekarioan kontratatuetakoen esku. Azken hauek, aldi berean, enplegu aukeren bila abiatu ahal izan direnak dira (Orozco 2007,2009).

Zaintzen kate global hauen eraketan bi krisik eragin dute: alde batetik, herrialde pobreetako erreprodukzio sozialaren krisiak. Honek gizon eta emakumeak emigratzera behartzen ditu baldintza material egokiagoetan bizitzea ahalbidetuko dieten diru-sarreren bila. Beste alde batetik, iparraldeko herrialdeetako zaintza-krisiak deiturikoak.

Zaintza-krisia estu lotuta dago XX. mende erdialdera arte nagusi zen familia ereduaren hausturarekin. "Dirua lortzen duen gizona/emakume etxeoandrea" eredia hausten da emakumeak ez dituen erabat eta soilik familia eremuko beharrak betetzen, hau da, "lanaldi osoko etxeoandreen" irudiaren nagusitasuna gainbehera hasten denean. Honi beste gertakari demografiko batzuk gehitu behar zaizkio, esate baterako, zaintzaile kopuruan eragiten duen ugalkortasun tasen jaitsiera edo bizi-itxaropenaren emendioa, eta ondoriozko biztanleriaren zahartzea eta honek dakarren zaintzaile eskaeraren igoera nabaria. Pertsonak zaintzeko zerbitzu publiko erako erantzun ezak, herrialde askotan, zaintza-hornidura kontu pribatutzat hartzea eragin du eta familiek zaintza beharrak betetzeko emakumeak kontratatzea jo dute. Etxeko eta zaintza lanak, emakumeek "dohainik" eskaintzen zituztenean, ez direnez inoiz ikusgarri ez baloratuak izan, hauek kontratatzen direnean bigarren mailako enplegu bihurtzen dira, formaltasunik gabeko lanak, soldata baxukoak, lan-baldintza eskasekoak, eta abar. Etxeko eta zaintza lan ordainduak beti izan dira emakumeen lanak eta emakume pobreenak. Hauen ordezkari nagusi, garai globalizatuotan, emakume migratzaileak dira. Sarritan, etxeko langile diren emakume hauek eskubideen urraketa, esplotazioa eta jazarpen errepikaria jasane behar dituzte, batez ere, barneko langileek. Horrela, LNE-k etxeko zerbitzuertarako langile emakumeak "munduko zaugarrienen" taldean kokatzen ditu. Gaur egungo globalizazioan protagonista nagusia enpresa multinazionala da (ETN). Hau, Raymond Vernon-en arabera, zera da: "bere ekintzak nazioarteko mailan gidatzen saiatzen den konpainia, nazio-mugarik ez dagoela sinesten duenaren moduan, korporazio-zentroak gidatutako estrategia komuna oinarri hartuta". (Hernandez, Gonzalez eta Ramiro 2012). Enpresa multinazionalak mundukomertzioaren bi heren direla uste da eta enpresa arteko komertzioak (komertzio internazionala da enpresa beraren barruan, estatuen mugak igarotzen dituelako) munduko esportazioen herena hartzen du (LNE 2004).

Enpresa multinazionalak nazioarteko sistema ekonomikoan hartu duten garrantzia indartsu loturik dago merkatuaren aldeko doktrina ekonomikoekin. Hauek iniziatiba pribatua ekonomiaaren motor nagusitzat dute eta langileak enpresa hauen interesen mende uzten dituzte. Epe laburreko irabaziei emandako lehentasunak eta duten mugimendu askatasunak Atzerritar Inbertsio mugimendu jarraikia eragiten ari dira. Honek, aldi berean, enpresen deslokalizazioen eta ixteen beldurra eragiten du eta honek eragina du langileek lortutako ekonomia eskubideen galeran, lan-prekarietatearen gorakadan; eta honekin, lan-istripuena, lan-jazarpenagatiko salaketaren beldurra edo sindikaltzeko oztopoak.

Testuinguru honetan, handituz doazen Atzerritar Inbertsio Zuzenaren fluxuek eragindako produkzio sistema globalak hedatuz joan dira azken hamarkadetan. Gaur egun 65.000 enpresa multinazional kalkulatu da direla sistema hauen funtsezko eragileak, gutxi gorabehera 850.000 atzerriko eskumendeko enpresarekin. Horrez gain; multinazional hauek enpresak herrialde guztietan konektatzen dituzten hornitzaile globalaren kateak koordinatzen dituzte, baita azpi-kontratatzaileak ere (LNE 2004).

Uste da iragan mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan mundu mailako multinazionalak langileen %60 eta 80 artean emakumeak zirela. Kasu askotan, multinazionalak herrialde periferikoetara heldu dira eskulanean feminisatzeari esker, batez ere, eskulan intentsiboa duten industria esportatzaileetan; adibidez, ehungintza, lorezaintza edo landa industria. Enpresa





handi hauek bultzaturiko baldintza soziolaboral prekarioak emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun ekonomikoak betikotzea eragin dute. Horrela, azken baten, korporazio handiak nazioartekotu diren elkarteetan "garapen" ez-bidezkoa sustatu dute. Egiatan, ezberdintasun hau oso erakargarria da inbestitzaileentzako (Hernandez, Gonzalez eta Ramiro 2012).

Eragin soziolaboralez gain, multinazionalen beste motatako inpaktuak daude emakumeen bizitzan eragina dutenak eta garapen ezberdina sustatzen dutenak. Horrela, AIZ oso errentagarria bermatzeko botere-korporazioengandik bultzatzen den desregularizazioak ondorio larriak ditu emakumeen osasunean eta eritasun kasuen kopuruan; oinarrizko zerbitzuak pribatizatzeak eragin berezia du emakumeengan, petrolio eta argindar-azpiegitura handien inguruan eta zerga-gabeko lekuetan genero indarkeria eta prostituzio tasak oso altuak dira.

Muntatze-lanak egiten dituzten multinazionalak, laka moduan ezagunak, euren produktuen lehiakortasuna soldatak aurreztean oinarritzen dute. Produkzio mota honek; gehien bat emakumeei ematen diena lana, eta batez ere, Txinan eta AEB-etatik hurbilen dauden herrialde latinoamerikarretan (Mexiko, erdialdeko Amerika eta Dominikar Errepublika) garatzen dena, inpaktu handia izan du ez bakarrik emakumeengan. Gainera, lan-patroi oso errentagarria sustatu du, baita lanaldi lehegarriak, formaltasunik eza eta giza desegituraketa ere.

Espainiako enpresa multinazionalak ere ez diote logika honi muzin egiten eta, berdin-berdin lortzen dituzte etekin handiak esplotazioaren bidez eta emakumeen oinarrizko eskubideak urratuz. Esate baterako, aipagarriak dira Inditex, Calvo eta Telefonica. Hauek euren negozioak herrialde askotara hedatu dituzte "makila eredu" erabilita. Gas Natural Fenosa ere horren adibide da, honen ekintzek inpaktu handia eragin dute emakumeen eskubide ekonomikoetan, sozialetan eta kulturaletan, izan ere, zerbitzu publikoak pribatizatu dituzte. Zerbitzu publikoen merkaturatzeak, baina, funtsean, eragina izan du zaintza eta erreproduktio sozialeko lana egiten dutenengan, hau da, emakumeengan. (Gonzalez eta Ramiro 2013).

Ehun enpresa handiek sustatzen duten muturreko lan-baldintzen adibide da 2013ko apirilko Dhaka-ko (Bangladesh) ezbeharra. Ehungintza-enpresaz (Herrialdeko BPG-aren %17 ehungintza produkzioa da) beteriko eraikina behera etorri zen. Zortzi solairuko eraikina lurrrera etortzearen ondorioz, 1.000 lagunetik gora hil ziren, gehienak emakumeak eta asko adingabeak.

Eraikinean 3.000 lagunetik gora egiten zuten lan, esate baterako, Espainiako El Corte Inglés sartaldeko multinazionalerako, Primark britainiarerako, Kanadako Loblaw-erako eta Danimarkako Group PWT-erako produzitzen. Uste da Bangladesh-eko (Txinaren ostean bigarren arropa esportatzailea) ehungintza-langileetatik %90 emakumeak direla eta hilean 32 euro kobratzen dituztela. Jantzigintzako lanaldiak eguneko 12 edo 14 ordukoak dira, astean sei egunez. Langileak ezin dira kexatu beren soldata ez delako nahikoa oinarrizko beharrak asetzeko eta familia mantentzeko. Hau, esklabotzaz gain, dumping soziala da. Hau da, kompetentziak baino produktu merkeagoak eskaintzea esplotazio-prezioko eskulan bati esker.

90. hamarkadan ekonomikoki pobretutako herrialdeetarako arroparen produkzio-deskokatzea indartu zen. Momentu honetan hornitzaileen azpikontratazioa zen negozio-eredu nagusia. Marka oso ezagunak, iraganean beren arropa produzitzen zutenak, diseinu-enpresa izatera pasatuko dira; banatzaileak, eta mundu osoan hirugarren baten tailerretan eta fabriketan egindako arropak merkaturatuko dituzte. Sistema honetan lehiatzeko, lan-kostuak eskulan merkeko herrialdeetara kanporatzen dituena, moda enpresa txikiak ere bildu ziren eta negozio eredu bera ezarri zuten. H&M edo Zara (Inditex taldekoak) bezalako enpresa

multinazionalen ospea ez litzateke posible manufaktura prozesuak, hein handi batean deskokatzearen ondoriozkoa, beren produktuak merkatu gabe. Hala ere, gaur egun, garesti erosita ere, ez da bermatzen horrelako baldintzak ezartzen ez direnik, izan ere, informatikako produktu oso-oso garesti batzuk edo luxuzko arropak ere Txinan egiten dira hilabete-ko 300€-ko soldatekin.

Mundua, egun, inoiz baino gehiago multinazional handien jabetza da. Espainian finkatutako Amerikako enpresa indartsuek, hala nola, Apple, Google, Yahoo edo Amazonek izugarritzko diru-sarrerak dituzte, baina apenas ordaintzen dituzten zergak ere bai; egiatan, galerak edo gutxieneko irabaziak aitortzen dituzte. Espainiako multinazionalak ez dute politika oso ezberdina ezartzen kanpoan. Legeak onartutako zerga-ingeniaritza erabiltzen dute, zerga babeslekuak erabiltzen dituzte esportatzeko edo beren irabaziak zerga baxuagoak diren tokitan aitortzen dituzte. Legala da, baita boteredun erdigune politikoek jakina eta sustatua ere [El País 2013/05/05].

## **VI. KRISIAK, (DES)EGOKITZEAK ETA EZBERDINTASUNAK**

---

Zailtasun eta aldaketa handiko garaian gaude, European urgentziaz gainditu beharreko ziurgabetasun eta erronkaz beteriko une historikotzat jotzen dena. Gaur egungo krisia; hein handi batean, globalizazio neoliberalaren ondorio izugarria izaten ari da eta eragiten ari den aldaketak, zalantzarik gabe, historiara igaroko dira.

Dagoeneko, bizi dugun krisia soilik finantza eta ekonomia-krisia ez dela badakigu. Zalantzarik gabe, krisi instituzional eta politikoaren aurrean gaude, zaintza-krisia, ekologia-krisia eta, planetako toki askotan, elikagai-krisia. Hala ere, ukaezina da orain sei urteko krisia finantza-krisia dela. Kapitalismoaren beraren erdian eta mundu mailako finantzetan, finantza globalen eta kontrolik gabekoen testuinguruan, lehertutako krisia. Hori dela eta, atal honetan, krisi ekonomikoan zentratuko gara eta, bereziki, honek emakumeen lan eta enpleguetan dituen ondorioetan.

Krisiak gizonei emakumeei baino gehiago eragiten dien edo ez galdera errepikaria da. Historiak erakusten digu era ezberdinean eragiten duela eta horrela segituko duela banaketa lanbide-bereizkeria dagoen bitartean, hau da, lanpostuak generoaren arabera bereizten diren bitartean. Izan ere, hasteko, krisiak ez du berdin eragiten sektore guztietan. Gaur egungo merkatuaren hondatzea, baina, ez da bakarrik langabeziaren gorakadaren ondorio, krisiaren aurretik ekindako ez-egonkortasunerako joera handitzearena ere bada. Honetan, ezbairik gabe, administrazioak bultzatutako lan-erreformek eragina dute.

Gehiegi orokortzeko arriskuarekin ere, baieztatu dezakegu, oro har, emakumeen langabeziaren zatirik handiena kezkari sozialaren gizonenaren zatirik handiena baino txikiagoa izan dela. Hau argiro ikusi zen 1990eko hamarkadaren hasieran, baina, gaur egun ere, gehiago aipatzen dira gizonen langabezia, langile industrialena eta eraikuntzarena femeninoa baino. Langabezi femenino honetarako tolerantzia sozial eta politikoaren azpian sineskera hau dago: emakumeen kasuan lan-merkatuan parte hartzea aukera bat da, eskusiboki familia-zaintzara dedikatzea bezain balioduna. Gizonen kasuan, berriz, ez dago merkatuan parte hartzea ez den beste aukerarik.

Azkenaldian asko hitz egiten da enplegu-krisiaz, baina gertatzen ari diren beste aldaketa batzuek ez da inor konturatzen. Ia ziur, etxeko eta zaintza langileen lanorduen erabilerarekin gertatzen ari diren transformazioek ari gara. Alde batetik, pentsatzekoa da etxeetan, errenta




gutxitzearen eta honen ondoriozko erosteko ahalmenaren galeraren aurrean, krisi aurreko material ongizateari eutsi gura izango zaiola, ondorioz, oparaldian merkatuan lorturiko ondasun eta zerbitzuak berriro ere etxean sortuko direla.

Pertsonarentzako ongizatearen albiste txarrak, baina, ez datoz enplegu-estatistiketatik eta diru-sarreraren banaketatik soilik. European aurrekaririk gabeko ongizatearen Estatuaren kontrako kolpea jaso da. Antza denez, behin eta berriz defizit fiskala desagertzeko eskatzen duten (finantza)-merkatuen izenean; biztanle gehienengatik ongizaterako funtsezko zerbitzu publikoak murrizten eta pribatizatzen ari dira, hala nola; osasuna eta hezkuntza. Hauek ezinbestekoak dira pertsonen zaintzarako eta, zalantzarik gabe, "zaintzaren ekonomia" deiturikoaren parte.

Ongizatearen Estaturako funtsezko zerbitzu hauen murrizketak ez dira gastu publikoa aurreztera mugatzen, izan ere, honekin estatuaren zama etxeetara pasatzen da. Zerbitzu askotan, langile kopuruaren murrizketak gogor eragiten du emakumeengan, izan ere, sektore feminizatuak dira osasuna, hezkuntza, zerbitzu sozialak... Litekeena da neurri hauek kontu publikoak hobetzea, baina ez dira debaldekoak: zerbitzuen kalitatea hondatzeaz gain; lanorduetan etxeetara igarotzen dira, hau da, ordaindutako lanorduen galera eta ordaindu gabeko lanorduen gorakada gertatzen da.

Gaur egungo krisiak, Atzeraldi Handi honek, mundu mailako krisia izan arren, kasu honetan eragin zuzenagoa izan du iparraldeko herrialdeetan, bereziki, European. Hurrengo grafikoan adierazi gura dugu nola heldu diren (Wall Street-en, munduko finantza-erdigunean, sorturiko) krisi honen eraginak hegoaldeko herrialdeetara.

Finantzetatik ekonomia errealerara igaro zen krisi hau ez da berria. Egiatan, kapitalismoaren historia krisiz beterik dago. Egia da, baina, European ehun urteetako krisirik larrienetakoan gaudela. Hala ere, herrialde askok bizi izan dituzte, orain dela ez asko, antzeko krisi-egoerak eta pobretze izugarriak. Horrela mintzo zen elkarrizketa batean Dilma Rousseff, Brasilgo presidentea:



*"Gu igaro gara honetatik. Nazioarteko Diru Funtzak 'egokitze' deitu zuten prozesua ezarri zigun, orain 'soiltasun' deitzen diote. Gastu guztiak murriztu behar ziren, arruntak zein inbertsioetakoak. Baieztazen ziguten horrela eraginkortasun handia lortuko genuela, soldatak jaitsiko ziren eta zergak egokitu zituzten. Eredu horrek ia Latindar Amerika osoaren porrota eragin zuen lauogeigarren hamarkadan" (El Pais, 2012-11-18)*

Europar orain gertatzen ari denak, beraz, herrialde Latino Amerikarretan laurogeigarren hamarkadan sufritutakoaren antz handi du eta han egokitzeak mingarriak izan baziren, eta "galdutako hamarkada" deiturikoa eragin bazuen, ez dugu zertan pentsatu Europako sufri-menduak ez duela denboran iraungo ezartzen ari diren politika ekonomikoak eta sozialak errotik aldatu ezean.

Globalizazio prozesuak erlazio ekonomikoak eta sozialak zaildu ditu "ezberdintasun zein bazterketa sistemak igarotzen ari diren metamorfosiaren bertutez", aldaketok, hein handi batean, "ekonomiaren eta kulturaren arloan gaur egungo globalizazio prozesuen areagotzeak" eraginda edo baldintzatuak izan dira (Sousa Santos, 2005). Bat gatzoz Sousa Santosek ezberdintasunen sistemak gaur egungo munduan hartu duen garrantzian, izan ere, hau herrialde barruan zein nazioarte mailan areagotzen ari da. Ez da inoiz hainbeste aberastasun material hain esku gutxitan egon eta datuek frogatzen dute "mundu mailako ezberdintasuna izugarri altua dela" (Milanovic, 2012).

Zentzu honetan, LNE-ren Lansarien inguruko Mundu Txostenak 2012/2013 diru-sarreraren banaketan ezberdintasunak, banaketa funtzionalari zein pertsonalari dagokionez, areagotu direla egiaztatzen du. Hau da, epe luzerako, errentan soldaten parte hartze txikiagorako joera dago eta, gainera, soldatako langileen goiko %10 eta beheko %10aren arteko distantzia areagotu da, baita soldata baxuekin okupatutakoaren proportzioa ere (soldataren batez beste-koaren bi heren baino gutxiagotzat joa).

Krisiak bereziki gogorrak izaten dira talde ahulentzat eta diru-sarrerak krisiaren aurretik, dagoeneko, garrantzitsuak baziren, ezberdintasunak (kontua asko aldatzen ez bada) krisiaren ezaugarri argienetarikoa izango dira. Krisi-ondoko mundua existitzen bada, erabat ezberdina izango da. Ezberdintasunaren gorakadak ez die kaltetutako pertsonen soilik eragiten, gizarte-taldearentzat ere kaltegarria da, izan ere, diru-sarreraren banaketa herrialde oso baten ongizatean eragina duen faktorea da eta haziz doazen ezberdintasunak dituen herrialdeak, pertsona ahulenen ondorez gain, mesfidantzaren eta beldurraren kultura bultzatzen ditu. Emakumeentzat ere oso kaltegarria da; ez baitira, batez beste, baliabideen banaketaren rankingean posturik onenetan egoten.

Egun, ezberdintasunen areagotzea estu lotuta dago enpleguaren inguruko krisiaren eraginekin eta uste dugu enpleguaren etorkizunaz hausnartzeko une egokia izan daitekeela. Antza denez, gehiengoaren diskurtsoak krisiaren amaiera hazkundearen eta enpleguaren sortzearen eskutik etorriko dela dio. Bide honen alde egiten dutenek zalantza bakarria dute: zein enplegu mota sortuko den, berrikuntzarekin eta teknologia berrieekin lotuak (kasu honetan, oso garrantzitsua litzateke alor hauetan emakumeen formazioa sustatzea) edo, egungo joerari jarraiki, gero eta enplegu ez-egonkorragoak.

Enplegua sortzeko beharrezkoa izango da lan-merkatuarekin lotutako politikak ezartzea (politika aktiboak eta pasiboak). Baina, gaur egungo lan eta ezberdintasun-arazo handiei aurre egiteak bestelako erreformei ere aurre egitea eskatzen du. Horrela, diru-sarreraren banaketa berrerekatzeko ez dira nahikoak lan-merkatuko politikak. Kontuan hartu behar dira, esate baterako, zerga-ordainketako aldaketak, baina baita lan kontuetatik urrunago dauden kontuetakoak ere. Finantza-erregulazioa da kasua, izan ere, finantza-globalizazio geldiezin honetan baliabideak giza inbertsioetik finantza-inbertsio espekulatiboetara desbideratzeko eragin duten politikak, epe laburreko etekina helburu duten pizgarriak eragin dituzte. Beraz, errentaren banaketaren berrerekak eta enplegua sortzeak finantza-sektorearen erregulazio hobea ere eskatzen dute, baita banku publiko eta etikoaren sustapena eta baliabideen bide-

ratzean (inbertsio ez-espekulatiboetarantz eta sozialki eta ekologikoki jasangarrietarantz) bere paperaren berrezartzea ere.

Ekonomiak enplegu nahikoa sor dezakeela uste dutenen aurka, beste batzuek uste dugu balitekeela orain arteko enplegu eredu nagusia agorturik egotea. Kasu horretan, enplegu eredu berriak diseinatzen hasteko garaia da eta, zalantzarik gabe, trantsizio zail horretan lagunduko duten neurrietan pentsatzeko, izan ere, ohitura eta pentsaera-aldaketa handia eskatzen dituzte. Eredu berrian enpleguak erdigune izateari utziko lioke eta denbora guxtiago hartuko luke gure bizitzetan. Etorkizuna hau bada, enpleguaren denborak ez ezik lan guztietakoak era zuzen batean ere nola banatu pentsatu beharko da, izan ere, ez litzateke batere zilegi izango batzuen denbora liberatuak aisialdia izatea eta besteak ordaindu gabeko lanorduak.

## VII. EZBERDINTASUNAK NEURTZEN

---

### Denboraren erabilerak: lan gehiago, baina ikusten ez direnak

Ordaindu gabeko lanen esparruan, erabilera/aurrekontu/enplegu inkestak egitea garrantzitsua izan da, baina ez da nahikoa gutxienez, arrazoi birengatik. Alde batetik, inkesta hauek orokortuta ez daudelako, eta era sistematikoan egiten ez direlako, gainera, metodologia komuna ere ez dute eta azken honek zaildu egiten du (eta inoiz ezinezkoa egiten du) denbora eta nazioarteko konparazioa. Beste alde batetik, inkesta hauek ordaindutako eta ez ordaindutako lanetan diharduten emakumeen eta gizonen denboraren banaketaren inguruko informazioa hedatzen dutelako. Hala ere, ez dira lan-estatistikekin alderagarriak, hori dela eta, lan-azterketak eta ordaindu gabeko lanen azterketak bateraezinak izaten segitzen dute, "aparteko munduak" izaten, alegia.

Denboren neurketan eta bere erlazioen neurketan aurrera egiteko beharra, dagoeneko, ez da ekonomista feministen errebindikazioa bakarrik, eta horren froga da ekonomiaren garapenaren neurketari eta giza aurrerapenari buruzko Batzordearen (Sarkozy Batzordea izenarekin ere ezaguna) Txosten egileek onartzen dutela "etxeek, berez, sortzen dituzten zerbitzu asko ez direla diru-sarreraren eta produkzioaren adierazle ofizialetan kontuan izaten, ekintza ekonomikoaren aldetik, baina, paper garrantzitsua jokatzeko dute" eta "komenigarria da askoz lan gehiago eskaintzea eta sistematikoagoak izatea. Hasteko, bereziki, pertsonen denboraren erabilerari buruzko informazioak, denboran eta espazioan konparatzen direnak" (Stiglitz, Sen, Fitoussi 2009). Beraz, lanaren kontzeptua zalantzan jartzea lotu izan da ongizatearen kontzeptua zalantzan jartzearekin. Azken hau, tradizioz, erabilgarritasunaren go-rengo mailarekin eta biztanleko Barne Produktu Gordinarekin hazkundearekin lotua izan da.

Denboraren erabileren inkesten gabezia garrantzitsua izateaz gain, erabilgarri daudenetatik zenbait ondorio komun atera daitezke. Horien artean hauek nabarmenduko ditugu (LNEetaNBGP eta Eurostat 2006):

- Emakumeen eguneroko lanordu kopurua gizonena baino handiagoa da, ondorioz, emakumeek denbora libre gutxiago dute. Hau ez da kontu hutsala, izan ere, pertsonen ongizatean "lanetik kanpoko" denborak garrantzia handia du. Zentzu honetan, Sarkozy Batzordeak zera baieztatu zuen: "aisialdiaren balorazioak zailtasun ugari badakar ere, beharrezkoa da honen garrantzi kuantitatiboa kontuan hartzea denboran eta espazioan bizi-mailen konparazioak ezarri ahal izateko" (Stiglitz, Sen, Fitoussi 2009).

- Etxeko- eta zaintza-lanak emakumeen erantzukizuna dira, funtsean, etxekoandre zein soldatapeko langile izan. Hau da, soldatarekin lan eginda ere, etxeko- eta zaintza-lanen banaketak ezberdina izaten jarraitzen du.
- Emakumeek zeregin hauetara bideratutako denbora gehigarri hori nabarmen areagotzen da seme-alabak izatearekin lotutako bitzta zikloaren tartean.
- Emakumeen lanaldia gizonena baino txikiagoa da etxeko eta familia-beharrak bete beharraren ondorioz. Honek ondorio negatiboak ditu euren hileko ordainsari-mailan eta emakumeen erretiroetan.
- Denboraren erabileran dagoen genero-arrakala sakondu egiten da talde sozioekonomiko baxuenetan: emakume pobreek eskaintzen diete denbora gehien etxeko lanei. Datu hauek genero-tradiziozko funtzioen sendotasuna baieztatzen dute baliabide gutxiagoko familietan; hau da, hain justu ere, estualdi sozioekonomikoei aurre egiteko bigarren diru-sarrera gehien behar dutenetan. Hau, bereziki larria da, izan ere, jakina da denbora falta eta ordaindutako lanak etxekoekin bateratzeko zailtasuna direla emakumeak lanik ez bilatzearen arrazoietakoa bat.
- Horrez gain, Latindar Amerika bezalako eskualdeetan, genero-arrakala sakontzen duten faktore sozial eta ekonomikoak daude. Esate baterako, gizonen eta emakumeen lanordu kopurua osotara alderatzean, ikusten da gaitz handiena emakume indigenen bizkarrean dagoela.

#### Espainiako denboraren erabileren azken datuak

- Espainian egindako denboraren erabilerari buruzko bigarren inkestako datuak (inkesta 2009-2010) adierazten dute oraindik ezberdintasun larriak daudela emakumeen eta gizonen denboraren erabileretan. Alde batetik, emakumeek "etxea eta familiar" emandako denbora, hau da, etxeko-lan eta zaintza-lanetan (4:07), gizonen egindakoa (1:54) baino handiagoa da. Kontrara, gizonen ordaindutako lanetan emandako denbora (3:04) emakumeek emandakoa (1:54) baino altuagoa da. Lanorduek osotara batuz gero, egunero emakumeek (6:01) gizonen (4:58) baino denbora gehiagoz lan egiten duten ondorioz helduko gara. Hortaz, aisialdirako denbora gutxiago dute.
- Gizonen lanordu gehienak merkatu-denbora dira, hau da, uneko eta etorkizunerako beste kontraprestazioez gain, ordainsaria jasotzen duten denbora erabilerak. Hain zuzen ere, gizonen eguneroko lanorduen %61,7 merkatu-lana da. Emakumeen kasuan, kontrako gertatzen da, hau da, bere denbora gehiena, hain justu ere, %68,4, ez-merkatu lana da. Gizon baten eta emakume baten ordaindutako eguneroko lanorduen batuketara, batez beste, 4:58 da eta ez-merkatuko denbora 6:01. Beraz, etxeko eta zaintza-lanek oso garrantzitsuak izaten segitzen dute, ez bakarrik kualitatiboki, kuantitatiboki ere bai. Espainiar emakumeek ordaindu gabeko lanen %68,4 egiten dute eta merkatu-lanen %38,2. Horrela, ondoriozta daiteke lanaren zatiketa argiak dirauela eta, honen arabera, ordaindu gabeko lanen zama gehiena emakumeen gain dagoela eta honek, zalantzarik gabe, hauen lan-merkatuan parte hartzea baldintzatzen duela.

Lan-ezberdintasunak birpasatzen hasi aurretik, etxeko enpleguaren egoera aipatu gura dugu, hau da, ordaindutako etxeko- eta zaintza-lanak. Etxeko langileen, emakume nahiz gizon, sektoreak aipamen berezia merezi du zergati askorengatik. Kasu honetan, bereziki, dokumentatutako kasu bat sektore honi dagokiolako. LNE-k emandako azken datuen arabera, 2010ari dagozkionak, munduan 52,6 milioi etxeko langile dago (munduan ordaindu-

tako enpleguaren %3,6) eta gehien-gehienak (%83) emakumeak dira. Herrialde garatuetan 2,6 milioi emakume daude etxeko beharretan lanean eta Latindar Amerikan eta Kariben (LAK) 18 milioi. Enplegu honen garrantzia asko aldatzen da eskualdeka eta ordaindutako emakumeen eta Ekialde Ertaineko enpleguaren %32 da, %27 LAK-en eta %1,4 herrialde garatuaren taldea deiturikoan. (LNE 2013). Enpleguaren garapena sektore honetan oso ezberdina izan da: mundu mailan honen indarra %1.5etik, 1995ean, %1,7ra, 2010ean, igaro da (azkenean, honek esan gura du sektore honetan 2010ean 15 urte lehenago baino 19 milioi langile gehiago zegoela), baina eskualde batzuetan, LAK-n esate baterako, ehunekoetan ia hiru puntu gora egin duela eta Ekialde Ertaina bezalakoetan, berriz, bi puntu behera.

LNE-k, Espainia aipatzen du bereziki enplegu honen hazkunde arina duelako ezaugarri, 1995ean 355 mila langile zituen, eta NEI-aren (INE) azken datuen arabera, 2013an 678 milara igo zen. Gaur egun etxeko langile emakumeen kopurua Espainian 608 milakoa da, hau da, etxeko lanaren %90 emakume-lana da. Atentzioa ematen du, halaber, sektore honetan 2013an lan-okupazioa duten emakumeen %8k egiten duela lan (gizonen kasuan portzentaje hau %0,8koa da eta "etxeko sektorean" langileen %4 dago). Hazkunderik nabariena ekonomiaren hedapenaren garaian gertatu zen eta krisi urteetan, berriz, beherakada txikia gertatu da (enpleguaren beherakada orokorra baino txikiagoa). Gainera, LNE-k nabarmentzen du, Espainiaren kasuan, etxeko langile gehienak etorkinak direla, nagusiki, gaztelaniadun herrialdeetatik etorriak (Batzorde Ekonomiko eta Sozialak emandako datuen arabera, 2005ean etxeko langileen %32 ekuadortarrak ziren eta %13 kolonbiarrak).

Lanorduak funtsezko faktore dira, bai enpleguaren kalitaterako bai bizitzaren kalitaterako, oro har. Izan ere, etxeko langileen lan-denborak luzeenak dira, baita sektore guztietako ezinbestekoenak ere. Lan-emaileen aldetik ohiko jarrera da asteko edo hileko soldatatzehaztea, baina ez ordukoak; agian, emakume langileek lan-emaileak zerbitzua behar duenerako libre egon behar duten sinesmen orokorragatik.

## Lan merkatua: Ezberdintasunak aniztasunean

Enpleguari dagokionez, munduko eskualde guztiek dute ezaugarri bat komunean: emakumeen parte hartzearen gorakada. Hala ere, ezberdintasunak izugarriak dira, izan ere, mundu osoan emakumeen erdiak baino gutxiagok du lana gizonen ia lau bostenekin alderatuta. 1.laukian ikusten den moduan, leku guztietan gizonek emakumeek baino gehiago hartzen dute parte.

Mundu mailan, parte hartzearen arrakala 26 puntukoa da (1.laukia). Ekintzen tasa-ezberdintasun txikiena duen eskualdea Saharaz Azpiko Afrika da (12 puntu) eta ezberdintasun handiena duena Erdialdeko Ekialdea (56 puntu). Aldaketa azkarrena Latindar Amerikan gertatu da. Bertan, 1980ko hamarkadatik 80 milioi emakumetik gora merkatura sartu dira eta, ondorioz, bere tasak %53raino egin du gora 2012an. Berriki egindako ikerketen arabera, aldaketa arin hau parte hartzearen eta emakume ezkonduen eta umedunen lan-indarraren gorakadak eragin du eta ez hainbeste hazkunde demografikoak, hezkuntzak edo ekintza ekonomikoaren zikloek. Beste alde batetik, Erdialdeko Ekialdeko tasa baxuak (%18,4) ezin zaizkio erlijioari mekanikoki egotzi, izan ere, Indonesia bezalako herrialdeek parte hartze kopuru altua dute.

Eskuragarri ditugun azken datuek mundu mailan emakumeen langabezia gizonena baino pixka bat altuagoa dela adierazten dute (puntu erdiko aldea), baina, adierazle horretan ere, eskualdeko ezberdintasunak handiak dira eta hiru eskualde nagusi daude (ekonomia garatuak eta EB, Erdialdeko eta Ekialdeko Europa eta Ekialdeko Asia). Bertan, emaku-

meen langabezia gizonena baino baxuagoa da. Erdialdeko Ekialdearen kasua nabarmentzen da; izan ere, lan-merkatuan emakume gutxik parte hartu arren, euren langabezia gizonena baino 20 puntu altuagoa da.

Halaber, 1.laukian ikusten den moduan, munduko emakumeen %50ek enplegu ahulak ditu. Ekonomia garatuen eskualdeak eta EB-ak dute emakumeen zaugarritasun txikia. Uste dugu, krisi garai honetan, zaugarritasun datuak, gizonenak zein emakumeenak, gora egiten ari direla. Atentziora deitzen du Asiaren Hegoaldean eta Saharaz Azpiko Afrikan emakumeen %80k baino gehiago enplegu zaugarriak dituela, oso ez-egonkorak, beraz.

Parte hartzea, langabezia eta zaugarritasuna, 2012									
	Parte hartzea (%)			Langabezia tasa			Enplegu zaugarria (%)		
	G	E	A	G	E	A	G	E	A
Mundua	77,1	51,1	26	5,9	6,4	-0,5	48,4	50,4	-2
E. Garatua eta EB	67,5	52,8	14,7	8,9	8,4	0,5	11,4	8,5	2,9
Erdiko eta Ekialdeko Europa	70,7	50	20,7	8,6	8,2	0,4	19,5	19,9	-0,4
Ekialdeko Asia	79,4	66,7	12,7	5,2	3,8	1,4	46	52,4	-6,4
Asiaren H-Ek. eta Ozeano Barea	81,8	58,7	23,1	4,2	4,8	-0,6	56,7	65,1	-8,4
Asiaren Hegoaldea	81,3	31,8	49,5	3,6	4,7	-1,1	74	81,9	-7,9
LAK	79,6	53,3	26,3	5,7	8,1	-2,4	30,8	31,9	-1,1
Erdialdeko Ekialdea	74	18,4	55,6	9,8	20,4	-10,6	24,3	37,6	-13,3
Afrikako Iparraldea	74,2	24,2	50	8,2	17,7	-9,5	34,1	61,2	-27,1
Saharaz Azpiko Afrika	76,2	64,5	11,7	7,2	8,2	-1	68,6	84,9	-16,3

G= Gizonak; E= Emakumea; A= Arrakala  
Iturria: NLE, 2013. Lanketa propioa

Mundu mailan, emakumeen eta gizonen banaketa sektoriala ez da oso ezberdina (2.laukia): nabaria da emakumeentzako zama handiena zerbitzuen sektorean (%47,9) eta nekazaritzan (%35, %32,6ren aldean). Ondorioz, industriaren zama txikiagoa da emakumeentzat (%17,1) gizonentzat (%26) baino. Ekonomia aberatsenen azpi-kontratazio izugarria ere nabarmentzekoa da. Bertan, emakumeen %86k zerbitzuetan lan egiten du eta portzentaje hau ia %80ra heltzen da Latindar Amerikan eta Kariben (LAK).

Asiaren Hegoaldeko (%68) eta Saharaz Azpiko Afrikako (%62) emakumeen enplegurako nekazaritzaren pisua oso altua da. Honen harira, aipatzekoa da estimazioek diotena, alegia, emakumeek munduko elikagaien %50 ekoizten dutela, baina ikusezin daude eta ez daukate ahotsik Komertzioaren Mundu Erakundearen negoziatioetan, beraz, ez dute produkzio ereduari eta nekazari-politikei eragiten dieten erabakietan parte hartzen. Emakume nekazari, zehazki, eragiten dien funtsezko arazoa lurrera sarbidea da. Mundu mailan oso txikia da (diotenez, %2) emakumeen esku dauden lurren portzentajea. Lurraren kontrola bai eskubide ekonomikoen, bai mantenurako baliabideen oinarria da landa-komunitateetako milioika emakumerentzat, eta oraindik ere, eskualde batzuek emakumeak esplizituki diskriminatzen dituzten legeei eusten diete.



Leku batzuetako arazoa, bereziki Saharaz Azpiko Afrikako nekazari eremuetakoa, nekazaritza femeninoa sarritan mugatua dagoela da; ez lurra lortzea galarazten delako, baizik eta kontratatzeko, lehengaiak erosteko eta merkaturatzerako bideak ordaindu ahal izateko kapitalik edo nekazaritzatik at ohiko diru-sarrerarik ez dutelako. Beste alde batetik, lege ez diskriminatzaileak dituzten herrialdeetan ere gerta daiteke emakumeek baliabide honen gainean duten kontrol erreala mugatua izatea eta legeek ondorio partzialak izan ditzakete diskriminazioa badago, esaterako, dibortzio eta ondorengotza gaietan.

Enpleguaren banaketa sektoreka, 2012						
	Gizonak			Emakumeak		
	Nekazaritza	Industria	Zerbitzuak	Nekazaritza	Industria	Zerbitzuak
Mundua	32,6	26	41,4	35	17,1	47,9
E. Garatua eta EB	4,2	32	63,7	2,7	11,1	86,2
Erdiko eta Ekialdeko Europa	18,3	33,7	48	19,4	18,9	61,7
Ekialdeko Asia	31,3	31,2	37,5	36,7	26,8	36,5
Asiaren H-Ek. eta Ozeano Barea	42	21,2	36,8	40,7	16	43,3
Asiaren Hegoaldea	44,3	23	32,6	68,4	15,6	16
LAK	20,7	27,6	51,7	8,4	13,2	78,3
Erdialdeko Ekialdea	14	29,3	56,7	28,3	12	59,7
Afrikako Iparraldea	29	24,6	46,3	32,3	14,9	52,8
Saharaz Azpiko Afrika	61	10,6	27,6	62,2	6,5	31,3

Iturria: NLE, 2013. Lanketa propioa

Gure inguru hurbilera begiratzen badugu, Espainian nekazaritza jardueran desberdintasuna 13 puntukoa dela ikusten dugu. Emakumezkoen langabezia tasa %28koa da eta gizonezkoena %27koa. Tasa hauek oso kezagarriak dira eta are gehiago datu honi gehitzen badiogu 2013an 1.906.100 etxetan familiako kide aktibo guztiak langabezian daudela. Desenplegu tasarik baxuenak dituen erkidegoa Euskadi da, %16 inguruko tasekin; bitartean beste batzuetan %30a gainditu egiten dute (Andaluzia, Extremadura eta Kanariak). Honek eramaten gaitu lurralde desberdintasunak handitzen ari direla pentsatzera; Europan ere gertatzen den zerbait, izan ere, iparralde eta hegoaldearen arteko desberdintasunak gero eta handiagoak dira.

Krisia baino lehen emakumezkoen langabezia tasak sistematikoki gizonezkoenak baino handiagoak baziren ere, egun ez da horrela gertatzen, eta nahiz eta desberdintasunak murrizteko joera egon den, egoera ezberdina da.

Langabeziaren desberdintasunak txikitzen joan dira krisiak hasiera batean oso maskulinoak ziren sektoreetan eragin zuelako; ekoizpenean eta batez ere eraikuntzan. Murrizketa hau, emakume eta gizonen langabeziaren hain hazkunde ikusgarriaren ostean, mahai gainean desberdintasunekin soilik jokatzeari buruzko eztabaida jartzera garamatza; izan ere, langabeziaren bilakaerarekin gertatzen den moduan, murrizketa hori berdintasun arloko aurrerapausotzat hartu ohi da, baina emakume zein gizonen ga-bezia larriko egoera egon daiteke atzean.

Espanian, sexuaren araberako soldatei buruzko azken datuek (2010ekoak) erakusten dute emakumeek orain gizonek baino %16 gutxiago irabazten dutela eta desberdintasuna logikoki handiagoa dela hileroko edo urteko soldata kontuan hartzen badugu. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) desberdintasuna berdina da, baina Estatukoak baino batez-besteko soldata altuagoekin. Batez-besteko irabazi hauen atzean seguruenik kolektiboen arteko desberdintasun handiak ere egongo dira, batez ere bertakoen eta migratzaileen artean.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, generoaren araberako soldata desberdintasuna txikitu egin da krisi urteetan herrialde gehienetan. Hala ere, murrizketa honen interpretazioa zaildu egiten da, desberdintasun horren murrizketak ez baitu esan nahi emakumeen egoera hobetu denik; gizonen egoerak okerrera egin duela baizik. Hau da, izan daitekeela “berdintasuna azpitik jota” ematea. Soldata desberdintasunaren iraunkortasuna errealitate unibertsal bat da eta genero berdintasuneko erreferentzia moduan hartzen diren herrialdeetan ere ematen da. Mundu mailan, desberdintasuna %10 eta %30 artean dago. (LNE 2013)

la mundu osoan emakumeen enplegua ezaugarritzen duen pisu handiko beste bereizgarri bat lanaldi partziala da. Espanian, lanaldi partzialaren pisua emakumeen artean (%26,2) gizonezkoen artean (%7,4) baino nabarmenki handiagoa da. Emakumeen lanaldi partzialaren gaia jorratzen denean, ohikoa da entzutea emakumeak beraiek direla horrelako enplegu bat aukeratzen dutenak enplegua etxeko lanekin eta zaintza lanekin bateratu ahal izateko, horrela lanaldi partziala emakumeentzako “kontziliazio tresna” moduko zerbaitetan bihurtuz. Alabaina, emakume eta gizonek lanaldi partzialean lan egiteko dituzten arazoak aztertzen baditugu, datuek adierazten dute gizonezko zein emakumezkoek ematen duten erantzun nagusia “lanaldi osoko enplegua topatu ez izana” dela; gizonezkoen %61,6ak erantzun hau ematen du eta emakumezkoen %52,9ak. Dena den, familiako zaintza lanek eta ardurek modu desberdinean eragiten jarraitzen dute, izan ere “umeen edo gaixorik dauden helduen, ezinduen eta nagusien zaintza” eta “bestelako ardurak familiarrak edo pertsonalak” bezalakoek %22,8a suposatzen dute emakumezkoen erantzunen artean eta gizonezkoen %3,6ak soilik ematen du horrelako erantzunen bat.

Euskal Autonomia Erkidegoko informazio erlatiboa gehiago osatzeko asmoz, 3. eta 4. tauletan Eustat- Euskadiko Estatistika Institutuak emandako errenta eta pobrezia buruzko informazioa biltzen dugu. 3.taulak 2009an (azken datu eskuragarria) emakumeen lanerrentak gizonenak baino %46 txikiagoak zirela islatzen du, hau da, emakumezkoek ordaindutako lanengatik urtean jasotzen zuten errentak gutxigatik gainditzen zuen gizonezkoen errentaren erdia batez-bestez. Desberdintasun honen zati garrantzitsu bat lan merkatuko ezberdintasunek azaltzen dute (lan-jarduera txikiagoa, lanaldi partzial gehiago, soldata-desberdintasunak...).

Errenta Euskal Autonomia Erkidegoan (euroak). 2009			
	Gizona	Emakumea	Arrakala
Errenta guztia	25.376	14.242	44%
Lanaren errenta	16.092	8.722	46%
Errenta erabilgarria	21.494	12.412	42%

Iturria: Eustat. Lanketa propioa

Bere aldetik, *Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestaren* datuen arabera (2009ko PDSI, 4.taula) ez dago desberdintasun handirik pobrezian eta benetako ongizatearen gabezia gizon eta emakumeen artean. Taula honetatik bai, ondoriozta daitekeena, euskal ekonomiak bizi duen krisi sakon hau prekarietate egoerak handitzen ari dela da; izan ere, biztanleriaren %10a ongizate gabezia egoeran bizi da.

Pobrezia eta prekarietate erreala (%) 2008-2012						
	2008			2012		
	??	G	E	??	G	E
Mantentze pobrezia	5,7	5,3	6,1	7,3	7,2	7,3
Metaketa pobrezia	1,5	1,5	1,6	1,4	1,6	1,3
Pobrezia erreala	4,2	4	4,3	5,3	5,4	5,2
Benetako ongizate eza	8,2	7,9	8,4	10,1	9,6	10,5

Iturria: Eustat. Lanketa propioa

Txosten honetan, hainbatetan nabarmendu dugu ordaindu gabeko lanen banaketa desberdinak negatiboki eragiten duela emakumeen lan baldintzetan eta lan mundu-ratzean. Hau Euskadin ere ikus daiteke; 2012ko lan-bizitza eta bizitza familiar eta pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkestan (berriki Eustatek argitaratua) etxe-ko lan eta zaintza-lanen emakume eta gizonen arduren banaketan desberdintasun garrantzitsuak ikusten dira. Ondorioz, batzuen eta besteen lan mota desberdinak bateratzeari dagokion asebetetze mailan ere desberdintasunak daude. 6.irudian kontziliazioari buruzko azken inkestatik ateratzen diren desberdintasun batzuk laburbildu ditugu; betiere Euskal Autonomia Erkidegoan merkatuan okupatutako gizon eta emakumei dagozkien datuak.

#### Euskadin lanbidea duten emakume eta gizonen arteko desberdintasunak, 2012

- Emakumeek eguneko 4,6 ordu bideratzen dituzte 15 urte baino gutxiagoko seme-alaben zaintzara; gizonezkoek, aldiz, eguneko 2,9 ordu baino ez dituzte zeregin honetan ematen.
- Emakumeek egunero (2,9 ordu) gizonen (1,4 ordu) baino denbora gehiago, bikoitza, eskaintzen diote menpekotasunak dituzten pertsonen zaintzari.
- Hamar gizonetatik bederatzik (%91,5) bi ordu edo gutxiago eskaintzen dizkiote horrelako zereginari, emakumeen kasuan, berriz, lau emakumetatik batek (%27,9) hiru ordu edo gehiago.
- la bost emakumetatik bat ez dago batere gustura bere ezkontideak edo bikotekideak etxe-ko lanetan eskaintzen duen laguntzarekin. Kontran, gizonezkoen gehiengo batek (%77,6) oso gustura dago bere bikotekideak etxean egiten duen lanarekin.
- Ateratzeko ordutegi malgutasuna emakumeen %37ak gozatzen du eta gizonen %43,8ak.
- Eszedentzia edo lanaldi murriztuak eskatzeak lanbide-promozioari eragiten dion beldurra handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (%29,4 eta %25,5 hurrenez hurren). Adinari dagokionez, beldur hori nabarmenagoa da biztanleria gaztearengan.
- Bost emakumetatik batek uste du amatasunak lanbide-promozioan desberdintasunak sor ditzakeela uste du. Aldiz, gizonen %5,4ak soilik uste du aitatasunak lan esparruan nabarmen eragin ahal diola. Hala eta guztiz ere, bost gizonetatik batek uste du oso negatiboa izango litzakeela bere lan-ibilbidean aitatasun-baimen bat eskatzea.

## VIII. ONDORIOAK

---

Erreforma legalean egindako aurrerapenak zalantzarik gabekoak badira ere, legeek gutxi adierazten dute, inplementatuak ez badira. Ezinbestekoa da bere ezarpen eraginkorra ahalbidetuko duten legeak idaztea, mandatu eta prozedura argiekin baita kontuak emateko eta finantzazio egokirako mekanismoz osatua ere.

Giza kalitatez betetako bizitza on bat lortzeko xedez burututako bizi-proiektuen diseinu eta praktikan jartze prozesuetan pertsonen eta herrien gaitasunak garatzeko oztoporik garrantzitsuenetako bat dira desberdintasunak. Horregatik, giza kohesioa, klaseen hierarkien ezabaketa eta aukera berdintasunak bultzatzea, -erdeinatutako gizarte klaseetako emakume zein gizonezkoentzat- gizarte bidezkoago eta solidarioago bateranzko aurrerapausoen adierazleak dira.

Sexuaren araberako lanaren zatiketarekin bukatzea mugimendu feministaren borroka bat izan da betidanik. Egungo krisi kapitalista bezalako egoeran, gai hau eztabaiden erdigunean kokatzeak emakume eta gizonen arteko desberdintasunei aurre egiteko estrategikoa izaten jarraitzen du. Lan munduan emakume eta gizonen arteko desberdintasunei aurre egiteko, etxeko lanei dagokienez ematen den bereizketa sexuala eraldatzea eta zaintzalanetan Estatuaren papera aldarrikatzea beharrezkoa da. Estatuak, emakume eta gizonen ongizaterako oinarriko zerbitzuak bermatu behar ditu. Arlo honetan berehalako beharrak desberdinak izan daitezke: Europar garrantzitsua da heba indutako ongizatearen estatua- ren eraispena saihestea, bitartean, beste leku batzuetan zaintza-zerbitzuak garatu beharko dira, bai zuzenak eta bai izaera instrumentalekoak (azpiegiturak). Errenten banaketan estatuaren paper aktiboago bat desberdintasunak murrizteko gakoa izan daiteke.

Zaintzen horniduran eragile desberdinen paperaren gainean eta harremanen gainean hausnartzea ere garrantzitsua da: etxeak, Estatuak, enpresak eta komunitateak. Esparru komunitarioa ahaztera jo ohi dugu, baina gaur egungo bizi ereduaren aurrean, batez ere hiritarra den eredutik harago, bizitzeko beste modu batzuk daude, landa eremuarekin lotuago eta oinarri komunitarioagoak dituztenak, zeintzuetan emakume eta gizonen arteko praktika eta harreman dibertsitate handia ematen den; zenbait lekutan gure errealitateetan baino zuzenagoak eta horizontalagoak direnak.

Sistemaren aldaketan aurrerapausoak eman behar dira, eredu zuzenago eta bidezkoago batean pentsatu eta aldi berean errealitatearen gauza zehatz batzuk aldatzeko lan egin. Eredu aldaketan aurrera egiteko feministek aldarrikatutako bestelako ekonomia baten printzipioak berreskuratzea baliagarria izan daiteke; esaterako elkarrekikotasuna, elkartasuna, osagarritasuna... Baita norabide horretan aldaketa ekonomikoak bultzatzen ari direnekin aliantzak eratzea ere. Gutxiengo bati mesede (eta handia) egiten dien ikuspegi konbentzional batekin erlazionatutako ideien etengabeko bonbardaketaren aurrean, beste ideia batzuk zabaldu behar dira: gizakion jarrera irabazi grina hutsean oinarritzen duen proposamen kapitalista erabat erraturik dagoela; homo economicusa fikziozko pertsonaia bat besterik ez dela, pertsonak "ez garelaiko soilik maximizatzaile arrazionalak, kooperatibismoa eta elkarrenganako harremanak sustatzen dituen izakiak baizik". (Adela Cortina, El País 2013/05/12)

XXI. mendea "zaintzen" mendea izango dela esaten da, ingurugiroaren zaintza, pertsonen zaintza, eta abar; eta beraz, "enplegu berdeek" (ingurugiroaren jasagarritasunarekin loturik) eta "enplegu zuriek" (pertsonen ongizatearekin loturik) geroz eta garrantzia han-

diagoa hartuko dute. Garrantzitsua da “enplegu ez hain berri” hauek guztiak berdin baloratuak eta kalitatezkoak izatea. Eta “zaintzen mendea” deitutakoa “zaintzen negozioaren eta espekulazioaren mendea” bilakatzea saihestu behar da kosta ahala kosta.

Ikusi ditugunak bezalako errealitate hain desberdinetan, berehalako lehentasunak, desberdinak izan daitezke, zalantzarik gabe. Enpleguaren alorrean, adibidez, hegoaldeko lan-baldintzak hobetu behar dira, nagusiki lan informalean; aldiz iparraldean, finkatutzat jotzen genituen lorpenetan atzerapausoak saihesteko borrokatu behar da.

## BIBLIOGRAFIA

---

- Munduko Bankua (2012): *Munduko garapenari buruzko txostena 2013*: Enplegua. Washington.
- CARRASCO, Cristina, 2009, " *Mujeres, sostenibilidad y deuda social*", Hezkuntza Aldizkaria, 169-191.orr. [http://www.revistaeducacion.mec.es/re2009/re2009\\_08.pdf](http://www.revistaeducacion.mec.es/re2009/re2009_08.pdf)
- Eursotat (2006): *Statistiques en bref*, <http://epp.eurostat.ec.europa.eu>
- GONZALEZ, Erika eta Pedro Ramiro (2013): *Multinacionales, impactos y desigualdades de género*, Pueblos 55.
- GTZ (2003): *Guía de tribunales de los derechos de la mujer*, Txile.
- HERNANDEZ, Juan, GONZALEZ, Erika eta Pedro Ramiro (eds.) (2012): *Diccionario crítico de empresas transnacionales. Claves para enfrentar el poder de las grandes corporaciones*. Icaria.
- JUBETO, Yolanda eta LARRAÑAGA, Mertxe: " *La crisis global desde la perspectiva de género: una introducción*", CICODE. (2013)
- MARUANI, Margaret (2004): *Trabajo y el empleo de las mujeres*. Madril. Fundamentos.
- MILANOVIC, Branco, 2012, *Los que tienen y los que no tienen. Una breve y singular historia de la desigualdad global*. Alianza argitaletxea.
- NUSSBAUM, Martha C. 2012, *Crear capacidades. Propuesta para el desarrollo humano*. Paidós.
- LNE (2004): " *En busca de un compromiso equitativo para los trabajadores migrantes en la economía globalizada*". IV txostena. Lanaren Nazioarteko Biltzarra.
- LNE (2007): *La igualdad en el trabajo: afrontar los retos que se plantean. Informe del director general*, Ginebra.
- LNE (2011a): *Legislación y Jurisprudencia Comparadas sobre Derechos Laborales de las Mujeres: Centroamérica y República Dominicana*, San José, Costa Rica.
- LNE (2011b): *Piso de Protección Social para una globalización equitativa e inclusiva*, Ginebra
- LNE (2012): Plan de acción de la OIT sobre la igualdad de género 2010 – 2015 Fase II: Aliada con el Programa y Presupuesto 2012-2013, Ginebra.
- LNE (2013a): *Domestic workers across the world: Global and regional statistics and the extent of legal protection*, Ginebra
- LNE (2013b): *Global Employment Trends 2013. Recovering from a second jobs dip*, Geneva.
- LNE (2013c): *Informe Mundial sobre Salarios 2012/13. Los salarios y el crecimiento equitativo*, Ginebra.

- LNE eta Munduko Bankua (2013): *Catálogo de medidas de política adoptadas para hacer frente a la crisis financiera y económica. Informe conjunto de síntesis*. Lanaren Nazioarteko Erakundea eta Munduko Bankua.
- LNE eta Nazio Batuen Garapenerako Programa (2009): *Trabajo y Familia: Hacia nuevas formas de conciliación con corresponsabilidad social*, Txile
- NBE Emakumeak (2012): *El progreso de las mujeres en el mundo, 2011-2012. En busca de justicia*,
- OROZCO, Amaia, (2007), “*Cadenas globales de cuidados*”. Santo Domingo, República Dominicana, UN-INSTRAW, Genero, Migrazio eta Garapen Saila. Lan dokumentua, 2. zenbakia.
- OROZCO, Amaia, (2009), “*Miradas globales a la organización social de los cuidados en tiempos de crisis I: ¿qué está ocurriendo?*”. Santo Domingo, República Dominicana, UN-INSTRAW, Genero, Migrazio eta Garapen Saila. Lan dokumentua, 5. zenbakia.
- PICCHIO, Antonella (2001): “*Un enfoque macroeconómico “ampliado” de las condiciones de vida*”, en Carrasco, Cristina (ed.) *Tiempos, trabajos y género*. Bartzelonako Unibertsitatea.
- PNUD (2013): *Informe sobre desarrollo humano. El ascenso del Sur: progreso humano en un mundo diverso*, NY.
- SÁNCHEZ PINTO, Silvana eta Soledispa TORO, Azucena (2011): *Guía para la identificación, selección y judicialización de casos de violación de derechos económicos, sociales, culturales y ambientales (DESCA) de las mujeres a nivel nacional*, CLADEM, Lima.
- SOUSA SANTOS, Boaventura de (2005): *El milenio huérfano. Ensayos para una nueva cultura política*, Trotta/Ilsa, Bogotá.
- STIGLITZ, Joseph, Sen, Amartya eta Jean Paul Fitoussi (2009): *Report by the Commission on the Measurement of Economic Performance and Social Progress*, [www.stiglitz-sen-fitoussi.org](http://www.stiglitz-sen-fitoussi.org).
- UNRISD (2011): *Combatir la pobreza y la desigualdad Cambio estructural, política social y condiciones políticas*, Ginebra

# AUZITEGIARI AURKEZTUTAKO KASUEN LABURPEN-FITXAK

## 1. lekukotza

---

**LEKUKOTASUNA EMATEN DUEN EMAKUMEA:** Miren Atxa (fikziozko izena)  
**INFORMAZIOA BILTZEN DUEN ERAKUNDEA:** ELA, LAB, CCOO, ESK, STEE-EILAS  
**LEKUA:** Gipuzkoa, Euskal Herria

EUSTATen arabera, eszedentziagatik onartutako laguntzen %78a eta lanaldi murriztuagatik onartutako %87a emakumeei ematen zaizkie. Lanaldiaren murrizketa emakume askorentzat tranpa handia bihurtu da: soldata txikiagoa, ardua berbera, lanaldi bikoitza etxean eta lanean eta enpresetako edonolako promoziorako galga.

Salatutako kasura hurbilduz, berau sindikatu desberdinek, merkatarien eta Euskadiko kontsumitzaileek abiatutako "Jai Egunetan Denok Jai!" kanpainaren barruan kokatu nahi dugu; horrela kasua gorpuztuz. Kanpaina hau merkataritza-ordutegien liberalizazioaren eta igandeetan saltokien irekieraren eztabaidaren harira sortzen da. Iniziatiba honen berezitasuna da, oinarrian duen gizarte eredu zalantzan jartzetik abiatzen dela; produkzio, distribuzio eta kontsumo eredu dudan jartzeagatik.

Merkataritza-ordutegien luzatzeak eta igande eta jaiegunetan irekitzeak langileen eskubideen kontra egiten dute eta ez du atsedenerako eskubidea eta bizitza pertsonala edo familiarra lan-bizitzarekin bateratzeko eskubidea uztartzeko aukera ematen.

Inposatu nahi diren neurriek ondorio zuzena izango dute emakumeen lan- eta gizarte-baldintzetan eta are gehiago zailduko du lan-bizitza, bizitza-familiarra eta pertsonala bateratu ahal izatea.

Lan-bizitzaren, familiarraren eta pertsonalaren kontziliazioak oinarrizko arazoak azaltzen ditu denboraren berrantolaketari buruzkoak, lan-merkatuaren berrantolaketari buruzkoak, emakume eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunei buruzkoak, eta abar. Kontziliazioa familiar, pertsonal eta laboraletik Gobernuak, instituzioek, gizonetako eta inplikaturako eragile guztiek bere gain hartu beharreko gizarte erantzunkidetasunera salto kualitatibo bat ematea beharrezkoa da.

Oso ohikoa den aginduzko marko bat lana eta familiaren kontziliazioaren arazoa "emakumeen arazo" gisa planteatzea da. Emakumeak ama eta langile gisa definituak dira eta eskaintzen den konponbidea emakumeak lanean eta familian dituzten ardurak bateratu ahal izateko animatzea eta laguntzea da. Enfasia jartzen da kontziliazioa lan-merkatuan emakumeen parte-hartzea sustatzeko bide gisa aurkezten, baina lan-merkatuaren egitura bera zalantzan jarri gabe.

Kontziliazio politikek emakumeak lan-merkatuan egon ahal izatearen beharrari eta aldi berean ugalketa-lanez arduratzen jarraitu ahal izateari erantzuten diote. Eta seme-alabak izaten jarraitzeko beharrari, jakina.

Beraz, inposatu nahi diren neurriek eragin zuzena izango dute emakumeen lan- eta gi-



zarte-baldintzetan eta lan-bizitza, familiarra eta pertsonala bateratzea oraindik gehiago zailduko du.

## Zer gertatu zen? (Gertakariak)

MPSG langileak bere lan- eta bizitza-ordutegiak berrantolatu beharra du haur txikien zaintza arrazoiengatik, ukatua zaion lanaldi murrizketa baten bitartez.

Gainera, sententziak "... aitaren ordutegiak ez dio pertsona honi haurraren zaintza galarazten arratsaldean lan egiten duen asteetan, are gutxiago, libre dauzka larunbatak eta haurra zain dezake... [7.p]" jasotzen du. Hortaz, eskatzailearen senarraren egutegia berearen gainetik dago lan- eta familia-bizitza bateratzea eskatzerakoan, nahiz eta senarraren ordutegiak ezin diren egiaztatu.

Ez zeukan inolako egutegi frogagarririk, enpresaren lan eskariaren arabera lana zuelako.

Langilearen beharrak edo enpresaren antolaketa beharrak gailentzeko irizpideari dagokionez, argi dago sententziak bigarrenaren alde egiten duela.

Txanda hautaketaren aukerari dagokionez, Epaitegi eta Auzitegiak bananduta aurkitzen dira; izan ere, batzuek lan- eta familia-ardurak bateratu ahal izateko kontziliaziorako lanaldi murriztuaren eskubidearen aldeko interpretazioa egiten duten bitartean, beste batzuek interpretazio murriztailea egiten dute, eta legearen legearen izaera literala kontuan hartuz ukatu egiten dute langileak txanda finko bat aukeratuta bere lanaldia murriztea. UVESCAYA, SL. enpresak legearen interpretazio murriztailea egiten du; honen arabera, enpresaren antolaketa beharrak oinarrizko eskubideen gainetik daude. Gainera, enpresak lanaldi murriztuagatik jasotzen dituen diru-laguntzak erabiltzen ditu langilea ordezkatu gabe.

Gizonezkoan oinarritutako eskubidearen interpretazio bat egiten da, izan ere, batasun familiarra, gizartean ezarritako rol eta esleipenen arabera ulertzen da eskubideak gauzatzerako orduan. Lan-bizitza, bizitza-familiarra eta pertsonala bateratu ahal izateko eskubidea ez da eskubide indibidual gisa ulertzen, badirudi eskubide familiar bat dela, zeinetan arduren gehiengoa bai etxe barruan zein etxetik kanpo emakumeari dagozkion. Indartu egiten da, hortaz, lanaren banaketa sexuala.

## 2. lekukotza

---

**LEKUKOTASUNA EMATEN DUEN EMAKUMEA:** IxQ´eqkoj/ Hermelinda Claret Simon Diego  
**INFORMAZIOA BILTZEN DUEN ERAKUNDEA:** Asociación de Mujeres Aq´ab´al. Equipo de comunicación y análisis “La colibrí Zurda”.

**LEKUA:** Barillas, Huehuetenango, Guatemala.

Biztanleriak behin eta berriz eskatu du 2007ko ekainaren 23an burututako Fede Onaren Kontsulta Komunitarioa errespetatu dadila; bertan gehiengoak EZ esan zion “Barrillas lurraldeko baliabide naturalen meatze-ustiaketari”, ura, ibaiak, ur-jauziak, lurra, lurraldea... barneratzen ditu, jakina.

Haatik, ariketan Errepublikaren Konstituzioan, Udal-Kodean eta LNE-ren 169 Hitzarmenean agertzen den entzunda izateko eskubidean oinarrituko zela aipatzen bazen ere, Exekutiboak ez zion balio juridikorik eman, eta ez zion arreta politikorik eskaini aipatutako borondate deklarazioari.

Egitura konplexu batean aurkitzen dira gaur egun milaka emakume q´anjobal eta mestizo Barillasen, enpresen eta meatze- eta petrolio-proiektuen indarrezko iritsierak suposatzen duen eredu ekonomikoaren inposizioaren mehatxuaren aurrean. Kasu zehatz honetan, Ecoener Hidralia Energia/Hidro Santa Cruzen iritsieratik, emakumeek haien lasaitasuna eta etorkizuneko ametsak desagertu direla ikusten dute. Izan ere, haien zat, lurraldearen defentsak uraren, bizitzaren, lurraren eta gizateriaren etorkizunaren aldeko apustua suposatzen du. Horregatik, naturaren arpilatzea, erauzketa eta suntsiketaren proiektuaren aurrean bizi-proiektu eder honen defentsaren borroka hasi zenetik emakumeak herri oso baten borrokara bildu dira.

Ecoener Hidralia Enpresa 2009tik herri eta komunitateen gogoz kontra jarduten egon da eta Barillas Hiribilduko Udal-Kontzejua bera hidroelektrikoa eraikitzeko Canbalam I ize-neko proiektuaren aurka azaldu da. Barillaseko komunitateetako ehunka pertsona hiru urte baino gehiago eman dituzte enpresa horrek herrian sortu dituen gatazken berri ematen eta agintarien interbentzioa eskatzen; pairatu dituzten larderia, mehatxu eta gehiegikeriei dagozkien salaketak jarri dituzte.

Urte hauetan zehar bere komunitateetako lasaitasuna delitu- eta krimen-gertakari sarriek eten dute, hala nola airera botatuko tiroak, erasoak, armatutako pertsonalaren ahozko jazarpenak eta baita inguruetan lehergailuen kokapena ere.

Une honetara arte, bere eskaera baketsu eta demokratikoak ez dira entzunak eta artatuak izan; aldiz, pertsona hauek jarraituak, kriminalizatuak eta erailak ere izan dira.

Enpresak berak komunitateko zazpi buruzagiren aurkako salaketa bat jarri du, larderia eta jarraipena sufritu izanagatik Giza Eskubideen Prokuradoretzan salaketa bat jarrita zeukan beste buruzagi bat eraila izan zen maiatzaren 1ean, gainera enpresa bere lurretan indarrez sartu zen Hidroelektrikoa eraikitzeko. Giza Eskubideen Prokuradoretzak, ez du ezer konpondu gaur egun arte.

Enpresak eragindako gatazken garairik latzena bi kideren aurka jazotako gertakariekin hasten da; hauek zaurituak izan ziren eta beste bat eraila. Haietako bik ez zituzten bere

lurrak saldu nahi izan, nahiz eta haien kontrako presio handia jasan behar izan zuten, haien kontrako muturreko indarkeria erara iritsi arte.

Santa Cruz Barillaseko emakumeak zuzenean erasotuak izan dira, izan ere, enpresa honen iritsierak era desberdinetan adierazitako beldurra eta etengabeko mehatxuak suposatuta ditu.

## **Zer gertatu zen? (Gertakariak)**

Gaur egun Hidro Santa Cruz izenarekin ezaguna den Ecoener Hidralia enpresaren iritsieratik 2009an, nire parte-hartzea komunitateak antolatzen laguntzea izan zen eta enpresak burutzen zituen lanen berri ematea.

Inguruko komunitateak hornitzen dituen ur-jauziaren jausialdia erabiliz enpresa hidroelektriko bat eraikitzen ari zela jakitean, komunitateko antolaketa indartu egin zen ura enpresaren aurrean defendatzeko.

Enpresa iritsi zenetik ni proiektu honetan herrian, martxetan, enpresaren aurrean manifestazio baketsuetan, agintariekin asanbladetatik bultzatutako elkarrizketetan... parte-hartzen hasi nintzen.

Komunitateek hasitako borrokaren ondorioz enpresa buruzagiak mehatxatzen hasi zen, batez ere emakumeak; euren komunitateetara doazen bideetatik pasatzen direnean enpresako segurtasunekoak jazarri egiten dituzte. Komunitatean babestu izanagatik eta errekarren eta bere baliabide naturalen defentsaren aldeko borrokan parte-hartzeagatik enpresak buruzagiak mehatxatu zituen; nire kasuan mehatxuak, larderiak, jarraipenak atzemate agindura arte izan ziren baita Santa Rosa eta Recreo B komunitateetako beste hiru emakumeen kasuan ere.

Atzemate aginduarengatik etxetik alde egin nuen. Hortaz, harreman familiarra eta komunitarioa zailagoa izan zen; nire familiarren falta sumatu nuen, bereziki nire alabena. Egoera hau borrokako kideekin alderatuta beste era batera bizi izan nuen. Esaten zuen "goazen bilera batera, halako elkartearekin", batzuetan bi, hiru ego gehiago egun batean. Halako batean itxaropena galdu nuen, etsita nengoen, ez nuen ezer jakin nahi bileren inguruan nire alabak faltan botatzen nituelako eta etxera itzuli nahi nuelako. Haien bere seme-alabengatik kezkatzen ez zirela ikusten nuen; hortaz jarraitua izaten ari den emakume batentzat zaila zer den sentitu nuen; gogorrena gure lurraldeetan dugun aberastasuna defendatzeagatik izaten da.

Atzemate aginduaren igorpenaren berri eman zidatenetik herritik alde egin nuen. Horrek antolaketaren ikuspegitik, ekonomikoki eta psikologikoki eragin zidan; izan ere, iparraldeko eskualdeko herrietan lana duen emakumeen antolakunde bateko kide izanda, hau eteteak eta herritik kanpo egoteak gastu estrak ekarri zizkidan eta familiarengandik urrun egotea ere zaila izan zen.

Inoiz egin ez ditudan beste gauza batzuegatik salatzen naute, makinaria erretzen parte hartu nuela esaten dute, enpresaren segurtasunaren atxiloketaz ere salatzen naute... Eta une hauetan bertan, herrian, liderrak jarraituak izaten ari gara beste pertsona batzuek egindako gauzengatik eta gertatu diren gauzengatik. Kezka handia dago, beldur handia, egin ez dudana zerbaitengatik salatzen nautelako.

Beste bi kidek atzemate agindua dute. Horietako batek bere familia-etxetik kanpo bizitzen jarraitzen du; emakume gisa eutsi ahal izateko babesa eman diotenen etxetan bizi da eta oraindik ere bidegabeki jarraitzen dute.

Herrian gertatzen den guztiak eragin desberdina du emakumeengan eta gizonengan, izan ere emakumeok gudan, gure seme-alabengan eta besteengan pentsatzen dugu.

Nire parte-hartzea manifestazioetan izan da, martxa baketsuetan, asanblada komunitarioetan, komunitateko beste emakumeekin udal-agintariei zuzendutako gutunetan. Maiatzaren 1aren ostean, hilabetez herritik kanpo egon nintzen, emakumeen erakundeen bilera desberdinetan parte hartu nuen, Barillasen gertatutakoaren harira antolaketak, komunikazio eta koordinazio estrategiak ikusteko. Koordinazio hauei esker emakumeen jaialdi bat antolatzea lortzen da megaproiektuei buruz emakumeen sentimendu eta pentsamenduaren esperientziak elkartrukatzeko eta jarraituta izaten ari diren buruzagiei babesa emateko kanpainak abian jartzeko. Hau Yalanbojoch komunitatean burutu zen, Nenton herrian. Ekainean herrira itzuli nintzen eta nire parte-hartzea preso politikoen emazteei babesa ematea izan zen eta manifestazio baketsuetan parte-hartzea.

Atzemate aginduak Santa Eulaliako Lehendabiziko Instantziako Epaitegiak igorri zituen. 65-2012 prozesua Hidro Santa Cruz eraikitzen ari zen tokira zioan makina bati bidea ete-teagatik hasi zen. Hau martxoan gertatu zen, haatik, aitzakia honekin, benetan aurtengo maiatzaren 1ean jazotako gertakariak aldarrikatu zituzten gizon eta emakume buruzagien kontrako jarraipena ematen ari dela uste dugu. Bertan buruzagi bat eraila izan zen eta beste bi zaurituak; eta hortik aurrera Santa Cruz Barillasen istiluak eman dira.

Uztailaren 25ean, Huehuetenangoko Santa Eulaliako Lehendabiziko Instantziako Epaitegiak jakinarazi zuen "plagio eta bahiketarik, mehatxuengatik eta delitu egitera bultzatzeagatik" 10 pertsona gehiagoren kontrako atzemate aginduak existitzen direla 65-2012 kausaren barruan, aurreko beste 23 aginduak eman zituen bera.

Maiatzaren 2an egin ziren atxiloketako zigorgabetasun berarekin, eta hiru herrixkatan indarrez sartu ostean, enpresa honen manipulazio eta presioen aurrean, atxilotuetako bat hilabete batzuk lehenagoko gertakarien lekuko faltsu izatea eta 33 pertsona gogoratzeko kapaza izatea lortu zuten; kasualitatez guztiak komunitatean errekonozitutako ondasun naturalen eta bizitzaren aldeko buruzagiak eta aktibistak. Sergio Vives horietako hiruren abokatuaren hitzetan "kasu honen aitzakiarekin ematen ari den jarraipen-penala, aurtengo maiatzaren 1eko ekintzak aldarrikatu dituzten buruzagien kontrakoa da. Egun hartan buruzagi bat erail zuten eta beste bi zauritu".

Maiatzaren 2an atxilotutako pertsonen, nahiz eta inork ez zituen inputatzen zaizkien ekintzen erantzule gisa aitortu, ezkutuko elkarte bateko kide izatea leporatzen zaie: "hau antolatutako krimena da, narkotrafikoaren kontrako legean oinarrituta bideratzen ari dira" esaten digu abokatuak. Eta irmoki baieztatzen du: "inolako fundamenturik gabe salatzen dituzte, narkotrafikorako ekintzei bideratua dagoen delitu-figuraren desitxuratze bat da; orain, izaera komunitarioa duen eta proiektu baten aurka dagoen elkarte edo antolakunde baten aurka jotzen dute".

Honengatik guztiarengatik, defentsako abokatuen ez dute zalantzarik "prozesu penala zigor-tresna gisa erabiltzen ari dira Hidro Santa Cruz enpresak, zeinetan pertsona espainolak akziodunak diren, eraiki nahi duen hidroelektrikoaren aurka dagoen Barillaseko

gizarte-mugimenduko buruzagiak kriminalizatu, jarraitu eta desartikulatzeko. Kriminalizate eta jarraipen-penalaren estrategia honekin lortzen ari direna, funtsean, hidroelektrikoaren eraikuntzaren aurkako mugimendua desartikulatzea da". Hedia Claret Simon Diegok iritzi hau berresten du "komunitateekin egin dudana, egin dugun gauza bakarra gure lurraldea defendatzea izan da, lurra defendatzea, Ama-Lurra defendatzea".

Estatua behartuta dago emakumeak babestu eta bere giza eskubideak bermatzera; emakumeen kontrako indarkeria saihestu eta errotik kentzera; gehiegikeriak burutzen dituztenak zigortzera... kasu honetan, ordea, Estatua da emakumeek jasaten duten indarkeria sistematikoa sustatu eta babesten duena edo horren aurrean ezer egiten ez duena; bereziki emakume indigenek pairatzen dute, lurraldearen kentzearen aurrean.

Emakumeen gorputzetan ondorioak argiak dira kasu honetan: abortuak, heriotza, gaixotasun kronikoak, antsietatea, zefaleak, eta abar.

"Emakumeen bizitzetan duen eragina beldurra, herrialdeko ejertzitoak laguntzen duen enpresaren presentzia dela eta bizi izan dutenak eta oraindik bizitzen jarraitzen dutenak sortutako izua. Emakumeek herrian zer gertatu zen kontatzen dute; 80ko hamarkada etortzen zaie burura zeinetan jarraituak, mehatxatuak, desagertuak izan ziren; esan daiteke, orain gertatzen ari den gauza berak dela, beste era batera. Baina orain ere eskubideen urraketa ematen dira, komunitateak militarizatzea bere haien eskubidearen urraketa bat da; onartzen ez duten zerbaiten aurka egoteagatik jarraitua izatea urraketa bat da, ez dutelako manifestatzeko eskubiderik; komunitateen iritzia ez errespetatzea beste urraketa bat bat, izan ere ez dago kontsultarako eskubiderik. Aipatu dudana moduan, eragina bortitzagoa da emakumeen bizitzetan geure burua babestu behar dugulako, geure seme-alabena eta geure komunitatea ere bai; inguratzen gaituenaren parte sentitzen garelako".

### 3. lekukotza

---

**LEKUKOTASUNA EMATEN DUEN EMAKUMEA:** Alejandra Castillo.

**INFORMAZIOA BILTZEN DUEN ERAKUNDEA:** Sindicato de trabajadoras del hogar y el cuidado (SINDIHOGAR/SINDILLAR)

**LEKUA:** Bartzelona, Katalunia.

Gaur egungo konfigurazio globalean, berrantolaketa honetatik azaleratu den alderdietako batek zerikusia du ugalketa lanen gizarte banaketarekin.

Honek migrazioaren feminizaziora eta zaintzen zirkuitu ugarietan (Gregorio, 2002; Juliano, 2002; Sassen, 2003) emakumeren sarrerara eraman du. Egun, esplotazioak, pobrezia, desberdintasunek, aurreiritziek eta informaltasunak ezaugarritutako diskriminazio testuinguru konplexu bat pairatzen dute; faktore hauek, emakumeei bere giza eskubideen erabateko erabileraren urraketa suposatzen diete.

Herrialde aberats eta industrializatuek egiten duten ezkontzarako, etxeko-lanetarako, sexu-lanetarako... emakumeen eskariari -egoera legal edo ilegalean- orain arte bertako emakumeek betetzen zituzten hutsuneak betetzera etortzen diren emakume migratzaileek erantzuten diote. Lan-merkatuan emakumearen berdintasuna eta etxeko lanen berdintasunezko banaketa eztabaidatuak dira emakume migratzaileek era masiboan gutxi kualifikatutako lanak eta zaintzen arloko lanak betetzen hasi direnetik.

Espainiar Estatuan 700 mila etxeko langile daudela estimatzen bada ere, soilik, 300 milak kottizatzen dute gizarte segurantzian etxeko zerbitzu gisa. Horrelako lanak burutzen dituen jendearen %80a immigranteak dira. Orokorrean, etxez arduratzen diren pertsonen %95a baino gehiago, izan garbiketa lanetan, umeen zaintzan edota pertsona nagusien zaintzan, emakumeak dira.

Askotariko egoera hauek etxeko langileen kolektiboa haien lan baldintzak hobetze aldera hainbat estrategia garatzera eraman dituzte, maila indibidual zein kolektiboan. Maila indibidualean, hitza erabiliz hainbat erresistentzia sor daitezke (Alvarez, 2008), hala nola uniformeak erabiltzeari ezezkua eman, moteltasunez lana burutu edo lana profesionalizatu kualifikaziorik eskatzen ez duen ekintza femenino "natural" izateari uzteko. Estrategia kolektiboek munduko leku desberdinetan ematen den sindikalismoa bezalako asoziazionismoari erreferentzia egiten diote; langileen jatorri eta esperientzia migratzaileak eraginda (Goldsmith, 2007).

#### Zer gertatu zen? (Gertakariak)

Duela bederatzita urte Paraguyatik iritsi zenetik Bartzelonan bizi da langilea. Garbiketa enpresa batean lanean hasi zen etxeko-langile modura, tarteka (orduka). Duela bi urte lana eman zion pertsonaren etxean langile iraunkor gisa egiten du lan (barneko langilea). Lan-kontratua ez zen 2012ra arte gauzatu.

Kontratuan zortzi orduko lanaldia zehazten da. Langilea haren esanetara dago eguneko 24 orduetan. Enplegu-emailea gizon nagusi bat da, mugikortasunik ez duena eta uko egiten dio bera ez den beste pertsona batek zaintzeari. Honek, azken bi hilabeteetan langilea atseden egunik gabe lan egiten aritzea eragin du.

Langileak arazoa planteatu zien bere seme-alabei, baina hauek ez dute inolako erabakirik hartu, etxetik alde ez egiteko presionatuz.



Gertakari hauek osasun arazo bat eragin zioten langileari eta lanlekutik aldendu behar izan zuen, eta bere ordezkoa lortu ostean, ospitalera joan behar izan zuen.

Momentuz, bi pertsona ezagun topatu ditu bertan lanean berak baja eskatu behar izan zuenetik. Une honetan bajaran jarraitzen du, 2013ko apirilaren 21eko asteen lanera itzultzeko datarekin.

Salaketa ez da aurkeztu. Langileari abokatu batek aholku ematen dio. Lan-emaile hau, aurretik beste langile batek aurkeztutako beste salaketa baten ondorioz auzitara eramana izan zen; langile hark, prozesu luze baten ostean 150 euroko subsidioa besterik ez zuen lortu.

Langileak, sendatu ostean, familiako kideekin bere lan baldintzak zehazteko bilera bat egitea erabaki zuen.

Erabaki honen ondorioek bere lanaren errekonozimendu faltarekin, lan eskubideak errespetatuak izateko zailtasun legalekin, lana burutu ahal izateko hitzartutako minimorik ez izatearekin eta bere osasun fisiko, emozional eta psikologikoa arriskuan jarri nahi ez izatearekin zerikusia dute.



# SALAKETA IDAZKIA



## Begoña Zabala González

1980tik Nafarroako Gobernuko Letradua. Gaur egun, LAB sindikatuko aholkulari laboralista. Bizkaiko Emakume Asanbladaren sorreratik aktibista feminista. Emakume Internazionalistak talde feministako kide da; honek parte hartzen du Euskal Herriko Mugimendu Feministaren Koordinadoran eta erakunde feministen Estatuko Koordinadoran. GKEekin parte hartzen du maiztasunez garapen eta immigrazio arloetan esku-hartzeko proposamen feministak egiten.

## I. SARRERA

---

Bizi duinerako eskubidearen ardaztat hiru kasu aztertu dira eta, labur, gogoratzeko baina ez, jarraian laburtuko dira.

Lehenengo kasua etxeko langile baten ingurukoa da, Alejandra Castillo, etorkina, paraguaiarra eta Bartzelonan, Katalunia, bizi dena. Etxeko lanetarako; etxe barneko, gizon partikular batek, heldua eta fisikoki ezindua, kontratatua izan zen. Kontratazioan eta zerbitzuen prestazioetan ez ziren legeak eskatzen zituen lan-baldintzak betetzen: kontratazioa idatziz, ordutegia, atsedeen-eskubidea, oporrak... Halaber, etengabe presionatzen zuten enplegu-emaileak eta honen familiak onartutako ordutegi altuenetik gora ere lanerako prest egon zedin; 24 orduz libre egoteko, alegia. Langileak, gaixotasunaren ondorioz, baja hartu behar izan zuen. Ez zuen inolako demandarik egin, ezta erreklamaziorik ere. Lan-emailearen familiarekin lan-baldintzak adosten saiatu zen. Gaur egun denboraldi baterako erresidentzia eta lan-baimena dauka. Ama bera bakarrik izanda, bere herrian duen semeari dirua bidaltzen dio mantenerako.

Bigarren kasua supermerkatu handi bateko langileari dagokio, Miren Atxa. Bizkaiko, Euskal Autonomia Erkidegoa, herri batean egiten du lan txandakako sisteman, txanda bitan; baten goizez, sei egunez, eta bestean, arratsaldez, beste sei egunez. Ume txiki bat du eta lanaldi murrizketa, soldata murrizketarekin, eta bere lanaldia umearen zaintzaren beharretara egokitzea eskatu zuen. Ordutegiari dagokionez, ez zioten eskaera onartu. Bide judizialek jo zuen, baina ez zuen aldeko emaitzarik lortu auzi-eskean.

Hirugarren kasua Hermelinda Claret-ek kontatu zigun. Hau Barillas-en bizi da, Huehuetenango (Guatemala). Adierazi zigun nolako eragin negatiboa izan zuen bere bizitzan eta bertako emakumeengan "Ecoener Hidralia-Hidro Santa Cruz" enpresaren instalazioak. Enpresa honi aipatutako tokian, Ganjobal indigena-komunitate baten bizilekua, dagoen ur-jauzian zentral elektrikoa jartzeko baimena eman zioten. Instalazio honen kontra agertu ziren bertako bizilagunak, ondorioz, enpresak Gobernuaren eta indar militarren laguntzarekin, emakumeen bizitzan eragin latza izaten ari diren istiluak eragin zituen. Zehatzago esanda, protesta-buruak jarraituak, atxilotuak, jazarriak...izaten ari ziren eta, azkenean, horietako askok, deklaratzailerak kasu, beste leku batera alde egin behar izan zuten, familiarengandik eta ingurutik bananduta, jazarpenari aurre egiteko modu bakarra baitzen. Salaketa zenbait aurkeztu ziren, baina beren errebindikazioak asetzetik urrun, salaketa



jarri zutenak eta emakume aktiboenak salatuak eta demandatuak izan ziren eta harrapatzeko agindua zuten.

## **II. KASUETARAKO AZTERTUTAKO ERREFERENTZIA LEGALAK ETA BALIABIDEAK**

### **a) Nazioarteko baliabideak.**

#### **Giza-Eskubideen Adierazpen Unibertsala. 1948ko abenduak 10.**

Zehazki, 22, 23, 24 eta 25. artikulua aztertu dira. Artikulu paradigmaticotzat eurretako lehenengoa transkribatuko dugu: *“Pertsona orok, gizarteko kidea izanik, eskubidea du segurantza soziala izatera eta, gainera; nazioarteko ahalegin eta kooperazioaren bitartez eta Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanda, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen asebetetzea izateko ere bai. Hauek ezinbesteko baitira norbere duintasunerako eta izaeraren garapen askerako”.*

#### **Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Nazioarteko Ituna. 1966ko abenduak 16.**

Egiten den zehaztapenagatik, lan-eskubideari dagokionez, 7.artikulua transkribatzen da: “Honako itunean parte diren Estatuek pertsona ororen lan-baldintza zuzenez eta egokiez eta honakoa bermatuko dutenez gozatzeko eskubidea onartzen dute:

- a) Langile guztiei gutxienez hau ematen dien ordainsaria:
  - i) Lan berdinen truke lansari zuzena eta berdina, inolako ezberdintasunik gabekoa; bereziki, emakumeei gizonen lanarekiko berdintasuna bermatu behar die eta lan berdinegatik lansari berdina jaso behar dute;
  - ii) Honako Itun honekin bat doazen xedapenen araberako bizi-baldintza duinak eurentzako eta senideentzako.
- b) Lanean ziurtasuna eta garbitasuna.  
(...)
- c) Atsedena, aisialdiaz gozatzea, zentzuzko lan-ordu kopuru mugatua eta aldizkako opor ordainduak. Horrez gain, jai-egunen ordainketa”.

Herriek aske erabakitzeari dagokionez, hitzez hitz, 1.artikulua aipatzen da: *“Herri guztiek dute aske erabakitzeko eskubidea. Eskubide honen arabera, libreki ezartzen dute euren izaera politikoa eta, era berean, garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala hornitzen dute”.*

*Euren helburuetarako, herri guztiek izan ditzakete, libreki, euren aberastasuna eta natura-baliabideak, (...) Behin ere ezin izango zaizkio herri bati bere bizirauteko baliabideak kendu”.*

#### **Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna. 1966ko abenduak 16.**

#### **Emakumearen kontrako era guztietako diskriminazioen ezabatzeari buruzko Hitzarmena (CEDAW). 1979ko abenduak 18.**

Emakumeak baztertzearen kontrako araudia izanik, 3. artikulua oro har aztertu da eta hauxe nabarmendu da, dagozkigun kasuen arloan “Parte diren Estatuek, alor guztietan,

bereziki politika, gizarte, ekonomia eta kultur alorretan neurri egokiak hartuko dituzte, lege izaerakoak barne, **emakumearen erabateko garapena eta aurrerabidea bermaidin. Horrela, Giza Eskubideak eta oinarrizko askatasuna bermatuko zaizkio emakumeari gizonaren baldintza berberetan.**

### **Herri indigenen eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena. 2007ko irailak 13.**

Hirugarren kasuari dagokionez, erabat, 5. artikulua aipatzen da zehazki: *“Herri indigenek euren instituzio politiko, juridiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak indartzeko eta hauei eusteko eskubidea dute eta, aldi berean, guztiz parte hartzeko eskubidea, hala nahi izanez gero, Estatuaren bitzita politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean”.*

### **Giza Eskubideen Mundu-Konferentzia. 1993ko ekainak 25 (Viena).**

Interes handiko konferentzia honen barruan; bere 20.urteurrena da, hain justu, Tribunal hau egiteko amua, egoera-berdintasuna eta emakumearen giza eskubideei zuzendutako atala nabarmentzen da hurrengo paragrafoan, zehazki, kasuekin lotura duelako: *“Giza Eskubideen Mundu Konferentziak arren eskatzen du emakumeari Giza Eskubide guztiez berdintasunean gozatzen ahalbidetzea eta hau izan dadila gobernuztako eta Nazio Batuentzako lehentasuna. Horrez gain, Konferentziak integrazioaren eta garapen prozesuan emakumearen osoko parte-hartzea, egile eta onuraduntzat, nabarmentzen du. Behin eta berriz adierazten ditu emakumearen onurarako neurri orokorrak hartzeko ezarritako helburuak. Neurriak garapen jasangarria eta bidezkoa lortzeko. Hau Rioko Ingurumen eta Garapenari buruzko Adierazpenean aurreikusita dago, 21. programako 24. kapituluan, Ingurumen eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziak onartua”.*

### **Emakumearen IV. Konferentzia. Beijing. 1995eko iraila.**

Begi bistakoa da artikulua guztiak direla aplikatzekoak gaiarekiko zehaztapenagatik, baina, berariaz espezifikoak direlako eta bere garaian berritzaileak izanagatik, hurrengo Gobernu sinatzaileen konpromisoak nabarmentzen dira:

*“Erabaki dugu: (...)26. Emakumearen independentzia ekonomikoa sustatzea, enplegua barne, eta emakumeek jasan behar duten pobrezia zama etengabea eta gero eta handiagoa ezabatzea pobrezia honen arrazoi egituratuak aurre eginez, ekonomia egituretan aldaketak eginda; emakume guztiei, garapenaren berebiziko ekintzaile diren aldetik, sarbide berberak bermatuz, landa-guneetakoak barne, baliabide emankorretara, aukera eta zerbitzu publikoetara”.*

*27. “Pertsona zentratutako garapen jasangarria bultzatzea; ekonomia-hazkunde jasangarria barne, oinarrizko eta bitzita osoko irakaskuntza, alfabetizazioa, trebakuntza eta atentzioaren bidez”.*

### **Nazio Batuen Biltzar Orokorreko Garapen Eskubideari buruzko Adierazpena. 1986ko abenduak 4.**

**1990eko abenduaren 18ko Langile migratzaile guztien eta hauen senideen eskubideen babesari buruzko Hitzarmena.**

## **b) Lanaren Nazioarteko Erakundea (LNE)**

- 100. Hitzarmena, 1951ko ekainaren 6koa, lansari berdintasunari buruzkoa.
- 111. Hitzarmena, 1958ko ekainaren 4koa, diskriminazioaren (enplegua eta okupazioa). gainekoa.
- 169. Hitzarmena, 1989ko ekainaren 27koa, herri indigena eta tribalen ingurukoa.
- 189. Hitzarmena, 2011ko ekainaren 16koa, etxeko enpleguari buruzkoa.

## **c) Espainiar Estatuaren Legedia**

- 1978ko abenduaren 29ko Espainiar Konstituzioa.
- 3/2007ko Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako.
- 1995eko martxoaren 24ko Langileen Estatutua.
- 1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa. Honen bitartez arautzen da familia-zerbitzuaren eta lan erlazioaren izaera berezia.
- 29/2012 Errege Dekretu-Legea, abenduaren 28koa, kudeaketaren hobekuntzarako Etxeko Langileentzako Sistema Bereziaren kudeaketa-hobekuntzarako eta izaera ekonomiko eta sozialeko beste neurri batzuk.
- 38/2006 Legea, abenduaren 14koa, Norbanakoaren Autonomiaren eta mendeko egoeran dauden pertsonen atentzioaren sustapenerako.
- 3/2012 Legea, uztailaren 6koa, Lan Merkatuaren erreformarako premiazko neurrietarako.
- 20/2012 Errege Dekretu-Legea, uztailaren 13koa, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurrietarako eta lehiakortasunaren sustapenerako.

## **d) Autonomia-Araudia**

- 15/2006 Foru-Legea, abenduaren 14koa, Gizarte-zerbitzuetakoa (Nafarroa).
- 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte-Zerbitzuetakoa (Euskal Autonomia Erkidegoa).
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako (Euskal Autonomia Erkidegoa).

## **e) Guatemalako Legedia**

- Guatemalako Errepublikako Politika-Konstituzioa, 1986ko urtarrilaren 14koa.

- Emakumearen kontrako biolentzia prebenitzeko, zigortzeko eta ezabatzeko Amerika arteko Hitzarmena. Belem do Pará-ko Hitzarmena. Amerikar Estatuaren Erakundea (AEE). 1994ko ekainak 9.
- Guatemalako Errepublikaren eta Espainiar Estatuaren arteko Akordioa inbertsioen elkarren arteko sustapen eta babeserako, 2004ko maiatzaren 21ekoa.

### III. AURKEZTUTAKO KASUEN AZTERKETA

---

Salaketa ekintza honen ezinbesteko eginbearra da salatzen diren ekintzak zehatz-mehatz kokatzea, lehenik eta behin era partikularrean, gero era orokorrean kokatzeko bere salaketaren maila paradigmaticoa nabarmentzeko.

Auzitegiei dagozkien hiru eginbearren artean; **Egia, Justizia eta Ordaina**, benetan gertatutakoaren kontaktak garrantzi berezia du, ahalik eta zabalen. Honek Egiaren lehenengo paragrafoari erantzungo lioke. Kaltetutako emakumeek bene-benetan islatua ikusi behar dute errealitatea prozesuaren joanean. Errealitateari izena jartzea da baliabiderik garrantzitsuen ezinikusien, isiltasunaren, gezurraren eta egia ez-osen aurrean. Gainera; gertakari hauek jarraikotasuna izanez gero, eta beste egoera batzuekin lotuta badaude; edo ekonomia-esplotazio, kultura indarrez ebastea edo menderatze patriarkalaren prototipoekin lotura badute, alde honek bat-etortzea lortu behar du, derrigorrez.

Eginbear honetarako lekukotasuna ematen dutenen kontaktak baliatzen dira. Hauek espedienteetan erabiltzen dira eta tribunalak entzunak dira. Sakonago arakatu behar da eta kontaktzen diren gertakariak jazotzen ari diren kasu berdinekin lotu. Areago, aztertutako kasuetan bezala, emakumeengana hedatzen diren gertakarien orokortasuna izanda. Ekintza askoren generoaren sailkapenez ere hitz egin daiteke eta indarrez ezarritako legediaz ere bai.

Behin instrukzioaren eta ekintzen arakatzeko-aurrefaseak eginda, akusazioaren behin betiko ondorioak ateratzen dira eta hauek ahoz adierazten dira Tribunalaren egoitzan. Jarraian gertakariak kokatzera eta ezaugarritzera jotzen da gertatzen ari denean Justiziazkoa ez dena adierazteko, eta, noski, nor eta zer den egoeraren errudun, bai pertsona fisiko zein juridiko bai instituzio. Azken atala Ordaina da, kaltetutako emakumeen birkokatzeko atala. Honetan, Estatuak eta injustiziaren sortzaile-ekintzaile guztiek beren ekintzak eta jarrerak birmoldatu beharko lituzkete, baita eragindako injustiziak ordainduz ere, posible den guztietan.

“Bizi-maila duinerako eskubidearen” ardatzaren barruan, hiru kasu aurkeztu zaizkigu eta honela azalduko ditugu: 1: Bartzelonako etxeko langilea. 2: Bizkaiko komertzio-langilearen lan-bizimodua eta familia-bizimoduaren arteko adiskidetzeta. 3: Huehuetenango, Guatemala, instalatuko den Transnacional Econer Hidralia-Hidro Santa Cruz Hidroeléctrica kontzesio baten esplotazioa.

#### Etxeko langilea

Paraguaiar emakumea, etxeko lanetarako partikular batek kontratatua, finkoa, lan egiten duen etxean bizi da, bi urte daramatza kontratatuta, baina 2012ko ekainetik soilik dago kontratu idatzia.

Zaintzen duen pertsonaren egoeragatik, nagusia eta ezindua, eta honek ez duenez langilea ez den beste inork zaintzerik nahi, emakumea atsedetik gabe aritu da lanean eta kontratuak zehazten dituen zortzi ordutatik oso gorako ordutegiarekin.

Langileak presio-emozional eta psikologiko oso handia jasan du eta ia xantaia ere jasan behar izan du, lan-emailearen eta honen familiaren aldetik, egoera horretan lan egin dezan. Etorkina izanik, eta egoera prekariora kontuan izanik, lan-emailearen ezintasun-egoera gehituta, emakumeak presioen aurrean amore eman du, eta azkenean, baja hartu du gaixotasunagatik.

Gaur egun, oraindik, bajaran segitzen du eta guztiz sendatuta dagoenean negoziatuko du nagusiaren semeekin lanera buelta.

Langilearen beharrian ekonomikoa premia larrikoa da, izan ere, bere soldatarekin Paraguain bizi den semeari dirua bidaltzen dio bera baita mantentzen duen bakarra.

Lan emailearen aurrekarien arabera, aurreko langileak salatua izan zen eta honek oso emaitza kaxkarrak lortu zituen kalte ordainetan eta eskubideen onarpenean.

Hauek dira epaituko diren eta akusazioak aztertu beharreko ekintzak:

- Lan-emaileak indarrean dagoen araudia bete ez izana ordutegiei, eguneko eta aste-ko atsedenei, lan-osasunari, kontratu idatziaren bidalketari eta langilearen osasun osoari dagokienez.
- Xantaiak, presioak, lan-emailea izateagatik autoritate-gehiegikeriak zilegi ez diren helburuetarako, esate baterako, legeak baimendutakoaren gainetik dagoen ordutegi eta atsedeen baldintzen gehitzea. Semeek laguntzaile gisa parte hartzen dute.
- Lan-baldintza duinak gertatzeko indarrean dagoen araudia urratu izana.
- Lan-emaileek indarrean dauden lan eta giza-babes baldintzak errespetatu ditzaten salatzekeo balibideetara sarbide eskasa.
- Langilea etorkina izateak eragin negatiboa du eskubideen betetzean eta sarbidea, berez zaila, nabarmen oztopatzen du. Langileak aldi baterako erresidentzia-baimena izateak, luzapenerako honen kontratazioari lotuta, salaketa edo erreklamazio-aukera mugatzen du, izan ere, Estatuan lege-barruan egoteko elementu erabakigarria galtzeko beldur da.
- Lekukotasuna ematen duena bikoterik gabeko ama izatea; beraz, bere semea, Paraguain bizi dena mantentzen bakarra da; ondorioz, diru-sarrerak ezinbestekoak dira berarentzat ez ezik, honen semearentzako ere, eta agian, txikia zaintzen duen senidearentzako ere bai. Gauzak horrela, "Zainketaren kate nazional" deituriko mailarik ahulenaren parte da.
- Gaur egungo estatus juridikoak dakarren etxeko langilearen egoera. Honek ez du lan eskubide orokorrak bateratzen eta errespetatzen diren lan-erlaziorik onartzen. Bigarren mailako langile gisa sailkatua da, beraz, gutxieneko babes tresnek funtzionatzea galarazten du.

- Besteak beste, pertsona nagusiak eta ezinduak zaintzeko zerbitzu publikoaren lanak egin eta artatuko dituen Dependentsia Sistema Publikoaren gabezia. Gabezia honen ondorioz, familia barruan zaindu behar dira, hori dela eta, kasu honetan bezala, kontratatzeko era mugatuetera eta ez-nahikoetara jotzen da, hau da, egoera prekariora eta, areago, legez kanpokoetara.
- Ekintza hauek guztiak zerrendatu eta multzoka aztertuko dira emakume talde handia kaltetzen duen errealitate konplexuagoa eta erlazionatua kokatzeko. Bertan, leku oso garrantzitsua betetzen dute herrialde pobreetako emakume etorkinek. Hauek Espainiar Estatura jotzen dute; arrazoi ugariengatik, hala nola, ordaindutako lanak hartzeko, egoera ekonomikoa edo baldintza hobekak dituen beste lan bat lortzeko aukerak hobetzeagatik, beste kontratazio bat errazten duten titulazio profesionalek sarbidea erraztearren... bertakoek utzitako rolak betetzera. Sarritan, bertako emakumeek doan egiten zituzten lanak baitziren: familia, erreproduzio edo zaintza-lanak, eta soldata baten truke egiten dituzte emakume etorkinek.

Dagokigun kasuan gertatzen da, eta nahiko oro har, emigratzen duten emakumeek barru egitea, hasieran behintzat, eta euren seme-alabak beste emakumeren baten, familiakoa zein hurbilekoa, ardurapean uztea. Hauek beteko dituzte han amaren zaintza-eginbeharrak amaren orde. Horrela eratzen da zaintza-kate transnazionala eta hemen emakume askok familietako tradiziozko "zaintzaileen lekua" hartzen du. Kate honek lana dohainik eta soldataren truke egiten duten emakumeen harremana uztartzen du, kasu-kasuan, dohainekoak ahaidetasunarekin lotzen dira eta soldatapeko lana kontratazio prekarioarekin.

Elementu hau nabarmentzen da, izan ere, emakumeen arteko elkartasunerako ezinbestekoa da eta bertako emakumeen egoera aldarazteko justizia solidarioaren parametroa beste emakumeak esplota eta mendera ez ditzaten eskubide mugatuak dituzten emakume etorkinak diren aitzakian. Emakumeek ez dituzte euren autonomia eta askatasuna beste emakumeen eskubideak mugatzearren arabera eraiki behar.

Emakumeen soldatapeko lanak, familia barneko doako lanak eta emakumeek egoera prekarioan egiten dituzten etxeko zein zaintza-lanak zerrendatzen dira. Begi bistakoa da, zaintza-lanez, pertsonak zaintzeko lanez eta ugalketa-lanez ari bagara, zerbitzu publikoekin lotuko direla eta hauen desegiteaz arduratzen den alderdi neoliberalarekin.

## **Komertzio langilearen lan eta familia-bizitza bateratzeko politika**

2000tik supermerkatu batean saltzaile dagoen langile baten kasua kontatzen da. Aste bi txandatan lan egiten du; aste batean ia ordutegi osoa goizez, goiz eta arratsaldean lan egiten duen egun baten salbu. Beste aste batean arratsaldean egiten du lan eta 21:00etan amaitzen du. Aste bietan, astero, sei egunegiz egiten du lan; astelehenetik larunbatera, guztira, 38 ordu eta erdiz.

Langileak lanaldi-murrizketa eskatu du; %33 gutxiago, eta ordutegia beti goizez izan dala, bere seme txikia zaintzeko. Enpresak ez du eskaera onartu eta ordutegi murriztua egiten dezala nahi du, baina lehen ezarritako zeuzkan txandetan.

Langileak instantzia judizialera jo du, baina honek sententzia apelaezinaren bidez, nahi duen ordutegi murriztua ezartzeko eskubidea ukatu dio eta enpresari eman dio arrazoia.

Begi bistakoa da txandakako ordutegi murrizketak ez dizkiola langileari umea zaintzeko beharrak konpontzen, beraz, ordutegi murrizketa honek, eta dagokion soldata murrizketak, ez du langilea asetzen. Batez ere, arratsaldeko eginbeharrengatik, izan ere, hauek estres eta antsietate handia eragiten baitizkiote. Senarrak, garraiolaria, txandak egiten du lan; askotan gauzez eta, maiz, bere lanaldia luzatu behar izaten du.

Akusazio honen helburu diren ekintzak:

- Langileak ezarrita duen ordutegiak ez du inola ere bizitza familiarra eta pertsonala bateratzea ahalbidetzen. Ordutegia astean 38 ordu eta erdikoa da. Arratsaldeko dagoen astean lanaldia 21:00etan amaitzen du, ondorioz, etxeratutakoan ezin du semearekin erlazionatu, hau dagoeneko, oheratuta dago eta. Aste honetako goizetan eguneko lehenengo orduan soilik egoten da umearekin: gosari garaian eta ikastetxera eramateko tartean.
- Ordutegi iraingarri honen aurrean, langileak lanaldi-murrizketa onartu du, %33koa. Honek soldataren murrizketa handia eragiten dio; hala ere, dituen betebeharrei erantzun ahal izanez gero, konpentsatzailea. Argi utzi behar da legediak onartzen duela langileak berak lan-ordutegia mugatzea eta adostasunik egon ezean baka-rik, organo judizialek erabakitzen dutela.
- Salatzaileak ahalegin goraipagarri hau eginda; enpresak, maila bereko beste bost langile dituen (hiru lanaldi murriztuarekin, baina bat ere ez txiki baten zaintzaga-tik), egiten zen lan guztia eta eginbehar berberak egiten jarraitu nahi du, eta lortu egingo du; esate baterako, beste kontratazio batekin. Enpresaren nahia da, hain zuzen ere, soldata kosteak txikitzea langile baten zaintza-lanen kontura eta harre-ra-ordutegiari eutsita.
- Langileari ez zaio bere nahia onartzen Epaitegiak enpresaren antolaketa saihestu ezinezkoa dela ulertzen duelako.
- Epaitzen duenak gaineratu du seme txikia, langilea arratsaldeko dagoen asteetan, aitak zain dezakeela eta aitaren ardura alegatu du.
- Ekintza hauek komertzio-errealitatearen parte dira eta hau langileen bizitzak era geldiezinean hartzen ari da. Are gehiago enpleguaren trinkotze garai honetan zeinetan, lan-kontratazioak luzatu gabe, azalera handiko zentroak eta komertzio handiak egun osoz zabalik egotea nahi den; bazkari-ordua barne, eta gauko 21:00ak arte, larunbatak barne. Hiper-kontsumoaren azkartze eta haztea da errealitate honen zergatietako bat. Kontsumo-elementu honek emakumeengan du eragina eta era oso kaxkarrean ixten du zirkulua: bere lan-ordutegia dela kausa, eta bere zaintza-behar familiarrengatik, emakumeek eurek erabili beharko dituzte zerbitzuok edozein ohiko komertzio-ordutegitatik kanpo. Araudia; Estatu-koa, derrigorrez bete beharrekoa izan gura duena, zein autonomikoa ordutegien askatasuna arautzen ari da eta, urteko, gero eta jaiegun gehiagotan zabaltzeko askatasuna handitzea du helburu. Zentro hauetan langile gehienak emakumeak direla kontuan izanda, aurkeztu zaigun kasua gero eta ohikoagoa da. Amaitzeko, kontu hau berdin lotzen da familia eta lan-bizitza bateratzeko araudiarekin. Hau era eskasean arautzearen arautzeaz, eta ordutegiak ezartzeko ahalmena enpresa-antolaketa-aren esku uztearen ondorioz, ez du arazo bakar bat ere konpontzen;

areago, larriagotu egiten ditu, izan ere, orain emakume pobregoak daude, distribuzioan antzeko ordutegiak dituztenak, euren betebeharrei erantzuteko zailtasun oso handiekin eta, alde ekonomikotik eta bizitza-ikuspuntutik, euren bikotekidearen menpeago.

## **Econer Hidralia enpresaren instalazioa Huehuetenango, Guatemala.**

2008an Econer Hidralia, -Hidro Santa Cruz-, enpresa, Espainiako Hidralia S.A.ko kide, Barrillas-en kokatu zen esplotazio hidroelektrikoa eraikitzeko inguruko komunitateak hornitzen dituen ur-jauziaren bidez.

Kaltetuko komunitateetatik bati ere ez zitzaion galdetu legeak eta Nazioarteko Itunek dioten moduan; hala nola, 169. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) Hitzarmenak, besteak beste.

Orduan, komunitate antolatuak gogor egiten hasi ziren eta enpresaren praktikak salatz. Lehenago, 2007an, erreferenduma egon zen kaltetutako tokietan eta, honen arabera, nagusiki eta oro har baztertu zuten baliabide naturalen bidezko esplotazioetarako baimenak ematea. Hau guztia espedientean dago dokumentatua, nagusiki; Hegoak, EHUko Nazioarteko Kooperazio eta Garapenerako Ikerketa-Institutua, 2012ko azaroan eginiko txosten baten bidez. Halaber, hedabideetan gertakariak zabal azaldu ziren, izan ere, populazio indigenaren kontrako eraso ugari gertatu ziren enpresako zaintzaileen eskutik. Horrez gain, tokiko indar armatuen esku-hartzea nabarmendu zen, baita 2012ko maiatzean gertatutako ekintza gogorren ondoriozko Toki Estatua ere bai. Honekin eskubideak eta oinarriko askatasunak ezabatu ziren.

Hona gakartzan kausa da enpresa hau ezartzeak emakumeen bizitzan izan zuen eragin berezia; ikuspuntu ekonomikotik, sozialetik, pertsonaletik zein familiarretik eta euren bizitzen osotasunean. Ezin da aipatu gabe utzi komunitate indigenaren parte izanda emakume hauengan izan zuen eragin negatiboa, **-Ganjobal herria-** toki honetan milaka urtez bizi izandakoak, nortasun erreferenteekin eta elementu naturalenganako berezko loturarekin: lurraldea eta ura. Halaber, giza-erlazioek, proiektuek eta komunitate-konstanteek, euren bizimoduaren funtsezko atalak, aztertu beharreko inpaktua jasan dute.

Jakinarazi beharrekoa da, testigantzek eta dokumentazioak dioten moduan, tokiko emakumeen politika, herritar eta giza-parte hartze altua, konpromiso eta borondatezko buru belarri aritzea. Honek bihurtu ditu Estatuko aparatu polizial eta militarren eta enpresaren beraren indar erasotzaileen helburu zehatzagoa.

Espedientean jokatzen duten kaltetuen testigantza zuzenekin; bai eta eskuragarri izan dugun dokumentazio zabalarekin ere; bertan 2008tik gaur egunera arteko gertaerak kontatzen dira lehenengo pertsonan, testigantza-emailearen Tribunal-aurreko agerraldiarekin tribunal honen aurrean ikusarazi gura diren gertakariak eskematizatu ditugu. Hauek izango dira akusazioaren oinarriak:

- Emakumeek borrokari ekin diote enpresa aurrean; martxak, manifestazioak, erreklamazio idatziak, iragarkiak eta artikuluak hedabideetan, erabateko ezadostasuna baitute enpresaren instalazioarekin berarekin eta ezartzeko erabiltzen ari diren moduarekin ere bai. Ondorioz, enpresako komunitate-burua mehatxatzen hasi zen,



batez ere, bideetan. Bertan jazarri egiten zituzten, bereziki, enpresako bertako segurtasun-arduradunek.

- Nabarmendu beharrekoa da emakume hauek beti erabili zituztela metodo erabat baketsuak eta salaketa eta enpresa instalatzearen -legez kanpokotzat jotzen baitzuten- kontrako errefusa adierazteko gizarte-borrokara mugatuak. Ekintza hau guztia pertsona orok eskubide duen parte hartze sozial eta politikoaren barruan kokatzen da.
- Egiatzatu da salatzaileetako bat, komunitateei laguntza emateagatik eta ibaiaren eta honen baliabide naturalen aldeko borrokan egoteagatik enpresak mehatxatu eta ikaratu egin zuela harrapatze-agindua egin arte, bera eta beste hiru emakumeren kontra.
- Harrapatze-aginduaren ondorioz, salatzaileak desmobilizatu behar izan zuen eta etxea, familia eta komunitate-harremana utzi. Horrela, familiarengandik eta inguruarengandik behartutako urruntzea gertatu zen eta, are larriagoa dena, bere alaba biengandik, adin txikikoak biak ala biak, banandu beharraren sufrimendua jasan behar izan zuen.
- Harrapatze-agindua, desmobilizazioaren eragilea, kalte psikologikoak, mora-lak, afektiboak baita ekonomikoak ere eragin zizkion. Deliturik egin gabe, ezpada, bere lurraldearen defentsan aritzea, kriminalizatu izan zen eta gaizkiletzat hartua. Egiatan, salatzaileak sentitzen duena da bere lurraldean, bere baliabideekin eta bizi-baldintza duinetan bizitzeko eskubidea urratua izaten ari dela.
- Gezurrezko salaketak egin ziren, esate baterako makinak erretzea; baina ez zuen inoiz holakoetan parte hartu. Honek beldurra, larritasuna eta jazarpena eragin zizkion. Bide penaletik inputatua izateko moduko ekintzak egotzen zitzaizkion, indarkeriazko ekintzak ere bai, eta honek bere izen onaren eta osotasunaren kontra egiten du, beti ere, honek harrapaketa-agindua eta poliziaren -ez du batere konfiantzarik honengan- aldetiko jazarpena eraginez gero.
- Kaltetuaren egoera hau enpresa kokatzearen kontra egin zuten buruzagien kriminalizazio giroan gertatu zen. Komunitateko jende askoren kontrako jazarpen handia zegoen. Kide askoren kontrako eraso fisiko ugari izan ziren, baita euretako baten hilketa ere. Gauzak horrela, egoera mingarri eta sufrimenduzkoak areagotu ziren, gainera, beraiek justua deritzoten borrokari uzteko mehatxu zuzena da. Toki-estatua ezarri zen iskanbilak sortzen ari ziren aitzakiarekin. Herrialde indigenen segurtasun eza eta erasoak areagotu ziren. Bortxatuak izateko beldurrak, ahoko bortxaketek, jazarpenak, larderiak... emakumeen kolektiboari heldu zioten. Euren osasunean erreakzio negatiboak antzeman ziren, baita abortuak eragin ere, eta antsietate eta estres egoera larriak ere bai.
- Prozesu penalei ekin zitzaien, bermerik gabe, eta jauntxokeria argiz. Prozesu hauen bideratzean ere fiskalak ekintza irregular argiak gauzatu zituen testigantzekiko eta emaitzak manipulatzeko alde aurretiko audientzia egin zuen proba gisa.
- Defentsa-gabezia handia dago, izan ere, instantzia judizialek ez dituzte komunitateko emakumeak babesten, areago, baztertu eta erruduntzat jotzen dituzte eta maila handiko biktimizazioa sortzen da.

- Gobernuaren indar guztia enpresa ustiatzailea koka dadin bideratua dago. Horretatik eratoritzen dira oinarrizko eta frogatutako ekintza bi eta akusazioaren oinarri izango direnak: Gobernuak errepresio neurri bereziak hartzen ditu, batak bat, emakumeen bizitzan; edozein preziotan enpresa koka dadin besterik ez. Horrek min izugarria eragiten du komunitatean, eta batez ere, emakumeengan; izan ere, honen bizimoduaren, erlazioen, baliabideen eskuragarritasunaren eta beharren asebetetzearen kontrako eraso gogorra da. Ondorioz, hauek desegituratuta geratzen dira, bereziki, emakumeek bizi-baldintza duinak izateko euren egoera berregitura dezaten. Euren baliabide naturalen mugarik gabeko usiaketak lurralde horretako emakumeen neurririk gabeko esplotazioa eragiten du.

Bigarrenik, zera nabarmendu behar da: enpresa multinazionalak, Espainiako enpresa baten parte, duen helburu bakarra da bertan kokatzea etekin ekonomiko eta monetarioak lortzeko, bertako biztanleengan inolako ongizaterik eragingo ez duen esplotazio baten bidez. Horretarako biztanleriaren erasoak baliatzen ditu, bereziki, emakume buruzagien kontra. Hauek ez dute inolako babes legalik, are okerrago, armadak eta polizia-indarrek erasotutak dira.

Dagokigun kasu partikularra tokian bizi diren emakume guztiengana hedatu beharrekoa da; izan ere, emakume izategatik, enpresa bertan ezartzeak kalte egiten die baliabide oso garrantzitsua kentzen baitie: ura. Baliabide naturala. Ezinbesteko baliabidea, ez bakarrik bizitza duinerako, oro har, bizirauteko ere bai. Ura, lurraldea eta baliabide naturalak komunitateko guztien ongia izateaz gain; komunitatean duten balio eskuraz gain, terminologia juridikoan inorendu ezinezkoak dira, eta komunitatearentzako nortasun-zentzuarekin ere lotu behar dira. Etekin ekonomikorako nahien gaintik dauden guztien ongia dira eta guztien onerako bideratuak izango direnak, hau da, ororen bizitza onerakoak. Errealitate eta ekintza hauek beraz, existentzia askearen eta emakumeen bizi-baldintza duinen kontrako erasotzat ulertzen dira. Emakumeen bizitzen kontrakoak bereziki, hauek baitira lurrak emandakotik bizi direnak; bere produktuetatik bizi dira, beraz, ura baliabide naturala hil edo bizikoa zaie, baita komunitatearentzat ere.

Kasu hau emakumeen taldearekin ere lotzen da, hauen komunitate-kontuetan eta bizitokian eragin politikoa duten kontuetako parte-hartze politikoarekin. Emakumeek eskubidea dute, banakakoa zein taldekakoa, kontu publikoetan zein komunitatean parte hartzeko, gizonen egoera berean eta euren interesak eta euren txikiak babesteko. Behin bizitza politikoan eta komunitarioan sartuta, jarrera-hartze larri eta garrantzitsuekin, eta erabat erabakitzaileak, Estatuak hauei kasurik ere ez egiteaz gain, eta emakumeak eta erakundeak mespretxatu eta gutxiesteaz aparte, horregatik zigortu, jarraitu, jazarri eta, harrapatze-aginduekin, alde egitera bultzatzen ditu. Eta oso-oso larria dena: enpresa emakidadunaren etengabeko jazarpenaren aurrean, Estatuak ez ditu emakumeak babesten, ez dizkio babeserako baliabideak ematen eta ez die erasoei aurre egiten; besterik gabe, auzipetu eta jarreragatik kriminalizatu egiten ditu. Horrez gain, Estatuaren eta herritarren arteko harremana hausten duen elementua gehitzen du: errotik hausten du distantziakidetasun harremana, zaintzaren eta solidaritatearen justiziarik uko egiten dio eta transnazional baten alde egiten du: diru atzerritarra duen enpresa, espainiarra kasu honetan, helburu bakartzat ahalik eta etekin ekonomiko handiena lortzea duena, eta Guatemala herrian bertan, inolako eraginik ere izango ez duena.

## IV. SALAKETARAKO ARRAZOI ESPEZIFIKOAK

---

### Lehen bi kasuei lotuta, hots, espainiar estatuan eman diren emakumeen lanpostuei dagokienez:

**Lehena.** Espainiar estatuak ez ditu legez behar bezala erregulatu etxeko lanari lotuta sortzen diren harremanak, ez behintzat zerbitzu hori lan-baldintza duinetan eta segurtasun fisiko zein psikologikoa bermatuta eman dadin. Ez ditu bere egin nahi izan Lanaren Nazioarteko Erakundeak, LNE-k, 189. Hitzarmenari lotuta egindako iradokizunak, eta beraz, erregulazio horrekin, urratu egiten ditu nazioarteko erakundearen jarraibideak eta kontraesan egiten ditu lanerako eskubideari buruzko xedapenak, batez ere, emakumeen diskriminazioaren aurkakoak.

**Bigarrena.** Lege-erregulazioa eta sektoreko langileen defentsarako tresna juridikoak tarteko, behargin horiek babesgabetasun larria pairatzen dute, enplegu-emaileek erregulazio hori betetzen ez dutenean. Halabeharrez, definizioz, familia-esparru pribatuan ematen den lan-harreman honen gehiegikeriak zuzentzeko ikusketa-mekanismoak eta salaketa administratibo zein penalerako baliabideak ez daude beharginen eskura, eta erabiltzen direnetan, ez dute ematen behar luketen emaitzarik. Horrenbestez, esan daiteke Estatuak ez duela langileen defentsarako eta babeserako tresna egokirik.

**Hirugarrena.** Etxeko lanen sektoreari –oro har, emakumezko beharginek osatutako sektore horri– lotutako bigarren mailako erregulazio horren eraginez, horretan diharduten emakumeek legezko sexu-diskriminazioa pairatzen dute. Espainiar estatuak ez ditu betetzen LNE-ren eta Emakumeen aurkako era guztietako Diskriminazioak ezabatzeko Hitzarmenaren (ingelesez, CEDAW) esanak, izan ere, izatez diskriminatzailea den araudi bat du, emakumei bakar-bakarrik eragiten diena.

**Laugarrena.** Egun, zainketaren krisialdi bat bizi dugu, ez baitugu aintzat hartzen lanbide horren eredu sozio-ekonomikoa, emakumeengan eragin negatiboa duena eta haien diskriminazioa areagotzen duena. Estatuak ez dio krisialdi horri aurre egin, egoera horren ikuskera soziala eta politikoa hobetuz eta egitura publikoak indartuz; are gehiago, lehen goratu egin nahi du, eredu patriarkalek gehien kaltetutako bi sektoreetan: emakumeak, ama-emazte rolean, eta immigranteak, behargin ezegonkorren rolean.

Halaxe da, Estatuak ez ditu zainketa-zerbitzuak indartu –orokorrak, publikoak eta doakoak izan daitezen– aitzitik, ahuldu, pribatizatu, erkindu eta giltzapetu egin ditu. Hori horrela eginik, konponbidetzat ematen du emakumeek, etxekoandreek, zainketa-lanak beren gain hartzea edo kontratua dutenen lan-baldintzak esplotazioaren hurrengoak izatea, aurretik aipatu den bezala.

**Bosgarrena.** Ez Estatuak ez eskudun administrazioek, ez dute onartu Zainketaren Arretarako Zerbitzu Publiko baten sorrera, arlo honetan interesa dutenek hala eskatu eta indarrean dagoen araudiak hala agintzen zuen arren (39/2006 legea, abenduaren 14koa, norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasunari arreta ematekoa). Legearen alde egin zutenek uste izan zuten laugarren eskubide unibertsala ezartzen lagunduko zuela, hau da, mendekotasun-egoeretan zainketa izateko eskubidea ezartzeko lagungarri izango zela; baina ikuskera hori murriztuta gelditu zen legean bertan, laguntzen zerrrenda bat besterik ez baitzen –krisialdia aitzakia hartuta, egunez egun laburtzen ari dena–. Hori gutxi balitz, zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoa izango zenak erabateko aldaketa izan

du, erabilera zikoitzen mesedetan eta lege-babes eskasa tarteko. Eta egun ez da diru-laguntza urri eta eskasen sorta bat besterik, atzerapenez, oso noizean behin eta defizit publikoaren arabera gauzatzen dena –eta hori, jakina denez, aitzakia gisa erabiltzen da zerbitzu publikoak desegiteko–.

Zainketa dirua oinarri hartuta ulertzeko saiakerak eta hura bere gain hartzeko zerbitzu pribatuaren alde egin izanak eragin negatiboa izan du zerbitzu horretan, eta behartu egin ditu emakumeak, beste behin, etxeko lanetan eman beharreko denbora luzatzera.

**Seigarrena.** Agerikoa denez, berdintasunerako legeria eta hura garatzeko neurriak ez dira nahikoa, eta ez datoz bat, inola ere, egungo kontratazio-eredu berrieekin (lanaldi partzialak, egun jakinetakoak, asteburutako lanaldi partzialak...). Adiskidetze- eta berdintasun-neurriek ohiko egun osoko lanaldietan eragin txikia badute ere, hutsaren pare geratzen dira diskriminazioa eta kontratu ezegonkorra nagusi diren sektorean.

**Zazpigarrena.** Estatu tematuta dago saltoki handiei ordutegi eta irekiera askatasun erabatekoa emateko, eta horretan, beste urrats bat eman du. Autonomia Erkidego guztietan ezarri asmo duen legeria horrek emakumezko langileen eskubideen aurka egiten du zuzen-zuzenean, haiek baitira merkataritzan gehien dihardutenak. Behin eta berriz, emakumeen eguneroko beharretara egokituko den lanaldia oztopatzen da –haien baldintza pertsonalak, sozialak eta familiakoak kontuan hartuko lituzkeena–, eta ezinezko egiten da lana eta familia adiskidetzea deritzona –legez ia erregulatu ez dena eta haren aldeko apustua egiten duten emakumeengan eragin ekonomiko itzela duena–.

**Zortzigarrena.** Epailen lanak bi aldetatik egiten du huts, araudien urritasuna eta ahultasuna tarteko, adiskidetzeari eta berdintasunari buruzko legeriaren interpretazioari eta aplikazioari dagokionean. Batetik, emakumeen eskubideen parean edo gorago jartzen direlako enpresarien antolaketa-interesak, eta horrek berarekin dakar, beti, patronalaren interesak aplikatzea. Bestetik, eskubideen irakurketa egitean, familia-eredu jakin bat oinarri hartzen dutelako, eta, gurasoen erantzunkidetasuna bezain gai garrantzitsuak ahotan hartuta, adiskidetze-eskubideak ukatzen dituelako irizten badu kideetako batek aukera duela zainketa-lanak bere gain hartzeko.

**Bederatzigarrena.** Nahiz eta aipatutako Nazioarteko Biltzarretan aurrerapauso handiak eman diren –batez ere, Emakumeen Biltzarretan, non iraupen-ekonomietako ordaindu gabeko lanaren, zainketaren, ugalketaren eta etxeko lanaren garrantzia azpimarratzen den–; nahiz eta, teorian, feminismoak aurrera egin duen zientzia juridikoan eta ekonomikoan; nahiz eta agerikoa den emakumeen pobrezia gero eta handiagoa –haien lana aintzat hartzen ez delako–; nahiz eta errealitate horiek guztiak agerikoak diren duela bi hamarkada baino gehiagotik hona, egitate horiek guztiak ez dira kontuan hartzen indarrean dagoen araudian; ez eta emakumeen bizi-baldintzak hobetzerakoan ere. Oraindik ere, ohiko lan-kontratuarekin soilik lotzen dira gizarte-eskubideak. Ondorioz, hizpide dugun sektorean, desagertu egiten dira kontribuzio-prestazioak, hala nola osasun-arreta, eta beraz, giza eskubideak eta eskubide publikoak. Bestalde, hori gutxi ez balitz, bere horretan diraute kottizatzen duen baten emazte edo alargun izateagatik ematen direnak. Agerikoa da, beraz, ez dela era koherentean jarduten zainketa-lanaren kontsiderazioari dagokionez, bizitzaren iraunkortasunerako lan gisa, iraupenerako ezinbestekoa den aldetik.

**Hamargarrena.** Espainiar Estatuak emakume immigranteak baztertzen dituela. Izan ere, lan-kontratu jakinekin lotzen ditu bertan bizitzeko eskubidea eta gizarte-prestazioak ja-

sotzeko hark berarekin dakarrena. Emakume horiek, ordea, ez dute aukeratzeko askatasunik, eta beraz, behartu egiten ditu etxeko lanen eta zainketen ezkutuko ekonomian jardutera.

## **Hirugarren kasuari lotuta, hots, Guatemalan egoitza jarri zuen enpresari dagokionean:**

**Lehena.** Guatemalako gobernuak ez ditu betearazi eta urratu egin ditu herri indigenen eskubideak –zehazki esanda, Balam Aq’ab’ eskualdeko indigenenak–. Izan ere, Huehuetenango eremuko baliabide hidraulikoen ustiaketa emakida Econer Hidralia-Hidro Santa Cruz enpresari eman dio, kaltetutako komunitateen borondatea aintzat hartu gabe eta haiek egindako erreferendumaren emaitzen aurka. Herri horiek irauteko erabiltzen dituzten baliabideen ustiaketa irabazi ekonomikoak eskuratu beste asmorik ez duen atzerriko enpresa kapitalista bati ematea atentatu larria da eremu horretan bizi den herriaren aurka. Emakumeak bereziki kaltetuak izan dira, funtsezko baliabide bat kendu baitzaie, beren bizibidearen iturria. Horrez gain, kalte egiten zaie haien bizimoduari eta balio kulturei, baliabide naturalak diru truke emateak aurrez aurre talka egiten baitu haien ikuskera kosmografiakoarekin eta balioekin, naturarekin bat bizi asmo dutenentzat, atentatua baita.

**Bigarrena.** Guatemalako gobernuak lagundu egin dio enpresa ustiatzaileari Barillaseko eremuan sartzen, eta horretan, nabarmen kaltetu ditu bertan bizi direnen bizi-baldintzak. Gainera, baliabide naturalak saldu eta ustiatzearen aurka dauden komunitateen interesen eta multinazionalaren arteko gatazka lehertutakoan, Estatuak ez du herri-tarren eta komunitate-ordezkarien alde egin; aitzitik, enpresaren aldeko jarrera hartu du, komunitateetako emakumeak kaltetu dituzten errepresio- eta eraso-metodoak baliatuz.

**Hirugarrena.** Eremuan setio-egoera ezarri izanak (2012), lurralde horren zati bat militarrek eta poliziak hartu izanak eta komunitateetako agintariak prozesatu izanak, besteak beste, lagundu egin diete enpresaren estortsio-politikei.

Gobernuaren jardun horrek emakumeen jazarpena eta segurtasun eza eragin ditu, eta zenbait kasutan, behartu egin ditu beren bizilekuetatik alde egitera, familiak, gizarte-harremanak eta komunitateak atzean utzita.

**Laugarrena.** Guatemalako gobernuaren eginbeharra da baliabide naturalak babestea, hala nola lurraldea bera eta ura, horiexek baitira bertan bizi diren komunitateen bizibidea. Gobernuaren eginbeharra da, halaber, emakumeei behar dituzten baliabideak ematea, bizi-baldintza duinak izan ditzaten. Ildo horretan hartu beharreko neurriak dira, besteak beste, emakumeek baliatzen dituzten bideak errespetatzea, hau da, baliabide naturalak ustiatzeko antzinatek darabiltzaten ezagutza eta erabilera errespetatzea. Ez du inolako justifikaziorik beste eredu sozio-ekonomiko bat txertatzea, batez ere, orain arte betetzen ziren bizi-baldintzak bermatu ezin baditu. Emakumeen tradiziozko bizimoduan duen eragina dela eta, delitu bihurtzen baita.

## **V. AUZITEGIARI ESKATZEN ZAIZKION ERABAKIAK**

---

Lehen bi kasuei dagokienean, aipatzen eta azaltzen diren egitatei lotuta, hauek aldarrika daitezkeen eskatzen da:

1. Etxeko langilearen kontratazioa ahalbidetu duen legeriak emakumeen diskriminazioa sustatzen duela, batez ere, familia-etxean lan egiten dutenena, sexuaren arabera lanbideen banaketa oinarri hartuta, zainketa-lanak emakumeen esku uzten direnean.
2. Emakume horrek izan dituen lan-baldintzek ez dutela betetzen indarrean dagoen legeria, eta baldintza horien zioa dela etxeak espazio pribatutzat hartzea, kontrol-eta ikusketa-mekanismoak ez egotea, eta beraz, enplegu-emaileen jarrera desagokiak zainduko dituen neurriak ere ez.
3. Lanbidearen izaera pertsonala eta zerbitzuen ezinbestekotasuna tarteko, behargin horiek pairatzen dituzten presio psikologikoak eta xantaia emozionalak kalte handia eragiten dutela emakume horien osasunean eta osotasun psikologikoan.
4. Etxeko langileei egiten zaizkien kontratu gehienetan, emakume eta immigrante izateak berarekin dakarrela langilearen egoera kaskartzea, ez lan-baldintzei dagokienean bakarrik, baita langile eta eskubidedun pertsona gisa duen mailari dagokienean ere.
5. Zainketa lanbide gisa aintzat ez hartzeak eta, mendekotasun egoeretan, ama-emazteek zeregin horiek beren gain hartzeak eraginda, lan hori bigarren mailakotzat jotzen dela; eta horrenbestez, gaizki ordaindutako eta kontratatutako lana izan ohi dela.
6. Estatuak zainketa bermatuko duen zerbitzu-sare publiko bat sortu eta instituzionalizatzeko lana bere gain hartu ez izana dela, sarritan, familiek egoera kaxkarrean dauden pertsonengana jo eta lan-baldintza desagokiak eskaintzeko arrazoia.
7. Emakumeen lana, familia eta beharrian pertsonalak adiskidetzeko legeriak mugak dituela, eta ezberrik gabe, urriegia dela emakumeek benetako aukera izan dezaten ordaindutako lana, zainketa eta ugalketa bateragarri egiteko, batez ere, bigarren mailakotzat jotzen badira, enpresaren antolaketa-eskakizunen eta bikotekidearen aurrean.
8. Egungo egoeran, lan-merkatua erregulatzeko premiazkotzat jo diren legegintza-neurrien bidez sustatutako kontratuen malgutzeak eta kaskartzeak hutsaren pareko edo ezinezko egiten dituztela adiskidetze- eta berdintasun-neurriak, ez baitute beste eraginik emakumeek lan-baldintza kaxkarragoetan eta soldata txikiagoz lan egitea baino.
9. Lan-baldintza gero eta kaxkarragoak eta lanaldi bikoitzak larriki areagotzen ari direla, merkataritza arloko ordutegiak zabaltzeko legeriaren ondorioz.

Hirugarren kasuari dagokionean, hauek aldarrika daitezten eskatzen da:

1. Hidralia eremu horretan kokatu bada, Guatemalako gobernuaren inposaketari esker izan dela, enpresaren presioei men egin baitie, gehiegikeriaz, kaltetutako komunitateen erabakien gainetik jarritz.
2. Enpresa eremu horretan kokatu bada, Gobernuaren jardunari esker izan dela, hainbat motatako errepresio-neurriak baliatu baititu, hala nola setio-egoera eza-

rriz, polizia eta militarrek eskualde horretara bidaliz, prozesamenduak abiaraziz, komunitateak zirikatuz, doilorkeriaz, salaketa faltsuak eginez.... Neurri horiek emakumeak kaltetu dituzte bereziki, mendekotasun patriarkalari lotutako mekanismoak baliatuz: irainak, sexu-jazarpena, beldurra...

3. Enpresak berak ere emakumeen aurkako eraso-mekanismoak baliatu dituela –bideetan jazarri dituela–, haiek beldurtu eta antolatzaile eta lider gisa egiten duten lana utz dezaten.
4. Emakumeak beldurtzeko eta erasotzeko neurri horien helburua dela emakumeak eremu horretatik aldentzea edo etxetik irten ez daitezela lortzea, protestarik egin ez dezaten. Hori horrela izanik, zenbait emakumek alde egitera behartuta ikusi dute beren burua –harrapaketa-aginduak tarteko–; eta horrek, sufrimendu eta min handia eragin die, batez ere, familiarengandik aldentu behar izan dutelako, eta bereziki, zaintzen zituzten seme-alabengandik.
5. Eremuaren okupazioa dela eta, emakumeek ezin dituztela hango baliabideak erabili; eta beraz, beste biderik ez dutenez, sarritan, zailtasunak izaten dituztela beren eta beren haurren beharrezkoak duintasunez asetzeko.
6. Multinazional-ustiatzailearen interesak ez direla enpresaren beraren irabaziak besterik –errentagarritasun ekonomikoari dagokionean, ustiaketa-baldintzak oso errentagarriak zaizkiola ikusi besterik ez dago–. Horrenbestez, frogatu daiteke komunitateen baliabide naturalak bidegabe ebastearen kontura lortu asmo dituztela irabaziak, komunitateak pobre izatera edo lurraldeak uztera behartuz. Kasu honetan ere, emakumeak dira gehien kaltetutakoak, iraupenerako ezinbestekoa den elementu bat galtzen baitute.
7. Lurralde batean sartu eta hango baliabideen jabe egiteak emakumeen bizibide tradizionala suntsitu duela, haien eta beren familien beharrezkoak asetzeko oinarriko bizibidea desegituratu baitu.

## VI. ESTATUEI EGIN BEHARREKO GOMENDIOAK

---

Salaketa honek bere egiten ditu inplikaturako parte azterketetako eta eskaeretako asko. Horregatik, aurreko ataletan aipaturakoez gain, gomendio hauek laburbildu nahi ditu:

**Lehena.** Etxeko langileei dagokienean, kontratu hori Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean txerta dadila, gainerakoek dituzten eskubide berberekin, hala nola langabezia-prestazioa jasotzekoarekin.

**Bigarrena.** LNE-ren 189. Hitzarmena berretsi dadila, eta haren babesean egindako gomendioak aplikatu daitezela. Zehazki esanda, uko egiteagatiko kaleratzea baztertu eta kontratua idatziz egin dadila –hasieratik, lan-baldintza guztiak zehaztu daitezela–.

**Hirugarrena.** Neurriak har daitezela, ikusketa-lanak ofizioski egin daitezela –ez partee-tako batek hala eskatutakoan bakarrik–, etxetako lan-baldintzak modu eraginkorrean kontrolatu daitezela. Kontratazio- eta enplegu-agentzia pribatuak legez kanpo utzi daitezela. Lan-baldintzen kontrola eta zainketa sustatu daitezela, eta bereziki, emakumezko langileen osasun-arazoak prebenitzeko eta artatzeko neurriak.

**Laugarrena.** Zainketari eta ugalketari lotutako zereginak lanbide gisa aintzat har daitezela, ekonomikoki eta juridikoki, hari dagozkion babes sozialaren ondorio guztiekin.

**Bosgarrena.** Lana, familia eta beharrian pertsonalak adiskidetzeko neurriak berriro formulatu eta indartu daitezela, bizimodu duina berma dadin, enpresen irabaziak eta haien antolaketa-sistemak emakumeen beharretara eta bizitzaren iraunkortasunari lotutako lanetara egoki daitezen.

**Seigarrena.** Administrazio publikoek bere gain har dezatela, zerbitzu publikoen bidez, mendekotasunari eta zainketari zor zaion arreta bermatzeko ardura.

**Zazpigarrena.** Estatu mailako azken bi lan erreformak indargabetu ditzala, lan merkatuaren arauketa faltari eta lan baldintzen ezegonkortasunari dagokionean.

**Zortzigarrena.** Guatemalako gobernuak, Econer Hidralia-Hidro Santa Cruz enpresa lurralde hartan kokatu izanaren ondorioz emandako zibilen zein militarren jarduna dela eta, Barillaseko emakumeek pairatutako erasoak eta jazarpena iker ditzala, epailetan errudunak kondenatuko direla bermatu dadin.

**Bederatzigarrena.** Erabat eta osoki errespeta daitezela Ganjobal herriaren eskubideak, 169. Hitzarmenean eta herri indigenen eskubideen aldarrikapenean jasotakoak, eta bereziki, baliabide naturalak ustiatu eta entitate pribatuen esku ez uztekoa –kasu honetan, Hidro Santa Cruz enpresaren esku ez uztekoa–.

**Hamargarrena.** Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordera eta Nazioarteko Zigor Auzitegira igor daitezela jasotakoak, ikerketa mekanismoak abian jar ditzaten, Guatemalako estatuak bere herritarren aurka erabilitako bortxakeria argitu dadin –bai indarkeria fisikoa, bai psikologikoa, bai behartutako desplazamenduak eta bai lurren eta baliabideen desjabetzea ere–.

**Hamaikagarrena.** Herritarren, emakumeen, feministen eta giza eskubideen erakundeak ohartaraz daitezela komunitate horrek pairatu duen sufrimenduaz, guztien artean, elkartasuna sustatzeko eta lurralde horretan guztian –batez ere, indigenek okupatutako lurraldeetan– giza eskubideak errespetatzen direla zaindu eta bizi-baldintza duinak berma daitezen.

**Hamabigarrena.** Espainiar Estatuari eska diezaiola enpresa horren jarduna zain dezala, ekintza erasokorrak eta delituzkoak burutzen baititu Ganjobal herriaren aurka. Bai eta ekintza horiek salatu eta horren arabera joka dezala ere, Espainiar Estatuan inputa dadin, lurraldez kanpoko justizia-neurriak baliatuta.

Fiskaltzaren salaketa hori oinarri hartuta, epaimahaiari eskatzen zaio hauek txerta ditzan azken ebazpenean:

## VII. ZIGORRAK

---

**Lehena.** Etxeko langilearen enplegu-emailea zigor dadila –bai eta haren seme-alabak ere, haien partaidetza beharrezkoa izan delako–, arrazoi hauek direla eta: kontratua modu irregularrean egin duelako; indarrean dagoen etxeko langileen erregimeneko lan-baldintzak eman ez dituelako; langilea behartu duelako eta xantaia egin diolako, eguneko,



asteko eta urteko atsedetik hartu gabe lan egin dezan; presio psikologikoa eta emozionala egin diolako, gaixotasun-baja hartzera behartu arte; legeak baimendutako diskriminazioak ematen dituen aukerak neurrigabe baliatu dituelako –emakumea, immigrantea, etxeko langilea, eta beraz, bigarren mailako behargina, eta bere jatorrizko herrialdean haur bat duen bikotekiderik gabeko ama dela baliatuta–.

**Bigarrena.** UVESCAJA S.L. saltokia zigor dadila, arrazoi hauek direla eta: errotik urratzen duelako lana, familia eta beharrizan pertsonalak adiskidetzeko araudia; neurrigabe baliatzen duelako ordutegi askatasuna, eta beraz, ezinezko egiten duelako adiskidetze hori burutzea; bidegabe baliatzen duelako enpresa antolaketaren lehentasuna, langilearen egoera kaskartuz; langilea epaitegietara jotzera behartu duelako, ordutegiak adosteko negoziazio-neurriak aplikatu beharrean; ordezkapenik egin ez duelako, lanaldi-murrizketen kontratazioan.

**Hirugarrena.** Espainiar Ecoener Hidralia-Hidro Santa Cruz enpresa kapitalista zigor dadila, arrazoi hauek direla eta: legitimitaterik gabe kokatu delako Ganjobal herriaren lurretan (Barillas, Guatemala), komunitatearentzako ezinbestekoak diren baliabideekin negozioko egiteko eta baliabide naturalak bortxaz bere egiteko (ura eta lurraldea bera); bizi-baldintzak kaltetu dituelako, eta horrek, gaixotasunak zabaltzea eragin duelako; indigenak lurra saltzera behartu dituelako, erasoen eta mehatxuen bidez, eta ondorioz, beste leku batzuetara joatera behartu dituelako.

**Laugarrena.** Guatemalako estatua zigor dadila, arrazoi hauek direla eta: baimendu eta mesedetu egin duelako Ecoener Hidralia-Hidro Santa Cruz enpresaren sarrera, irabazi ekonomikoak lortu beste asmorik ez duena, eta hori lortze aldera, lurralde hartako komunitateen bizimodua hankaz gora jarri duena, baliabide naturalen banakako zein komunitateko erabileran oinarritutako bizibidea –batez ere, uraren eta lurraren erabileran oinarritutakoa–; ez dituelako emakumeen bizi-baldintzak babestu enpresaren eraso jakinaren aurrean, hala nola behartutako desplazamenduen eta lurren ebazpenaren aurrean; enpresa ustiatzaileari laguntza poliziala, militarra eta judiziala eman diolako, bere helburuak lor ditzan, eta horrek berekin ekarri dituelako emakumeek jasandako eraso eta mehatxuak; komunitateetako emakumezko liderrak justifikaziorik gabe auzipetu dituelako; lagundu egin duelako emakumeen bizi-baldintzen duintasuna suntsitzen –besteak beste, beren kulturari, tradizioei eta ohiturei dagokienean, beren hizkuntza eta haraindiko erreferentziak erabiltzeko eskubidea–; bere sistema judizialak ez dituelako babesten emakume indigenak, gauzak leporatu baizik; eta esparru publikoan, emakumezko liderren partaidetza politikoa mespretxatu duelako, haien ausardia erpresioarekin zigortuz.

**Bosgarrena.** Espainiar Estatua zigor dadila, arrazoi hauek direla eta: etxeko langileekiko lan-harremana modu desegokian, partzialki eta diskriminazioz arautu duelako; ez duela behar adina zerbitzu publikorik mendekotasunari zor zaion arreta emateko; ez duelako legez aurreikusten lana, familia eta beharrizan pertsonalak adiskidetzeko aukera, bizi-baldintza duinetan; ez dituelako lanbidetzat hartzen zainketari eta ugalketari lotutako lanak, eta beraz, ez dizkiolako aitortzen hari dagozkion eskubide sozialak; emakumezko immigranteak maila baxuago batean jartzen dituen atzeritarren lege bat aplikatzen duelako, emakumeok herritarren nazioarteko katearen katebegi ahulena bihurtuz; legeen eta administrazio- eta epailetza-egituren bidez, aukera ematen dielako enpresei eta enplegu-emateei, irabaziak lortze aldera, beren ekonomia- eta enpresa-interesak emakumeen eskubideen gainetik jartzeko, bai eta bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko zeregin generikoen gainetik ere.

## VIII. GOMENDIOAK

---

**Lehena.** Espainiar Estatuari gomendatzen zaio, emakumezko etxeko langileei dagokionean, hauek egin ditzala: kontratu mota hori Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorean txerta dezala, hark bererekin dakartzan eskubideak izan ditzan, hala nola langabezia-prestazioa jasotzekoa; LNE-ren 189. Hitzarmena berretsi dezala, eta haren babesean egindako gomendioak aplikatu ditzala –zehazki, uko egiteagatiko kaleratzea bazter dezala eta kontratua idatziz egin dadin susta dezala, hasieratik, lan-baldintza guztiak zehaztu daitezken–; langileen lan-baldintzak ofizioz ikuska ditzala; eta kontratazioa kontrola dezala, enplegu-bulego publikoen bidez.

**Bigarrena.** Zainketari, ugalketari eta emakumeen ordainsaririk gabeko lanari dagokionean: lanbide gisa aintzat har daitezela, ekonomikoki eta juridikoki, hari dagozkion babes sozialaren ondorio guztiekin; lana, familia eta beharrian pertsonalak adiskidetzeko neurriak berriro formulatu eta indartu ditzala, bizimodu duina berma dadin, enpresen irabaziak eta haien antolaketa-sistemak emakumeen beharretara eta bizitzaren iraunkortasunari lotutako lanetara egoki daitezken; administrazio publikoek beren gain har dezatela, zerbitzu publikoen bidez, mendekotasunari eta zainketari zor zaion arreta bermatzea; merkataritzarako ordutegien askatasunari buruzko xedapenak indargabetu ditzala, eta ordutegiak kontrola ditzala, familiarekin eta beharrian pertsonalekin bateragarriak izan daitezken, kontsumismoa sustatzeko tresna izan beharrean; lan merkatuari eta kontratazioaren malgutasunari lotutako azken erreformak indargabetu ditzala; eta kontratazio orori aplikatu diezazkiola eskubide ekonomiko eta sozial guztiak, baita emakume immigranteen kontratazioei ere.

**Hirugarrena.** Guatemalako gobernuari, ahalik lasterren ikerketa bat abian jar dezala, Econer Hidralia - Hidro Santa Cruz enpresa lurralde haietan kokatu izanaren ondorioz, besteak beste, zibilen zein militarren jarduna tarteko, Barillaseko emakumeek pairatutako erasoak eta jazarpenak argi daitezken, eta berma dadin epaiketan errudunak kondenatu eta egindako kalteak ordainduko direla.

**Laugarrena.** Guatemalako gobernuari, erabat eta osoki errespetatu daitezela Ganjobal herriaren eskubideak –169. Hitzarmenean eta herri indigenen eskubideen aldarrikapenean jasotakoak–, eta bereziki, baliabide naturalak ustiatu eta entitate pribatuen esku ez uztekoa –kasu honetan, Hidro Santa Cruz enpresaren emakida indargabetzea eta komunitateari egindako kalte ekonomikoak ordaintzea–.

**Bosgarrena.** Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordera eta Nazioarteko Zigor Auzitegira igor ditzala jazotakoak, ikerketa mekanismoak abian jar ditzaten, Guatemalako Estatuak bere herritarren aurka erabilitako bortxakeria argitzeko –bai indarkeria fisikoa, bai psikologikoa, bai behartutako desplazamenduak, bai lurren eta baliabideen desjabetzea, bai eta herri gisa duten entitate kulturala bortxatu izana ere–.

**Seigarrena.** Espainiar Estatuari eta Europar Batasunari helaraz diezaiela nazioarteko premiazko eskakizuna, araudi bat onar dezaten, enpresa transnazionalak giza eskubideak errespetatzera behartuko dituen, edozein lekutan dihardutela ere; araudi horretan, jardunbidearen kode lotesle bat txerta dezaten; eta nazioarteko auzitegi bat era dezaten, enpresa horien jardura bidegabeak epaitzeko eta zigortzeko.



# NAZIOARTEKO EPAIMAHAIAREN EBAZPENA



# EMAKUMEEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EPAITEGIAREN EBAZPENA

## Viena +20, Euskal Herria 2013

---

Vienan duela 20 urte Giza Eskubideen Konferentzia egin zela eta, eta Estatu eta nazioarteko araudi guztiekin betez Viena+20 - Euskal Herria 2013, Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegiaren Epaimahaia Bilboko hirian osatu egin da 2013ko ekainaren 7an testigantza eman duten pertsona, aditu, fiskal, nazioarteko begirale, ohorezko gonbidatu eta erakunde deitzaileen aurrean; Juana Balmaseda Ripero, Line Bareiro Bobadilla, Mari Luz Esteban Galarza, Juan Hernández Zubizarreta, Teresa Meana Suárez, Luz Méndez Gutiérrez eta Cecilia Olea Mauleón-ek osatu dute epaimahaia.

Aurkeztutako zortzi kasuen testigantzak, ordezkatu eta lagundu dituzten erakunde feministak, hala nola adituen eta fiskalen txostenak audientzia publikoan entzun ondoren, eta salaketak, lekukotasunak eta eskaerak aztertu ostean,

### Aintzakotzat hartzen du

Mugarik Gabe eta euskal erakunde feministek susperturiko Auzitegi hau, Vienan, 1993an, emakume eta nesken eskubideen defentsarako ekindako auzitegi kate luzearen kate-maila bat dela; ikerketa, salaketa publikoa, gomendio eta proposamen prozesu parte-hartzaileak burutu dituen kate-maila.

Auzitegi honetan aurkeztutako zortzi kasuak menderatze kapitalista eta patriarkalaren barruan kokatzen direla, bere aspektu ekonomiko-finantzieroengatik ez ezik, aspektu politiko, ideologiko, kultural, kolonial, ingurumen eta komunikaziozkoengatik ere. Emakumeen kontrako indarkeria era espezifiko eta estrukturalan erreproduzitu eta sostengatzen duen sistema bat dela, genero eta indarkeria baliokideak egiten direlarik.

Sistemaren helburu nagusia etekinak eta hazkunde ekonomikoen maximizatzea dela, kontutan hartu gabe praktika sozial eta ekonomikoen azken helburua bizitzaren iraunkortasuna izan behar duela, eta honetarako baliabide material eta elkartasun testuinguru eta harremanak behar direla, hala nola elkarrekikotasuna eta zaintza, jasangarriak izango diren inguru sozial eta ingurumen batean.

Nazioarteko egoera honetan, inolako zigorrrik gabeko giza eskubideen urraketa ematen dela, emakumeak bereziki eta biziki eraginduz, zeinak euren eskubideen defentsan alde borrokatzeagatik kriminalizazioari aurre egin behar dioten.

Auzitegi honek, eskubide sexual eta erreproduktibo, zibil, ekonomiko, sozial, laboral, kultural eta bizitza libre eta indarkeriarik gabeko eskubideen aurkako urraketak antzeman dituela.

Modernitateak amatasunean sustaturiko feminitate-eredu hegemonikoa ezarri duela, emakumeen patu bakarra balitz, emakumeen desira eta plazer sexualen ukatzearekin lotuta eta eredu heterosexual hertsian sustatutakoa. Eredu hau erabat baliagarria egiten da gure jendartearentzako oinarriak diren hainbat dikotomia mantentzeko; produkzio eta erreproduzio sozial, esparru publiko eta pribatua, lana eta zaintza, arrazoi eta emozioa.

## Aitortzen du

Testigantza eman duten zortzien ausardia eta adorea:

María García Pérez (Nafarroa, Euskal Herria),  
María Teresa Rivera (San Salvador, El Salvador),  
Inés Arana (Donostia, Euskal Herria),  
María (Medellin, Antiokia, Kolonia),  
Oihana (Bilbo, Euskal Herria),  
Miren Atxa (Gipuzkoa, Euskal Herria)  
Hermelinda Claret Simón Diego (Barillas, Huehuetenango, Guatemala),  
Alejandra Castillo (Bartzelona, Katalunia).

Egia, justizia eta ordaintza eskaerekin solidarizatzen dela, antzeko injustiziak jasan dituzten emakume oroentzako ordaintza sinbolikoa izan daitekeelarik.

Emakumeen gorputzak eta lurraldeak desjabetu eta euren eskubideak zuzen-zuzenean erasotzen dituen sistema judizial eta politiko baten kontra emakume zein mugimendu feministaren parte-hartzea, erresistentzia, antolaketa eta mobilizazioa ordezkazezina deritzo.

## Salatu eta gaitzesten du

Iritzi publiko eta nazioarteko komunitatearen aurrean, giza eskubideen inguruko Nazioarteko Zuzenbidea eta barne Zuzenbide propioa ez betetzea; justiziara heltzeko oztopoen iraunkortasuna; Estatuak eta instituzio aldeaniztunek suspertu eta garaturiko justiziaren aurkako jarrera eta praktika politikoak, ekonomikak, ekoizleak, finantzarioak, sozialak eta sanitarioak.

Emakumeen eskubideen promulgazioa eta hauen erabilera eragozteko botere politikoa, judiziala eta Eliza Katolikoaren hierarkiaren arteko konplizitateak, batez ere **Espainiako Estatua** eta **El Salvadorreko** kasuak, gaitzesten du.

**Kolonbiako Estatua** gaitzesten du emakumeei indarkeriarik gabeko bizitza baterako eskubidea eta indarkeria sexualetik atera direnei egia, justizia eta konponketarako eskubidea ez bermatzeagatik. Gatazka armatua egoeran emakumeen aurkako indarkeria sexuala prebenitzeko neurri eraginkorrek hartzeko duen betebeharra ez betetzeagatik –erretorika normatibo eta politikoaz haraindi. Atera direnei zerbitzurik ez eskaintzeagatik eta egindako krimenak behar bezala ez ikertzeagatik, zigorgabetasun maila altuak ematen direlarik. Emakumeen aurkako kontrola eta berariazko indarkeria erabiltzen dituzten talde paramilitarren existentzia suspertu eta onartzeagatik.

**Espainiako Estatua** gaitzesten du bakoitzaren gorputzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea suspertuko duen heziketa bat ez eskaintzeagatik, hala nola sexualitate anitzera-ko, ez heterosexista ezta nahitaez genitala, segurua eta atsegingarria ez eskaintzeagatik; abortua delitua bihurtzeagatik eta berarekiko arretoa osasun sistema publikoan ez bermatzeagatik.

Justizia eta ordaina lortzeko aurretiko urratserako indarkeria matxistaren biktimak egia-ko –abusuen aitortpenerako– duten eskubidea bermatzeko duen betebeharra ez betetzeagatik. Justizia lortzeko bidean oztopo guztiak kentzeko duen betekizuna ez betetzeagatik,

abusuak salatzen dituzten emakumeenganako indarkeria erantsia erreproduzitu eta eraso-tzaileengandik defendatzen diren emakumeen aurkako zigorrak suspertzeagatik.

Tortura edo tratu txar polizial oro prebenitzeko, ikertzeko eta zigortzeko betekizuna ez betetzeagatik, eta batez ere Estatuaren agenteek eragin eta izaera matxistadun tortura fisiko, psikologiko eta sexualaren berariazko tratamenduari buruzko Nazio Batuetako Kontalariaren 2008ko gomendioa ez betetzeagatik.

Torturaren prebentziorako nazioarteko eta Europako erakundeen gomendioak ez betetzeagatik, eta atxiloketa-gune eta denbora "ilunak" mantentzeagatik, inkomunikazio erregimena bezala eta torturaren prebentziorako funtsezko babesen erabateko bermeen eza: inguruko pertsonen atxiloketaren informazioa, atxilotuak aukeratutako mediku baten azterketa eta bideoaz grabatzea itaunketa guztiak behar diren segurtasun-neurri guztiek.

Etxeko langileen lan harremana behar ez bezala, partzialki eta era diskriminatzailean arauzteagatik; mendekotasunari arreta eskaintzeko zerbitzu publiko nahikorik ez izateagatik; bizitza laborala, pertsonala eta familiarra, bizi baldintza duinetan bateratzeko aukera legez kontutan ez hartzeagatik; zaintzen lana eta zeregin erreproduktiboak aintzakotzat ez hartzeagatik, honek dakartzan eskubide sozial guztiek; emakume immigranteak behe-mailakotzat hartzen dituen atzerriartasun legedi bat indarrean jartzeagatik, zaintzen kate transnazionalaren kate-maila hauskorrenean jartzen dituelarik; emakumeen eskubideen aurretik eta bizitza iraunarazteko zeregin generikoen gaintik enpresek eta enplegu-emai-leek etekinak lortzeko euren interes ekonomiko eta enpresarialak jar ditzaten uzteagatik arautze legalaren bidez eta estruktura judicial eta administratiboaren bitartez.

Guatemalako Huehuetenangoko Barillas herrian kokatu eta giza eskubideak urratzen dituen "Ecoener Hidralia-Hidro Santacruz" enpresa politikoki, ekonomikoki eta diplomatikoki laguntzeagatik.

Epaimahai honek aztertu duen **etxeko langilearen enplegu-emaile** (eta honen seme-alabak) gaitzesten du legez kontra kontratatzeagatik; etxe langileen erregimenean indarrean diren lan baldintzak ez betetzeagatik; langilea xantaia egiteagatik eta presionatzeagatik eguneko, asteko eta urteko atsedenaldirik gabe bere lana egin dezan; gaixotasun baja eragin dion presio psikologiko eta emozionalarengatik; emakume immigranteek jasaten duten diskriminazio anitzean laguntzeagatik.

Merkataritza sektoreko "**Uvescaya S.L.**" enpresa gaitzesten du eguneroko bizitzaren gozamenaren per se eragozten dituzten merkataritza-ordutegiaren gehiegizko erabilerarengatik; bizitza familiar, pertsonal eta laboralaren bategiteari buruzko araudia urratzeagatik.

**Guatemalako Estatu** gaitzesten du "Ecoener Hidralia-Hidro Santacruz" enpresa Huehuetenangoko Barillasen kokatzen uzteagatik eta laguntzeagatik, han bizi den komunitatearen bizitza integrala aldatzeagatik eta ohiko bizibideak eta lehengaietara – batez ere ura eta lurra – indibidualki eta kolektiboki heltzeko duten eskubidea aldatzeagatik. Komunitateak bere lurraldeko lehengaien ustia ketaren aurka hartutako erabakia ez errespetatzeagatik, bizitza duinaren aurka egiten dutelako, OIT- Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmena urratuz.

Enpresaren erasoaren aurka emakumeen bizi baldintzak ez babesteagatik, euren lurretatik nahitaezko lekualdatze eta kentzeaz barne ez babesteagatik; enpresa ustiatzaileari laguntza

poliziala, militarra eta judiziala eskaintzeagatik enpresak bere helburuak bete ditzan, honek emakumeenganako erasoak eta mehatxuak ekarri ditu; euren lurraldearen defentsan antolatu eta borrokatzen duten emakumeen kriminalizazioa uzteagatik eta suspertzeagatik; komunitatean buru diren emakumeen aurkako bidegabeko prozesamenduengatik; emakumeen bizi baldintza duinen suntsiketaren laguntzeagatik, euren esparru kulturalaren barruan, hizkuntzarako eskubidea barne; emakume indigenen eskubideak babestuko dituen sistema judizialik ez izateagatik, eta babestu ordez egotzi egiten dituelako; komunitatean buru diren emakumeen parte-hartze politikoa gai politikoetan eta denonak diren kontuetan biziki erdeinatzeagatik, emakume hauen ausardia errepresioarekin zigortuz.

Kapital espainola duen **“Ecoener Hidralia-Hidro Santacruz” enpresa** gaitzesten du Guatemalako Huehuetenango Barillasko lurraldea okupatzeagatik; komunitatea hornitzen dituzten lehengaien harrapakatzeagatik, ura eta lurraldea kasu; zonaldeko emakumeak jazarri, segika ibili eta erasotzeagatik; lan baldintzak eraldatzeagatik, biztanleriaren osasun egoera larriagotu delarik; bertan bizi diren pertsonak euren lurra saltzera behartzeagatik; honek, nahitaezko lekualdatzea ekarri du, eta honetarako era guztietako eraso eta mehatxu erabili dituzte.

**El Salvadorreko Estatu** gaitzesten du abortua debekatzeagatik eta berau zigortzeagatik. Nazio Batuetako erakunde eta Giza Eskubideetako Sistema Interamerikarraren gomendio eta ohar guztien aurka; emakumeen bizitza eta osasuna arriskuan jartzeagatik; biztanleriaren osasun sexual eta erreproduktiboa bermatuko duen sistema publiko bat ez izateagatik; emakumeen aurkako Estatuaren indarkeria erabiltzeagatik abortuaren kriminalizazioa eta berme konstituzionalik gabeko zigorraren bidez, errugabetasun-presuntziorako eskubidea urratuz.

## **Estatuak eta Nazioarteko Erakundeak premiatzen ditu**

Unibertsalak, zatiezinak eta interdependenteak diren emakumeen giza eskubideak bermatzera eta eskubide hauek arautzen dituzten arauak manamenduz, hertsatuz eta era betearazlean betetzera, asmo-adierazpenez haraindi eginaz eta behar bezala finantzatua eta ebaluatutako politika eta neurrien bidez, non emakumeen erakundeak eta eragindutako emakumeak ere parte hartuko duten.

Giza eskubideak babestu eta behar den prozesua bermatzeko nazioarte eta eskualdeetako sistemak indartzera.

Merkatu eta inbertsioen arauen kontra giza eskubideekiko begirunea eta aitortza lehenestera.

Enpresa transnasionalek diharduten toki guztietan giza eskubideak betetzera behartuko dituzten arauak onartzera, arau hauek praktika Kode lotesleak hartuko dituzte; baita ere enpresa hauen legez kontrako praktikak epaitu eta zigortuko dituen nazioarteko epaitegi bat sortzera.

Nazioarteko tratatu lotesleak zaintzen dituzten Batzordeen ohar eta gomendioen arabera, indarrean diren esparru arauemaile eta politika publikoak eguneratzera.

Emakumeen eskubideak errespeta daitezzen behar diren bitarteko guztiak ezartzera, osasun sexual eta erreproduktiboan heziketa eta arreta bermatuz, hala nola metodo antisor-

gailuetara heltzea. Haurdunaldia eten nahi duten emakumeei etendura hori era seguruan eta doan egitera bermatzera, osasun sistema publikoaren beste zerbitzu bat bezala hartuz. Haurdunaldiaren edozein etendura boluntarioen despenalizazioa. Egun abortatzea-gatik zigortuta dauden emakumeen kasuak berraztertzea, hala nola arreta eman dieten osasun-langileen kasuak, denak aske utziz.

Estatuaren agenteak edo partikularrek emakumeen aurka egindako forma eta adierazpen guztietako indarkeria matxista oro berariaz zigortzera, tortura sexista barne, giza eskubideen urraketa larria, ohikoa eta estalia baita. Eta abusu eta hauste guztien aurrean Estatuak erantzukizuna har dezatela, eta prebentziorako, ikerketarako eta bortxa zigortzeko behar diren bitarteko guztiak ezarri ditzatela, hala nola biktima eta bizirik atera direnak ordainerako duten eskubidea izan dezaten.

## **Kolonbiako estatua premiatzen du**

Jazarpen eta indarkeria sexualaren biktimak izan diren emakumeak justiziara heltzea bermatuko duen politika publiko bat adierazi eta indarrean jartzera, honetarako behar diren baliabide guztiekin, monitoreo bitartekoekin eta betetzen denarekiko jarraipen eraginkorra. Aipaturiko politikak prebentziora bideratutako neurriak izan beharko lituzke, hala nola justizia sistema eragiten dituzten oztopoak kentzera.

Emakume eta biztanleriaren eskubideak bermatzera 'Autodefensas Unidas de Colombia' eta beste talde armatuen kontra.

## **Espainiako estatua premiatzen du**

Eskubide sexual eta erreproduktiboen kontuan nazioarteko arau, tratatu, itun eta konferentzia guztiak errespetatzera, hori dela eta, giza eskubideen kontuetan, Gobernuan den partiduak iragarritako abortuaren inguruko erreforma legalaren kontra.

Etxeko langileak Gizarte Segurantzaren Erregimen Nagusian sartzera, eskubide guztiekin, langabeziarako eskubidea barne; OIT-Lanaren Naziorteko Erakundearen 189. Hitzarmena berrestera eta aipaturiko hitzarmenaren babesean egindako gomendio guztiak betetzera. Hau da, kaleratzea kentzea uzteaz eta lan kontratua hasiera-hasieratik idatziz egitea, non lan baldintza guztiak adieraziko diren; ofiziozko ikuskaritzen esijentzia langileen lan baldintzak egiaztatzeko; enplegurako bulego publikoen bidezko kontratazioen kontrola.

Emakumeek egiten dituzten zaintza lanek, zeregin erreproduktiboei eta ordainduta-lanek kontsiderazio ekonomiko eta juridikoa izan ditzatela, honek dakarren babes sozial guztiarekin. Beharrak eta bizitzaren iraunkortasuna nagusiak izango diren bizi baldintzak bermatzeko bitzita laborala, pertsonala eta familiarra bategiteko neurriak berregin eta sendotzera. Mendekotasunarekiko arreta eta zaintzen lanak bermatzeko Administrazio publikoek zerbitzu publikoak euren gain hartzera; merkataritza-ordutegiaren askatasunerako xedapenen indargabetzea, eta kontsumismoaren suspertzearen kontra behar pertsonal eta familiarren arabera ordutegiaren kontrolaren hartzatzea.

Lan merkaturatu erreformatzeko neurriak, negoziazio kolektiboa eta kontratuen malgutasunerako arauak bertan behera botatzera.



## Guatemalako estatua premiatzen du

“Ecoener Hidralia-Hidro Santa Cruz” enpresa Barillasen kokatzearen ondorioz emakumeek jasan izan dituzten eraso eta jazarpenak ikertzera, zibilen eta militarren jarduerak barne, ondoriozko epaiketekin amaitzeko, errudunak zigortzeko bermeez eta izandako kalteen ordainaz.

169. Hitzarmenean eta Herri Indigenen Eskubideen Deklarazioan jasotzen diren Qanjobal herriaren eskubideak bere osotasunean errespetatzera; euren lehengaietarako eskubidea eta lehengai hauek inongo entitate pribaturi ez emateko eskubidea, eta bereziki “Ecoener Hidralia-Hidro Santa Cruz” enpresari egindako emakida bertan behera uztea, komunitateari egindako kalte ekonomikoak ordaintzeko exijentziarekin.

## El Salvadorreko estatua premiatzen du

Kode Penala eraldatzera nazioarte eta herrialde, tratatu, itun eta konferentzien akordioen arabera, abortua despenalizatuz. Eta Gobernuari, espresuki, gaiaren inguruko eztabaida publikoa eta zientifikoa suspertzera.

## Beraz, Epaitegi honek honakoa exijitzen du

María García Pérez-i (Nafarroa, Euskal Herria) moral eta ekonomikoki ordain diezaiotela Nafarroako Foru Erkidegoko zentro batean bere haurdunaldia eteteko aukerarik ez izateagatik.

María Teresa Rivera (San Salvador, El Salvador) anderearen kasua berriz azter dezatela, hasiera batean abortuaz eta ondoren haur-hilketat akusatua eta 40 urtera kartzela-zigorrrera kondenatua izan dena.

Inés Arana-ri (Donostia, Gipuzkoa, Euskal Herria) moral eta ekonomikoki ordain diezaiotela, bere erasotzailearen indarkeriaz defendatzeagatik ez baitu inolako deliturik bete.

Jazarpen, indarkeria sexuala eta derrigorrezko lekualdatzearen biktima izan den María (Medellin, Antiokia, Kolonbia) osoko ordaina izan dezala eta erantzuleak zigortuak izan daitezela.

Oihanak (Bilbo, Bizkaia, Euskal Herria) tortura poliziala jasan ondoren sartutako salaketaz ekindako kausa penalean ikerketa berriz ireki dezatela eta gertatutakoa zehatz-mehatz azter dezatela. Eta torturatua izan zenaren susmopean egindako izapide guztiak bertan behera gera daitezela.


Miren Atxa-k (Gipuzkoa, Euskal Herria), merkataritza sektoreko langileak, eskatutako ordutegian lanaldiaren murrizketa aitortu diezaiotela.

Hermelinda Claret Simon-i (Barillas, Huehuetenango, Guatemala) berma diezaiotela ordain integrala eta efektiboa. Bere komunitatearen erabakia errespetatua izan dadila. Krimenak zigortuak izan daitezela. Eta “Ecoener Hidralia-Hidro-Santa Cruz” enpresa Guatemalatik atera dadila.


Alejandra Castillo (Bartzelona, Katalunia) emakumearen egoera legala erregularizatu izan dadila eta honela edozein enplegutara heltzeko aukera izateko. Eta bere eskarmentu profesionala aitortua izan dadila.

Bilbon, 2013ko ekainak 8

## EPAIMAHAIA




Juana Balmaseda Ripero



Line Bareiro Bobadilla



Mari Luz Esteban Galarza




Juan Hernández Zubizarreta



Teresa Meana Suárez




Luz Méndez Gutiérrez



Cecilia Olea Mauleón


## BEHATZAILE INTERNAZIONALAK



Begoña Yebra Isasi  
*EITB*



Julia Hernández Valles  
*Ararteko*



Izaskun Landaida Larizgoitia  
*Emakunde*



Maribel Vaquero Montero  
*Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Herriarren partaidetzaren Batzordeko Lehendakaria*



Paloma Soria Montañez  
*Women's Link worldwide*



Mayra del Socorro Pineda Pérez  
*Xochilt Acatl*

## OHOREZKO GONBIDATUAK



Bizkaiko Etxeko Langileen  
Elkartea



Mujeres imperfectas  
de Bilbao



Auzolan eta Errekaldeko  
Laguntza psikosozialarako  
moduluak



Barakaldoko Emakumeentzako  
aholku-etxea - Argitan



Posada de los Abrazos



Basauriko Emakumeen Elkartea



Asun Casasola

# PARTE HARTZAILEAK



## TALDEAK

---

- Feministalde
- Hegoa
- Bilgune Feminista
- ELA
- Plazandreok
- Medicus Mundi Gipuzkoa
- Grupo feminista de desazkundea
- ESK
- Mujeres del Mundo
- Amnistia Internacional
- Paz con Dignidad-OMAL
- Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundea
- ESTE-EILAS
- Bizkaiko Emakumeen Asanblada
- Emakumeen Mundu Martxa
- CEAR Euskadi
- LAB
- Setem Hego Haizea
- Pikara Magazine
- Mugarik Gabe Nafarroa
- CCOO
- Emakume Internazionalistak
- Cooperacció
- Mugarik Gabe

## ADITUAK

---

- Justa Montero Corominas
- Rita Segato
- Mertxe Larrañaga Sarriegui

## KASUAK DOKUMENTATU ETA LAGUNDU DITUZTEN TALDEAK

---

- Mugarik Gabe Nafarroa
- Agrupación Ciudadana por la Despenalización del Aborto terapéutico, ético y eugenésico.
- Plazandreok
- Corporación para la Vida Mujeres que Crean
- Egari Zor
- ELA, LAB, CCOO, ESK, STEE-EILAS
- Asociación de Mujeres Aq'ab'al. Equipo de comunicación y análisis "La colibrí Zurda".
- Sindicato de trabajadoras del hogar y el cuidado (SINDIHOGAR/SINDILLAR)

## LEKUKOTASUNA EMATEN DUTEN EMAKUMEAK

---

- Maria García (fikziozko izena)
- María Teresa Rivera.
- Inés Arana (fikziozko izena)
- María (fikziozko izena)
- Beatriz Etxebarria
- Miren Atxa (fikziozko izena)
- Ix Q'eqkoj / Hermelinda Claret Simón Diego.
- Alejandra Castillo



## FISKALAK

---

- Marta Dolado Galindez
- María Naredo Molero
- Begoña Zabala González

## EPAIMAHAIKIDIAK

---

- Luz Méndez Gutiérrez
- Cecilia María Cristina Olea Mauleón
- Line Bareiro Bobadilla
- Mari Luz Esteban Galarza
- Teresa Meana Suárez
- Juan Hernández Zubizarreta
- Juana Balmaseda Ripero

## NAZIOARTEKO BEHAKETA

---

- Begoña Yebra Isasi,  
*EITB-ko kazetaria.*
- Julia Hernández Valles,  
*Arartekoaren albokoa eta Red de Defensorías de la Mujer-eko kidea.*
- Izaskun Landaida Larizgoitia,  
*Emakunde-ko zuzendaria.*
- Maribel Vaquero Montero,  
*Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herri-*  
*tarren Partaidetzaren Batzordeko lehendakaria*
- Paloma Soria Montañez,  
*Women's Link Worldwide-en abokatu seniorra*
- Mayra del Socorro Pineda Pérez,  
*Red de mujeres contra la violencia de Nicaragua-ko kidea eta Movimiento de Mujeres de Nicaragua-ko parte den Xochilt Acalt erakundearen sortzaile*

## OHOREZKO GONBIDATUAK

---

- Asun Casasola, *emakumeen eskubideen defentsaren aldeko aktibista, Nagore Laffage-ren ama.*
- Bizkaiko Etxe Langileen Elkartea.
- Argitan, Barakaldoko Emakumeen aholku etxea
- Posada de los abrazos
- Basauriko emakume Elkartea
- Malen Etxea.
- Bilboko Mujeres imperfectas
- Bilboko Laguntza psikosozialarako Moduluak (AuzoLan eta Errekalde)



Euskalherria 2013, Bilbao  
ekainak 7-8 junio  
TRIBUNAL DE DERECHOS DE LAS MUJERES





2013ko ekainaren 7 eta 8an Bilbon **Emakumeen Eskubideen Nazioarteko Auzitegia, Viena+20, Euskalherria** burutu zen. Auzitegi sinboliko hau elkarte eta gizarte mugimendu ezberdinen ahalegin bateratua izan zen. Desberdintasunek sortutako indarkeria matxistak ikusarazi zituen, hala nola emakumeen giza eskubideen urraketa Euskal Herriko, Espainiar Estatuko eta Latindar Amerikako testigantzak aurkeztuz.

Argitalpen honek adituek eta fiskalek emandako dokumentazio guztia biltzen du, euren testigantza eman zuten emakumeen kasuak, epaimahaiak eman zuen erabakia eta aurretik burututako dokumentuak; horrek kolektibo desberdinek emakumeen eskubideen defentsan abiapuntu bera izatea ahalbidetu zuen.

**ARGITARATZEN DU:**



**MUGARIK GABE**

Elka Meritxu Alzola eta Miren Alzola  
Elkarrekin mugimenduaren proiektu batzuk  
Bilbo, 2013